



# Ene artzain-etxolak

Emile Larre





**E**mile Larre Baigorri-Bastidan sortu zen, 1926 urteko Urtarrilaren 3-an, Belarrea baserrian.


Lehen ikasketak Urdoze bere auzoko eskolan eginik, Semenariora joan zen gero; eta lehen meza 1951-ko Ekainaren 29-an eman. Bere apez lanak Hazparnen, Urruñan, Aiherran, Irisarrin eta Donibane-Garazin egin ditu.

Euskaltzale gartsua izan da beti; eta 1975-an euskaltzain oso izendatua.

Hortaz gainera, hizlari, predikari, pilotari, bertsulari, kantu-egile, mendizale, *Herria* kasetaren zuzendari azken urte hauetan. Bai idazle saiaturia ere. Zenbat artikulatu osatu ote ditu, astekari horrentzat? Zenbat lan liturgia berria euskaratzen?

Orai, munduratu zenetik hirurogei ta hamabostgarren urtean, eta apeztu zenetik berrogei ta hamargarrenean, bere bizitza, bere autobiografia eskeintzen digu, euskara garbi, jator eta aberats batean idatzia.

47239  
CAS-129



EUSKALTZAINDA

Arabako Oinezkaria

**Emile Larre**

**Ene artzain-etxolak**

---

Auspoa Liburutegia

273



**AUSPOA**



**SENDIA**

---

**SENDIA ARGITALDARIA**

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax 943 49 35 48

[www.sendia.com](http://www.sendia.com)

[editorial@sendia.com](mailto:editorial@sendia.com)

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

**Emile Larre**

**Ene artzain-etxolak**

---

**Auspoa Liburutegia**  
**2001**

© SENDOA ARGITARALDIA

ISBN: 84-95378-37-X

Lege Gordailua: NA.: 1.007-2001

Imprimaketa: Gráficas Lizarra, S.A., Estella (Navarra)

# Aintzin-solas

---

**N**AFARROAKO bidetan gaindi baginoatzen, 2000-ko agorril hortan, Emile LARRE eta biak, Xabierren dagon Aita Antonio Zabala-ren ganat. HERRIA kasetari buruzko solasak ginauzkan nagusiki, nola ez, bata kasetaren zuzendaria izanki, denek dakizuen gidari suharra, eta bertzea, nihaur, kasetaren langile xoilak. Solasean ari, bainan inguramen xoragarriari atxikiz haatik begia, Ibañetatik harat, Aezkoako pagadi eta harizti ederretan bai eta Agoizko ibar pollitean gaindi, Zangotzalderainoko ibilaldi hortan. Orduan zaitan aipatu Emile-k, argitaratuko zuen liburu berri baten xedea.

Eta hara liburu berri hori eskutan daukagula, mamitsu, loretsu. Nork ez du ezagutzen Emile LARRE apeza, euskaltzaina, pilotazalea, bertsuzalea, kantu egilea, idazlea!... Gutik ezagutzen dukete haatik Baigorri-Bastidako Emile putiko ernea, orain dela 65-70 urte adin bertsuko lagunekin Oihamileko bixkarrean gaindi basa-marrubiketa eta pika-kafiren mian zabilan muttiko koxkorra, edo Amooxiloko erreka zolan trebatua zen eskuz-arraintzari goiztiarra.

Bigarren gerla handiko urte beltzak ez ziren oraino jinnak. Eta loriaturik segitzen ditugu Bastida-Belarreko semearen eta hunen lagunen urratsak, *“pottoka hezgaitz aire batekin”* bazoatzila Urdozeko eskolarat, *“harri korkoilezko bide txar estreketan gaindi”*. Eta hara bagabiltzala gu ere, tokien eta jendeen ezagutza eginez, auzoz-auzo: Bastida, Urdoze, Eiheralde, Haitzalde, Otikoren eta bertze...

Haitzalde aipatzearekin, oroitzapen bat heldu zait gogorra. Bada Haitzalden leize bat, liburu huntan aipatuak zaizkigun meazilo horien inguruetan nunbeit, barne-bide luzetto bat



daukana. Duela hamabost bat urte, adixkide zonbeitek deli-beratu ginuen lurpeko hertze ilun horren ikertzea, Baigorriko *Leizemendi* elkarteko arduradun pare batek gidaturik. Hara beraz lerro-lerro bagoatzila barne ilun hortara, lohian herrestaka lehenik, hain ziren tokiak hertxi eta apal. Eta aski laster, “gutun-untzia” deitu ateka gaixto bat, hertxi-hertxia, ahal bezala iragan ginuena. Bi orenez ibilirik sabel bihurdikatu hortan gaindi, kanporatekoan hara berriz gutun-untzi kiskil hortan gaudela. Orduan bai hasperen ta zinkurin! Ni bezalako mehaxkek hein bat errexxi iragan ginuen ateka tzar hori. Baginuen haatik gurekin adixkide bat, espaldez eta papoz aski gotorra, Erramun pilotaria. Eta hau kokaturik gelditu gutun-untzian, hatsa gero-ta laburrago, izerdia kopetan behera zurrur, batek tira, bertzeak pusa, nihundik ezin aintzina! Azkenean, nolazpeit ateratu ginen kenka txar hortarik. Ah! Zer atsegina kanpoko airea berriz jastatu ginuelarik. Hor ginen denak, aurpegia lohiz belztua bainan uros. Eta zer xoramena Larla eta Iparlako mendi zola horiek behakoz berriz besarkatu ginituelarik!

Xoramaren berean gaude liburu hunekin. Entzuten ditugula arrabots bereziak, Haitzaldeko bide xaharrearantz orga hutsek egiten dutelarik “*hango harri kiskola artean kirrink eta kurrunk*”... Usnatzen ditugula urtaro desberdinetako usain gozoak, belar epaile, ogi-joite edo iratze pikatze garaietakoak, “*etxeko zerriak larreetan laxoan kurka-kurka*” doazilarik... Ikusten ditugula, iluntxearekin, Amooxiloko errekararen zoko beltzetan mamu beldurgarriak desagertzen, kantuz orroaz heietarik hurbiltzearekin... Gure bihotza kantari doa Miel eskalapoin egileari edo Joanes urde hiltzaleari so.

Auzo-herrietara eramaiten gaitu ere idazleak, Donibane Garaziko merkatura, Arrosara, Irisarrira eta Bidarrira... herri hunentzat amodio berezi bat daukala, herri hortan bizitzeko xantza dugun guziek bezala, funtsean! “*Omone oneko arraiak zirela bai, raiteraterai Bidarraitar gaztea, bai eta zaharrak ere*”.

Eta, artzaina mendiari goiti doan bezala, Belarreko semea ere bidean aintzina doa, apezgorako bidean, hoinbertze

ta hoinbertze lagun aurkituz, apezte urrats handi hartaraino. Eta ondotik, apez lanetan, herriz herri. Artetik ikusten dugula euskaltzalea xutitzen, euskaltzain izan artino, bertsu, kantu, pilota eta guziekin, Herria astekariaren ardura ere goraki eramanez.

*“Hainbertze urtez. iguzki, ekaitz, pasatu ditut ederrak,  
Haur denboratik egungoraino kurritu ere bazterrak”.*

1926-etik hунat. 20. mende hori bisitatzen dugu, urratsez-urrats, herri hunen itxur-aldatze guziekin. Emile LARRE adixkidearen bizian bidai guziz interesgarria. Denboran zehar bidai erakasgarria. Gure hizkuntza ederrean ere bidai aberatsa. Euskara batua oraino gureganatua ez dugun garai huntan, Baigorriko euskaran gehien bat zaiku mintzo idazlea, eta ere zabalagoki baxenabar-lapurtarrez, euskara garbi iturri hortarik sekula baino gehiago edatearen beharra badugularik.

Liburu huntako ixtorio eta harat-hunatekin gustatuko zira, irakurle, zinez gustatuko. Baita ere orrialdeetan zehar erabiliak diren esaldi eta irudi xaramelatsuekin, gure beharriak euskal hitzen musika bereziaz agradaturik daudela. Oxobiren hitz pollit hauek heldu zaizkit gogorat:

*Erreka batera jauzika doan ur garbiaren kantua  
argitzen, hazten, betetzen ditu gure gogobihotzak...*

*Zuhaitz gaineko xori papo gorriaren musikak  
xoratzen ditu bazterrak...*

*Ur-xirriparen kantuez eta xoriñoen eresiez  
bertzerik da Euskara, miletan eta miletan aberatsagoa,  
ederragoa, ezin ordaindua. Euskara, gure gogobihotzen kantua.*

Gure hizkuntza maiteak hain ederki aberastua duen Bastida-Belarreko ur-turrusta hortarik hurrupaka edaten dugu, iturri horren inguruak argazkiz eta bertszuz alegeraki apainduak zaizkigularik.

*Peio Jorajuria*

# Oihamileko hegia

---

**O**IHAMILE erraiten ginion, Urdozeko bidean zen lehen bixkar horri bainan lehenago ez ote zen izan hau xuxenez Oihanbide ? Gure etxe gibeletik goraxago hartzen zinnuen bide kurutzean ezkerrerat. Hazinda zenbaitekilako gibelondoan bazinen, bota harri koxkor bat kabalen aintzineran, eta berek hartuko zuten Berraariko estreka alderat.

Igande goiza balinbazen, zazpiak alde hori, ernatzeko erranen zuen amak, Iribarrengo Mari joana zela elizarat buruz, hura baitzen beti lehena bere urrats xehearekin, mantalina beltza ahur batean plegatua eta liburu arrosarioak bestean.

Alta Olhagako lehen auzoak ere ari ziren hantxetan xeheleitarik ateratzen, xaharrak aintzinean eta besteak ez urrun. Etxean utzia zuten bi auzoek atezaina, Iribarrengoek Frantxiko, hau bere adin haundian ez baitzen gehiago ateratzen ere, eta Olhagakoek xakurra. Azken auzo hortan, Mañixek ere hor zituen urteak, bainan oraino xut ibilki gizona eta baliu zuen ateraldietako, bere galtza beltz, marra xuridunak ezarririk abiatzen zelarik eta barneko beso-motxa arinagoz emana.

Haurrak aintzinean joaiten ziren, amak aski goiz prestatu-rik. Behar ere, funtsean, behar baitzituzten, errepikatuz, gogoan freskatu, katiximako hiru galde hek eta otoitz labur-  
rak, apezak galdeginen zituzkeenak, sarri, meza ondoko ka-  
tixima laburrean.

Holaxe doatzilarik batzu eta besteak, Elixagako estre-  
katik aterako zaizkote, Belarreko eta Berraburukoen gainera,  
Ospitaleko eta Uhideko haurrak. Geroxago, Oihamileko he-  
gian, junt egingen dute gainetik heldu direnekin, Otsobikoek

eta Berrokoek. Buxtintokoak ere hortik zitazkeen, denbora batez, beren xoko hartarik jinik, bainan hango haurrak haundituak dira aspaldi huntan. Berdin du balio, berdin goxoak eta haurkinak baitira etxe hortako jende onak.

Haurkinak erran duta ? Ohar zaite, irakurlea, noizko denboraz ari giren, eta zoin urrun giren hor egungotik : duela 60, 70 urtekoan girela hemen. Orduan ere haurra haur izana gatik, elgarri hurbilago bizi ziren gizaldiak beren zahar-gazteetan dituzten bi edo hiru munduen artean. Lehenik elgarri hurbilago ziren mintzairaz : euskara hutsezkoa zen orduko mintzoa eta solasa. Gazteetan ere zaharretan bezala, beraz elgarren artean halaber. Bestalde, elgarren solasgaiak ez ginituen batere arrotzak gazte ala xaharrek, edo arras guti. Gisa hortan, gauza berez mintza ginitazkeen elgarrekin. Holaxe, gure eskolako eta katiximako gauzez ariko zitzaizkun jende helduak, nola pasatu zen errientsarekin, edo apezarekin kati-ximan : hango leitzoneak, notak, punizione edo gaztiguak, eta amak zer erran zuen, edo aitak. Eta nor izan zen Oihamilen edo Garbalton, gerezietan ?

Hor bai, bazakitela gezurretik egia ateratzen begi-luze batzuek, ttipiño batek salatuko baitzituen jestu gutiz bereak eta beste batzuenak. Haundixagotzearekin zen orduan ere ikasten, ez dela pollit salatari-malatari artzea xaharrekin.

# Mahuri eta kañika

---

**D**AMURIK, ez baita beti Bazko. Ez-eta igandea ere: guk Oihamileko hegian hunat, zahar eta gazte nahaste, mezatik gibelerakoan igaiten ginuen hura. Biharamunean, as-telehena, beste soinu bat zen. Eskola egunean eskola solas. Eta lehenik, bizkarra kargatua, nahiz ez ginuen orduan oraiko haurren liburuketarik.

Guk oihalezko zakuño bat aski ginuen, etxeko estofa xahar arruntez josia, eta amak astirik ez zuenean Karrikako Mañaña ekar-arazten zuen etxez-etxeko dendari lanetarat. Zakuaren barnean arbela edo lapitz-taula beltza, bere luma-etxe arkatz eta gomendako. Halere, bi artikuluak elgarrekin ez nahasteko, eskolakoak eta jatekoak, izaiten ginuen bigarren zakuñoa ere, hau beti oihalezkoa eta ez larruzkoa. Jatekoari ere pentsatu behar ttipiskoak ginen hartan: eguerdiko jateko hotza behar zen ereman, eskolaren auzoko etxe batean bero-arazteko bakotxak bere haurtura edo kurutzamendu arau: guk Urdoz-Karrikan ginuen gure borta, Uhidekoek Etxezaharrean, Manexenekoek Etxebertzean, beste batzuek Idiardean, Etxeberrian edo Jauregian.

Hor nintzeno, aipatu behar nuen pilota ere: hau ez ginuen ahantziko zakuan ezartzea. Eta, erran dezadan zertako arizan naizen mahuri eta kañika solas, klartu behar dut lehenik: mahuri horiena. Norbaitek erran daut ez dela hola erraiten baina marrubiak edo arregak, bainan guk mahuriak ditugu horiek gure Bastida eta Urdozko euskaran. Batzu ala besteak, marrubiak eta kañikak, horiek izanen ginituen gure eskolako bide hartako galgarri edo ahusagailuak, joaiten ginearik Latxetako erreka bazterretan edo Otsobiko mahastiaren zola hartan basa-marrubiketa edo, haratxago, kañiketa parti-

da batetara, oro ahantzirik. Kañiketan artze hura ez zen alde batekoa baina sasoika lotzen zitzaigun, batere potretarik gabe, gaitz hori, eta hala-hala sendatuko zen, bat-batean beste batek ahantzirik. Horiek ziren gure eskolako bideko jostetak, hor berean bailitake liburu baten egitekoa beihalakoak zion bezala.

Hala zen-eta: Oihamileko hegian beheiti, eskolartekoan, baginituen, hola ere erran ditake, bospasei bide mota, hea nolakoa zen eguna, aroa, presa-ordua edo bat-bateko tirria. Ez zela orduan errebide legundu eta oski dirdiradunik. Aspal-diko harri plegatuzko galtzara larri bat bai, orai osoki urratua dena geroztik. Jainkoak daki noizkoak ziren galtzara horiek, orai ez baita gelditzen harri korkoila legundurik baizik, harat eta hunat orgek eta kabalek itzulikatuak, elgarri kisk eta kosk, eta ondarrekotz pilota bezala borobilduak.

Salburik hau, ahanzten nuena: gure aita-osebek, eta are gehiago gure aitatziek, egiten zituzten beren denboran bide-egiteak: hunenbeste egun sartu behar zuen etxe bakoitzak aintzur eta palarekin. Legarra han berean baitzuten, kitorik, Oihamileko ukondo hartako lurrean, karreuzua edo garraioa bederen merkea zuketan gain-beheiti bainan bere txarra ere bazuen malda-patar horrek: bidea ontsa aserik eta berdindurik ezarri orduko, gerta baitzitakeen lehen orzantz uharrak denak ikuztea, berekin beheiti eremanez legar berria.

Guk, haurrek, ez ginuen axolarik. Gehiago begi baginuen ba, maiatzetik goiti agerturik gorritzen hasiko ziren marrubi heientzat zoin lehenka joanik gorrituenen biltzerat. Eskolartekoan erran dut: orduan larderia eta beldurra nagusi, ez baitzen berantegi heldu behar, utziko ginituen goizean begiztatu gorriñoak aratsaldeko. Aratsaldean, ekaineko eguna luze dela, jo lehenik kañiketan marrubiak baino lehen Etxebertzeko eta Etxezaharreko pentzeen buruko bide ordoki zuzenean. Bi sistema baginituen kañiketan: triangelukoa edo pokean, ni lehenean nagusi, aldiz Ospitaleko Bettik, hura bi urte edo hola zaharragoa, karkulaz eta denez, harek errausten ninduen eta nik irabaziak oro bereganatzen pokean. Erdi-tturrindurik, arinago nintzan orduan goizean ikusi marrubien biltzeko Bustintoko zerrandei-peko estrekan.


Berriz Oihamileko hegi gaineratzearekin, berotuak eta ozenduak ziren gure erasia eta kalapitak eta jakizue urrun girela eskola-solasetarik. Nor zen bada oroit, handik oro entzuten zirela Bastidako etxeetaraino. Eta ez zagoena han ama, goizean errana baitzuen bere gomendioetan: «Jinen zirezte etxerat segidan eskola finituz geroz; aitak errana baitu behar dela joan, bat urte-antxien alhatzerat, eta bestea Gastialeporat, bordako behien edanarazterat».

Hain zuzen, baginuen, Usteleiko lepoan gora joan-eta, bordako pentzea bere aterbe ederrarekin bainan urik ez barnean: han ezartzen ginituen behi antzuak eta miga gazte batzu udan bainan urerat eremaitea gure gain sasoi hartan. Aratsetan behar ginuen joan batek, edo bi haur gazte, Usteleiko iturrian behien urez asetzerat.

Guk beraz haradino joan behar, oren baten bidea hurbil bazen haur urrats, eta gu holako gostuan kañiketan ahantziak! Iguzkia ere apaltzerat emana jadanik. Beharrik baiginuen etxean amaren funtsa! Behin edo bertze abiatu da hau, Oihamileko hegiko kalapita hartara, zaharoa eskuan. Guk urrunerat ohartzea aski ginuen ba, ez baitzuen amak zaharoaren baliatzeko lanik izanen: lekuratzen zirela orduan oro eta jabaltzen gure oihiak eta auziak, gure kañikak bi ahurrez han be-rean bilduz edo bere gisa utziz ere batzuetan, azken beltzean. Zer inporta zuten orduan kañikek eta kalapitek! Ai gure etxetako ama funtsezkoen balioa! Gizonak han zirelarik alorrean, mahastian edo pentzean, amak baitzaukan bere ama lanen gainerat, haurren funtsa eta griña etxe inguruko egitekoetan eta gibelondoetan. Bainan nik hemen ezartzen dutalarik aspaldiko egoera idatzirik eta gogoeta hauk orobat, duda batek hartzen nau: konprenituko nautea oraiko haurrek, konprenituko nautea oraiko ama gazteek? Gehiago dena, sinetsiko ote naute bederen? Alta holakoak ziren denbora hek. Eta hola eginak eta haziak gaituzte gu.

Beretik joanez aintzina, erraiterat ekarria naiz holakoa izan dela euskal ama ainitzen lekua laborari-etxeetan, eta amaren itzal harrigarria, familia guziak, haundi ta ttipi, zermatzan lanetan. Larderia askirekin behar-orduan. Gauza asko

aldu da geroztik eta ikasi ere da ez dela hezkuntzaren gider bakarra larderia, sekulan hala izan bada ere. Den bezala, ekarri ditu bere fruituak lehengo harek ere, sailduak eta oro. Nola zuen xuxen erraiten Oztibarreko Mixelek, bere Garakotxe-ko ama eskertuz: «Zinez, ukan dudana ama ez balitz hor izan, ze gaixtagin-gaia nintzatekeen ni!»



Hiru anaiak eta Aurelie lehen kusia.



# Eskolarat

---

**B**IDEA aipatu baitugu, goazen beraz eskolarat. Bost urte-tan abiatzen ginen denbora hartan. Sei edo zazpi bildu dituzte haatik zenbaitek: etxea urrunegi, legeak laxoago, haurra ez oraino aski azkartua, izan zitakeen ainitz arrazoin.

Guk, Baigorriin, aski suerte ona ukan ginuen. Bazituen herriak, bere karrikako edo plazako eskola haundia lehenik, Etxauzko plaza hartan, gero Germietako eskola eta Urdozko eskola, hau gurea. Belexin ere egin zitekeen beste bat, han ziren bi auzoguneentzat, Belexi eta Oihansoro, eta zer familiak! Bainan Bankako baitzen Oihansoro eta Banka Baigorri baino hurbilago izanki, hortan zitazkeen gabe gelditu.

Baigorriko herria, izana gatik hori ene herria, ez ginaukan ez, guk bastidarrek bederen, osoki gurea. Ez dut sekulan entzun edo erran etxetik abiatzean: «Banoa karrikarat, edo plazarat, edo herrirat». Beti erraiten ginuen: «Baigorrirat», edo «Baigorriin izana», «Baigorriin eresia», beste herri bat, kasik auzokoa bezala, ginaukan Baigorri.

Haatik, Urdozko eskola aipatu baitut, ez zen Urdoze ere osoki gurea. Gu, bastidarrak. Bastida zen gure auzogunea, gure kartiera, bere hamar bat etxeekin eta beste zenbaitek berek hauta alde bat edo bestea. Ez da errex, funtsean, kartier edo auzogunean mugatzea, horiek ez baitute nortasun ofizialik herriko administrazio paperetan.

Beraz gu, Urdozeko eskolarakoak ginen: Urdoze, Bastida, Haitzalde, Bidaurrehere eta Auzottipi; bestalde, Jarako-Errekaren harrobiko alde hori eta Eiheraldeko zenbait etxe ere ikusi izan dira Urdozeri lotzen noiz edo noiz beren gustura, eskolaz, plazaz eta kurutzamenduz. Badugu segur, iparral-

deko Euskal herri huntan, horiek oro batean baino herri tti-piagorik. Ez da beraz batere harrigarri, bere balio eta garrantzia pollita baitzuen gure denboran Urdozko eskolak. Ondorio hau bederen izan zen: ez dela sekulan izan Urdozko eskola, eskola ahantzi hetarik, errientak urtean behin, bietan ez bazen, aldatzen ziren hetarik. Urdozko eskolan beti izana da erakasle zerbitzu ona eta gure denborakotz bost urtetan abiatu ginen eskolarat. Erran behar da ordu hetan guardak ere bazirela Urdozen, eta hauen emazteak direla errientsa gertatu zenbait aldiz.

Halere, urgulutan sar ez gaiten, aitortu behar dut eroria dela orai horko eskola besteen mailerat, erran nahi baitut ez dela eskolarik batere gehiago Urdozen; hetsia baita eta saldua ere eskoletxea, denbora batez berrogei ta zenbait eskolier ukan zituen, orai familia baten egoitza bilakatzeko lehengo itxuran.

Nork erranen zuen? Urdozko plaza inguru ederra eskolak, elizak, Jauregiak, Etxezaharreak eta Idiarteak mugatzen zuten, eta hor zituen eskolak, bere nortasunaren seinale, leiho gorri haundiak, ikasketa barne ederra salatzen zutela, eta klaseen gainean errientsaren egoitza pollita. Horrek denak eskoletxeari goratasun bat emaiten zion.

Bazaukan eskoletxeak, holako guziek bezala, haurren jostalekua. Arras berezia zen hau bere mahats treilarekin. Hau Idiarateko Michel zenak apaintzen zuen gu eskolan ginabiltzan denboran. Lau besotako mahats kurutzatua, gora moztua, haurrak ttipi hartan azpitik ibiltzeko gisan, ez dakit batere nola errespetatzen ginuen guk haurrek makurrik egin gabe. Dakidana da jende prestuak zirela Michel eta Idiaratekoak eta ez dut egundainoko eztabada oroitzapenik. Bederen abantail hau bazen: ez ginuela eskolarik mahatsa ontzen ari zen denboran eta gu ginen xoriak urrian eskolaratu orduko, Idiarateko etxe-ko «xoriek» egina izaiten zutela han behar zena, mahatsak bilduak izaiten baitziren. Orduz geroz, itzultzen ahal ziren haurrak beren ikastegirat lanjerrik gabe: errana den bezala, «ikusten ez duen begiak ez duela nigarrrik egiten».

Horra nolakoa zen gure eskola. Errientsa, andere bat, andere Ezponda bipila bainan prestua, eta erakasle arraroa, Urdozko guarda baten emaztea, zuberotarra zen, biarnes muga horietakoa, ez dugu euskaraz hanbat entzun, salbu hitz bakar batzu gure ait'amekin, etxerat heldu zelarik. Senarra bai euskaldun garbia zen, funtsean el'aire zuen hunek tokiko jende guzia eta etzituen bere mus partidak hutsegiten ostatuan, izana gatik ere kontrabandista «purifikatua», erraiten zen bezala, bere laguna edo partida. Bainan ez direa bi lerrotan dauden gauzak, aferak eta lagunartea? Bat gauazko eta bestea egunazko. Andere Ezponda aldiz, gure etxeraino jiten ikusten ginuelarik, bi sendimenduren artean zagon borrokan gure bihotza: lehena sendimendu ona, konfiantza eta segurtamenezkoa, nolazbait ere, bigarrena aldiz, halaxe-holaxe: «zer erraiten ote dute?» Eskolako goraberez, bixtan dena.

Andere Ezponda, ene adin bereko seme bat ere bazaukana, Dominique, eta Madrilen gaindika higatu dena bere kargutan, andere Ezponda hori, beraz, joan zen erretretarat, bere denbora beterik. Ordaina andere gazte luze bat, jin zen, Camille Ligey Baionesa, errientsa ona hau ere, alta gaztea zelarik eta ainitz zor diogu Guillaume, Justin, Henri, Xan, Betti, eta guziek, mutikoak baizik ez aipatzeko. Gazte eta ederra, lekuko mutiko gazteeri kausitua zukeen, hauk orduan zuten begiarekin. Gu aldiz haurrak eta maleziarik ez, erran zaukuten gazteek, hauxe erran ginezon andereño eder horri (hunek euskarik ez jakin): «Mademoiselle Camille, vous êtes une belle fille!» Eta guk erran. Ez nik, ez, baina baziren orduan ni baino atrebituagoak horren erraiteko Urdozko eskolan. Handik hogeita-hamar urte baino gehiago iragan ondolan ikusi dut andere Camille, Baionatik hurbil bisita eginik, esker onetan, Blancpignonen zaukan bere eskolan.



Aita eta ama



Bidarteko aitatxi amatxiak eta Amede.

# Han heziko hute

---

**S**AR gaiten barnaxago ene Urdozko eskolarat. Eskolarat eta Urdozerat. Ezagutzen nuen Urdoze, Bastidako mahasti bixkarretarik ikusten nuen hura: lehenik, eta orotaz gorago, Jauregia, laukarako jaunen etxea, izenak dion bezala. Aspaldiko jauregi zahar hori, bere jabe duen familiarekin, estatu ederrean dago bere adinean.

Etxe gotorra beraz. Bazauzkan bere aterbean bospasei bizitegi: Jauregiko nausiena lehenik, sartu-ta ezkerreko partean. Nausiak izana gatik horgoak orai, ez dute batere afruntu hartuko erraiten badut herriko familia bat direla berak ere besteak iduria eta laborariak Hargain tarrak. Jauregi horren beste alderdiak betetzen zituztenak, gure eskolako denboran, guarden familiak ziren. Beherean haatik, sartu-ta eskuinetik, hor zagon guarden bulegoa. Aipatzeak berak oroit-arazten daut barne hartako hats tapadura; han lerrokatuak zauden papereria zahartu heiena, eta denen gainerat han erretzen ziren tabakoen bafada.

Huna nola ezagutzen nuen barne hura: harat joan behar-tzen ginen gu, haurrak, aitik edo amak igorriarik eskolarkoan, etxeko hazinden gaiez. Guardek zauzkaten gure ardi, behi, zerrien konduak beren papererian, ez batere gure laguntzea gatik bainan gure zaintzeko, kontrabanda ixtorio. Han zen, akita deitzen zuten dokumentuan, gure etxeetako kabal-jabetasuna xuxen ekarria. Bat saltzen bazinuen norbaiti, edo beste bat hiltzen bazen, behar zinuen kofesatu, zer egin zinuen hartaz edo zer bilakatua zen. Eta merkaturat ereman behar zinuelarik, saltzeko, behar zinuen harateko pasabana, edo ageria bideko, norat zineraman. Saldu ondoan, deklaratu saldua zela, eta ken, bat gutiago, akitetik. Horra zer behar zi-

ren izan, elizaren auzo auzoan, zure aitormenak, guarden kofesategian, zu balinbazinen orduko etxeko nausi bat.

Jauregiak eta Eskolak Eliza zuten beraz, bien arteko auzoa. Auzoa ere baino gehiago, Jauregiarena izana denaz geroz eta harekin batean egina eliza. Aipatuko dugu bere tenorean hau. Goazen egungotz eskolarat.

Eskolarat joan beharko dela ikasten dute haurrek ttipititik. Hori egia zen ordukotz bainan ez dira berdinak orduko eta oraiko eskolak. Orain amaren altzotik eta ama-eskolako anderearen altzorat doa, kasik zuzen zuzena, haurra. Orduan, guti ateratuak edo baterez, pottoka hezgaitz aire batekin ginen eskolan sartzen, guritzeko eta eztitzeko nolazbait: etxean ez ginelarik ontsa gobernatzen, entzun izan dugu nork edo nork, mutikoek bereziki: «Ikusiko duk ondoko egunetan, eskolarat joan beharko dukalarik, han beharko baituk besteek erranaren egiten ikasi, han, han heziko hute». Bazen alabainan makila ere eskolan orduan, funtsean, etxean zaharoa bezala.

Eta zer efetu zutela uste duzue gutan holako ateraldiek? Hau eta hau lehenik: harriturik joaiten ginela eskolarat hastean. Uste dut bi etsenplu hau aski izanen ditudala irakurlearen argitzeko. Bat ene ondoko anaiarena eta bestea neurea.

Anaia Janpier ez ginuen berez bihurria: etxean haurretik kabalak maite zituen eta gogotik zozan heien ondotik. Erran dezaket su zuela ere etxeko ala auzoetako hazindetarat: joareak entzun orduko, sukaldetik, jateko denboran berdin, behar zuen zantzez jauzi egin leihorat edo korraleko aska hegirat, izan ziten Iribarrengo behiak ala Ospitaleko ardi ernariak. Eskolarekin bestela izan zen lehen egunetan. Bi anaiak elgarrekin joanak bidean, ni hirugarren urtez, zertako behar ginuen han berexi, zukeen pentsatu Janpierrekin. Deitu zueneko andereak aintzin hartako taula beltzerat, edo, berdin, bere bullego gainerat, irakurtzearen egiteko, gogor zagon hura bere ezean, hainbertzetaraino nun tiraka ere ez baitzuen nehork mugituko bere alkiarekin baizik. Ondarrekotz, ene gain ezartzen zuen andereak anaia tipiaren balakatzea eta hortarik hasi ginen gure pottokaren hezten eskolan.

Bat bainintzan ni ere, horra orai neurea, beste ainitzen artetik hartua. Egun batez, sei urte nituzkeen ordukotz, ala bost ote oraino? eskolan sartu nintzan lagunekin, laneko tresnak mahi gainerat atera, eta futxo, nik arbelaren gainean idazteko arkatza falta (hau «le crayon» erraiten ikasia nuen doi doia), hura ere eskolako lehen tresna, hain xuxen etxean ahantzia nuena. Ez nuen holako putzik salatu, nik eta nik nuen ateka txar hortarik aterabidea aurkitu behar. Beha behaka egon nintzan ene ingururat, bereziki anderea zagon aintzin hartarat, heian ikusten ninduen ala ez; ixil ixilik utzi nuen ororen deiaren egitera bana-banaka, ene izenean «présent» erran, ikasia nuen bezala... Eta orduan, nehork so egiten etzaidan artean, brixtez, ez nintzana burua apalka ateratu eskolatik ateraino eta handikan kanporat!

Kanpoko aire freskoa senditu nueneko, horra bai libertatearen hats mehe-meheñoa. Ez dakit nehor aurkitu nuen ala ez plazan edo bidean. Bai haatik zalu lekuak hustu nituela, Ilimindiko aintzinean beheiti, eta Latxetan barna patarrez patar Bastida bixkarrerat buruz. Han ere erne egin nituen etxeko aldiak: polliki, polliki, ezkaratzeko borta zaharra kraskarazi gabe, ama ganbaren egiten ari zen artean, sukalde xokotik arkatza sakelaratu bildu, sagua bezain ixil jokatu, eta jo berriz lasterrari eskolako bidetik beste alderat laster eta laster.

Ez nintzan gehiago Oihamile eta Latxetako estrekatik joan gain-beheitikoan bainan bai, laburzkan, Uhideko mahastietarik, han ez baitzen harririk, eta Urdozko errekan harat Etxebertzeko etxe ondorat bazterrez axolatu gabe atera!

Orduan haste xintximariak: hantxet ikusi nituen eskolako bi neska haundienak, Graxiena eta Kattin, Etxebertzetik ateratzen ari ene bila ibili ondoan, ez nindutenetz ikusi; beste biga, Paxkalin eta beste Kattin, Idiarteko eta Etxezaharreko bortetan, hango Kattina etxekanderearekin, Camille anderea azkenik, hau berriz elizatik eta Jauregira zabilala aska haundien aintzinean, eta gogoan dut hunen dei ozena, atzo balitz bezala: «Mais Emile, où étais-tu?» Hein hori ulertzen nik halere, ordukotz polliki ikasten hasia nuen frantsesetik !

Ez dut gehiagoko oroitzapenik ixtorio hortaz. Bai haatik ona izan zitakeela errientsa egun hartan enekin, hain zuen

ikustekoa berak ere ez ginela denbora hartan hezia-prestak ez ni eta ez anaia, ez baiginen gu ere bihurriak, ginituen familiariekin. Bakarrik, etxeko hezkuntzak eta eskolakoak zuten elgarrekin ezkontzearen beharra. Eskolakoa ona zen bainan ez txarra batere etxekoa ere bere gisan. Hain da egia biek dutela haur beraren ona bilatzen eta, hortako, biek elgarrekin mintzatzearen eta konpontzearen beharra. Bakar bakarrik huntan zuten bien arteko hozka haundia: gure ait'amek elgar konprentitzen zuten ederki baigorriar apez eta erakasleekin, gutiago aldiz baiones andere gazte diplomatu frantximantarekin. Mintzaiaren hesia!



# Urdoz Karrikakoak

---

**B**AKOTXAK bere etxea du lehen. Bereziki gure Euskal herri maite huntan. Guk bezalako etxea, familia, eta hemengo hatsa iretsi duenak ez ditu sekulan bere erroak ahantzi behar, ez-eta ahal ere, batere bera nor bada.

Ez dut haatik uste hori erraiten ahal dutela, damurik, orai sortzen diren haur guziek. Hori diot, hirian sortu, etxez aldatu, berriz ere bai, eta beti harat-hunatka ibili diren bartzuez. Ez dute hobenik holakoek batere, ez-eta beste nehork: guhaur berdin izanen ginen zenbait urte beranduago sortuz, edo, halaber, zenbait besagain urrunagoko lurretan munduratzuz.

Horiek hola, aitor dut nik bigarren etxe bat bezala eza-gutu dutala, eskolako lehen urteetan, eguerdiko bazkariarentzat hartu nauten etxea. Orenardi bat bide, eskolarako, erran dudan harri korkoilezko bide txar estreketan gaindi, bost urtetan, egunean lau aldiz egiteko haundiskoa zela jujatu zuten aitak eta amak. Bazituen hain zuzen Urdozko eskolak bere auzoetan, errana dudan bezala, bazkaria berotzen zaukuten etxeak. Eta errana dut ere Karrika etxean ginuela guk ongi-etorri hori. Lokarriak baginituen Karrikakoekin: gure amaren ahizpa, Mariena edo Mañana, ezkondua zen Karrikako Mixelekin Argentinan, Buenos-Airesetan. Pentsa beraz aise egin ote zuen amak tratua Karrikakoekin, gu, haurrak, heien etxean bazkaltzeko.

Zinez, jende onak ziren guretzat Karrikakoak. Xaharretarik haste: Peio zen aitaxi, herriko kontseilukoa, Urdozko plazan «Oihua» egiten zuena eliza aintzinean, herriko etxeko abisuak eta beste jakingarriak erranez meztatik landa. Sanoki eta euskaldunki hasten zuen berea. Ez zitzaion gogoratu ere,

beste erdi-euskaldun erdi-erdaldun batzueri bezala «Avis» eta holako sar-hitza. Berea bazuen Peiok, gogoratu bezalakoa sar-hitza, ziolarik «Hea, beha!» eta denak ixiltzen ziren, beihalako herriko-mutilaren atabala eta holakorik ere gabe. Bururatzean ere bazuen berea: kasik beti bururatuko baitzuen, eguneko gaiak gogorat eman zirto jostakin batekin. Irri-zafla batekin ihardetsiko zion Urdoz-Bastidako jendeak, berriz elgarren arteko solasetan barbarbar segitu baino lehen, gero guziak ezker eta eskuin berduratzen zirela. Hori zen meza ondoetako giroa Urdozen.

Alta Joana, Peioren emazteaz ere ez dut nik gaizkirik erranen, ttipian bigarren amatxi gustu bat hartu baitiot nik atxo xahar on eta goxo horri. Lehena izana zen naski, eta menturaz bakarra, ahoan bilorik gabe, apez egiteaz hain garbi mintzatu zitzaidana. Karrikako Mari, emazte fina, hau aldiz bere lanetan beti xintxoki ari zen artean. Eta bazen oseba xaharra, Puttiko, Xuburuko mahastitik eta Italatzeko jorra apaintzeetara baitzuen hunek bere mundu guzia. Oroitzen naiz zein gogotik zurruputzen zuen hunek salda beroa, ontsa boskaturik eta ondarra hurrupaka, baso erdi bat arno ondotik edo saldaren barnean, ateraldi labur eta motz batez oro finkatu aintzin. Bainan gaineratekoan ele guti Puttiko xaharrak.

Elearentzat hor nituen, beren solas jostakinekin, Karrikako gazteak, Battitta eta Manez, bat bestea bezain haurkinak gurekin. Battittak hogeitaz urte zituzkeen denbora hetan, edo guti gehiago. Postako pietungoa hartua zuen, etxetik beretik egiteko eta eguerdiko 12 etan bazkaltzen zuen gu, bere turnadabilaldi artean, eskolako haurrekin batean, hola baiginituen harek eta guk orenak berdin konpont-errexak Mari etxekanderearendako. Etxekoek, bestalde, oren batean janen zuten Karrikan, eguerdi zaharretan. Nik erran behar dut ere Battittarekin ikasi dudala berettergoa gure Urdozko mezetako.

Battitta klaber zen gure eskolako denbora hetan Urdozko elizan: argien piztea eta eskearen egitea zituen bere lan haundienak han. Ikusi zuelarik zortzi urtetsuko hori banuela, ttipien lehen kominione hura egina, hasi zitzaidan bazkal'ondoan berettergo-solas, orai hasi beharko nuela. Nik nahi nue-

la bainan ez nakiela nola egiten zen. Hortarik hasi zen dena. Ez ahantz, lehenik, latinez zela meza orduan. Battittak erakutsi zautan kartazko paper loditxo bat, hartan denak ezarriak zirela erranez. Gero ere bi errapostu zirela gogoz ere ikas errexak, denek dakiten «Amen» hura eta: «Behazak, Emil, apezak erranen duelarik: «Dominisco bisco» hik erranen dakok «Camusto». Horra zer bilakatuak ziren, gure Battitta paregabe harekin «Dominus vobiscum» eta «Et cum spiritu tuo», bainan bihotzarekin egiten dena ez ote du Jainkoak beti konprenitzen?

Bikario bat jiten zen Baigorritik igande guzitako meza horrentzat. Ez dira segur oraino ahantziak, gure adinekoetan, Lagrenade, Chipy, Suhubiette, Partarrieu orduko bikarioak. Badituzte denek ere beren gisako oroitzapenak utziak hor: bat bihotz haundikoa zela, funtsean Hazparne Bihotxeneko semea, besteak bere predikua zerurat goiti beha egiten zuela, hura Chipy senpertarra, beste biek moto haundi batzu bazituztela. Etzen jostetarik: Urdozko mezarat bikarioak ziren beti, jaun erretorak ibiltzeko tresnarik ez baitzuen, harek Baigorriko goiz-meza, bikarioek aldiz beren moto xaharrak ez beti martxan edo beti zerbait ba, bereziki pilota partida bat ere bazutelarik egiteko Manexeneko plazan Baigorriko meza nautsia aintzin.

Hau gertatu zitzaion Partarrieu apezari. Etzituena Baigorritik ekarri behar ostiak han berean ahantzi! Beti antolabide bat baita, igorri zuen urdoztar gazte lerdan bat bizikletean, delako ostien bila, artean apezak meza hasiko zuela. Bainan behar zuten bat eta bestearen orenak batean kurritu. Ostiaketariak uste baino gehiago berandu zuela, horra zer zen gertatu. Orduan zuen Partarrieu apezak erran eta erran mintzatu behar izan, bergarioa doi bat luzatuz ostien ekarlearen atea eliza zolan zabaltzen ikusi arte. Egia erran, ba omen zuen jaun bikarioak errextasunik aski, predikuaren luzatzeko. HOLA erraiten zuten entzule batzuek.

Eskualduna kaseta saltzen ginuen meza ondoan elizako aintzinean. Ainitz ziren erosten zutenak, funtsean hura zuten gehienek kaseta bakarra, orai askok HERRIA duten bezala.

Badu orai 114 urte Euskal Herri huntan kaseta euskaldun bat badela. Gure solasa segituz, tropan joaiten ginen bastidarrak gure bide txarretik etxe alde. Emazteak joanak ziren aintzinean askariaren prestatzera. Gero, tropa aintzinduz, haurrak erdi lasterka eta erdi josteta, betiko haurrak bezala. Gizonen solasa asteko lanen gorabeherak egiten zuten. Kaseta ere zenbaitek zabaldurik han berean, hor ziren pilotako berriak lehenik eta nola etziren hetan gustatzen, Berro, Buxtintoko Xarlex eta besteak. Politika hori ere hor zen, bereziki bozak hurbiltzearekin, denbora batez Ybarnegaray eta geroxago Errecart. Hots, hori dena zen Urdozetik Bastidarat gure igande marka. Nork ikus orduan eta nor axola harriak bazirela gure bidean! Uste baino lehen helduak ginen Oihamileko hegi hartarat, han lehen berexkuntza gaintarrekin eta jo aintzina gure igandeko arropar azken torrako bat emanik arteka txarretarik landa. Bainan, zinez ere, baduguia igandeko arropar orai gehiago eta, hots, igandeak ere nun ditugu, lehengo hek?

# Eskolako lagunak

---

**B**OST eta hameka urte urte artean, eskolak bezenbat baliote kasik eskolako lagunak. Ez ditut sekulan ahanzikiko. Mutil eta neskato ginen Urdozko eskola hartan: mutilneskatoen nahasketa hortaz izan ziren, hala da, eztabada batzue ere denbora hartan, gure eskolan ez hanbat bainan beste batzuetan; gehienik eskola gobernuko eta girixtinoen artekoak, denborak ziren halakoak. Bainan Urdozen ez dugu trabarik ezagutu guk, haurrek.

Auzi eta gasailak utzirik, axola guti ginuen guk adin hartan, mutiko ala neskek elgarrez. Mutikoak Idiarteko etxepurdiari ari ginen pilotan, mahats treilaren sahetsean eskola klase arteetan, batzue zirelarik besteak baino trebeago, beti bezala. Pilotari trebeetan Kaskoin-Karrika edo Bidaurbeheretarrek gehixago ginituen, Manexeneko plazan trebatuak izanez hek eta beren jitez ausartagoak ere nolazbait. Haatik ez ginuen guk, bastidarrak, aise barkatzen. Haitzaldarrak ere, erneak eta zaluak zirelarik bestalde, pilotarat uzkurrago ziren eta axola gutiagokoak, pilota plazarik ez baitzen batere Haitzalden etxepurdi batzue baizik.

Eskola ondoan, pottokak laxoan. Beheretiarrak Etxebertzeko eta Buztinagako artetik zoatzen bide haunditik Italatze alderat, gu aldiz, bastidarrak, Etxeberriko aintzinean eta Etxebertzeko juntan zeharkatzen ginen ezker, Ilimindian beheiti Urdozko erreka gainetik Harraungo kisulabe ohiat buruz, Latxeta alde: denak ere ez ixilik eta jakizue bazakitela Bastidako mahastietan eta Urdozpiden harat, Hegikogainerainotik noiz ziren laurak eterdi edo bost orenak, hots, eskolatik ateratzea. Orduan ziren jostetak eta tarrapatak hasten. Erranda dut nun ginuen Oihamileko hegia. Bainan harat artean? Le-

henago etzirena hor beren sasoinean Etxebertzeko gereziak! Gorri-gorria egiten zirelarik hauk maiatz ondarrean, ez ginen lo egoitekoak handik pasatzean, uzten baginituen ere gorritzerat.

Behin beraz, hitzartu ginen, denak edo denen buru jartzzen ziren batzu segurik, beheretiarrak ere gurekin jinak, iduri laburzkan, gerezietarat joaiteko. Han ginen bi jauziz, gu, Betti, Damatit eta Bastidakoak bainan ere, behere aldetik, beren bidea utzirik, Henri, Xan, Guillaume eta Justin, hots, orduko haundien guziak gereziaren puntan. Bainan errana dut urrunerat ezagun eta nabari ginela gure kalaxka eta garrasiekin, pika ta beleak artora heltzen direlarik bezala. Hain zuzen huna nor ikusten dugun eta entzuten bat-batean gure gereziaren gainetik: hura bai, Etxebertzeko Jan Luis, Buztinagako etxe izkinan beheiti gure ganat heldu bi jauziz eta ez segere-tuan bere oihuekin, horrek berak baitzuen galdu ere, funtsean: «Deubrien figurak, emanen dauzkitziit ba nik gereziak!» Gerezietan geldi izan balitz oraino, bainan baziren gure artean, ez erran nor, gerezi aldaska osoa tiratzen baitzuten arbolatik bere fruituekin, fiteago egitea gatik!

Orduan jakizu, irakurlea, denek laburtu ginituela gerezi biltzeak eta besteak, pirripitaka jautsiz arbolatik, goiti joanak ginen baino zaluago. Eta laster, eta laster, lekuak hustu ginituela Latxetako alderat. Beheretiarrek bazakiten ba handik norat har gero, Etxezaharreko pentzearen xeheilen gainetik, erreka txar hura jauzian pasa eta Ibarlako zolan beheiti Murtzetzeko zubirat eta azkenik Oihanarterat: ba, segur, gutarteko pika-kafira miatzale batzuek ere eta eskuz-arraintzari goiztiar zenbaitek bazazkitela xokoak eta pasaiak, Xinkoeneko zubiraino. Jan Luis aldiz han gelditua zen biderdi: zertan akituko zen, gaizoa, bi oihuz egina zuen bere lan guzia, alegia biziki kexu. Ez baitzen ordea hortan oro gelditu afera: baitzuen, denaden, gutarik batek bederen bere kontzientziako kilika. Hura zen Justin, ez segur ttonttoena bainan finena ba hain segur. Beraz, ihesi gindoazin lasterkarietan, Justin gelditzen da bat-batean erranez: «Ez! Eztuk hori: ni banoak Jan Luisi barkamendu galdegitera». Eta joan Justin, guretako ere

halako lagun ona ginuena eta duguna beti. Haatik gu ere ez ginen ez sobera fida Etxebertzeko ondoan pasatzean, bainan etzaukun Jan Luisek deusik erran, ez baitzen naski gereziez oroit ere gehiago.

Erran behar dut, hasian hasi, beste balentriarik egin dugula, gu ginen haur atrebituek. Jadanik salatu dudan bezala, Urdoz-Karrikan beroturik bazkaria, han berean jaten ginuen ttipien hartan. Eta huna zer zen gertatu, halako batez. Aratsaldean, eskola ondoan, hartzen ginuen Karrikatik, gure jatekoaren zaku hutsa. Eta egun batez, futxo, etxea hetsia eta nehor ez barnean: Italatzeko alorrean ziren denak arto eta ilar biltzen (azken hau emazteen lana). Nik, haurra, zaku haren faltan, ez nuen asmatu amak izanen zuela beste zaku bat biharamuneko, behingoaren gatik. Bainan lotu zitzautan lagun aurtartago bat, harek aterako zuela zakua Karrikatik. Baitzen etxe aintzin hartan samatsa, Karrikako xaharren ganbarako leihoaren pean, etzena G. fiura hura handik jauzi batez sartu eta... futitua alabainan, ene zakua barnetik ekarri. Biharamunean, ez naiz oroitzen nola, bainan badakit Karrikan ziren jende prestuek nolazbait erakutsi zidatela ez dela holakorik egiten. Eta amak ere eskolatu ninduela aintzina etxean are gehiago.

Hala da eta, hor eta eskolatik permisionerik gabe ene tresnaren bila joan nintzanean bezala, baginuela ba gure hez-gaitzetik, osoki ezin-heziak ez baginen ere. Beharrik izan ditugu gure aintzineko jende bipilak, emeki emeki hezi gaituztenak: gure etxean, Urdoz-Karrikan eta beste. Eta gure erakasleak, nundik ez?



Ama zenaren ezkont aintzineko familia, buraso eta haurride.



# Itanaztegirat

---

**A**RDIAK baziren etxe guzietan gure Bastidan. Joaretik ezagutzen ginituen bana-bertze, ala Olhagakoak, ala beste etxeetakoak, ala gureak, zein ziren. Kanpotiar batendako denak berdinak ziren joareak, guretako Afrikako beltzak oro berdinak diren bezala; gure beharriak ziren ttipitik heziak eta jarriak eta jakizue etxeko haurrek berexten ginituela zeinek gureak. Bertzalde, bi partetan ginituen etxeko hazindak: ardiak joareekin eta antxiak klaxkekin, hauen soinua nolazbait arinago, saminago, eta, hots, ergelago ere zela erran bailitake, adin bateko jendeek gazteagoentzat erraiten duten bezala.

Beste ezagutgarri bat, seguragoa, bazuten ardiek, beren haragikoa, beharriko seinalea. Auzo guziek bazituzten bereak: eskuin beharrian aintzin-saki, gibel-saki, edo bietarik aldizka, ezkerreko beharrian halaber izaiten ahal ziren. Eta baziren beharriko xiloak, beste batzuetan, bat edo biga, beharri batean edo bestean. Guk, Belarrean, eskuin beharrian bi xilo, horra zer zen gure etxeko hazinden seinalea. Orai horiek ere aldatzen ari dira, osoki aldatuak ez badira, petentak ezartzen baitira, ardi bakotxak bere lumeroa, hor ez da nahastekarik.

Gainerat, bi «mendi» baginituen guk, Belarrekoek: lehe-na, hurbilena, Pagoxuri, hau Bastidako Sohaineri datxikola (ez haatik Urepeleko Sohaine edo Sorogain famatua). Pagoxuri alde horri buruz ginituen guk, haurrek, eremaiten San Marketan urteko bildostunak, larreko bazka puntta abiatzean, udaberrian, bildotsak mee ta meeka, hauen amak berriz bee ta maaka. Jakizue ez zutela xakurrez huiatze beharrik apirilaren 25 inguru hetan mendibideko mazelari goiti joaiteko eta gogotik joaiten ginela gu ere, haurrak, heien ondotik makila txar

bat eskuan. Ottok errana zuen, hau baitzen etxeko artzaina, aita berriz pentze alorretako «lan haundietan» zagolarik, Zalmazarren harat utziz geroz, berak joanen zirela aratseko Saikaiko kaskoraino edo Sohaingo leporat, haizea nola zuten.

**Ardien moxteko** eguna ere beste karia bat zen handik laster. Goizean zazpi-zortzi gizonak ileak moztu eta aratsalde berean laxatzen baitziren arindurik ardiak han goiti. Erran behar da orai baino beranduago moxten zirela lehen, uztailearen lehentsuan edo hola. Orai ez da batere berdin egiten: otsaileko hotz biziak batere goxatzen hasiz geroz, martxo apiriletan igortzen dira arindurik, freskaturik, deizteko lanik ez dutenak. Bainan orai hori ere aldatu da ainitzendako: laborariak, artzainak, denen beharra ba, deizten du ardia ahal bezain luzaz, ekaineraino, uztailearaino, eta zenbaitek abuzturaino ere, pentzeetan bazkatuz, ernariak behar baitu berea, gaizoak; ainitz eman behar duenak ainitz jan behar. Hortako, ontsa bazkatuko da eta barnetik lagunduko oraino, soho, bihi eta janari prestatu horietarik. Hots, gaurko artzaina ez da batere atzoko hura; zenbait badira artzain berriak, molde berriekekin ari, edo artzain ondoak berdin, artzaingoa utzirik, beste hautu bati lotu zirenak. Guk, hemen, atzoko moldeak ditugu kondatzen, irakurleak ikus dezan nola diren aldatu moldeak lehengotik eta orai ikusten ditugunetaraino.

Beraz guk, Itanaztegi ginuen gure beste mendia, Bidarraiko mugan, borda bere etxolarekin Iparla mendiaren zolan. Ni sortu nintzalarik, eta geroztik ere luzaz, bazen han arditegi zaharra, dena hango bereko harri gorri hutsez egina. Bere eztigune hartan, ez baitezpada iguzkiari so, bainan haizetik ere gerizatu behar nolazbait. Bere aintzinean zaukan artzainaren etxola, sartzearen ondoan hunek sutegi ttipi arrunt bat, eta gero ohantzea, hau bizpahiru pago zurez egina eta hunen gainean lastoa, bainan azkenik estalgi gozoago batzu ere etxetik ekarriak. Bien lekua bazaukan ohantzeak eta beharrez hirugarren bat ere, auzoko etxolatik Otsobiko artzaina edo beste batena behartzen zeneko.

Erran behar da bazakitela elgarretaratzen ere artzainek. Hori egiten zuten eskukaldi batez kasuaren arabera edo noiztenka bestaño batendako hiru lau artzainek bat eginik: hura izan zitakeen xokolet-esne afaria eta harekin beste zerbait osagailu balinbazen hobe, jaki on bat lehenik eta bixkotxak ondotik. Gazteak gauza onak maite, eta zahartua denak ez gutiago.

Artzaina, etxeko artzaina gure kasu huntan, ez da beti bakarrik. Egun guzian etxeko laborari lanetan hartua, behar zuen udaberriko aratsaldeetan, etxeko lana utzi: aratsalde erditan abiatuko zen alorretik, arto eraitea edo jorrak utzirik besteren gain: ogi-ta-gasna ahamen bat jan etxean indarren hartzeko, astoa pildatu, amak eman afaria hartu aratseko, horiekin bazuen oren baten bidea pasa, mendiari gora, Itanaztegi, Antsola, Abraku edo Garartzerat heltzeko, nun ere baitzuen berea. Han ardiak bildu eta deitzi orduko, ilunabartuko baitzuen, egunak sasoi hortan luzatzen ari izanik ere.

Biharamun goizean, xorien kantuak eta argi zirrintak seinalea goizik emanik, horra berriz deizteko tenorea eta astoarekin jo etxerat «ttiki-ttaka», bere esnearekin. Eta guretzat aldiz, nola uka gure zoriona, ottorekin mendiko etxolarat joaiten ginelarik, bakantzak jinez geroz! Ez dakit zenbat diren orai eskolierretan gure otto idurieri jarraikiren direnak, baina ez du emaiten galtzekotan dela Euskal Herrian artzaintza bere dorpean, zeren baditugun beti artzain gazteak. Etxola ainitz zahartu eta erori dira bainan badira etxola berriak ere, ederragoak, Garazin eta beste batzuetan eginak. Gauzak agertzen diren bezala ikusiz, badu beti gure herri hunek artzaintza bat, beti emalea, modernagoa eta bizikoia, holako artaldeekin eta biba bizia, artzainarena bezala toki hau maite dutena ere.



Urdoze: Karrika etxea, Jauregia eta besteak.

# Haitzalde

---

**B**ELARREA da gure sort-etxea Baigorri-Bastidan. Ustedut haatik gure etxeak eskas haundia ukanen zuela lurrez eta mozkinaz, Haitzaldeko-Borda izan ez balu gainera bere inguruekin. Bastidak Urdoze du alde batetik, orenerditsubaten bidean oinez, eta Haitzalde bestetik iparraldera buruz eta hurbiltasun bertsuan.

Bietarako bideak berdin txarrak zituela Bastidak erranzitakeen. Bastidatik Haitzalderat zen bide xaharra, orga hutsen pasaia edo halatsu, hango harri kiskola artean kirrink eta karrank ibili behar, orga hutsak ziren doi doia harat joanen, ez haatik gibelerat kargaturik: hori Lamottaeneko errekatik egin behar zuten Hargaitzean eta Nahastekan gaindi bastidarrek.

Huna beraz zer zen Haitzalde: hamar-hamabi etxe orotara Bastidaren gisa, bainan barretuago, Usteleia, Bernatenea ta Bustintorainokoa, ez ontasun zabalak gehienak bainan laborantzatik bizitzekoak, hargin bat eta mahaixturu batez besteak eta mendi peko etxeak, hots.

Bere erditsuan zaukan Haitzaldek Belarreko-Borda, guk Haitzaldeko-Borda deitzen ginuena. Borda hartako pentzeetan ginituen, sasoina nolakoa zen, behi antzuak eta bizpahiru miga gazte eta bilorrozi, bazkatzerat eta edanarazterat joan behar baitzuen etxeko norbaitek, edo, xoilki, haurrek. Jakizue bazituela horrek ere bere ixtorioak, hala-nola bazelarik kabala bat besteak baino ozarragoa eta gu ginen haurreri oldartzen ez bazen ere, adar-ukaldi baten beldurrean bederen ginaukana: nun ez ginen gu, oraino haurrak alabainan, arrazoin gutirekin izitzen elektrika argirik etzen borda zaharrean arats berandu batez. Orduan bai ezagutu ditugula komediak. Xape-

tendeia etxea baiginuen hango lehen auzoa, bazakiketen hangoek erraiteko zenbat aldiz jin behar izan duten hango emazteek, Graxiena zenak bederen, gure laguntzera miga ergel baten laxatzeko edo estekatzeko.

Iluna goizago sartzen zen, bereziki negu partean eta orduan ere bazen zerbait. Eskolatik jinik, Haitzaldeko hazinden gibelondoak batetik, Gastialepoko behien itzuli hura ere balinbazen gainera egiteko, eta Amooxiloko erreka haren zoko beltzak iluntzen hasiak, zer mustroak ez ginituen guk, haurrek, han ikusten, edo uste ikusten ginituela: batean alimale basa bitxi baten mutur beltza bezala, edo beste mamu zerbaiten begi iluna hantxetan guri so! Hurbiltzeko kuraia izanez geroz, edo kantuz orroaz hastekoa, pitsik ez holakorik, eta baingindoazken aintzina, gure izialdura bitxia garaiturik.

Hori bai, kantua! Baginituen egunak atrebituagoak baiginen, eta errana zuen aitatxik: kantuak izitzen dituela mamuak eta oro, eta orduan hek berak direla harriturik eskapatzen. Egia zuen futxo, aitatxik, guk ez baiginuen ordu arte mamurik eta holakorik ikusi sekulan, ez Harribeltzabaitako maldan, ez Usteleiko kisulabe ziloan, ez-eta Harginanbordako gaztainape beltzean ere.

Bainan ez ditut oraino aipatu Haitzaldeko minak edo meatzeak. Baziren, gure Bordako pentzeatarik goraxago, iturriaren sahetsean, lehenagoko burdin-harri harrobiak. Hortik gorago duzu Larlako mendia, nehork ez baitaki zer daukan horrek barnean. Mendi horren barneko segetuak mendiaren beste aldera ere hedatzen dira, Arroza-Satali auzoguneraino. Mendi horren barneko harria da ohargarria: burdin-harria deitzen dugu halako herdoila batekin den harri gorri, nolazbaiteko zain bernizatu dirdiradun batzuekin kolore nabar bat duena. Harri hortarik jalgitzen bide zuten, Bankako oletan, hamar bat kilometra haratago, Aldudeko bidean, brontza, kobre, eta nik dakita zer burdinki. Izana dute, aintzinagoko mendean barna, beren fama horiek guziek, eta nolako langileria ez du lan horrek bizi-arazi Hairako oihaneraino, hor behar ziren egur, labe eta guziekin!

1914 artetsuraino, hor izan den lanarekin, eta dirua gainerat, hau beti baliosa tokiarentzat eta familientzat, ez da, segur, harritzeko zenbaiten arabera bederen Banka izena eman baitzioten ainitzen jornala eta diru berria ekartzen zuen toki horri, Baigorritik goragoko herri eta denbora dorpe hartan; hastean Fonderie edo Labe izena ere ekarri zuen xoil xoilik herriak. Denbora hartakoa izan duke, beherago, Haitzalden, Belarreko-Bordak bere zerbitzua. Etxe hori beste etxeak bezalatsukoa zen eta da itxuraz. Salburik, hori izana da, seinaleen arabera, meatze edo minetako langileen egoitza eta etzangia. Langile ganbarak zirela hor, bazauden frogatzat, gure haurrean oraino, ganbara ateen lumeroak paperean idatziak atetan: Chambre 1, Chambre 2 eta aintzina, geroztik, zorigaitzez desegin direnak. Denaden aintzineko bi mendeetako urteen oroitzarri daude holakoak eta berriz ezagutuko ez dugun denbora batenak gisa guziz. Orai ere joan ditake ikuska Haitzaldeko meatzeetarar beti zerbait herrestoren miraka. Han daude beti, oihan, xara eta sasiek gero ta gehiago estaltzen ari dituztela, eta beti lurrean sartuago ere, harrobi horietarik gelditu murru izkinak eta ondarkin soberatuak metaka. Horien gainean ibiltzen ginen gu, haurrak, harrixka zirrikatu koloretsu pollitago batzu aurkitu eta bildu beharrez: bazuten itxura bat ohargarria etxeko untzitegietan altxatzeko edo bulago gaineko, paper finkagitzat balia zitakeena, bazuten ere pisu eta hazta, harriarena baino pisuagokoa, burdinkia zen alabainan.

Mendi zoko hortarat aintzinatuz aldiz, hatxemaiten eta asmatzen dira oraino joanden mendeko harresi eta murru ederrak beti han baitaude xut eta tente. Heietarik batekin egin zuen gure aita zenak Haitzaldekobordako minako arditegia ardien atea eta sargiarekin, Abilaeneko pentzearen buruan. Lau paretak han zauden. Aski izan zuen estali bat emaita eta horra arditegia.

Ez nuke nahi haatik sail hau utzi, gure minako edo meatzeko iturriaren berri eman gabe, iturria batetik eta tunela bestetik. Tunela bai, hau heldu zen Larlako mendiaren barnetik eta tripatik bezala, barnaskotik, bere aire hotxarekin, eta

zer ilunbe beltza zoko hartan! Kenduak dira handik lehenagoko harriketako bagoneten burdin-bidettoak, nork daki zenbat lur eta harri ekarri duten hek mendiaren sabeletik beren denboran! Onjoak bai sortarazi eta behar bezala ondurik ekarrazazi nahi izan ditu tunelape hetan angeluar atrebitu batek, duela zenbait urte bainan etsitu ere laster, damurik! Lehen uhasteak, mendiaren barnetik etorri turrustarekin ereman zituenu oro, lur ustel, onkailu, eta onjo, aro txar-txar batez.

Minetako iturriaren ur freskoaz zer erran? Alde aldean dela iturri balios hura, beti hor oraino nehork axola guti izana gatik orai hartaz, gaurko hozgailu eta frigo mota guziekin. Eta guk hoinbeste itzuli egin ginuela minako iturri hotxerat belar eta soroen egiteko denbora heietan, egarriak xuritu zipildurik ari ginelarik Haitzaldeko uda betean! Artetik erranen duta nolakoa zen gure aita Mañix, beroarekin eta egarriarekin. Ez, ez zuen sekulan beroak eta idorrrak lotsatzen gure aita: pentzetik ur freskoaren bila igorri gaituzte gu haurrak, gizonak belarra higitzeko artean. Aitak arras guti: besteek bi baso klikatuko zituzten artean, batekin aski zuen harek berak edo berdin erdia. Atorra lepoa ez zuen zabalduko ere berorik haundienean. Aldiz laneko tresnarekin beti beso-ukaldi ezti eta segurean, ez sekulan indarka, belar epaile hauta, eskuaire ona eta beti bere urratsean eta izari onean. Uretik aldiz busialdiño batekin aski. Gauza orotan neurriak galdegiten duen bezala.



# Harginaeneko erreka

---

**H**AITZALDEKO-BORDA baino lehenago, petik gorakoan, bazen, Xapetendeiko etxearen pean, etxalde zahar bat, Harginaenea. Arras gotorra zen eta goratasun ederrekoa etxegorputza. Itxuren arabera, norbait izanak zitazkeen lehenago Harginaenekoak. Bainan saltzerat etorri zen etxea gure haurrean eta, funtsean, bere bizitzaleez hustu ere zen. Hortan daude nik ditudan horgo oroitzapenak eta hutsa da etxe zahar hori orduz geroz.

Ontasunak, lur guziak, salgai izanez, hiru erosle atera zitazkeen, nik haurreko oroitzapen horietaz dakida-naz: Eiharaburu (Santxo), Xapetendei (Michel) eta Belar (gure aita). Arras xuxen ez banaiz, barka: ni haurra nintzan denborako gauzak baititut hemen ezartzen, gehiagoko segurtantxarik gabe. Horietara joan zen Harginaenea; etxea eta etxe inguruak Eiharaburuk hartuz, aldiz Erketa, Abilaenea eta erreka alde hura aita eta bordaldea Xapetendeiek. Hor hartuekin hobetu zen Belarreko bordaren ingurua eta etxeko ontasuna bera. Den bezala, aintzinean aintz pusketan balinbazituen Belarreak bereak, hemen alor bat eta han pentze bat, berdin puskatua gelditu zen etxaldea bainan denen beharra ba, Baigorriko etxalde gehienek bezala. Denbora hartan egin zitakeena zen, egun lur bat erabil eta bihar bestea, golde xaharrarekin edo tailuz alabainan ez baitzikeen aldian gehiago erabil. Orai ez da berdin: tresna berri haundi horiek ez dute maite leku ttipian beti itzulka ibiltzea, horiek behar dituzte lur eremu zabal haundiak, dena-bat ezarririk eremua. Bainan zenbat dira Baigorri holakoak? Gure tokietako mereximendu haundia hauen: bakotxak duenarekin egitea eta tokian bizitzeko nahikeria haundi hori, eta tokiko jendearen kalitatea, berari emana zitzaion hartan.

Alderdi on bat bederen bazuten Haitzaldeko lur go-riek: arto eta beste, denetako aski onak baitziren Abilaeneko minen ondoan eta beste. Pentzetu edo sorhotu zituen aitak emeki emeki Haitzaldeko lurak: etxetik urrunenak zirela-kotz, artzaintzari tokatuko zaizko gehienik lur horiek; neguan ardi ernariak leguntzen ziren han, udaberrian bildostunak be-rriz joritzen eta azkartzen, neguko erditze eta ume hazteko pairamenen ondotik. Hots, bazkaleku onak ginituen Haitzal- deko pentzeak: lehenik belarrak eta gero soroak, batere euri xarraxta batzuek berriz abiaraziz geroz. A ze orga belarrak jin diren Haitzaldetik Bastidarat behereko bidetik uztaileko be- roetan! Uztaila behar zen kondatu Haitzaldeko belar egite gehienendako, ez baitzen goizik jiten ahal belarra, neguko al- hatze balios guzien ondotik. Ni ongi uzten ninduen gibelatze horrek, hola Haitzaldeko lan haundiak oro hatxemaiten baini- tuen bakantzetako oporraldiak etortzearekin.

Zerbait zen belar denbora hura etxeko guziendako, hau- rrak ere barne. Izanen zen segur guretako ere zer egin bakan- tzetan. Gizonak goizik joanak belar epaiterat, denbora batez tailuz eta geroxago behizko mekanikaz, haurrek behar gini- tuen lehenik bildotsak (urteko hazaldia) itzalerat bildu Basti- dan: bezpera aratsaldean ateratuak ginituen pentzerat, belar pikondoetan, oren pare bat alhatzeko. Gero larrerat igorriak gauazko, holakoak ziren denborak, oraiko aldean jendea xuhurkiago bizi baitzen, kabalak ere halaber. Otsosaiko alde- rat ginituen igortzen gauarentzat, edo bestalderat, Lamottae- neko errekan pasaturik, Bertzaldeko-Pareta deitzen ginuen la- rrerat. Horietarik bat eta bestetik itzalerat biltzea izanen gi- nuen biharamunean haurren lana iguzkiak berotu baino lehen, erran dudan bezala.

Gu, haurren goiza laster joana zen amak manatu beste gibelondo batzuetan: baratzeakari zerbaiten ekartzea amari, jatsarekin beste garbitze zenbait etxean, barneko lanak, errai- ten ginuen bezala, sugaiak etxeko kozinarentzat eta hunen pizteko xotxak edo abar puntakin idorrak egitea, ama emaz- te bakar baitzen eta ez beti osagarritan, bere amatze eta haur galtze batzuetan ukanak zituen nekezien ondotik, bazen zer egin.

Horien guzien artetik, hau da erran behar dudana: ni ez nintzala bakarrik etxekoa bainan semenarioko apezgaia, opporraldi edo bakantzetan nintzana. Bastida Baigorritik urrun ginuela batetik, etxeko lan horietan guzietan nihaur gustatzen eta ene beharra bazutela ikusten bestetik, ez nintzan osoki beste apezgai lagunuen idurikoa dena-den. Hauekin gustatzen nintzan, segurki, ateraldi edo beste, banituen ere hauekilako egunak bainan erdizka nindabilan bakarrik ene lagun karrikatarrekin. Denaden, hartua nuen bide bat: astearen barnean behin edo bietan Baigorriko mezarat joaitea goizetan; etxean lan prisatu zerbait ginuelarik, edo belarretako aro balinbazen, itzuliko nintzan segidan etxerat meza ondoan, etxean behar erospen batzu eginez karrikan Baigorriko itzuliaz balia. Aro hitsa zenean, ahusatzen nintzan gehiago karrikatar lagunekin, eta Baigorriko apezgai eta apezekin, bereziki bikarioen etxean: berri kondan, musean edo pilotan.

Etxeko egunetan, gorago erran ditudan gibelondoen ondotik, laster hurbildua zen eguerdi, Haitzalderat bazkarien eremaiteko tenorea. Baigorri izana nintzan egunetan ere, hor nintzan beti bazkariekin joaiteko tenoreko. Aroa segura zelarik, eguerdiko 12 etan xuxen behar zen abiatu, eltzea eskuan, hunek zauzkala bi estaietan, baratzekari-salda azpian (etxetik irakitan abiatuz ez zen hozten Haitzalderat orduko eta beroberoa zaukan saldaren kaldak gaineko estaian zaukan jakia). Bizkarreko zakuan ginuen ogia, gasna, fruitu zenbait, nun ez zituzten hauk goizean gizonek berek eremanak belar pikatzera joaitean. Bidean holaxe zoan bazkariketaria, egunaren beroan bero, haurrak ginenean amaren mila gomendiorekin. Barnetxeko zakurrak, pasatzean, ez ginituen izitzen: ezagutzen alabainan, buxtana higika berak erakusten zuen bezala. Gorenaz ere, Besakuntzeko marrubi batzuen ondotik, Xapetendeiko Jondaene sagar mattela horitu batek ginituen tentatuko, hura harri ukaldi batez eror-arazten baginuen, Belarreko-Bordarat janez heltzeko. Horrarat-eta, ez baitzuten beti belarraren higitzeko saila bururatua, Erramunek erranen zuen, pentze barnetik mintzatuz, banuela ur hotxaren ekartzeko denbora minako iturritik. Gure Janpier anaiak ere zerbait egin behar zuela, hiru baiginen batzuetan Albert anaia gazte-

enarekin, mahia ezar zezala harek anartean, gazterik ikasteko harek ere, hori zitakeen irakur aitaren soakoan berean.

Mahia ezarri: zer ginen ala holako gradotarat helduak gu Haitzaldeko-Bordan? Gradorik ez ginuen ez, bixtan dena, bainan errespetu bat halere: han zagon gure Haitzalde, lehenagoko mineroen «borda», ezkaratzea arditegi bilakatua, ardi berant ernari bat bere bildotx sortu-berriarekin hantxetan zagoela meeka xokoan, umea oraino titia ezin hatxemanetz. Bazuen ere gure Haitzaldek, guk bazkariteko baliatzen ginuena, mineroen sukaldea, jazko euskaldun egutegi zahar bat itzetik dilindan bere gisan eta mahi beltza, taulazko petatxu batzuek oraino xutik zaukatena, eta sukaldeko leihoa, harek haatik berina bat hautsia.

Ai, Haitzaldeko eltzekari hura! Etxekoa baino zenbatez hobe, alta toki berean egina zelarik, Belarrean. Ez ginuela guk han ondarrik utziko, etxean haur lehenean gertatu izan zaigun bezala! «To: hori jaten ez baduk ez duk besterik ere ukanen», erraiten baitzuen amak. Eta segidan: «Nahi ez duenaren plata prest presta duk!» Hara bai, oraiko haurrek ikas dezaten, nola altxatu gaituzten gu; eta nola jan behar ginuen salda, lehen jastaldian ez bazen, bigarreanean bederen.

Bazkal tenorea ez ginezakeen ezagutu faltan hutsegin Haitzalden. Lehenik tripako zorriak zerbait erranik. Eta baginituen beste bi seinale, ordulariaren bi orratzak bezain xuxenak eta segurak: hek biak ziren Munoa eta Oilarandoi, Baignorritik Garazirako bi tontorrak. Gure «bordako» leihotik behatzea aski zen. Hantxetan zauden, Bastidako plazaren gibeletik gure soakoan, ezkerretik Munoa, zangoak Garazin dauzkana. Eta horra eskuinago Oilarandoi. Eta orena? Huna, hor oren xuxena: iguzkia Munoarene gain gaineratzearekin eguerdi berri, 12 ak; eta Oilarandoi hartzen zuelarik bere pean, itzea bezain xuxen, orduan oren bata, eguerdi zahar. Eta gure ama zenarekin, eguerdi zaharreko mahia ezarria zen, Haitzalden ere!

**Haitzaldeko erreka**z haatik ez dut oraino deusik erranik. Bi erreka baginituen, xuxen mintzatuz «gure» Haitzalde hartan. Bat zen, izen horrekin ezagutua den hura, Erkatzeko

zolan, Kixutik eta Amoroxilolitik harriz harri heldu den turrustakari desbardina, batean harri torropilak eta bestean putzuxka. Beste erreka hemen berean, Bordaren gibelego hori, gure pentze zaharraren zolan gaindi Larlako Tranpatik eta aipatu ditugun meatze heien iturri hotxetik heldu dena. Hau baita ttipiena, huntan ez ginuen lekukorik. Erranen dugu bakarrik nola joaiten ginen gu haurrak eta gure etxean lanean ibiltzen zen Batita Purtzik bat ere, edo berdin Pikasaibordako Jan-Batixta, freskaldi on baten hartzera bero haundi batzuetan. Beste aberastasunik ere izan zezakeen erreka horrek noiz edo noiz; zertako ez aitor hor dela lehen aldikotz gure eskuetarat erori arraintto bat ederra, nundik etorria baitzen ere gaixoa errebelaturik horradino, ura udan xuhurregi zuen toki hortarat! Funtsean lapar eta sasaturik etzena erreka txar hori jarria tokika!

Bainan haratago ziren, behereko lehen erreka hartan, gure josteta haundienak eta balentriak. Zenbat aldiz ez gira gu, bazkalondo batzuez, Erkatzeko errekarat eskapatu, Aitaren, Ottoren, ala Erramunen ixilik! Ez baiginen gu batere logale, adin hartan, bazkalondoko pausaren orentsuan. Hain xuxen bazuen gutarik batek, Etxeberriko pentze zolan, arrain bat ederra ikusia putzu batean. Edo beste bat oroit zen ikusirik, lehenxago, buhamiak arrainekin Anjalepotik jausten den urxokoan. Guk aldiz baginakien ba aitak hainbertzetan errana: «Ba, ziik baino erneagoak dituk ba, buhamiak eta buhamitzekoak hemen!» Baina gure tirria eta sua beti hor. Suge bipera batek ba, eman zaukun behin halako lazta bat, firuri firuri zoala putzu ttipi batean ikusirik. Horrek zuen denik ere efeturik haundiena, lehen egunetan bederen ez baiginen harat joaiteko «ipurdian fida», Batitak erraiten zuen bezala.

Alta aingira batekin ere erabili ditugula ba zenbait aldiz kalapitak eta zalapartak. Han dugu ikasi zer fiura den aingira, badoalarik inguru minguru uraren gainean bere burua ederki jostatuz eta gu ere bai haren ondotik. Zerbait jokotriaz hartuko ginuen nolazbait eta tinkatuko bi ahurren barnean, eman ahala, eta huna, flist, gerruntze ukaldi batez eskapatua ginuela; zinez, gu baino abilago hura ere, aitak erranen zuen bezala. Denaden, zerbait ikasi dugu guk, haurrek, erreka horietan ere: zinez aberats dela haurra: ontasunez ez bada ametsez be-

deren, eta ilusionez. Orduko gure ontasuna, hura zen hura ederra, gure gaztetasuna, ai zer sasoi aberatsa! Zer ote da gehienik balio duena gaztetasunean: ardietsi dena ala sekulan ardietsiko ez denaren lillura? Hortakotz erran dezakegu baterre dudarik gabe, nik eta anaia gazteagoek: Haitzaldeko errekkak ez zaukala guretzat miseriarik, batere!



Gastialepoko bordan ibiliak gira  
atzoko eta herenegungo Belarrekoak.

# Haitzaldeko belarrak

---

**D**ENBORAK ziren halakoak. Egungo egunean, hitz hauk irakurriko dituenak eginen du bere baitan nun ote nabilan holako solasekin, edo, berdin, nihaur baino ere zaharra-goak ditudala holako kondaketak. Zinez, zahartu dira bai hauk guziak, baina ustegabeen bezala, berak ezagutu dituenarentzat.

Errana dut ardien alhagitzat pentzetu zituela aitak Haitzaldeko lurra emeki emeki. Irakurleak gogoan har beza nola hazten ziren gure haur denboran hazinda xehe ta larriak. Lehen lehenik, oroit hau ere jadanik nola erran dudana: ttipiak zirela gure etxaldeak, Bastidan ala Baigorri eta inguruetan. Orai entzuten dira behi burtxoro ixtorioak eta guziak. Eritasunak bat jo balin badu, tropa guzia hiltzera kondenatua dela, araberako diru ordaintzeekin gainera. Eta toki hauetako euskalduna harriturik gelditzen da jakitean 180 eta holakoak zirela tropa horiek. Harriturik ere, jakitean nun diren holakoak: ene jakinean bederen Euskal Herritik urrun baitira 180 eko betaldeak. Zertaz eta nola haziak ziren saldo haundi horiek, horra hor zenbaiten galdea. Ez zen galde horietarik bati ere egiterik Haitzalden eta Bastidan. Neurri ttipikoak ziren hango bazka-lekuak eta kabalak. Udaberria aintzinatuxea zelarrik, belarra loditzen hasten zenean, Belarrekobordako eta Harginaeneko alor lekuetan, horra nun zen belarren mozteko sasoa. Tailuz egin behar zen lana han 1939 ko gerla inguruetarainokoan. Gure etxean, hiru edo lau gizonen bazituzten beren tailuak edo segak etxean, gehienez aitak mehatuko zituen ororenak, salbu Batitak berea, ttanka-ttanka mailuxka buru-zabal legundu bereziarekin. Ekain ondarrerat, aski berandu, errana dudana bezala, horra belarra jina zela mozteko.

Sailean artzen ziren hiru-lau gizonak, eta heien laguntzera jina bestea bat edo bi ere berdin, Enauteneko otto Nane edo auzoko norbait. Goizeko ihintzean bazuten belar alde ederra botatua sail loditan, iguzkia goratu orduko.

Orduan zen hasten gure aldia: goizeko askariaren ekartzeta lehenik. Amak prestatu baratxuri salda eta arroltze moleta xingarrarekin helduko zuen pentzerat askariketariak. Arroltze ta xingar hori zen etxe guzietako jana, biperrak moletan berdin, tipula xixter erre batzuen gainera zartainan emanik, eta edarizat arno xuria. Arno xuri guti Euskal Herrian mahian beste orduz, hori gaskoinek dutela egiten entzuten ginuen xaharriari. Gure gizonek aldiz, eguerdiraino arno xuria, etxean balinbazen (guk Haitzaldeko mahastikoa ginuen dena xuria), haatik eguerditan eta handik harat, beti gorritik, etxe-ko ordenarioan ala ogi-joiteko mekaniketan, ala mahasti-aitzurre ala ardi-moxte ala denetan.

Halere, ez uste izan goizeko askariaren denbora, jateko denbora hutsa zela bakarrik. Bi begi ere baditu euskaldun laborariak bere bazter xoragarriaren eta, hein batean, auzoaren zaintzeko orobat. Aitak pentzeko hegigunean nahiko zuen egin askaria, oiha xuria zabalgunen batean emanik. Harri batez bi xori, ahamena ahoan eta begia hantxetan gaindi ariko zen jaten, bere ogiaren ausikia xingarrarekin jakituz eta arrazoina finkatuz: Buxtinek pentze zaharra pikatu zuela Zubiko hartan. Berrok berriz mekanika berriarekin lehen aldikotz, Barnetxek egun sartzeko izanen zuela, horra nola zakien aitak bere munduttoaren berri, berea gogoan, gainerat.

Xaharrak eta emazteak ez ziren gizonen lanetik urrun izaiten batere. Sarri jinen ziren aitaxi eta Mariena (hau neskatua, amak atxiki behar ukan zuena bere haur-ukaiteen eta ez-ontsa batzuen gatik), bidarritarra eta zafra haundian belarraren barreatzen hasiko zena, ez baitzuen nehork manatze beharrik. Aitaxik berriz beti izanen zuen sasi bazter hartan lapar edo elorri zenbait berexteko, eta belarraren arteko ahago tzar horiek nundik ez! Ai, zer hutsa egin duten gure etxaldettoetan aitaxi hori bezalakoek mundutik joaiten! Lehena-go, gure xaharrek erraiten zuten lapar eta ahagoek irri egiten



zutela etxean aitatxi hiltzean. Erran hori bera bazen, etxean andregaiia sortzen zelarik. Aldiz laparrek nigar egiten, etxean premua, mutikoa, sortzen bazen. Hori ere nork daki ez ote den aldatu, onerat: baditugu euskal iparralde huntan laborari-sak, artzaintsak ere bai, gizonkiari zorrik ez dutenak! Gehi-ago biziko denak, gehiago ikusiko, lehengoak zion bezala. Ho-lakoa da gure mende hau.

Haitzaldeko belarretan, denetan bezala, zer eginen zen aroa alde ez balinbazen? Egun batez gertatuko zen, aitag ja-danik zerbait aintzinetik ezaguturik edo ez, aroak gibelerat egiten zuela. Hantxetan, Adartzamendiko aldetik, Bankako gainean, edo Garazi gainetik, orzantz lano batzu, lehenik uz-kur eta gero faltsu, sarrixago beti ta ilunago, agerturik, horra aitatxi ere hasia bazterrean haia haia bere kezka eta kexadura ezin gordez jarria zela: ez ginuen arrazoinaren galdatze beha-rrik, ez baitzen ordua holakoetan: hoinbertze lan izanki eta beharrena falta, aroa. Batzu eta besteak durduzan, ez jakin he-datu behar zen belarra aintzina ala bere gisa utzi!

Ama ere han, Belarrean, ez jakin zer egin: behar ote zi-ren, bai ala ez, bazkariak Haitzalderat igorri eguerdiko. Ba-zuten, egia-erran, beren hitzarmena etxekoek eta Haitzalderat joanek egina, telefona deituko duguna: ez balinbaziren ere josteta gose kezka eta griña hartan zirenak. Telefona hori zen mihise xuria. Mihise xuri hori ezartzen zuten Haitzalden zi-renek, Abilaeneko pentze buruan, etxetik bixtan, bazkaria ha-rat ekarri behar zelarik, dudako aroa zenean egun hortan be-zala. Amak aski zuen Belarreko gazteen ganbarako leihorat joaitea edo Hegikogaineko plaza bixkarrerat, handik ageri baitzen mihise zuria hedatua zen ala ez.

Beharrik, halere, ez baitzen beti aro hitsa belarretako. Higialdi bat edo bigarekin ederki aintzinatua zen aratsaldeko gure belarraren idortzea: maizenean mahitan bederen ezarri-ko ginuen belarra bildurik, eta duda zelarik, mahietarik mete-tan, edo mundoiletan (Itsasun korkoinetan erraiten dela ikasia ginuen Graxien hangotiar mutilarekin). Biharamunean, denak ontsa joanez, berriz barreatu eta idorrak izanen gintuzkeen aratsaldeko. Orduan eginen zen belar sartzea, etxerat helduz

orga belarrak behin idortuz geroz. Egunean bi edo hiru orga egin ditugu egun onez, nun ez zen beste bat pentzean gelditzen, biharamunean etxeratzeko, aroa fidagarria zelarik. Aroak bi hitz merezi ditu hemen. Orok badakite orai laboraria meteorologiak salatzen duen aintzin-abisuarekin ari dela eta ainitz da jakitate hori laborarien zerbitzuko izaitea. Bainan, oraiko jakitate edo ez jakitate, ez ziren xoroak lehen ere, ez aroan, ez medikuntzan, ez kabalen marexalgoan ez deusetan. Badu bere balioa gizonen esperientzia luzeak horietan denean eta errespetagarri dira zinez, mendez-mendeko ohidurak eta zuhurtziak jakintsun askok aitortzen dutenaz. Holaxet gure aita-aitatxiek ikusten zuten bana-bertze, norat zoan aroa biharamuneko. Ezagutgarri onak bazituzten hortako. Halanola, erran zahar batzu, «goiz-gorri, aratseko iturri» edo «arats-gorri, biharko iguzki» eta holakoak zenbatek ez dituzte egiazat frogatu! Guziz haizearen alderdia, horiekin batean segitzen dakitenek, iguzki-haizea, peko-haizea, gibel haizea, ipar-haizea, enbata, ortzantz lanoak, mendeala eta hainbeste seinale oraino, egunez egun zaintzen ikasi baitute ahal bezain seriocki mendeetan barna gure gizon eta emazte zuhur baliosek.

Belarketa horren egiteko, Haitzaldetik Bastidarat, itzainak behar ziren behiekin (ez baita idirik izan Bastidan, gure oroitean). Aita edo otto izanen zen itzaina gehienetan, hots, gizon bat, orentsu batez heltzeko bere karga Bastidarat. Bainan gaztexagorik ere abiatu da itzaingo lan hortan eta jin izan zaigu guri, 15-16 urtetarik goiti, itzaingoko tirria goiztiarra, gizonek bezala eginez gure dei eta akulatzeak kabalekin. Nola nahi ez zuen egunak berehalakoan bururaterik belar sasoiari. Etxerat-eta, behar ziren orga belarrak hustu eta sabaiko meta haundian zapatu eta ondu, hegiak polliki eginez eta gorra atxikiz, etzitezen metaren bazterrak beheiti lerra eta eror. Gazteen lana izanen zen meta gainaren huntze ta zapatze hori parte batean. Aitak berriz behar zituen anartean tailuak eta mekanikaren sega biharko xorroxtu edo mehatu, aro zeno behar baitziren belarrak despeitu. Mekanika aipatu dut, jin baitzen azkenean behizko mekanika, belarren pikatzeko, bederen alor-leku eta pentze-sorho ordokietan. Aintzinamendu bat

izan zen behiek tiratuzko mekanika horren agertzea gure haurrean, bederen leku onetako. Geroago motorrezko motofauchouse horiek jin artean. Bainan goazen gu gure urratsean, ez baigira oraino hortaratuak 1950 inguru hartan, gure herri ttipietan bederen.



Haitzaldeko belarretan, haundi ta ttipi.

# Ainaxoko

---

**A**INAXOKO ginuen, Harginaeneko erreka pentzeak baino gorago, eskuineko xokoan, Belarreak eta Belarrekobordak zuten pentze guzietan ttipiena: ura ere sortzen baitzen han gaindi, emaiten zuen denbora xoko harek ezin xukatuz, iguzkia ez zelakotz denetarat heltzen, nekez baizik.

Bixtan da sasoi ondarrerat gelditzen direla holakoetako lanak. Halere ez da sekulan ahantzirik gelditu xoko haren garbitzea orduan, egin zaitekeeno. Holakoa zen denbora hartako laboraria, gure etxalde neurrikoetan: ez ziren ahalik eta gehiena bildu beharrezko gose harekin ari laborariak orai bezala, bainan bazterra ahal bezain garbi atxiki nahi zuten, eta gero, beharra-lege.

Bere etxea ontsa atxikitzea, pentzeak zola ona eta lurraren axala finik, bazterretako sasiak ontsa juntatuak, kabala baten sartzeko edo eskapatzeko pasagunerik ez, nihunere, horrek balio zuen. Pentzeko belar-soroeri itzal egin zezakeen brosta hostaila edo sasikirik ez, kardu, elorri, ahago, ote, iratzekiak errespetuan atxiki, hori xaharren leloa. Orgen kargaguneak plomuan atxiki ere toki patarretan, aintzineko urteko errota lekuak ez galtzerat utziz hots, laneko errestasun beharrak berak balio zuen lurraren emankortasunak bezenbat. Hori da lehengo laborariek utzi daukutena bainan noiz arte ote?

Pasaia leku zen Harginarenbordako erreka hori; belarretako denbora hartan, usu bazen norbait hango bidean goiti edo beheiti zoana. Gehienak oinezkoak ziren leku horietan, gaineko etxe horietakoak, Usteleiko, Larrabuztango, Gorriaeneko, bai-eta Bidarra Ganarriko erreka hortakoak ere Lekunberria goraxago eta Galtxagorrian beheiti. Alde hortarik asto

koxkorraren laguntza ez zuten hastiro zenbaitek, berak arinago ibiltzea gatik baizik ez bazen.

Gorriaenetik ateratzen zen aski aise gizona. Astelehena balinbazen, *Juan Gorria* joanen zen xuxen Donibaneko merkaturat, zaldi gorri pollitean hain zuzen, asurtimenduz bezala. Beheitikoan hiepakoa bat eginen zuen «Ari ziiiztea» botatuz ozenki, orduan joan behar zuen aintzina, ez hutsegitekotz Eiheraldan Aitattoren autoa. Aratsaldean, etxeratekoan, lasaiago zen gizona, berri zenbait ikasirik beheretiarrekin eta astia ere hobeki hartuz, ez baitzuen gehiago autoaren hutsegiteko beldurrik. Gisa guziz, plazer bat zen hor gaindiko jendearekin solas egitea. Eta oraino, ez dugularik deus erran *Ganiz Larrabuztan* beste gizon eder, artzain, laborari, tratulari, berriketari, auzo gaintar prestuaz! Ez, ez dakite oraiko jendeek zer galdu duten, oraiko tarrapatarekin, elearen eta elgarren arteko berri eta kurutzamenduen gostua galduz zirurikan eta beren tarrapata-farrandetan agurrik ere gabe doatzin gure mekanikeriekin.

*Sauveur Garat* ere erreka hortako gizonetarik ginuen, nahiz ez horgoa bakarrik. Gu ginen haurrentzat bere bortitzairea zuen gizon adineko bat zen. Gora mintzo zen bere bidetik eta erreka pentze hetarat. Ez dakit bainan boz ederreko gizona izana zitakeen bere hoberenean, larderiakoa ere emaiten zuen bere begitarte zorrotz eta idorrarekin, bederen guk ginuen, hurrek, hola ikusten. Ontasunez, zerbaiten jabea izana zena? Hasteko bazituen bere lurrak, ez hain onak izanik ere zoinu faltan, erreka hortan eta goraxago: Karrakeia deitu etxe zahar edo bordaldea berea zuen bi pentze pollitekin edo hiru bainan ez dakit orai zer bilakatuak diren pentzeak eta besteak, oihanak hartzen ari duen mazela hortan. Orai erraiten dute laboraria dela lurraren eta bazterraren zaintzalerik hoberena, hots, ekologista izena ere modan da orai antolatzaille eta apaintzale mota horiendako. Beraz bere laboraria galtzen duen lurrak ez ote du bere zaintzalea eta garbitzalea galtzen orobat! *Sauveur Garat* horrek belarrak egiten zituen Karrakeian, idortzearekin han berean ziritzen, erraiten zen bezala, erran nahi baita meta-ziria egiten kanpoan, holako

metak ez baitzuen euria hartzen ontsa egina zelarik. Bestalde, Karrakeiak bazuen barnerik aski, noizbaiteko biziteia, kabalateia eta belarteia ere aterbetzeko. Belarra saltzen zuela Sauveur-ek, hori ere erraiten zuten, erosle bat gertatzen zelarik, bera kabalaz gabetu ondoan.

Bainan bazuen beste ontasan bat ere Garatek, beheeran: Santoenea etxea, Manexeneko peko aldean, lehenagoko eihara bat baina nik sekulan bihi ehotzen ikusi ez dudana; han dago oraino haren eihara hartarako ur-bilgia, Berterrechen arraintegi bilakatua. Bera bizi, bera hil ere zen Sauveur Garat gaizoa: adin haundiskoan, supazterrean zagolarik, sua espartin muturretarik lotu zitzaiola erran zuten eta hantxetan hila da, errerik, Sauveur dohakabea, zerbait pairaturik itxura guzieren arabera.

**Kisu-labeak** ikusi ditugu ene adinekoek Haitzaldeko inguru horietan. Beste elkarlan batzu izan dira horiek hor gaindi, orai osoki galduak direnak denetan eta oroitzapen xaharretan klasatuak ditugunak. Kisu-labeak behar zuen kisu-harria eta alde horietako harri motetarik bat zen labe horien kisu-harria edo gisu-harria. Haitzaldeko lur gorriak eta burdin-harriak aipatuak ditugu gorago, beren lur ona ere dutela, artoa eta holakoendako. Harri lauzak ere hortik ateratzen dira, zaflaka, plaza, edo parke batzuetan marmolaren pare baliatzen direnak apaingarri edo edergailutzat. Larlako mendia holakoz aberats da. Harrobiak izan ditu, noiz-nahi hor gaindi, Idobeltzaga, Xapeteindei, Angel Xufindei eta holakoek erabili dituztenak ainitz karga jautsiz menditik eta erregebideraino.

Bainan beste harriaz hasia ginuen ere solasa: hura baita harri zuhaila, Belaztei eta Maixterrengo aldean ikusten dena, besteak beste. Harri hura zen erretzen zenbait egun eta gauez kisu-labeetan, egur alde gaitza bildurik oihan edo xara batzuetan suarendako. Guk ezagutu ditugun kisu-labeetan, horra Usteleikoa, Barnetxeko ondoan Plaxakoa, eta Buxtintokoa, Etxeberrikoa. Bainan badira ere ainitz eta ainitz kisu-laberen lekuak inguru horietan denetan, orai ehun urtetaraino baitute hurbil zenbaitek hetsiak direla eta beti ikus ditazkeenak Bastidan, Urdozen eta beste ainitz lekutan. Eta bazen

etxe bat, hau ere aspaldi hustua, kabala-tegi ez bada, Kixia deitzen zena, izen hori bera mintzo da hor ere; Usteleiko etxearen bestaldeko mazelan zen etxe hori, aspaldi huntan Bastida-Etxeberriko ontasun dagoena. Kisu hori (igeltsua Lapurdin) eremaiten zuten, orgataraka, auzoek eta herri guziko batzuek ere beren pentze, alor eta lurren kisuztatzeko; etxe xuritzeko ere bai, urteko besten aintzineko astean.

Horiek guziak izan ditu beraz Haitzaldeko errekek, izana gatik lurrez xuhur eta ontasunez aski mugatua. Erreka horren aberastasuna, ororen buru, ez ote zen halere, jendeen eta gure herrixken arteko kurutzamendua? Eta hemen heldu zaizkit gogorat, neureen gainerat gure aita, ama eta Bidarraiko jendakietarik entzun ditugunak. Hetarik dakigu nola joaiten ziren Bidarraiko bestetarat, han hoinbeste lehen kusi izanez gure aitatxi amatxien ganik. Omone oneko lagun arraiak zirela bai, raiteraiteari, Bidarraitar gazteak, bai-eta zaharrak ere beren heinean, besta egiten hasten zirelarik euri ala ateri bainan beti espartin xuritan eta beti omone onean. Gainerat ait'amek kondatzen zaukuten nolakoa zen Bidarra. Duhau jaun erretor haundi eta mintzo gorako apezak, berek bestalde Lurdeko beilarietan ere ezagutua zutena, predikari haundi eta ez batere herabea. Horrekin batean seinatzeko da hemen, lehenagoko Baigorri eta Bidarraiko jaun erretorek, eta bikarioek orobat ezagutzen zuten bi herrien arteko bide hori, Lamottaeneko eta Haitzaldeko errekan barna, batetik besterako adorazionera joaiteko, oinez, bixtan dena. Bizpahiru orenen bidea, joaita bera, bainan ez ahal zuen oinez ibiltzeak lotsatzen orduko jendea, ez-eta apezak, are gutiago.



# Etxeetako operak

---

**G**URE mende «berri» huntako jendeak badu zernahi gauza asmatu-rik. Berriak ditugunak eta hala uste ditugunak. Hala da bai izigarriko lanketa botatzen dutela bizpahiru laborarik orai, elgarretaratzen direlarik: egun zuenak eta bihar gureak eginez alde bat lanak, bulkada haundika: ala artoetan, belarretan, egurrean edo garraioan beren tresneria alimale horiekin, eta zer abantzua hartuz lanetan!

Hoinbertze tresna gabe, bazakiten haatik lehen ere elgarretaratzen laneko: belar epaiteak, iratzeak, mahasti aitzurreak, ogi-joiteak eta holakoak, deitzen zituzten operak, bederen herri batzuetan, ez baitzituzten ez erortzerat ez galtzerat uztekoak holako parada ederrak.

Langilez erreparoa egin behar zen aintzinetik. Guk eskolaratekoan, edo handik landa, behar ginuen egin orai telefonaz egiten den funtsa: «Aitak erran du, hea jinen den ziin Manez iratze pikatzera helduden ortzegunean». Edo mahasti aitzurre, mendian harri zerratze (Iparlan behar ziren ardiak gaineko harri peña lanjerosetarik zaindu), mendiko ongarriketeta... nik dakita? ): guk, haurrek, ez ginuen axolarik, zerbait izanen baiginuen ainitz etxetan, komisione saritzat. Etxean, amarentzat trakasu zen langile biltze hori: beharko baitzuen ase jende hori guzia, arnoaz ez ginuen kezkarik, etxe guziek baitzuten aski mahasti gure auzo guzietan urteko arnoarentzat, eta zenbaitek gehiago.

Haurren besta zen egun hura. Jeikiak ginela goiz hartan goizik, entzun orduko lehenbiziko tailu, pikotza edo palekin, Geexan, Inazio, Manez edo Mizel. Bat edo bestea bazen heietan aski arraillanta edo haurkina, gurekin beti jostagura zena,

eta norbait ginen gu ere egun hartako jende berriarekin.

Lana bestalde, eta hura orozgainetik. Ardi-moxtea balin-bazen, hala-nola arditegi haundian, bainan ez ziren haatik orai ditugun europear diruz lagundu borda haundiak bezalakoak. Ezarriak zituen aitak hiru mahi, (haundi bat eta bi ttipi) lurrean aiseago ari zirendako mahi beharrik ez. Alabainan gazteago batzuek, eta guziz otto Piarre, hura beti gazte alabainan, zainez, moimenduz eta nahikeriaz, gizagaizoa, heiek lurrean berean moxten zuten ardia, mahirat altxatzeko lanik gabe. Azken horiek beraz hola moxten zuten ardia, ez baitzuten gerruntze gogordurez axolatzerik. Gazteño bat ariko zen ardien ekartzen edo hurbiltzen moxtaleatarat. Hunek behar zuen erne ta zalu ibili, guziz antxu gazte basa batzuekin, edo, orobat, haixturrekin ez oraino ikasia, bainan bazuen lan haundia, moxtale guziak haixturrez ari ziren denboran. Baziren ere beste lan bereziago batzu: ardien tripa-azpien egitea, joarearen kentzea beste bati ezartzeko, ustai eta klaskak ikusi nola zituzten, edo maingu lotze edo holako.

Beren jauntziak egunari zoazkionak zituzten. Aitak atorra xahar bat ezartzen zuen gibekekoz aintzin, edo beste batek xamarra edo bere soineko zahar bat hala-hala. Makur ttipitto batzu ere gerta zitazkeen erran dugun bezala ardiaren moxtetan: haixtur sista bat, larruan piko bat eginez eta odola ateratuz. Piko hori gaizkuntzen ahal baitzen zoinu eskasez, bazen artatze bat bederen berehala egin behar zena: izaiten zen, botoila beltz batean, kresil xorta bat, usain tzar bortitzekoa, beti han zagoena: hartaz erreko zuen haixturren pikoa okasionezko etxeko marexal artatzaileak eta salbu zen kabala gaixoa hortan truk, ustegabeko makurrez kanpo.

Holaxet, eguerdi zaharreko moxtuak ziren ardi guziak, urteko antxuak azkenik. Batzuetan gertatuko zen, uste baino luzeago joanik lana, azken hauk soberatzea, bainan hor ez zen afera bat: berdin hauk etxean gelditu beharko baitzuten pentzean bazkatzeko, aitak berak moxtuko zituen hor berean emeki emeki, bere urratsean ondoko egunetan. Batzu eta besteak, gaixoak, goseak arrailduak baitziren goiz guzia hor barrur egonik, behar ziren kanpoko aire eta bazka librorat laxatu

lehen-bai-lehen. Hori gure lana zen, haurrena, petik gora largatuko baiginituen zakurrarekin. Gizonek orai bururatua zuten beren lana eta joan zitazkeen, emazteek prestatu bazkariaren gozaterat. Frangotan amak hor izanen zuen gure izeba, laguntzeko. Hau, ttantta Kattalin, kozinan arras trebea eta gure amaren ordain segurra eta ama galtzearekin etxean behartuko zaiguna. Eta horra ardi-moxteko bazkaria: baratzekari salda, arroltze egosiak olio ta ozpinean eta urde-gibelkia, gero atzarkia, ilar-saltsa edo lursagar frituekin, ardi-gasna, etxe pastiza eta arnoa, jazkotik.

**Mahastiko lanak** ere hor ziren. Denek badakite alde bateko lan segitua duela mahastiak eta jarraikitasun haundia zor zaiola egunero. Bainan baziren urtean behin gizonak elgarretaraten zituzten lanak. Horietan, mahasti aitzurreak. Lehenik, muga-altxatzeekin prestatzen ziren aitzurreak, Eaparriko mahastian, Elgartekoan, Hargaitzekoan eta Haitzaldekoan. Mahasti aitzurrean, metra erditsuko lur paldoa itzultzen baitzuten aldian eta altzabringoan bi gizonek bikotean, behar zen lur hori, ordainez, goiti ereman, sailaren bururaino, hori deituko baitzen lurraren goiti atxikitzea. Muga goititze hori mahastiaren zolatik gaineraino egiten zen tonberoak deitzen ziren orgatxoz leku onetan, edo bizkarka, saski ttipietan, halanola gure Eaparrikoan, hain zuzen hau baiginuen etxeko mahasti hoberena, arnoaren gradoz eta gostuz (hortako zuen baliu bizkarka artzea). Hola prestatu mahastiko lurra, egiten ziren mahasti aitzurreak udaberrian, iepako batzu edo irrintzinak ere entzuten baitziren egun hartan mahasti batetik bestera urdoztarrekin.

**Mahastien mitriolatzeak** jinen ziren geroxago, aihena hostatzeari emaitzarekin. Mitriolatze horien egitekoa zen, mildiou gaitzetik beiratzea, horrek hostoari eta pikorrari ubeldura bat emanez ekartzen baitu gaitza, artatze hori egiten ez bada (bederen gure lekuetan, bainan Nafarroa eta holako toki sanoetan, aroak berak egiten du beiratze hori, han den iguzki beroarekin). Hiru ihinzta aldi behar zituen mahastiak mitriola hortaz, ekainean, uztailean eta agorrila hastean azkena. Gure etxean, bi mitriolatzaile ari ziren mahastian punpa bizka-

rean, bakanago hiru, arropa arruntez jauntzirik. Gu gazteetarik batek, edo Marienak, eta, lehenago, ama zena ere ikusi dut lan hortan, behar zuen mitriola ura ekarri gizoneri. Ihinzadurara harek bazuen, ura ondartzan zelarik eta punpa husten, bere soinu berezia, txit, txit, txit; untziaren zolako aireak egiten zuen soinu hori eta orduan «Ura!» oihu egiten zuten handik aitak edo ottok edo Erramunek. Ur-ekarleari zoakion, mitriolatzailea lurean jarri-ta, punparen betetzea, haatik kasu eginenez emaileak bizkarreko larru gainerat ura ixuri gabe, hunek erredura bat emanen baitzuen izerdiarekin batean. Ofizio bortitza mitriolatzea gisa guziz eta euria baino hobe bero idorra izaitea gostaia gosta, lan hortako, nahiz iguzki beroak ere min egiten zuen, uli-lesparen ausikien erdian.

**Iratze pikatzea** beste lan bat zen Turmutiagan, Arrate edo Otsosaiko larrean, Axerilepon, Haitzalden edo mendiko bordan. Bospasei gizon, denak ere gaztetsu balinbaziren hobe, joanen ziren sailean larreari goiti, gorakoan iratzea pika eta beheitikoan espalka. Tailu motzarekin pika eta hunek zaukan arrastailu ziridunak lagunduz, bere ganat biltzen zen iratzea bi aldiz gain-azpi itzul eta ondarrean zangoz zapa. Han berean idortuz karta bezala taulaturik jarriko zen espala eta handik arbarat biltzeko errexat. Bakar bakarrik, haize lekua balinbazen urrietako hego basa batzuetan, hobe zen harri bat edo bigaren pean segurtatzea espala haizearen gatik, nahi bazen ondoko egunetan bere lekuan aurkitu. Arba zer zen ere hobe dut esplikatzea: handik aski hurbil zen ametz edo gartzaina abar bat edo biga mozten ziren, iratze-lekuko malda kankarretan heien gainean kargatzeko orgetan bezala. Gain beheitikoan, iratzea arba gainerat eman eta eman, eta hola egiten zen arba-tara: tiratzeko ez zuten nekerik gizon bakar batek edo biek, terresta-bidea deitzen ginuen malda lerrakariari beheiti. Aldiz, ez bazen aski xuta tiratzeko, etxeko astoak edo mandoak egiten zuen lan hori. Lan hortan ere, mahasti aitzurretan bezala, omore on eta alaitasun biltzen zuten langileek, bereziki gaztetsu balinbaziren edo trenpu onean hauk, ez baitzuten hor ere ur hotxez betetzen xahakoa etxe on batzuetan bederen.

Alaitasun hortaz, hau erran behar da xoil xoilik: alege-  
ratzeko ez zagola denbora hartan gure baserrietako gazteria  
kanpotikako alai garrien menturan. Zinema, irrati eta transis-  
torrik ez baitzen, dantzatokiak ere arras bakan, guhaurek egin  
jostagailuen menturan ginauden: kantu, bertsu, zirtu edo aiu-  
fi! Besteak baino hobeak ez, baina libertigarri eta guziak,  
etxeko etxeko. Etxeko etxekotasun hortan naizelarik, aitor-  
tu behar dut halere, ez zirela ez lan guziak holako opera alaie-  
kin egiten. Opera bat egiten zuen etxe bakotxak auzoekin or-  
daintuz orobat. Eta hauk berdin. Gorenaz biga. Gainerate-  
ko lanak etxekoek berek egiten zituzten, pirka-pirka, sasoina-  
ren gustuz. Hala nola iratzeak urrietan, hiru edo lau astez...  
nahiz ihizia ere hor zuten, sakratua, bederen zenbaitek.



Belarreko hiru anaiak, esposekin eta osaba izebeekin.

# Bidarraitarrak

---

**B**IDARRAITARRAK erraiten dugu kanpokoek ai horrekin, herri horren izena bere osoan erabiliz bastidarren lehen auzoendako. Berek aldiz bidarritar laburtzen dute, a hori kenduz, hango berekoek. Jite arina, arraillanta eta elgar-hartze onekoa du bidarritar edo bidarraitarrak. Ez zen herri hortan jende haundiki, haundikari eta buru haundi hetarik batere, ene ustez. Etxalde ttipittoak bastidarren gisan, artaldea etxeko lurren izarikoa gehienetan, ez zuen nehork egin-ahala baino gehiago lan eta buru-hauste hartuko. Langilea bai jendea, eta bere lanetik bizi zena, bainan beti neurritz eta izarian ari. Goizean goizik urratu duen ildo edo sailak ez zion buruko minik emanen bidarraitarrari, baitzakien beti aratsean bururatzeko heinean zuela abiatua. Edo, aroa aldaturik, ala tresna bat makurturik, ez zen sakre ta patarraka hasiko etxeko nausia, jakinez egungo euriak biharko aterria dakarrela eta gaurko desbi-deak badaukala jalgia bat bihar ez bada etziko.

Bestalde, badu bidarraitarrak beti aski joko, bere lan eta lanarteen aldizkatzeko. Holako alderdiekin, nun duzu Bidarrain bezenbat pilotari, kantari, dantzari eta lagun goxo? Ostatuak berak, beren etxerateko pausaldi goxo dituzte, herriko eskola, eliza, haroztegi-botigak, bilo-moztegi eta arraintegiak elgarren kurutzamendu. Emazu, irakurlea, bere hegi eta konkoretik karrika bazter hetara jaustera behartzen dela gaintarra, zernahi beharordu edo estakuruz; berriz goiti abiatu baino lehen, egun ez bada bihar goizean, hartuko du bisita baten astia goizaren, edo aratsaldearen, edo egunaren gostuz, ostatu bat eta bestean lagun on batekin mintzatzeko. Eta jakizu baduela hortan hautua: lagunez ala ostatuz. Nahiz ez den orai Bidarraiko etxeetan lehen zen jendeketa hura guzia, beti ba-

dago nunbait zu iduri bat bakartasun hartarik kontsolaturen zaituena. Hots, jende agrados, laño eta maitagarria beti zureztzat, nornahi izan zaiten, Bidarraiko jendea.

Horiekin guziekin, pentsa beraz nolako oroitzapen onak ditugun guk Bidarraiko herri ona gazterik ezagutu ginuenek. Bereziki nik, hor nituen ezagun eta kusi guziekin. Oroitzen naiz hango kusiak gure etxerat jiten zirelarik. Haurrak ginearik eta burasoek bazkalondoko pausarat igorriak, elasturi arraro baten marmarak iratzar-arazten baiginituen gure lo pisu hartarik aratsalde lehen treinararen pasaiatik landa. Hor jautsiko ginen, eskalera dirdiratueta beheiti, oin-hutsik, begi haundi batzu idek eta torra, beste aldera dudaka itzul eta bira bi aharrosia neke ahoa zabalka, oraino lo-gaitzari ezin gaina hartuz, eta azkenekotz andarka, ttipi-ttapa. Aintzina eskalera zolara mentura gintela, ama zen hantxetan mintzatuko zen lehena: «Hea! Zer erraiten den Antxordoiko, eta Intzabiko eta Harritoeneko kusier: «Ontsa zirea, Majia? Eta zu, Añamari? Zu ere ba, Ameli? Hea potta, azantzarekin?» Hiruetan Ameli urrunduxagoa bezala ginuen jendakiaz, amatxiren lehen kusia ginuen naski haren ama xaharra goren gorenaz, Harritoeneko Geexina, bainan ez zuen horrek inporta batere: biziki atxikiak ginen beti Harritoeneko guziekin.

Eta zer graziak, eta hitz legun maitekorrak! «Nola haunditu diren! Orai Emilek hamar urte? Ala bederatzi oraino? Luzatu baita!» «Baa, beti perestu balire ba!» amak. Egia-erran, ez ditugu egundaino entzun gure ait'amak gure laudatzen eta gure zuritzen kanpokoen aintzinean, eta eskerrek hortako ere heieri, ez baitu haurrak legunkeria sobera beharrik bere etxekoen aldetik. Ez-eta idorgorik ere, bainan egia eta lañezia lehen. Bereari segitzen zuten aintzina Antxordoiko eta Intzabiko bi ahizpek, dena ele on eta grazia: «Hau dena aita, eta hori berriz arrunt Bidarterat, aitatxi ere ez du ukatuko». Erran behar dut, amak konplimenduak laburturik ere, doi bat gorrituak eta kasik haztoratuak ginela gu, orduko haurrak, hainbeste ele onen pean. Atzoko haurrak baiginen gu, guti jaliak, gaurkoen aldean urttun eta herabe, supazterreko alki xokoan itzatuak bezala ginaudelarik gure burua gorde eta kukutuko baiginuen ahal izan baginu.



Beste aldi batzuez, baginituen Bidarraiko kusi gizonen bisitak Bastidarat. Emazteak treinez izanak baziren jaz, gizonak berriz oinez ere jiten ziren zenbait urtetarik, Haitzalden gaindi Besakuntzen eta Iturri-xaharrean gora, gure etxeko ontasunak eta bazka-kabalak astiz begiztaturik pasatzean, izanen baitzuten segur hortarik beretik solasaren lokia aita edo aitaxirekilako: «Eta! beste laraki hura egin zinuten, orai arras pentzetua hura! Eta xolako arto hura aurtan indarrean, beltzazten hasia kolorean azken euri erauntsia horiekin!» Aitak berriz bere tripako mina, jazko harri erauntsia harek ainitz markur egin zuela mahatsean, auzoetan berdin... Hortarik bazoatzen ardi, bildots eta mendiko berrietaraino, hots, laborariaren mundu guzia ikertuz. Gizon solasak zirela horiek oro, hori erran dezake gaurko irakurleak bainan hola da, denbora hartako haurrak ere hantxetan egonen zirela, alkiari beti josiak: ez ginuen guk orduan, hurrek, beste solasik ez-eta beste kulturarik, orai erran litakeen bezala, alde bat solas horietan haundituak baiginen jende helduen artean. Halere, sarri-xago igorriko gintuzten gu kanporat, aire hartzerat, haundisolasen artetik: jostatzerat edo... gibelondo zerbaitetarat, haurren gibelondoak, hala-nola antxuen alhatzeko tenorea zela jada, edo behien pentzerat eremaitekoa.

Bidarraiko gure kusi gizonen gure gisa beti nahi baino laburragoa zuten gurekilako eguna, mahastietaraino agertze bat eginik, eta Urdozko aldeari behatuz Hegikogainetik, baitzen hortik hainbertze solas eta berrikatze egiteko hangoez. Zernahi izanik, beharko zuten gure bastidarrek ere ordaina hitzeman haradinoko batentzat, ez baitzuen hutseginen Bidarrrairateko komitak: «Eta ziik, noiz jinen zirezte gure alde hartarat? Andredena Mari hurbildua, ixtante hor ditugu bestak. Jaz hitzeman zinuten. Hea, aurtengo huntan bederen ukanen dugun plazer hori?» Ez zuten karnet eta agenda beharrik elgarrekin hitzartzeko, elezkoak ziren hitzarmenak, urte batek hutsegina emanen ahal zuelakoan ondokoak.

Hor baginituen oroitzapen xoragarriak lehengo itzuliez Bidarra hartarat, guk hurrek eta guziek. Lehen lehenik, behere hortako ordoki zelaiez. Ez baitzuen nehork sekulan ikusi Bastida bixkarrean Antxordokiko eta Intzabiko etxe-ondo-

ko alor hek bezalako zabalguno legun eta joririk: sosa bezain zelai, edo ordoki, gure aitak zion bezala. Bereziki Intzabiko ontasunaz gustatua zen aita. Guretako berriz, haurrak, Antxordoiko xalantaren lillura. Gogoari eman beza irakurleak nun den Bidarrain Antxordokia, Gangurdoenea eta Hargantxoaren behereko zolan, ur-haundiraino doan landaren ordoki gizen eta gozoan: ur-haundi ezti hartaz beste aldetik aldiz Bidarraiko treinen gara edo geltokia. Uraren gainez gain iragaiteko, noizdanikoa baitzen ere hori eta zer ere bilakatua baita orai, ala zubirik etzen denborakoa ote zen, baten hor, Antxordoiko alorraren xolan, xalanta-barkua, Errobi uraren iragaiteko untzia. Antxordokira joaiten ginelarik haurrak, haxe zen gure amets bakarra: ur-haundia untziz iragaitea aldean bertze. Pasaia horren doia arraunlari ziren Antxordoikoak, ez hain segur gehiagorik bainan zer atsegina egiten zauten guri, mendiko pittiken pareko haur baxakak baiginen, ur-haundiaz eta behereaz deus besterik ez jakin, Antxordoiko xalantaren ur-joko horiez. Egin ahal du denboraz beste zerbitzurik Errobi ur haundiak, noiz-eta ametz azalak eremaiten baitziren duela aspaldi urez Milafrangako larru-apaintzaleen taneriarat, Baigorriko aldetik haradino astoz ekarriak!

**Treinbidea eta Erregebidea** ere horra, Bidarrai beren gisan hazten dutela, ur-bide horren gainerat. Herritik beherago doatzi alabaina bidarraitar ainitz beren biziaren irabaztera, ofiziale edo gazte, edo ama-familiako langile. Batzu Baionaraino doatzi, treinez edo bidez ikastegi edo ofizioko beharrez. Ainitz aldiz, bereziki emazteak, Kanboraino, hango eritegietan lana aurkiturik. Lehenago, beheretiar edo kanpotiarrak ziren Kanbon artatzen, bereziki bularbirieta gaitzak etxean artatzen ez ziren denboran. Tokiko jendeak ditu aldiz orai horgo eritegiak eta mediku-erizainak baliatzen, bihotzeko eritasuna, xahartasuneko ala beste. Berritu dira eta beti berritzen ari, horgo Etxeak eta hobe, bai erientzat eta bai langileria euskaldun eta estimatu horren guziarentzat. Denek diotenaz, eria hor beti ta hobeki ekarria da, gehiago dena, bere Euskal herriko etxetik ez urrunegi, bisita eta guzientzat, eta baditu Kanboko egoitzan polikitzten hastearekin, inguru hetako hariztegi eta parke ederak etxerako baimena etorri artean.

**Alta Harpeko Saindua** ere hor du Bidarraiko herriak. Aspaldikoa du horrek ere bere arrakesta eta fama; aski urrun ezagutua da negala edo larru azaleko gaitz bitxi zerbaitez joa den jendea baitan. Saindu edo ez saindu, holako itxura eta sinestea ere ekartzen diote. Ainitzek goresgarri daukate harroka hortako ur edo izerdi hura, dariola. Beren larrua ur hortaz torratzeko dira heldu eta ez dira guti hortik ontsa sendaturik joanak.

Horiekin denekin Euskal Herriko herri pollit eta maitagarrienetarik bat da Bidarra: badira kanpotiarrak, hola gustaturik, hor egin baitituzte beren etxeak, xaharrago bat erosi ez dutenean eta berritu. Zinez daukagu guk, tokikoek, gustu ona izan dutela hautu hortan. Haatik ez dadila horiekin arrotz-herri bilaka Bidarra. Bainan nola ez oroit aitzitik lehenago ere izan direla hor guarda eta errientak euskara ikasi zutenak. Ez ahal da oraiko jendea ttontoago!

Nihauk Baigorri ene sort-herriaz ari nintzan huntan, ez nezakeen gutiago egin Baigorri josi baitut Bidarra ene lehen auzo maitea. Apezgai nintzanean, aita zenak ikusten ninduelarik etxeko lanetarat aski ekarria, erraiten zautan Bidarraiko erretor bat bederen egiten banuen, hor biak izanen nituela: eliza eta baserria, apeztasuna eta nekazaritza. Lagrenade apezak berriz, ene lehen hameka urteetan Baigorri bika-rio ezagutu nuenak, holako zerbait erran zautan, geroago. Jainkoak bere lorian duela, hainbertze zor diotan apezdua!



Belarreko amatxi, aitatxi eta gu.

# Aitatxi amatxiak

---

**H**AINBESTE oroitzapenen artean, nola ez ditut orai arte izendatu ene etxeokak, orotako maite maiteenak, ni naizen hau egin eta nagoen bidean abiarazi nautenak. Norekin dut, egiazki, zor gehiago? Aita eta amarekin lehenik, bixtan dena. Laburra izan zuen aitak aldaira, Bidartetik Belarreat, hots hor berean baita Bidartea, aitaren sortetxea, Bidaurrebeheren, Eiheraldetik bi urratsetan. Bidartean ziren hazi zor-tzi haurride, bost mutiko eta hiru neskato. Izenketa ez ziren urrun ibili aitatxi Mañix eta amatxi Mari: bost mutikoendako bi patroin edo zaindari aski izan zituzten zerutik. Hor ziren Petri eta Joani, Jesusen apostolu lehenak. Jondoni Petrik ukan zituen biga bere gain: otto Betti Bidarteko nausia eta Otto Piarre. Beste hirurak izan ziren Jondoni Joanirendako: gure aita Mañix, otto Joanes 14 ko gerlan hil zena eta Mañix-ttipia, hau Bidarteko osabetan gazteena. Eta horra nor izan ziren hiru ttantta edo izebak: Mari, Joana eta Kattalin. Ez dut erraite beharrik etxeak emanarekin eta ainitz lanen gostuz zuela ekarri eta hazi familia hori guzia gure amatxik Bidartean, duela ehun urte eta gehiago. Aitatxirekin batean, bixtan dena. Bidarteko aitatxi-amatxiak ez ditut hirugarren adinean ezagutu orai erraiten den bezala bainan laugarrenean. Eta zer gizon alegera zen aitatxi, ene bataioko aitatxi, edo gazaita Garazin erraiten dugun bezala. Berak laneko adina aspaldi hartan joana, beti ongi-etorri alaia zuen Bidartean aitatxik, ni oroitzen naizenaz: iturri onetik ura bezala, beti bazarion arrailleria eta zirto on bat lehen solasean berean eta halaber irria ezpainenetan. Amatxi ere bera bezain ximurtua zuen larruan, edo gehiago berdin, lauetan hogoi-ta-zenbait urtetan bainan on zen hau senarraren solas arraien lauzkatzeko, zirto gutixagorekin balinbazen ere.

Orduko Bidartea ez dut hola utziko, oraiko Bidartean zerbait erran gabe, beti gure familian atxiki daukuten aitatxi amatxien etxea. Hor daukat beti Amedee, ene lehen kusietan gehiena, adinez, Albert ene anaia gazteena, eta Marixan, huren emazte onarekin, eta Ximun semea. Denek parte haundia hartu ginuen beren Panpi ona galtzean izan zuten pena izigarrian. Haatik, holakoa ezin-ahantzizkoa izan bazen ere, ez dut hemen ixilean utziko karia hartan ene hurbilekoetan sendituen familia zabal eta osoaren indarra. Agian ez dute ahanztziko ene bederatzi ilobek, nolakoak izan ziren hamargarrenaren galtzean, eta hamekagarrena deituko dutan Itsasuko Jean Robert-enean. Holakoak ziren lehengo gure euskaldun familiak, eta zertako ez gerokoak?

Bidarteko aitatxi ez bezalakoa zen, itxuraz, Belarreko aitatxi. Hau gizon eginbidetsua, dena lana, bere begitartean ere zuhurtzia bipilekoa, elizako eta erlisionekeo urratsak barne. Zenbat aldiz ez dut ikusi, Urdozko elizan anjelusak jotzen zuenean, pentzeko belar-higitzearen ondotik, edo, bazkaiterakoan etxerako bidean, boneta burutik kendurik eta begitartea beste nunbait, anjelusaren erraiten, bere buruko bilo argaldan izerdia mokanesaz torratzen zuela; eta ikusten nuen ere, halaber, aratsean, amatxi eta bien ganbarako leihoan aratseko otoitzaren egiten ari. Eta hau erran behar dut, zuk aitatxi, barka: nola kexarazi zaitugun, Belarreko aitatxi Betti, guk, etxe-ko anaiek, eguerdi ondoko pausa denbora hartan. Ganbara itsuko ofe zaharrean zure pausaldia ezin eginez gure harrabotsekin. Bainan nola konponduko ginen hor zu eta gu elgarrekin, aitatxiren adina ikusiz batetik eta gure haurtasuna bestetik: harek, oraino 80 urteetan egiten zituen lan guziekin pausano baten beharra ba egunerdian, eta guk haurreko haurtasun hotz hura!

Alta etxekeo amatxi ere ez dut ahanzten bainan egiten zuena harek pausarik batere? Baxerak lehenik, eta jatsarekin sukalde-ezkaratzak sosa bezain garbi atxik, hek zirela bai langile merkeak etxean! Ez dakit hortako zen bainan amatxi zen gure artetik lehen lehenik joan zena ene haurreko oroitean, bere anaia Bettiñori hurbilik. Oseba Bettino hartaz gauza gu-

ti nakike, salbu Olhagako Manez lehen auzoak kondatzen zuen hau. Ari omen zen gure xahar hori lasto ateratzen Bordako ondoan: lastoa ateraz, ateraz, meta hura, ziriduna, azpitik lastoa tiratzearen ariaz, zorro haundi batekin sartua; erran omen zion Manezek berari: «Polliki, Bettiño, zuhaur ondar horrek azpian lehertu gabe!» Eta Bettiñok beretik: «Baa, ez die ez zazpi herrik jakinen ni leherturik ere». Egia! Ez baitzen hura bere burua ezagutarazi beharrez ari izana, ez-eta zazpi herritan kurritua ere bere denboran.

Horra nolakoak izanak ditugun gure xaharrak. Ezkondu zirenak ezkondu ziren, horietan, baina ezkontzen zena ez ote zen etxearekin bederen ezkondua izaiten, erran nahi dut etxe-ko lanekin etxearen karga eta eginbide eta griña guziekin, hil edo bizi, eta ezkontza hori ere, betikotz, zinez! Alabainan, ezkondu gabe etxean zagoenak ez ote du beste hainbeste egin, gisa batez, etxeari eta etxe-ko lurrari lotuz alde bat bere burua!

Entzuten dugu orai, edo guhaurek erraiten, hau eta hura lehengo osasunaz. Hala da bai, ikusi ditugula xahar polli-tak eta adin haunditarat helduak, bainan zenbat ote? Azkenik gelditu ziren batzu ikusi ditugu, eta biziki xahartuak zirenak miretsi. Bainan lehenago joanak ziren ainitz ez ditugu guk ikusi. Eta badakigu, ikertzaileen arabera, jendea xahartzen dela orai, lehen baino gehiago. Behar ere, gaurko aintzinamendu eta gastu guziekin. Orai baita gero ta gehiago mediku, erizain, ospitale, zoinu eta xaharretxe, ez da dudarik hobeki ekarria dela haurra lehenik, eta ondarrean, xaharra; sort' aintzinetik beretik, haurra bere amaren sabelean zaindua, eta bizi guzian mila bisita, artamen eta tratatzerekin, mende hunek zer ez du ekarri! Hori, egungo erakaspen berria, bere ondorio onak ere dituen: bizia baita beti luzatzen ari. Ez dea aski frogatua orai, gizonaren bizia hogeitaz zenbait urtez luzatu dela azken mende hortan bana-beste eta betiko irrisku txarrak ukatu gabe! Horrekin josi behar duguna ere badu oraiko gizonak, nahi badu zentzuz hartu eta sinetsi: oro ez dituela halere gaurko berritasunak berekin; badira orai haurrak guriegi eta gas-tatuegi hazten direnak, eta osasunez gurdoago eta beratzago

gelditzen direnak, gero aldiz ez hain bizikoi eta sano. Bai, eskerrak gure xaharri erakaspén huntaz: deus gosta gabeko onik ez dela sekulan izan ez izanen. Eta eskerrak beste ontasun hau utzi baitzaukuten, erorkia gisa, gure etxeetako xaharrek: beren fedea eta familiako maitasuna. Hori ere aspaldikoa da eta frogak emanak ditu gure Euskal-Herrian, beti hobetzearen eta argitzearen beharretan balinbada ere.



# Bastida eta Urdoze

---

**B**ASTIDARRAK ginen gu orozgainetik, Baigorri herritik sei bat kilometretan. Horrek erran nahi du baginituela hor berean beharrenak, batere nunbait ibili gabe. Baginuen Plaza Hegikogainen, baginuen Eliza, hau Urdozeko etxemultxoan, Eskola han berean, Ostatua ere bai gurea, eta bazi-  
ren Guardak ere beharrez beren bulego, familia eta haurrekin. Argitasun gehixago merezi dute horiek orok hemen.

**Lehenik plaza.** Pareta xoil bat zuen, harri pikatuzkoa bere erdiko partean, eta bazterrak harginek kisu-morteroz berdinduak eta legunduak. Leguntze solas, aitortu behar dut ainitz sofritua zela gure plaza xaharra eta ez dela zorigaitzez hobetu geroztik. Bere lurrezko zolarekin, eta bota-harrizat lauza bat pollita murrutik bi metretan, ikusi ditugu Urdoz eta Bastidako gazteak, saldoan, igande aratsaldez, zola horren apaintzeko biltzen eta gogotik bermatzen: lur-zola legundu zuten, bazter-sorotzako marrak berdindu, bota-harria plomatu, murru gaineko burdin-sarea berritu eta egin zuten hor beren gisan lan ederrik aitzur eta palekin. Ondoko igande batzuez ikusi ditugu elgarren arteko partidak: ikusle zenbait bildurik, auzo hartako neskato batzu, edo emazte, eta guziz gazte eta gizonak: mugitzen zela daukat jende aldeño bat, Urdoze eta Haitzaldereinokotik.

**Manexenean** zela erran behar dut egiazko plaza nahiz ez zen batere neurri ofizialetan: ez ginuen afera haundia, desafio eta partida gotorrago bat zelarik, Manexeneko etxe-purdiak, leiho bakar hura hetsiz geroz, egiten zuen plaza pollite-raino jaustea. Haren berri baginakien jadanik, Xantieneko eiheratik edo katiximatik etxerakoan. Eta nola ez sala hemen, orduan ahalaz etxean salatzen ez ginuena, Urdozko eskolatik

Bastidarako bidea, itzulia haundiago eta ederrago, egin dugula, hangotarrekin egina ginuen desafio baten jokatzeko. Aitortua dut naski jadanik halere, Bidaurrebehere hortakoak maiz nausi ginituela pilotan, bereziki Manexeneko anaiak; baina haundiago ere ginituen hango Robert eta Bidarteko Amedee. Gaineratekoan, pilotari politiki ikus zitakeen Manexenean, Baigorriko bezperetarik etxeratekoan hala-nola igandez: eman dezagun, Louis, gazte gaztea baina jokotsua, eta Xan Axkoiti, Justin eta Guillaume, haundiagoetan Leon Harretxe eta Pascal Makozain, orainko Ibarrolaren aitaxi, eta beste batzu, Eiheralde, Urdoz ala Bastidatik heldu zirenak.

**Eliza** ere erran dut baginuela, Urdozko Jauregiari aspalditik lotua, eta dudarik gabe Jauregiaren denboran hasia bederen aintzineko mendeetan, sartzean duen atariaren gaineko harriak salatzen duen bezala: 1666 urtea irakur ditake harri hortan. Jauregiko Janamarik arta haundia zuen eliza hortaz, hain baitziren hura eta horgo emazte ama familiako batzu, fede haundiko otoitz-egileak ere. Lehenik elizaren garbitzea eginen zuten San Josep eliza hortan. Eta hori baino ageriagoa zena denen beharriendako, Anjelusaren jotzea egiten zuen Janamarik, oren xuxenetan, eta batzuetan etxeko bertze batek, eta orai aspaldian, Aines etxekandereak. Betitik entzun dugu Urdozko ezkiela hori Baigorriko elizako xaharra zela, Baigorriko bi ezkiela haundiak egin arazi zirelarik horrarat ekarria.

Gainerakoan, arta berezia izana du Urdozko elizak eta berritze bat ona eginga diote, duela zenbait urte, eskeak egin baitziren Ameriketako euskaldunetaraino, ez dea hala ene klasako G.! Betetzen ginuen igandez eliza hori gure hurreko denboran beheretik eta gaineraino eta zein mutiko ez da hor beretter izana, ni bezala, eta neskatoak beren lerroetan kantari: Elizatik jalgitzean, *Esqualduna* kaseta saltzen ginuen elizako atean beretterrek eta gerla ondoaz geroz HERRIA orduan sortu-berria. Hau etxerat hartzen dute orainko moldean abonatu edo harpidedunek. Neguan berriz, urtats inguruan, bazen Almanaka, Piarres Lafittek egiten zuena J.B. Etcheberri apezka eta holakoekin, eta oroit naiz haren saltzen ibilirik etxez-etxe Mendigain, Ustelei eta Bernateneraino.

Urdozko eliza hortaz nihauk eta ainitzek ezin ahantz: peko kaleria hura, ezkerrekoa, osoki lehertu zitzaigula meza-jalgitze batez, apezgai beretter nintzan egun batez. Ez ditut ahantziak jendearen garrasiak eta harritzea; eta han zela, lurrean, Etxebertzeko Mari, burua arraildurik: zorionez sendatu eta atera baitzen zenbait denbora tratamenduren gostuz. Ez zen segur zauritu bakarra izan Mari gaixoa. Badakite ere erraiteko Uhideko Mariluix eta Matildak, hantxet gertatu zirela biak zureria lehertu haren pean beste batzu bezala; aldiz heien aitak, gure Otto Piarrek, ez ahal zuen laztura ttipia ukan, bera bestaldeko kaleria gainean zelarik, eta handik ikusten beste aldean bere alabak eta Juanita emaztea leher-tuak, bainan ez zaurituegiak, zorionez; leku hartan ziren alabainan Uhideko kaderak, Etxebertzekoen ondoan. Ohidura xaharra, Urdozen ere, eliza guzietan bezala, familiako eliza-kaderen lekua, etxe bakoetak berea.

**Ostatu solas** ere ariko naiz, aipamen baten doia bederen, Bastida eta Ordoze auzoguneaz. Urdoz eta Bastidak ez zuten ez, bi kasko horietan ostaturik, ez batek ez besteak. Ostatu gabe zirela ezin erran haatik. Bakarrik, zerbait baimenen gostuz, izan dute bastidarrek beren doi ostatu. Eta urdoztarrek ere bai. Bastida-Iribarrean bizpahiru mahitara ikusi dira, jendea Urdoze ala Haitzalde ala Eiheralderainotik jinik. Joko bakarra, musa; edari bakarra, pinta bat arno, edo kafea; eta ahusamendua, elgarrekilako solasketa eta goxatzea. Jauregian ere izan da doi bat ostatu, Urdozen. Horietaz bestalde, eta denetarik jendea bil zezakeena, Manexenea zen. Hor haatik denek badakite bestelako maila zela eta Bestak hor direla beti egiten, batzuen eta besteenak. Erran behar da horietan denetan ez dela gehiago lehenagoko besten gustu herrikoi hura bera bainan berezkoa du euskaldunak besta. Ostatu solas, gure etxe Belarrean ere egin izan da doi batez igandeetako biltze hetarik; ni nintzan haurra oroitzen da beti orduko gure lehen auzoaz: Berraburu xaharra, 70 urte hurbil du horrek, adin haundi batek larrua ximurtua ziolarik, bere baso arnoaren aintzinean zigarreta ttorropil baten biltzen ari, edo pipa. Gazteek, ustez, menekoa zaukaten ba, beren gisako trufa arraillan-tekin bainan harek axola guti, bilduko baitzuen bilduko bere

belarra eta hustuko ere basoa, nik biltzen niolarik makila lurrera erori bat, etxerateko, iluntxean! Nun ditugu orai hura bezalako xaharrak? Badira ba, bainan guk ikusten dituguia, me-rezi duten begiz?

# Antzara bere mokoaz

---

**B**ADAUKA lur jori, ordoki eta aberatsik Euskal-Herriak Iparralde huntan, bainan holakoak ez ziren bastidarendako izan. Den lekuan, antzara bere mokoaz alha, bere onetan. Ala ez ote du euskaldunak aski dohain, tokian toki-koarekin egiteko? Beha zenbat euskaldun den munduan gaindi, eta ainitzak Baxenabarre xoko huntakoak, horietan sartuz Bastida xume huntako batzu.

Bizipideen artean, mahastiak bazituzten bastidarrek duela ez aspaldi, hauk azken denboretan ttipituz joan badira ere, jendeak hazindarat emanez. Izan dira denborak, joaiten baitziren bastidarrak Hazparnerat, Itsasurat, edo Ezpeletarat beren arnoak orgetan itzainekin eremaiten zituztela. Aitatxiri entzun diogu lapurtar itzainak ikusirik beren idiak hiepatuz arno kargarekin Bidaurbeheren beheiti zoatzilarik hola Hazparnerat buruz.

Hor ere gauzak aldatu: ez dute gehiago etxez-etxe ibiltzerik, ez ostalerek arnoketa, ez-eta laborariak saltzerat; denetan sartu baita komertzioa bere aiseriak eta soberakinak eskainiz orori, bakotxak hauta dezan. Bastidan, mahastiaren lekua hartu du hazinda xuriak gero-ta-gehiago, ardiz bete dira pentzeak eta alor lekuak; urde hazkuntzak ere abiatu dira; etxe inguruetan eta bide eta larreetan ez da etxeko zerririk gehiago ikusten laxoan kurka-kurka. Europako laguntzak ezagutu dituzte zenbait jende entseatuk, arditegi berri gotorrak eraiki dira, lehengo artzainek ametsetan ere sekulan ikusi ez zituzten bezalakoak. Baditugu orai gazte argituak, irriskatuak, konduetan trebatuak eta xede berri batzuek lotsatzen ez dituztenak gorabehera batzuekin halere.


Horiek ere beren hainean aldatu dute Bastida. Beharrik, bide berriak urratu baitziren Bastidako lurretan: ikusi ditugu, gure haur denborakotz, erregebideak egiten, orduko aski ausartak zirenak; gure aitaxiren lur on batzu urratu baitzituzten erdiz erdi. Eta zer erranen zuen orduko artzainak Bastidan, etxolatik bere hogeï, hogeï ta hamar pinta esneak, edo gutiagoko bizkarrean edo astoan ekartzen zituen harek, ikusi balitu gaurko esneketak hoztegitik kamiun batek gau betean hartzen gure etxeetarik!

Ez dira ez horiek oro buru-hausterik eta odol-gaixtorik gabe bururatu, hala-nola, artalde guzia gaitzak harturik behar izan zelarik etxetik despeitzen ikusi hiltegiatarat, beste artalde sanoago batez ahal bezala ordaintzeko. Ez da, hola, harritzeko, utzi baitziren lehengo arditegi xahar, leiho ttipi harrizko eta xirritodunak, hautarik zenbait erortzera kondenaturik betiko. Eta, denbora berean, tropa berriek bizi behar eta jabeek ere bai holako gastuekin, mendi-mazela osoak dira larakitzuz irauli, ahal zen lekuan lur-berri egiteko. Haatik holakoak ere guti dira gure Bastidan, hemen bazterrak hertsu eta xuhur eta harritsu baitira, edo konkorrak xutak eta malkarrak.

Erran behar da, zorionez, ez duela kuraie eskasik oraiko gazteak: hala-nola, etxeokoren ordaina nunbaitik beharrez, ez direa ikusten orai Lapurdi edo Landesetako behere horietaraino joaiten, hantxetan badelakoan eremu zabalago bat arrandatzeko edo bazkak saltzeko, sasoika bederen; badira, urteko hazkurriaren biltzea gatik, haradinoko indarra egiten dakitenak belarretarat edo beste, bizpahiruna auzoka: aski da galdatzea baigorriar gazte batzueri.

Bateko dena besteko, ez da segur dudatzerik gaurko atrebitu batzuekin. Lanaren ondotik libertitzeak eta bestak: sarri jinen dira Manexeneko bestak: otsailetik goiti, oroituko dira bastidar eta urdoztar gazteak, aterbeño bat ere eginen baitute denen artean. Ez dute ere baitezpada nunbaitik etorri orkeztra haundi eta kario horientzat aski diru. Musika izanen da nola-nahiz, eta kantari ontto horietarik ere, Erramun Martikorena tokikoa, edo Bedaxagar xuberotar harotza, Xalbador-Ihidoy lagunak edo nik dakita? Eta hor izanen dira

bizpahiru auzogune horietako gazteak, ala belexiar, germietar edo bankar eta bidarraitar, ordainez bezala, han gaindi ere hola-hola egiten delakotz bakotzak bere aldiz. Hots! mugitzen, mugitzen oraiko jende gaztea, giroa sano, alai eta sendoa begiratu duten xokoetan.



Urdoze: eskola, eliza, jauregia.



# Gu baigorriar?

---

**B**ASTIDAR, haitzaldar, urdoztarrak baigorriar ere girela ezin uka; Baigorri baita gure herria. Ez naiz oroit noiz eta nola ezagutu nuen Baigorri, bai haatik hango eliza haundi, luze, gora eta ederra ere izan zela hastetik enetako Baigorri, eliza ondoan jaunertoraeneko plaza kaleridunarekin. Harat joan naiz goiz-goizik, amaren eskutik. Hauxe dut ene oroitzen xaharrenetarik bat: zein bestaburu zen erraiteko ez nake, Bestaberri ala Agorrileko Andredena Maria beharbada, edo beste bat, badakit jendeketa haundi baten erdian gertatu nintzala «Ama» niola, emazte baten zaiari gibeletik tiraka, eta ikusten dut oraino emazte on hura (bera ama zitakeen), hain segur gure amaren trakakoa, eni buruz itzultzen eta, zinez kezkatua bera ere ni bezala, eni erran behar izaiteaz: «ez niz zure ama»... Badut ustea lagundu ninduela neure amaren hatxemaiten.

Lehen kominioea Baigorriko elizan, orduan «kominio-ne ttipia» erraiten zen hura, zazpi urte nituenean, hartaz bai badut oroitzen eta behar ere. Badakit bai, harritzen ninduela eliza harek: hain haundia Urdozekoaren aldean. Eta kaleria hek!zerua bezain gora ikusten nuen gaineko hirugarren hura eta bere gisan harrigarria. Alta hor berean duket senditu, has-tean zer zen ez nakiela, halako tirria eta gose bat, zein zitazkeen eder eta miresgarriak Jainkoaren ospea eta ber haren zerbitzua. Gosta gabeko miresmen eta zerbitzurik ez baita, badaukat ene bihotz xokoan Eguberri gozo-gozo baten oroitzena bere latzean, Baigorriko eliza hortakoa. Hain segur ene denborako Eguberrietan hotzena izan duket hori aroaren eta sasoiaren partetik. Holakoetan da urrun Baigorri Bastidatik. Igande ala bestaburuez nehork ez zuen mezarik hutsegiten Belarretik, Urdozen ez bazen Baigorriin. Urte hartan

(1936 an ote zen?) ez zen nehor izan Baigorriateko Belarretik ene ustez. Dakidana da, hotz harekin aita eta ni gertatu gina, bi biak xoilik, Baigorriko Gauerdiko mezarateko; besteek Urdozen egin zuketean biharamunean neguminaren gatik.

Oinez joan ginen aita eta ni Gauerdiko mezarat. Aski goiz abiatu, han gintezkeen karrikan oren bat aintzinetik. Aitak erran zuen zerbait hartuko ginuela Tanbuinaenean, hau baitzen Batita Hargain eta Beronikak (biak urdoztarrak hain xuxen ezkont-aintzinean) zuten plazako ostate hoberenatarik bat. Indarrak harturik, joan ginen mezako, eliza kokorreraino betea eta hura bai Bestaburu ederra! Artetik erran dezadan, miresmen bat izan dut beti, han berean bildua, Baigorriko elizako kantuendako, xoramenezkoa. Gibelesko gain hartarik beziki, zein gogotik ari ziren, zintzurak eta bihotzak emanahala, Mañix Gohonetx, Joanes Erramouspe hargina, Auguste Etcheberri, Jauregikoa deitzen ginuena, Etxeberrieko Pebet anaiak eta nik hemen izendatu nahi nuzkeen hainbeste, nahiz denena zen hola bozten ginituen kantu guzia.

**Bestaberri-bestak**, hitz batez, ez dira ez aspaldian, Baigorrikoak, Heleta, Iholdi, Arberu eta beste batzuen ospe berekoak egiten, beren zanzpur, oilar, kapitain eta soldado bezituekin. Halere, berritze bat eman zieten gure haurrean Olhagaray jaun erretora, Minjonnet jaun mera, Kurutzarritarrak, eta herriko arduradun atxikienek. Gu, orduan izan ginen haurrentzat bederen zerbait bazen Bestaberri, arraberritu zituztelarik zanzpur, soldadoen lantza eta haurren banderatxoak, eta lanpapekoa, eta Mariaren Haur andere xuriz bezituen lerro luzea eta kantu hek, goragoko gizonen orroak ez baitzituen batere durduratzen ez-eta gainditzen. Denen bestak ziren orduan, zinez, bestaberriak eta holakoak: herriko auzapez, axuant, kontseiluko eta orok beren lerroa zaukatelarik berexkuntzarik gabe, Mahi Sainduetan Jainkoaren aintzinean, bizi guzian bezala. Orain ez da iragan denboraz dolutan egoiterik bainan goazen denaden jakinean. Begia argi eta bihotza suhar dauzkanak zerbait ahalko du geroan ere.

Begia xorrotx daukanak, egun eta bihar atzo bezala, hau badaki: betidanik aldizkatu direla gure herrian bi parteak: gi-

zonarena eta Jainkoarena, biek bat egitekotan. Aski dugu guk behatzea zer bilakatzen zen igandea goizeko meza hartarik landa. Mezaren ondotik bazen beste elgarretaratzea, kasik lehena bezain sakratua. Gizon gehienak joanen ziren, elizatik atera ondoan herriko mutilaren «oihua» entzun-eta (jaun erretoraren etxekos kaleria hartarik), inguru hartako hiru edo lau ostatuatarat: hurbilenak, Jauregiko Mutxurdinetarat, erraiten zen bezala, besteak Borddarat edo Oronozenerat, Belexi eta gaintarrak berriz Anaren etxerat (Juantorena) eta hor zituen bakotxak egiten bere asteko «aferak» kafe bat hartzean, autorik ez telefonarik ez zen garai hartan.

Etxeko eta familiako berriak ere han jakiten ziren, duela 75 urteko solas hau bezala: «Nun zintuten egun etxeko nausia, ez baitzen mezan?» Eta etxeko nausiaren koinatak errepustu: «Aratxe ttipiaren batzen gelditia!» Aintzina: «Bazintuten beraz behia, erdi beharra? – Ba, bigarren umezko hura!» Solas hori erabili zuten Belarreko Mañix Oxobik (ene etxeko osaba) eta auzo Mendigaineko Martinek (berak daut kondatua) 1926 ko urtarrilaren 3 ko goiz hartan (igandea). Ez baitut hortan segeturik, hola badakizu zuk ere, irakurlea, noizkoa naizen ni, bai-eta ere beste seme bat bazutela aitak eta amak ni baino lehen sortua (lehen umea) eta... zendua, nik, nolazbait, Emile izen berarekin ordaindu dudana! Haatik, xuxen mintza nadin ni ere, erran behar dut Urdozen izan zela aipatu solasketa eta ez Baigorriin, urtarrilaren 3 hartan.

Zer erran oraino, orduko igandeez? Bakotxak bazuela bere igandea: pilotako dohaina, eta gostua, zuten gazteak jautsiko ziren Manexeneko plazarat, bi-hiru ahamenez iretsirik beren askaria. Bikarioak, heiekin, izan dira Baigorriin, pilotari pollitak, Lagrenade, Zuhubiette, Sanzberro, Gosterratxu, Arrabit, Mogaburu eta beste. Batzu eta besteak jendakinak baitziren, ikusi dira Manexenean, eta Eiheralde-Teilaenaenean, gazteekin pilotan jokatzeko, eman-ahala, eta gero, bizikleta harturik, jo Baigorriko meza nausirat, hamarrak eta erditako, ahalaz Etchart jaun erretorari denak salatu gabe, zer gerta ere!

Gure Belarreko aitak berriz, etxeko nausia alabainan, eginen zuen askal ondoan, bere mahastietako itzulia: ikusiz,

udaberrian, nola hasia zen ateratzen mahatsa, lorea gero ekainean, pikorra handik laster, eta beharko zuen zaindu handik harat bai pikorra eta bai hostoa funtsean, sofratze-mitriolatzek beren ordu xuxenean emaita gatik. Maite nituen nik ere, nihaur meza nausirako ez nintzanean, Bastidako igande goizak: beren sasoiko lurraren arrapitz aldi hartan, noiz-eta kanpoa lore eta pasaiako xoriak xirulari baitziren, maite nituen Urdoze aldetik mutil gaztearen maitasun-kantuak, edo berdin, donado zuhurraren xixtu-mirulak (baitzakien orduan kantuz eta xixtuz euskaldunak). Eta zer musika ez zaukaten bakotxak bere hegitik, bi oilarrek hantxetan elgarri erreferan, eta beharri-luze amorostu batek bere irrintzina alaietan. Horiek oro entzuten ziren auto-moto eta motorren burrunbak bizi itotzen ez zuten denbora hartan.

Amatxiren igandea berriz, hura hura ere Jaunaren Eguna! Bi amatxi baginituen Bastidan, bat bestea bezain otoitze-koak, beren etxeko joste eta apaintze lanen gainerat: gure etxeko amatxi Maji, eta Ospitalekoa, Geexina, etxeak bi urratsetan zituztenak elgarretarik. Orduan zuten adinaren arabera-ko balentria egiten, igandea heldu zelarik, Baigorriko meza nausirat joaiteko: meza nausi-bezperak ere bai, xuxen erraiteko. Eginak zituzten elgarrekin gogoetak eta karkulak. Bazen Eiheralden goizeko treina Baionatik heldu zena, eta bere geltokia hortxetan zuena. Zer behar zen gehiago Baigorriko itzuliarentzat? Salburik, heldu behar zela Bastidatik Eiheralderat treinaren tenoreko. Baziren, salbu zu eta, irakurlea, asto bedera, Belarrean eta Ospitalean: azken hau xuhaila, haundiagoa, eta gurea beltza; biak ere alimale prestu eta segurak. Bainan bi alimaleak, nahiz ez diren mintzatzen abere horiek, goxokiago zabiltzan bi amatxiekin, ezenez gero Ospitaleko Bettirekin eta enekin. Gu ginen alabainan tokeroak, astoen zaintzeko eta erabiltzeko. Amatxi treinan sartuz geroz, guk behar ginituen astoak etxerat ekarri. Eta aratsaldean berriz amatxi ereman treina berriz etorri orduko. Orduan, gu astoen gainean, gure besta balinbazen lau-hazkan, ez zen segur astoaren besta: elorri beltz xixtadunez beteak ginituen sakelak abere gaixoen mugiarazteko lau-hazkan. Gaixo kabalak eta gaixo amatxiak, ez baigineen guk holakorik salatzen azken haueri.

Etxeko artzainaren hau ez dut kondatu: hunek behar zuen igande goiza baliatu, iguzkia goregitu baino lehen, ardi-tako itzulia egiteko, uda hastapeneko ardi-arkal denbora hartan. Baitziren ere, besteak beste, artzainetan, joare, klaxka edo xilintxa soinetan gustu zutenak, holako asti ordu bat zuten baliatuko, beren ttelementak, bati ken eta beste bati aldatzeko, beti ere ardi ederrenak ezarriz soinudun. Eta horra beste lan bat, hau baliosagoa dudarik batere gabe, ardi mainguen lotzea: kanibetaz aztaparrak motz eta garbi, mitriola mokor batzu lehertu, erraustu, aztaparreko minaren erretzeko, erre-dura horrek jauzi zenbait egin-araziko bazioten ere hastean alimale gaixoari. Erran behar da haatik artzain onak horiek oro ikusten eta gisa batez senditzen ere dituela berak: hortako du arta eta axola haundia berak denetaz.

Itzul gaiten orai Baigorri alderat, eta gure igandeetako ateraldietarat. Badu ere Baigorri bere **pilota plaza**, ez nolana-hikoa, herritarrek plaza haundia deitzen dutena, beste herri batzuetan Plaza Berria izendatzen den bezala. Etxauzko semeek zuten hori beren lurretan egin, haritz haundi zaharren pean. Geroztik bere ehun metrak, edo gehiago, heltzen ditu Herriko Etxe eta Etxaluzeneko aintzineraino, eta denak behar ditu, luzeko partidentzat. Luzean edo Errabotean jokatu dute aspalditik baigorriarrek Euskal Herriko hoberenekin, eta xapelak ere irabazi, hortan eta joko-garbian halaber, bereziki 1948-50 aldean, noiz-eta bi andana baitziren baigorriarrek, hoberenen betekoak eta bigarren andana xapeldun atera ere. Joko-garbiarekin hor dugu ere esku-huska jokia, ala plaza-laxoan ala trinketean. Orai Herriarena trinketa hor dago, Haritschelhar auzapezaren denboran egina, bere aldeko ezkerpareta, pizina, eskola, errugbi-zelaia eta guziekin. Bainan lehenik izan zuen Baigorri, gure haurrean, Barruztarraeneko Arce-tarren trinketa, horgo Jean-Baptisten anaia Amedée Arce izana delarik famatuena pilotarietan, hain segur, Leon Dongaitz eta biak.

Baigorri, oro-har, xixteraz dira, atxiki-ttipian, arizan karrikatarrak (Recalde, Olçomendy, Aguirre, Berterretche, Aitatto, Haritschelhar, Cuiburu, Bascans eta beste). Horieta-

rik zenbaiten ikusteko suak lagundu gaitu adin batean, edo geroago ere herritar batzu karrikarat buruz eskapatzen eta badakit nihaurk haurrean ene sakelako diru guzia xahutu nuela behin bestetako partida haundi baten ikusteko.



Baigorriin, Vincent apezpikuari  
Minjonet auzapezaren ongi-etorria.

# Auzo herrietan

---

**E**TXETIK eta Baigorriarainoko hori bai, gainerakoan ez ginen hanbat kurritzen. Hauxe bai beharko dut erran harelere: Baigorriar treina baginuelakotz, izan dugula goizago jalgitzeko fagorea: ez Baigorriar, goiti, hori amatxiren meza-nausiko ateraldia zen bakarrik, bainan beheiti, Baionarainoko hura.

Baginituen, Baionan, bidarraitar kusiak, Harritoeneko Graxiana eta Martin Galtxagorrikoa haren senarra: hau, guarda izanik, erretretarat heldua. Baiona-ttipian bizi ziren beren bi alabekin, Eli eta Odette, hau ene adin bera, berriki zendua dena. Ez ginen ez elgarri hurbil hurbilak jendakiaz baina Graxiana Harritoenekoa baitzen, errana dut jadanik haren ahizpa Geexinarekin ere arras atxikiak ginela. Gisa hortan ditugu heien etxerako paradak baliatu Baionako Tonneliers karrikan: gasna bat eta zenbait arroltze izan behar zituen amak bere ikustate saria holakoetan egiteko usaia zuen bezala, funtsean ez dakit xuxen, nik ez bainuen hortaz ene axola. Gaineratekoan, heien etxetik egiten ginituen gure sal-erosketak aratsaldeko treina artean ginuen denbora baliatuz. Gure aferak ez ziren ez hanbatekoak, Galerietaraino, edo Printafix hartara izaiten ginuen gure itzulia egiteko, bereziki eskolak hastera-koan. Amak bazuen beti han zerbait erosteko, neguko soineko bero, haurren aterki edo oinetako, Baigorriar berean hatxeman ez zuen artikulu zenbait. Eta guk han berean egon behar ginuen, urrunegi baztertu gabe, izarien xuxen hartzeko. Beti solas berak zituen amak hango enpleatuarekin: «Orai haunditzen ari baitira (gu haurrak) hobe dugu aski haundia hartzea». Eta saltzaleak beti baietz, biziki plantakoa baitzen hain zuzen, saltzale horiek guziak ziren bezala. Eta gu haurrak, hoinber-

tze gauza berriz agrados, oro begiz jan behar baginitu bezala, han ginen beti ama baino aintzinago tiraka, bainan amak zio-larik urrats guziz: «Ez hunki, kasu!» eta ez zuela gehiago so-sik, behar zuela atxiki, sarrixago joanen baiginen zerbaiten hartzerat.

Beste bisita bat izaiten zen: potreta-ateratzailearen ga-nat. Hok ziren eginen Buenos-Airesetako ttantarentzat, ama-ren ahizpa Mañañak galdeginak baitzituen potretak edo ar-gazkiak orai erraiten den bezala. Eta hau ez ginuen ahan-zen: gure tratuak eta egitekoak segurtatu ondoan, baginuela gure goxagailu partea, amak hitzemana, Baionako ateraldi arraro horren markatzeko: bestalde behargabeko mindulinke-ria guti ginuen guk amarekin, bainan egun hortan joanen gi-nen xokoleteria deitzen ginuen salun dirdiratsu batetarat. Hantxetan bai, ezpainak aintzina murtxatuz, muntto-mun-ttoa jarririk eta paretako saildua bezain ixil, mutiko plantta-koak ginela gu epe labur hartan segurik!

Horra nola ereman nauen Baionaraino ene solasak, idu-ri-ta lehen auzoa ginuela guk Bastidatik Baiona. Ez da hortaz gehiegi harritzekorik: ez ginuena gure gisan auzo herri lehe-na Baiona, aitaren etxe Bidarteko auzoan treina hartuz geroz, Baionan ezartzen ginituelarik karro haundi beltz harek bur-dinbidearen beste buruan oren bat eta gehixagoz! Bien artean baginuen ere, egia erran, Uztaritze. Han ginuen izeba Mari, Belarreko amatxi Majiren ahizpa, Frantxua senarrarekin bi seme baitzituzten, Jean apezgaia, apeztu gabe hil zena, eta Pierre, hau pietun izan dena, ezkondua bainan haurrik ez.

**Donibane Garazi** hor naukan beste alderat, Baigorriren auzo herrietan gotorrena eta hemen beti Donibane deituko duguna egundainotik egin dugun bezala. Bere auzoa eta, doi batean bere partida ere izana du beti-danik Baigorri Doniba-ne Garazik, halako «hi bahaiz eta ni banauk» aire batekin bai-nan nago auzi gisa hortan ez ote duen gehienetan Baigorrik amor eman behar izan. Ez dut erran nahi auzotasun gaixtorik badutela bi auzoek bainan hemen heldu zait gogora, duela ehun urte edo gehixago, Baionarateko treinare hori, «omen» erran behar badut ere. Ez ote zen eztabada bat izan orduan,



trein bakarrak bi herriak zerbitzatzea debekatu zuena: Arrostatik, lehenik Baigorri alde, Bortzirietara jinen baitzen Baionatik trein bera, eta gero Irulegin eta Azkaraten barna Donibaneraino helduko. Dena den, hor dago beti bizi Garaziko treina, bai-eta Baigorriko autokarra. Bainan noiz ibiliak gira zu hortan ondarrrik, irakurle ona, eta nihaur ere?

Bego hortan treina ren hori eta bizi gaiten bakean bi kantonamenduak, eskuz-esku, Garazi eta Baigorri.

Donibaneko merkatua dugu, aspaldidanik, biak ere bilzen gaituen lokarri hoberenatarik bat. Hain zuzen, neure ama zena baitut aipatu gorago, Baionarateko ateraldietan, goazen berriz ere harekin ene oroitzapen goxoetan. Gazte gazterik ikasi dugu guk, orduko haurrek, Donibanerako bidea ere. Aitak erosi zuen behor gorri-beltzaran bat eta lau errotako karrosa. Hau pisuegia zela oharturik, bereziki Okoz eta Irulegiko maldetan tiratzeko, huna lehena saldurik erosi zuela bi errotakoa, kautxudun karro ezti eta arinagoa, zerbitzu ederrik egin baitio berari eta berdin amari eta familia guziari. Baigorriko meza-nausirat eremaiten ginituen hiru-lau lagun etxetik bestaburuetan bereziki, eta auzoko bat ere orobat. Baigorriko elizarainokoa bazoan behorraren trosta ontsa neurtuan. Gibelatekoa ere bai Eiheralde ta Manexenerainokoa. Elizako ofizioaren artean Gereziteneko establian uzten zen karrosa eta han berean behorra Urrikaiteko ondoan.

Donibaneko bide hartarat itzuliz berriz, ez ginen guti lo-riatzen gu, haurrak, amarekin merkatu egun batzuez Irulegin gaindi, Okozeko etxeen izenak ikasiz bidean patarraren Baigorriko aldetik: Agerrea, Etxeberria, Burddunenea, Inda, Intzaurpea, Auzkiria eta beste guziak. Gainerat-eta, horra Anhauxe eta Irulegikoak, Menta, Irungaraia, Uhaldea haratxago eta Garazi guzia han beheiti...

Bere kabala maite du, eta urrikari beti laborariak. Hortakotz ez ginion beti Irulegiko malda pasaraziko behorrari bere karga guzia tiratuz, bereziki ernari gertatzen zelarik. Orduan, doi bat luzaturik ere hola hobe zela, Okoz eta Irulegiko aldea utzirik, bide luzexagoa hartuko ginuen bainan eztiagoa, Arbazarren eta Xantienean beheiti, Baiuntza eta Arrosako errekatik hango zubian eskuin hartuz, gero Uhaitzeko erreka, eta

Azkarate Bidartea eta Izpurako Itzaalgi ondoan barna Uhar-terat heltzeko gisan erreka erreka.

Donibaneraz geroz, ez baita holako Pariserik, emanen zuen hor denak baginituela: merkatu plaza hura, jendea behe-retik gainera eta gainetik beherera saltegi aintzinetan kurritzen duena, ikus, ele eta eros, haratzago Espainiako karrika eta beste xokoak, gorago kabala merkatua bainan horiek orai, itxuraz aski kanbiatuak, halere ezin-ahantzizkoak ditu jende zaharrak, lehengoak. Eta ez dut deus erranik plaza hortako ostatuez eta Garateneko trinketeen egiten diren pilota partida ederrez. Ttipi eta haundiendakoa bazaukan Donibanek. Nik Donibanen atera nuen ene lehen hagina, edo hurreko hortza. Irisarri-Larrenbordako nausi zaharrak atera zautan: semea zuelarik hunek Mendy medikua, hau aho artatzeko lan zaila-goetan ari zen, berak zaukan esku fermu eta trebearekin; bel-durgabea ere erraiten zuten zenbaitek.

Besterenik ezin konda nik, baziren hor astelehen sakratu horietako tratuak, aferetakoak eta onez onean bihotzen tratuak deituko ditugun batzu ere. Nork ez ditu ikusi hor ibiltzen astelehen edo ferietan, adina joanago eta beharrago, sekulan etsitu ez duten mutiko gazte zohitu edo mutxurdingai maitemindu gaixoak? Ez ote zuten ere, behingo batez, bakotxak berea pagatu, Garateneko ostatuan, xokoleta bixkotxekin, bi urtxo zahar-berok, Etxahun zaharrak erranen zuen bezala, egiazko amodioak heien bihotzetan noizbait zinez joko zuelakoan zanpaka!

Auzo herrietan, hurbil hurbilenak aipatuz, banuke ere nik **Arrosa**. Hor egin zuen gure otto Mañixek andregai, Otsamendiko Marixan. Egia ote da bien antxuak nahasiak ziztuzten batez ezagutu zutela elgar Larlako mendi gorriaren bizkar hartan, lehenago Biblean beste batzueri gertatu bide zen bezala! Biek ere ez ahal zuten arrotz gero segurik Haitzalde eta Sataliren arteko tontor harritsu hori. Dakidana da bazterrik nahasi gabe ereman zutela biek elgarrekin bizia, Iribarrengo auzo-auzoan Etsagako xola hortan, Arrosan. Hala-koak ezagutu ditugu guk ere Otsamendikoak, eta hangoa zen Felix Riousepyroux etxeko seme apez zintzoa ere, Mauleko Bixta-Eder artzain eskolan erakasle eta buru izan dena. Gerla

denboran ezkondu ziren Mañix eta Marixan harrabots eta furfuriarik gabe, beti bizi izan diren bezala. Huna nolatsu joan ziren ezteiak eta familiaren elgarretaratzea. Gerla denbora beraz: bi familietako haurride hurbilenak bildu ginen Otsamendirat meza aintzinean eta ondoan. Felix apezgaia semenarioan zen orduan, eta Baionako semenarioa Donibaneko Zitadellarat eremana izana zen istudioentzat bere apezgai lagun guziekin, Baionako semenario haundia alemanek hartua baitzuten beren armadarentzat. Baimen eta permisione guti zen orduan eztei eta holakoentzat: ez batere gerla zelakotz haatik, bainan semenarioko lege zorrotzak ziren holakoak. Beharrik eskukaldi pollita eman baitzion Narbaitz kalonje azkaratiarrak (orduan semenarioko erakasle izanez hau) Felix apezgaiari. Mezako ere ez zuen hunek superioraren baimenik, eta horra zer zion Narbaitzek erran apezgaiari beharri xilorrat: «Horra zer eginen dukan, ni berme; hartu ene bizikleta gibelego bortatik, eta kurri Arrosarat hartan, eztei-bazkarirat, gu bazkaiten sartzearekin». Eta hola egin zuen, bihotza lasai. Han zen ere Braulio, Arrosako xantre xaharra, Otsamendiko lehen auzoa, eta ezteietara komit zena. Soinu eta musika guti, gerla egun heietan bezala, kantuño batzu izan ziren mahian, mezako heien ondotik xantrea eta guziekin. Bazkaria ona ginuen, eta arno ona egiten zuen Otsamendiko nausiak, bera Iruleitarra alabainan, Uhaldeko semea. Eta nor zen lehenik berotu zena? Braulio xantrea bai, eta ez zena hau magnificentaren kantatzen hasi mahian! Hortaz oroit dira ene anaia gazteagoak ere. Zer diren haatik plegu onak, xantre suhar batekin!

**Eta Irisarri?** Hamar urte nituen, gogoan dut eguna ere xuxen, Bazko Zahar bezpera, Urdoz-Jauregiko Jean Leon eta Ainesen espos-eguna. Hunek haatik ez du deus ikustekorik horrekin, Irisarrin egiten ziren orduan inguruetako kabala merkatu haundienak, behi, ardi, orozgaintetik. Gure aitak behi xuria zuen saltzeko, gogoan dut xuxen nolakoa zen ere, bere adar xabalttoekin, eta bazituen tripa azpian bi zain zuri lodito, orduan erraiten baitzuten, xuxen edo makur, esnadun onaren seinaleak zirela. Irisarrirat joan ginen aita eta biak, oinez bixtan dena, Belarretik, hiru bat oren gorenaz, aitak behia kordatik eta ni makilatto batekin gibeletik. Badakit saldua

zuela behia eguerdiko eta han kausitu ginuela gure auzoko gizon bat, laboraria gu bezala eta gizon prestua, bat izaitekotz, Bernateneko Gilen. Bazkaltzerat joan ginen merkatutik, Biddondora naski, Ladix tratulariaren ostaturat. Bazkalondoan, aitak eskatu zuen kondua eta gogoan dut hau ihardetsi zuela xerbitxariak: «Ziendako hamarna libera, eta haur hunek ez baitu arnorik edan, hunena zazpi libera». Nork erranen zuen orduan, egun batez Irisarrin erretor beharra zela arnorik edan ez zuen haur hori. Eta hori, hamabost bat urtez, hots, ene apeztasuneko artzain-etxoletan luzeena orai arte. Eskerrak zuri Jauna, eta zueri, irisartarrak!



Irisarrin, Regine ene kusia  
Beñatekin ezkondu zenean.

# Enautenea, Otikorenen

---

**B**AIGORRIKO bidean baginituen guk, bastidarrek, elizara-koan edo zeharkatuz, «estazione» batzu, ez baitziren oraino arras Baigorri guretzat. Hangoak berriz, ez karrikatar-  
rak hek ere gure gisa, eta ez bastidar ere (norbaitek erran be-  
har holakorik otikorendar edo eiheraldar batzueri!). Hantxe-  
tan ziren beraz otikorendarrak, ez Eiheralde ez Leizpartze,  
hau aurkitzen baita gure etxetik eskuin alde joanez, eta Oti-  
korene ezker aldetik gero Bortzirietta duela aintzinago, bien  
bideek Kurutzebaitan junt egin aintzi bi bideek.

Hain zuzen, baginuen guk Otikorenen ttantta Geexina, amaren ahizpa, Enautenerat ezkondua Belarretik eta han sei haur hazten ari zituena gure adintsukoak edo hurbil, bere senar Nanerekin. Etxe hori, lehenagotik ere, ez zuten batere arrotza Belarre ta Bidarteko odolekoek bainan zer balio du hemen xehetasun guzietan sartzea! Hau halere ezin utzizkoa daukat: Enauteneko sei haurrideetan bat dela geroztik zenda, Maixan Larre-Cedarry, gure etxean ere, bereziki amaren eritasunean, guk ez ginuen arreba baten lana egin zuena Uhi-deko Matildarekin, ahantziko ez duguna. Aise joaiten ginen gu, Belarreko haurrak, Enautenerat, etxeko norbaitekin edo gabe. Bereziki igande egun edo bestaburu zenbaitez: eman dezagun Bestaberri egunarekin. Meza nausitik lekora ez zen afera bat Otikorenerat heltzea bazkariteko, han ginuen arra-kestarekin. Ez oro zaldi-karrosan ez, soberaxko baiginen han-go haurrak eta gu denak batean gaixo behorrendako. Xahar-  
rak ba uzten ginituen, eta haur ttipienak, lehenik igaiterat.

Ez ginuen, bestalde, hortaz axola haundirik guk, hazin-  
den ondotik jauzteka ibiliz bildua ginuen zalutasunarekin eta bagindoazen Zapaoneko ukondoan gaindi karrosarekin elgar

aintzinka orobat zenbait aldiz, Enauteneraino. Hantxet bai lo-riatzen ginela gu hainbertze lagunekin eta zinez jostatzen! Oraino gure beharritan daude Otikoreneko soinu-harrabotsak, gu bastidarrentzat arrotzago zirenak: Baigorri-ko erregebidea ez ginuena hantxetan bekoz-beko, Leizpartze-ko alorren ordoki-zelaiaren harateko aldean, auto batzuen tu-takoak entzuten baiginituen Amoztoiko bihurgunean, edo beste batena Nazabalarreko hegian, edo Salaberria, Iribarnea eta hor, bien artean, Muttikoeneko pentzearen zolan pasatuko zen treinen tutako labur samina bestalde. Alta gurea ginuen ere urruneko behakoa, Iparlaren bekuntzea eskuinetik denbo-ra txarretan hain iluna eta hegoa zelarik hurbil eta argi, nola ere Oilarandoi eta Munoaren patxada ezker, eta Leizaratzuko jauregiaren ospea erdiz erdi.

Bazkariko ernatu behar zen, guziz Bestaberriz, jinen baitzen aratsaldeko bezperen tenorea, eta hek ere nola hutsegin, Enauteneko Joanes eta Kattalin aitatxi-amatxiek zuten fede beroa ez baitzuen orenak tronpatuko. Joanes bai, gizona gizon eta nausia nausi, gogoan dut haren boz latz azkarra, ha-lako herlastura batek bixiago egiten zuena. Salda berorik ires-ten dute xaharrek, arnoa barnean edo hau berex ondotik, eta egun hartakoa mermizela salda zen, oilo jusean egina. Haste-ko, haren ondotik ez zuen faltako aitatxi Enauten solas kar-tsuak: «Ah, zer egiak erran ditiena egun apezak predikian!» Oraino gu uros, ez baitzitzaigun, gutarik bati, larderia zerbai-tekin jabetuko: «Eta! Ontsa egon hiza bigarren kaleriako ko-ro hartan? Han zinuztena denek elizako liburua eta arrosario-ak? Beharrik hor baituzie Leizparz' Beherekotxeko Geexan bere begi xorrotxarekin. Badie ba hor karrikatar zonbaitek zaintzale on baten beharra! Nahiz ez diren hobeak nik dazki-dan gaintar batzu ere!»

Guk, haurrek, laster klikatzen ginituen hango platik ho-berenak ere, eta begia ginaukan Enauteneko nausi-etxekande-re xaharrerri, noiz emanen zuten haurreri xutitzeko baimena, ez baitzuten urrats berean jaten haurrek eta xaharrek. Bagi-nuen-eta hainbeste ahusagailu guk hango etxe inguruetan: oi-loen, ahateen, xerrien tegiak ez baitziren batere gure etxeko-

ak bezalakoak. Haatik «zerrakoak ontsa hets gero!» entzuten ginuen gibeletik, edo beste gomendio frango. Eta baratze alde hartan baginuen Jondonaani udarea, madari goixtiarra, ez baitzen gure etxean hoin goxorik: fruitu xehetto guri batzu ekartzen zituen eta dena jusa zirenak.

Haratxago, Jara alde behatuz kanporat, xoragarriko ordoki leguna ginuen behako hurbilean, Bastidan ez baitzen ordokirik, kasik batere. Otikoreneko arto alorrak goiztiarragoak ziren, nolazbait joriagoak gureak baino. Eta mahastiez zer erran, hantxetan, goragoko patarrean Jarako iraztorren behe-reko zolan: Muttikoeneko, Bidabehereko, Arratxeeneko eta Enautenekoak, handik goiti berriz Eiheraldeko harrobia, bere mendiaren barneko zilo haundi larrutuarekin lurpera. Horrek bai eman duela berea, denbora batez, zenbait hamarkada langilek, lan bortitza eta izerdi frangoren gustuz balinbazen ere, ekartzen zutelarik hortik familiako jornala. Oren xuxenetako lana, baziren hor mutil eta mutil-nausiak, herritar ala kanpotiarrak, frantximant edo espainolki batzuekin. Mintzaira euskara zuten denbora hartan halere orok eta bazuten tuta, lanaren geldi-seinalea. Hain zuzen mutil nausi kanpotiar batena kondatzen zuten: Adarraren soinu hori berantetsia zuen langile batek, brixtez, jausian bezala, egin omen zuen lanetik kanporat, seinale hori entzuten hasi zeneko. Bai-eta mutil-nausiak zalu erran bere gisako euskara berant ikasian: «Fite entsun da tuta!» Elkor izaitea ere ahal dena baita, Jainkoak begira gaitzala!

**Harrobiek** beren denborak egin zituzten Baigorriko inguruetan, nola beste Euskal Herriko ainitzetan, Eiheraldeko harrobia ez gehiago mintzo, ixildu zen ere, gorago, Baigorriko hura, Antxartena deitua. Lana gutitu, familiak ttipitu, sortzeak bakandu, ez da segur harritzeko ehortzeta eta doluek baitute lehentasuna hemengo herrietan sortze ta ezkontzen aintzinean, eta hau da usu entzuten dugun leloa. Ez da harritzeko gure pilota, errugbi, futbola eta besteetako arduradunak haur eta gazte galdez baitaude, eskolak eta katiximak halaber. Auzi eta galdeketak sortzen dira batzuetan herrietan, herriaren huste horri buruz aterabide-keta. Bideak dituia eskas Eus-

kal-Herriak, eta nolakoak? Eta bideak zerendako? Jendearen ekarrarazteko ala behere horietarat joanarazteko oraino herri-  
tik ihesi? Autobide batez izanak dira alde eta kontrakoak eta  
ikusi dira azken denboretan karrketan gaindi holakoen kontrakoak gazteetan, agertuz beren griñak eta beldurrak, LEIA eta holakoek, oihukatzen hasi zirelarik «Autobiderik ez!» Beldur hunek zituen naski ikaritzen: guk hemen behar gauzen eremaile eta urruntzale izanen zela autobidea, lanaren eta langileen eta ontasunaren ekarle baino gehiago. Bai, erne dagoela gure jendea, gazteago eta erneago, hori bederen erakutsi dute gure herrietan piztu diren iratzartze eta muimendu batzuek. Bai, bai, «Herrian bizi», «Lana herrian», «Euskal Herrian Euskaraz», nor dagoke holako deieri bizkarrez eta gogo txarrez?

Ez ginituen ez, guk, haurrek, holakoak gogoan oraino, Enautenetik treinarari so egiterat joaiten ginenean korraleko murru gain hartarat. Bainan nork daki ez ote diren joaiteko gutziak edo herriaren maitatzekoak haur-bihotz batzuetan ordutik sortu, iduri ez zuelarik, gu jauzi batez Enauteneko murru gainerat joaiten ginenean treinararen tuta entzun orduko. Nik bederen nahiago zaitut gertakari pollit hunen goxoan utzi egungoan, zu, liburutto hunen irakurlea: entzun berri-berria baitut gertakari hau herritar batek berak kondaturik lañoki: «Nik orai 80 urte pasa ditut, Otikorendar semea. Alemanian bost urte preso egona, 45 ean itzuli nintzan etxerat beste ainitz bezala. Oroitzen niz atzo balitz bezala: auzoko gazteño batzu jin zitzaizkidan treinarat bila, ene bideko lagun, gure etxeraino». Bai, gauza itsusia da gerla eta zenbat itsuskeria ez du ekarri, egundainotik. Halere onjoak sortzen dira denetan eta perla batzu... uste ez den lekuan agertzen dirdiran. Hau ere ez ote zen erran behar: Euskal-Herri hunek egun hobek ikusi artean!



# Miel eskalapoin egilea

---

**H**UNEK iduri du orai beste denbora bateko ixtorioa eta bizkitartean hau ere ezagutu dugu guk, haurrean. Miel Dorregarai zuen izena, eskalapoinak egiten zituen zurez, intzaur enborrharen bizian zilatuz barnerat inguru inguru araberrako tresna xorrotxekin. Eskalapoinari oin lepoa gelditzen ziztaion larruz beztitzeko eta hesteko. Azken lan hau aitak berak eginen zuen etxean zapeta zahar baten larrutik ateratuz gantzola, itze-puntta xume batzuekin zango bakotxaren izarian josiko zuena. Mielek gure etxeko jende guzien zangoak behar zituen nolazbait izartu eta beste pasaia baten artinokoa ezarriko zituen xeheki lanturik.

Urritzarteko zen Miel. Hortxetan berean da Urritzarte, Bastidako menditik beste aldean, muga hori mendiaz bestalderat iragan Arietan eta laster: joan zintela, gure auzoguneko etxe lerro guzia iraganik petik gora, azken etxea Berroa (lehengo Bordazarrea) eta betiko Berroa, (biak badira) eta joaiten zinen gero, Arraten gora, Pagoxuri, Sohaine, Larrartekolepoa eskuin utzi, eta Arietakoa gaintuz, hor zinuen muga. Espainiakoa edo Goi-Nafarroakoa: handik harat Urritzarteko «bordak». Nik ez dakit zertako deitzen ziren bordak, gure aldean ala beste aldean ere, bakotxak bere familia hazten zuen etxetto hek: hain segur ere emokatu gabeko harriak eta baterre ximinearik gabeak zirelaketz, horgoak bederen, apalak eta xumeak. Bainan badira orai ximineak eta besteak arras ederak dituzten «bordak», bereziki iparralde huntan (Teilanborda, Elixaldeborda, Etxeberriborda, Larrenborda... berdin etxalde haundiak baitira orai bilakatuak zenbait). Orai badakigu edozein herritan, ederrenean ere izan dezaketela etxe hobereenek beren «borda», etxe bilakatuak. Hori ainitz ikusten da

Hazparne batean, etxea plazari hurbil, nausiarendako egoki zen bezala, eta «borda» han, urrunago «oihanean» Hazparne hortan oihana erraiten baita lehengo larretoki urrunentzat. Urritzarterat itzuliz, aski da ikustea zein urrun den Urritzarte bere Erratzu edo Arizkun herriko plazatik.

Bainan goizik airatzen zirela bai Urritzarte menditsu hortako gazteak beren «bordetarik». Ez zuten egia-erran Urritzarteko lurrek beren haurren haztekorik; eta hazaldiak izan zitazkeen ederrak familietan: mutil edo neskato, joaiten ziren behereko etxalde edo ostatu zenbaitetarat, lan-keta. Berak xuhurki haziak, eta ez batere besteak baino xoroago, ikasten zuten lanean laster, eta beren buruen maitarazten gainerat. Gehiago dena, arras apalak baitziren mutilen soldatak gure etxe xumeetan, ohartzten ziren ixtanteko zerbait egiteari, tokiak zauzkan irabazpideetan.

Damurik haatik zenbaitendako, iturri hoberenak agortzen baitira. Hauxe da Urritzarte, Aitzakune eta holakoetan gertatu dena: gazteak leku hobeetarat joanez bizitzera, sortetxeko «borda» haurrik gabe gelditu frangotan, ama xahar bat bakarrik seme bat edo bigarekin, lurak ere larre joaiterat utziz bat bestearen ondotik. Ez guziak halere: beha nolako arditegi eder eta modernoak egin diren, araberako gasnategiekin han hemenka, nehork usteko ez zuen lekuan!

Bainan nun utzia dugu Miel eskalapoin-egilea? Ez zen gehiago gazte, gaixo gizona, nik ezagutu nuelarik. Beraz, Urritzarteko gizon guzien eskalapoinak eginak zituelarik, eta hain segur gehiago ere, zer egin besterik, bizitzeko? Iparralderat heldu zen zenbait egunendako. Etxeko tresnategian edo gibelego bordan eginen zuen bere egoitza eta lantegi xumea. Jana gurekin eginen zuen, salda ogiz ontsa boskaturik eta gurikeria horietarik ahal bezain guti. Eta etzana? Lastoaz besterik ez zuen behar hortako; gaineratekoan, artzain-estaldi beroago batean biribilkatuko zuen bere burua; loditasuna, sasoinak manatzen zuen bezalakoa. Guk ginuen bakarrik urrikari gaixo gizona gure ezjakinean: guhaur ohe xuriaren gainera joaiten ginen, bainan berak ez zuen, mikorik ere, bere burua hola nahi, bere lastoarekin aski ba! Biharamunean, han zela

berriz goizik gizona bere lanari lotua eta ederki lo egin zuela. Gaixo Miel Dorregaray, ainitz haundi famatu bezain errespetagarriko gizona! Eta zein xoratuak egoiten ginen gu ofiziale miresgarri hari so, artetan ele zuhur gozoak altxatuz orobat haren solasetan.

**Beñat espartin egilea.** Neguko ziren eskalapoinak gehienik, eta halaber kabala zoinu edo lur gizen batzuen lanetako: eman dezagun, euriarekin, harri arteketan gaindi joan behar ginuelarik, Garballto, Besakuntze eta Xundako ixteletan gaindi. Halere, ez baita, beharrik, beti euria, espartinak ziren gure betiko oinetakoak lurra idortzearekin. Baginakien, segur, bazirela, botiga horietan eta menttetan, lantegietako espartinak eta zernahi oinetako goxo gainerat, bainan espartin azkarrak behar zituenak, zangoa ontsa asetzen zutenak eta eskuz eginak, orduan izen bat ginuen, bakarra, denek ezagutzen ginuena: Beñat Hariñordoqui, espartin egilea, hantxetan, Baigorriko gaineko karrikan, Behereko Indianoenean. Beste gizon gisa bat zen Beñat, Miel hartarik landa. Ez batere mendikoa hau, bainan Baigorriko karrikan bizi zena. Ez haatik karrikatarra ere izpirituz eta moldez bainan baigorriar xaharretarik, solas goxoz eta denez. Aita familiako ixil eta zuhurra, ez zuen, ondorik ere, plazatar kaskoinkeria hetarik ahoan, gizon pollita zen, beti eztiki mintzo, etxean eta kanpoan, bere alaberi eskola doi bat emana zeien, orduko hainekoa, semea apez Mugerren eta Ezpeletan, eta predikari prezatua Hazparneko misionestetan. Erran behar dudana ere, Beñatek osoki ezagutzen zuela Baigorriko jendea, begitartez eta bereziki zangoz, alabainan: zangoa bai, batek oingainez konkorrage zuela eta besteak xabala, edo trapala edo meharra. Jakizue beraz kausitua zela izaritan bakotxarendako Beñatek egin espartina. Guri, katiximaretekoan heltzen ginelarik espartinen eroatera, amak erran bezala, eginen zaukun galdea xuxen: «Aitarendako behar tuzula? Biek 27 a dute zien aitak eta ottok. Bakarrik, aitak baino zabalxago ottok eta aitak meharago eta hunek zango bizkarra ateraiago».

Guk ginuen ez hutsegin behar amak manatua, katixima aintzinean ez bazen, ondoan berehala, Indianoenean, Antxartetik haratxago eta Anaren jatetxe famatua baino lehen. Eta


nola ez aitor norbait zela Beñat espartin-egilea denbora hartan: espartin-zolak lihoz edo soka-gaiez ziren denboran eta gaina oihal azkarrez, eta zapetak kario, hek igandetako. Aise zuen amak erraiten, gure adinean zango gaixtoa ginuela, bereziki noiz-nahi plazarat eskapatuak ginelarik pilotarat. Horrek zaukan ona haxe zen: Beñat beti hor izanzen zela bere irriñoarekin, gu behartu bezain sarri.

**Joanes urde hiltzalea.** Sekulako larderiak eta burrunbak dira orai hortan ere, heian etxeko urdea etxean hiltzen ahalko dugun bederen, beti egin den bezala. Hala da-eta denak aldatuz doatzila, xerri kozinan eta denetan. Guk orduan behar ginuen, etxeko erresalbuarendako, urde bat ederra lehenik, umeak haziak zituena, gaztainetan, ezkurtean edo pagotxan ibilia, barnean baino usuago kanpoan hazia beraz eta etxean «finitua», erraiten zen bezala. Urde haundiaren bigarrenetako, beharko zen ere, urtea luze baita, ttipixago bat, ehun kilorainoko bargoa, nun ez zen baliatzen noiztenka, hirugarren bat, zerbait ustegabe edo ixtripuren gatik «baliatua».

Urtats inguru hartan hilen zen lehena. Eguberriko bakanzak izanzen ginituen guk maiz orduko. Badut ustea ere erdi-nahitara hautatzen zutela etxekoek sasoi hori, etxekoen biltzeko parada bat ere izanzen baitzen zerri-hiltzea. Eta Joanes? Joanes bai, Joanes izanzen zen xerri-hiltzalea. Teilanbordako Joanes, eta geroxago hura gelditu ondoan, Ospitaleko Joanes gure auzoa... Goazen lehenetik, oroitzapen xaharrenak baitira gure buru-muinetan erroak egin zituztenak. Norbait ziren biak ere, heldu zirelarik beren tresneria ontsa troxaturik eta ganibet eta zerrak dirdiran. Oihal beltzaren barnetik batek, edo larru zaharrezko batetik besteak, jalgitzen zituzten oro, amak ere dirdiran prestatua zuen mahiaren gainerat. Hala da eta: bere tresneriarentzat daukan errespetu eta zoinu berezi hartarik dela begiztatzen lehenik ofiziale ona, eta bere eskukaldi adretetik gero; hor ari delarik, hau negur, hori xorrotx eta torra, hura pika, ukaldi eta jestu bakotxa bere hozkatik emanik piko alferrik gabe. Ez du-eta deusetan hutsegin behar, artista bat bere obraren moldatzen eta apaintzen ari delarik bezala, edo musika bat bere nota xuxenetan ezartzen.

Han izanen zen bai Teilanborda Belarrean, haurrak jeiki gabe. Hauk haatik goiztiar egun, zerbait senditurik usaiaz kanpokoa. Amak, jada, ezarria du bertz kobre haundia lara-tzetik dilindan, nun ez duen aldi huntan, hiru-zangokoaren gainean kokatua. Aita ere hor dabila egun, behingoan barka, etxeko lanetan: zume-mimenekin sarriko, odolgiendako behar baitira hok denak. Tipulak bezpera aratsean xuriturik eta xehaturik ezarriak, bi begietan nigarra emaiten dutela. Bada-eta zernahi xurruburru, eta horietan bat bera ez hutseginik hobe. Urdandegitik kurka-kurka ekarri da zerrama gizendua azkenik: gaizoa, amak dion bezala! Hala da-eta, etxeko bilakatu zela nolazbait bortako gizena, hainbertze bazkaldiren gostuz. Gisa berean, etxeko kabala etxeko janari eginen den bezala, hagaren dilindako haragietan. Horiek ere aldatu ziren laborari etxeetan, ez baita gehiago atzo bezala jaten ez hazten, beti etxekotik, ez-eta zerri-hiltzerik ezagutuko ere ixtante. Alta denek gogoan ditugu egunak: etortzen zelarik udan paristar jendakia bat, edo berdin hiriko oseba xaharra, baginakien zer izanen zuen harek bere ongi-etorria: etxeko xingarrarekin, edo oliokoak, oro izanen baitzituen gure sukaldeak urinekoen eltzeetaraino.

Guk aldiz etxondoaren grazia hortarik zerbait ginuen jastatzen Joanesekin, hau ari zelarik xerri-puxken pikatzen, apaintzen edo berexten, xerriaren egun hartan guzian. Bazituen urteberri aldean bi edo hiru urde bederen egunean, berdin gehiago, etxetik etxera ez bazuen urrunegi, bati odola egin, hustu, xukatzen ezarri eta jo besterat, eta itzul berriz lehenerat, haragi pikatzerat, aratseko ontsa betea izanen baitzen Joanesen eguna, harena zen egun hartan. Etxe batzuetan besta eginen zuten urde hiltzean, bainan ez ote zen denetan ere hori bera bestarik aski, denak lan eta solas beretan bildurik! Solasak bai: alta ez zelarik batere berri zabaltzaile kalakari hetarik Joanes bere jitez, berri gehienak itzulikatuak ziren etxean egun batez, auzo bat eta besteko, eta herriko gora-beherak ere bai; nehoi kalterik egin gabe gainerat.



Baigorriko herriak izan ditu hogei bat apez hurbil, herrikoak. Hau zen jaun erretora eta bikarioekin elgarretaratze eguna.

# Mixelengo zubia

---

«**Z**UBI famatua» dela Mixelengo zubia, Baigorriko Elizaren ondoan, euskaldun guziek badakite hori, Dibarrarten kantu famatuaz geroz. Guk holako batzu ginituen ikasi herrian: gure eliza eta inguruetako berri alabainan. Karrera-gaixto eta plaza haundia laster iragaiten ginituen goitikoan, berant aire bat bildua baginuen, eta meza edo katiximaren tenorea hurbildua. Han ziren jada gure lagunak, etzaundar eta karrikatar batzu ordukotz helduak, eta beste auzartago batzu pilotan ari jaun-ertoraeneko arrabotean: neskatu batzu berriz Mixelengo zubiraino aintzinatua ziren katixima eskuan zabalik. Han, mutikoen oiho eta garrasiak utzirik, errepikatzen zituzten neskek elgarren artean katiximako galde-errepostuak, lehenik kurtzedunak. Uraz haindian, Kuxkurrioeneko zurginen sega-xarrantxak bere marraka adi-arazten zuen erasia batean bezala. Hor zen ba trinketa ere bainan gero eginen zuten hango aldia pilotari trebatuenek katiximako kezka-griñak garaitu ondoan.

Orduan ziren halaber, gu ginen urrungoentzat, etxeko «komisione» ondarrak egin beharko, Matiasenean, Xuhienean, Joalginaenean edo... Hauentzat Iparragerreko alde hortarat baztertu behar zen, Larriaenea eta Zubiateko zubiburuan, eta hor zen Lakelekitik berehala joare-egilearen labea. Izaiten ginituen, ottok oihaal beltxean ontsa estekaturik ezarriak, ardien joareak, mihi-berritzeko edo berriz urtarazteko eta berrriak egiteko. Nahiko ginuen ba handik gorago joan Jatsalde, Otsalde eta Oronozeko gainetarat, kuriostatez, guk arrotza ginuen bazterra baitzen han Munixta eta Xerberoenerat buruz, edo Oronozea, bainan etxetik eta bidetik urruntzea zen hori, berriz Zubiatara jautsi behar-eta. Orduan, berriz behar ginuen itzuli Leizpartzeko Aparainerat, laburzkán moztuz ur-hegiz

ur-hegi. Gisa guziz, denbora bazoan. Oinez ez baginen, ibiliak ginen ere, ganean, Diburtzibehereko ondoan, Apelaniz mekanizier gozoaren lantegian. Beharrik, hunek jestu batez xuxendua baitzaukun gure bizikleta zahar-berritua, bere sudur-mintzoarekin erranez deus ez zela aldi huntako. Aitak erraiten zaukun guk beti zerbait baginuela bizikletarekin: aldiz Kuxkurioeneko mutiko horiek beti martxan zituztela bereak zurgin lanetara heldu zirelarik.

Bederen ez zuen nehork erranen orduan gure herria ez ginuela doi bat ezagutzen. Den denak ez arrapintean jakinik ere, on ginen gu Baigorriko hogeita-zenbait auzoguneen izenen gogoz lerrokatzeko, haundi eta ttipi. Has gaiten Bastida aldetik: buru-buruan, Bidarraikoa jotzen duela: Haitzalde, gero beheiti, Lamottaeneko Erreka, eta Bastida, Urdoze, Auzotipi, Bidaurrehere, Eiheralde, Otikorene, Jarako-Erreka, Bortzirietara, Okoze, Germieta, Beliatze, Iparragerre, Oronozalde, Etzaune, Heraunalde, Belexi, Izpegiko-Erreka, Mixelene, Gaineko-Karrika, Behereko-Karrika, Leizpartze eta ahanziak barka.

Herriaren bizia erakusten duten ostatu, saltegi, harategi, okindegiak (bolanjeriak) hor zituen Baigorrik, hemen ahanziak bestalde, izen xahar batzu baizik ez aipatuz nahas-mahas: Barruztarraenea, Urrikaitea, Menuzeraenea, Piarreñoenea, Xuhienea, Oronozenea, Kaietenea, Tamuinaenea, Matiasenea, Martinsoloenea, Kuxkurioenea, Frantxoanea, Potrosoenea, Xamukaenea, Lakabeenea, Paboletaenea, Zerizenea, Taillurraenea, Ponttoenea, Zapateroenea, Lefurrenea, Gerezienea, Ankelenea, Korteia, Idiartenea, Burmalatzenea, Bixentaenea, Konttenttenea, Axkonegia, horra hor besteak beste, gogoan ditugun ofiziale eta edozoin motako saltzale etxe ezagutuenetarik izan diren batzu.

Ez dira haatik egungo hitzekin erran errexak atzoko ofizio mota batzu. Hala-nola, aldakuntza haundiak badituzte eginak ofizialeek beren lanetan. Lehenago, zer ez zuen egiten harginak berak? Harresi, etxe-altxatze, harri pikatze, emokatzte, igeltsu-lan edo plastratze. Berdin-berdina, harotzak zituen egiten burdinkiarene inguruko antolakuntza eta berritzeak, aitzur xaharraren eratxikitzetik edo behi-ferratzetik eta



etxerat uraren ekartzeraino, xehetasunetan sartu gabe. Eta zer erran orga-egileaz, guk Bortzirietan Ankelenean ezagutu dugun Salvat bezala: laborariaren baitezpadako gizona zela ainitz eta ainitz beharordutan; hantxet egoiten zirelarik etxeko esku-tresna guziak zurezko ziri hartarik dilindan: aitzur, jorrai, aitzur-sarde, pikotza, hiru-hortzeko eta burdinarik zuten guziak (haiotza, mako, belar ateratzeko, lasto ateratzeko eta orain guti ezagutuak direnak oro, orduko iraultzeetan zerabilzaten punta-zorrotz musurkari guzietaraino).

Paradaz balia, zertako ez konda hemen, mahasti aitzurretan kondatzen zen hau: Ba omen zen, aspaldi du, gure herrian, Bidaurrean hain xuxen, gure aita zenaren Bidarteko sorlekuaz bestaldean, gaitzeko mutiko pitraila, berak ere ez jakin zenbat indar zuen. Soldadogoa xortean tiratuz egiten zen denbora hetan, omen, haren gainean eroria zen aldi hartan xortea, soldadogoko zazpi urteen egiteko. Hala-hala ukan ere bide zuen deiaren papera bere etxerat, ez baitakit norat agertzeko ere, holako eguneko. Mutikoak estakuru ederra zuen ez zakiela irakurtzen eta ez bide zen batere mugitu. Holakoetan gertatzen dena, horra bi jandarma heldu zaizkola etxerat, hauk iraulden ari ziren batez, ziotela: «Hau duguia Bidaurrea?» Harek berriz, ahotik atera orduko, esku-bakarraz altxatuz brabana bere etxeari buruz eta bigarreanean berari: «Bai jaunak! Horra Bidaurrea eta huna Bidaurre!» Ez ote zen alabainan Bidaurreko nausia Bidaurre! Jandarmak segurik aski prestu izan omen ziren egun hartan bederen, Bidaurre bere ulitxekin uzteko, hola hobe zuketela jujaturik, beren onetan.

Ofiziokoa den bat, eta zinez hortakoa, istudioak gain gaintetik eginak eta dohain jabea bestalde, hori ere ez dela errexki aurkitzen, badakite segur laborariak. Baziren halere gizon trebeak, kabala bat makurtzen zelarik. Behi batek erditzean, ume untzia atera zezala, edo, hantxetan ardi burtxoratu, edo, xoilki, oilo bat biptiarekin, ez ziren deus gabe kasu horietan laborariak berak ere. Oiloari hala-nola, biptiaren hortan, etxekandereak berak kenduko zion jestu gutiz mihiaren punttan idortu leka hura eta horra lana egina. Behien eta ardienak zailagoak ziren: eta bazen orduan, urrun ibili gabe, herriko basa-maraxela, ez haatik zenbaitek uste bezain basa edo

jakitate gabea. Holaxet ditugu ikusi ardi edo xakurren beso-hautsiak, azken hau orobat azeri-arte batean hatxemana izanik, hein bat polliki bi-hiru xiri eta oiha batez tinke lotuak eta abere gaixoa bere gisako esker onetan, minari eta sendatzai-leari milika eta milika intzirin amultsu batekin.

Bazituzten gure herri-maraxelek kasu zailagoak. Sangaritzea zuten beren artamena, odolak lodiegirat egina zuelarik: xixtako bat lepoko zain batean egin, bere odol tzarretarik arintzeko, horrek segurik ez ziola kalterik egingen hasteko ta bat. Eta orduko kabalak gaurkoak bezain ase hanpatuak ez baziren, frangotan porogatu bederen dugu zenbat ziren maitatuak eta zoinuz inguratuak etxean, ez baitzen hortako emaztea batere gibelago gizona baino. Guhauk ikusi dugu aita edo ama ur epel eta zahagi trenpatu untziarekin heldu, nekez erdia zen behi lehentxa edo xahartuari pereka eta pereka: «Jua, jua, jua, txauri-ño!» Eta hau oraiko berriagoetan: Europako laguntza horiek lagun, sekulako barruki ederrak, azpia kautxu-gomez edo bestela ote eta iratzezko ihaurkien orde, baina hauk barruki berriak etxetik chunka metretan dira orobat. Orduan dira oroitzen xaharrak lehengo behitegi barrukiez, ezkaratzetik atea segidan baitzuten han berean, xakurrak berak behiekin lo egiten zuela, etxeko bat ez zelarik han berean edo hurbil egoiten erditzeko gauetan. Haatik hori ere aldatua dutenak badira: diotelarik erditzeko, kanpoan bera uztea dela hoberena eta natura xoilak ez duela parerik. Denaden, entzuna ditut hemen ezartzen, ez baita hau laborantzako liburu bat.

# Bideak eta bidexkak

---

**B**ADU hainbeste bide mundu zabalak bere lur eta eremuetan. Eta zenbat bidexka, Baigorri erraiten dugun bezala, larregain eta mendietan! Horietan orotan, bakoetak egin beharko bere hautua goiz edo berandu, biziak eta gertakariak nola manatzen duten.

Hala da bai, beranteko hautuak direla oraiko ainitzak. Gaurko haurrak behar du lehenik hazi, eta urte andana baten gostuz hezi. Ikasketak aski luzaz eginik eta bide ainitzen berri jakinik baizik ez du bere bidearen hautua eginen. Egin du bai urak bide: gure aitatxi-amatxiak laborari ziren bi aldeetarik, heien haurride-koinatak halaber, gutiz gehienak. Aitaren edo amaren haurride koinatetan, edo berdin heien lehen kusietan ziren agertu ofiziale batzu, hartako doia, bat harotza, bestea Ameriketara joana, eta zenbait bakar donado edo mutxurdin etxean. Bada gaztearen bizian adin bat burua ere lanean hasten baita. Hamar hameka urtetarik goiti zer ez da pasatzen haurraren gogo-muinetan, batzu eta besteeri so eginez, eta bera baino haundiagoeri nundik ez? Nik, bat bestearen ondotik amaren bi anaia gazteenak soldado jauntzitan ikusiak nituen. Bestalde, nihauk ez jakinean, baziren izanak bokazio-ne deiak gure jendakian jadanik hel egina zutenak: aitaren lehen kusietan, serora bat Alaizean, apez bat Jankoenean (Crouspeyre kalonjea), Jean apez gaia gazterik hila, amaren lehen kusia Uztaritzen. Nork daki nundik eta norat atera zitazkeen enetzat bide ta bidexkak, geroari buruz, neure etxeko segidarentzat naukan suerteaz bestalde.

Bai, nihaur hasia nintzan goizik pentsaketa egiten neureaz. Ixilean horiek oro, zeren, eta hau garbiki erran dezaket, ez dut ezagutu ene buru-berotzailerik nehor ene oroitean, ez

etxean ez kanpotik, salburik jadanik aipatu dudan amatxi baten hitz goxo zenbait eta denen etsenpluak orozgaisetik. Gorenaz ere, norbait salatu behar-eta, gehienen girixtino fedea duket hemen aipatzeko, batzuen kartsutasun bero hartarik haste. Hots, giro ona ezagutu dudala ene inguruan erran behar dut, eliza eta erlisionekeo gauzetan, jarraikitasun egiazko batekin, eta gaineratekoan bidea libro. Bainan, hortaz, bazen orduan gure familiaren iduriko ainitz.

Ixiltasunaz zerbait erran dut, egia baita. Hainbeste pentsaketaren artetik, ez dakit xuxen zer adinetan, bainan naski noiz-nahi ere, izan ditut ene gisako dudak eta zalantzak, luzaz ezin jabalduak, eta heietarik bat hau zen, lehen denboretan: hiru anaietako lehena nintzan eta neure haurrean buruan iragan dut ez ote nuen nik beharko etxeari eman ene ait' amen segida. Haunditzeak lekuratu zituen horiek oro ene haur buruan eta nehortaz behartu gabe. Holaxet, komunionekeo urtean eman nuen neure baitarik izena Baigorriko jaun erretorari semenariorako. Etxekoen baimenarekin, bixtan dena. Zenbaittek erranen dute gazte nintzala zinez 11 urtetan. Hala da, bainan nik aldiz diot erabaki pisuak zabiltzala ordukotz gure haur izpirituetan. Erraiten da oraino haurrak erneago eta goiztiarrago eta piztuago direla orai eta hori ere egia da, bainan ez ote ziren ordukoak goizago zohitzen ere beste gisa batez? Orduko apezten laguntza ere bazitakeen, bederen heien begi zorrotza, norbaiten begiztatzeko, haatik ez dezagun ahantz gure libertateaz gorago erran dudana eta zer errespetu haundia izan eta ekarri duten guk izan ditugun arduradunek. Hauetan ezartzekoa dut lehen lerroan, batere gurikeria ez lausengurik gabeko gizon bat: Baigorriko Etchart jaun erretor bipila, Aldude Migelartzainaeneko semea. Katiximan eta elizan larderia haundikoa, haren gain utziz geroz ene bidearen hautua, Uztaritzeko semenarioa izan zen enetzat. Ez dakit xuxen noren ariaz zuen apez harek berak Betharrameko Mixel Garikoitzen apezetan ezarria beste bat: Otsobiko Battitta, nik baino hiru urte gehiagoko auzoa. Ez dut erranen hunen kaltetan izan zela Betharrameko hautu hori, ez baitakit. Nik pentsatu dut halere Battittak nik baino suerte gutiago izan zuela, urrun baitzen Biarnoan Uztaritzeren aldean, lagunez, bisitez eta denez.

Denaden, hogei bat urtetan edo hor, orduko soldado zerbitzuaren ondotik baztertu zen bere apez-xede hartarik, Amerikarat joaiteko. Sekulan ez dut ahantziko nik Otsobiko Battitta, nihaurk ez baitakit zenbat zor diotan, eman dautan etsenplu onarentzat eta lehenik bide erakasle bezala, nahiz ez dautan deusik aipatu.

Izena eman-eta gero ziren egitekoak. Uztaritzetik jin ziren xehetasunak: zer behar nuen hango, soineko, jauntzi eta laneko esku-tresna, eguneko, igandeko, ateraldietako, oheko muntadura, denak ere E.L. izenburuez markatuak eta 183 ene lumeroarekin, beste lagunekin ez nahasteko soinekoak; beharko ginuen ere bideko puskategitzat kutxa haundi bat bere gakoarekin, eta esku-balisa bestalde, treinak eremanen zituenak, Eiheraldeko geltokitik Uztaritzekorat. Amarendako ziren hor bereziki lanak, nihaurek sekulan jakinen ez ditudan buruhauste eta lanen gostuz. Martinsoloeneko Bergouignan oihaltagirat joan behar, hanbat aldiz, arropa erosterat, Donibanerat gero beste artikulu batzuekiko, Mañaña Karrika dendaria ere ekar-arazi behar zen etxera asko muntaduraren joste eta apaintzeetako. Erran behar da, denbora berean, han ginituela, Eiheraldan, Janamari eta Mailux Ahadoberry bi ahizpak gure usaiako dendariak, beren aprendizekin.

Lehen eguneko semenarioan sartzeaz ez naiz baitezpada oroit, bai haatik nola izaiten ziren, bakantzak etortzearekin, harat eta handikako joan-jinak. Lehenik, bakantza haundietako jalgitzea balinbazen, uztailean, horra jinen zela semenariorat Kadetezkerraeneko zaldi karro zabal sahets gabea, emazte haundi azkar hura gidari, Uztaritzeko geltoki haundiaren eta zubiaren artean egoiten zena. Harek zituen gure liburu eta arroparia guziaren ohatzeko kutxa haundiak eremanen guhaur baino aintzinagotik. Geroago zen, Jatsuko halta edo geltokian baratuko treina guretzat. Ez baitezpada guretzat, halere guretzat zen parterik haundienean treina hori hor geldituko, zeren gure tropak baitzuen treina kasik osoki betetzen, beste pasaiant bakar batzuen gainera. Orduan, treinaratzen ginelarik, bazuten guretzat Baionatik heldu ziren beste istudiantek beren gisako ongi-etorria. Baionako lizeetan, edo

Saint-Bernard, Largenté eta guzietan zuten hek beren ikastegia. Ezagutzen ginuen elgar guti-aski, Aldudeko Marcel Monlong (orai Baigorriko mediku eta auzapez zendu berria), eta Kanboko enpresa-buru izanen zen Aleman, Dieudonne mediku-gaia, Baigorriko Leon Etcheverry-Aintchart, Anatole-tarrak, garaztar andana bat, eta beste. Halere, Uztaritzek zuen egun horietako saldo haundia, gu guziekin, batetik, komentuko edo behereko seroretan eskolatzen ziren neskatoak ere hor, haundi edo ttipiago.

Erran behar dut ez ginela gu, semenariokoak, oro apezgaiak, ez-eta komentukoak ere, are gutiago, serora-gaiak. Denbora hartan, bazen Donibane Garaziko gazteria gaitza gure eskola hartan berean, han eskolatzen, Baccalaureateraino. Eta berdin berdina baziren uztariztar, kanboar, baigorriar eta inguruetako haur eta gazteak, burasoek hor ezarriak, egun batez mediku, notari, politikari edo norbait argitu eginen zirelakoan. Horietarik batzu, norbait ezagutu bilakatu dira geroztik eta besteak bere neurrian gelditu, bakotxaren izariko lekua deraukan mundu xume huntan. Horiekin guziekin zotan denbora hartako treina, bere karranka eginez bainan oro-har emeki eta segurki, batean geldi eta bestean abia, beti ere etxerako bidean luzeegi eta eskolarakoan zaluegi. Bazuen ere gure erakasle arraillant batek treina gaizoaren musika jauzkorra bere gisako hitzetan ezarria, batere Xalbador edo Mattinen klasa ez zaukaten bertsu moduekin. Huna nolatsukoak ziren hitzak treina karkailaren urratsean, gure jarlekuetan trangelatuz xaramelatzen ginituen bezala. Etxerakoan: «Tarrapatan, tarrapatan, tarrapatan!». Hori gure presa eta lehia. Aldiz, berriz gure liburuetararat itzultzean eta gure bakantzetako oporraldiez dolutan gindoatzilarik: «Akabo tuk, akabo tuk, akabo tuk!» giniola gure bakantzez. Lehenean omore ona, eta azken huntan trixtura gostu bat... beste oporraldi batzuen menturan. Eta zuk, irakurlea, ez otoi haundi kausi gu holakoak baginen guhauk hautatu Semenariorateko. Badira hautu batzu ere, gero, obratzean, gostatzen baitira eta bizkitartean nahizkoak direnak. Guk ez dugu, denaden gure hautu hura sekulan ukatu, ez-eta dolutu ere, nik bederen, zorionez.

# Bi etxetako xakur

---

**E**IHERALDEKO geltokitik landa, ez ginuen Bidartean mintzatu gabe iragaiterik bakantzetara joaitean. Ez zuela ahanztekoa hor ttantta Xanek gure pasaia! Nik bederen ez dut ahanzten Bidarteko kafesnearen gustu beroa. Bazuen gure aitaren arreba ttipienak (gorputzez ttipiena zen) supazterrean, naski alde bat hantxetan zeraukana, maiz pasaia baitzen Bidartean, eta beti norbait gertatzen, kaxa beltxatu bat urrea bali zuena bere barneko berottoarekin. Ez nuen erraite beharrik nahi nuela, ez-eta zenbat, ez-eta zenbat azukre. Ttanttak berak bazakien izaria. Eta gattulu xahar ezpain-zirrikatu harek ere bai, gaineraino betetzen zuelarik gaixoak. Hor nuen ixtanteko bero-berorik, bere bi xerra ogi-xigortuekin, barnerat boskatzeko. Erran behar da bixkotxak arraro zirela orduan, besta egunez edo eri-bisita batzuez kanpo. Gisa guziz, zer axola nuen nik bixkotxa eta goxokeriez, bakantzetara nindoan egunean! Laborari kumea nihaur, deneri ohartzen nintzan: bazterrak arras aldatuak aurkitzen nituen, aintzineko bizpahiru ilabete heien ondotik; denak murriztuak eta bipilduak Eguberrikoetan, aldiz berdatuak eta liliz jauntzirik Bazkotan. Eta ez zirena jakin behar hainbeste berri: etxeakoak lehen, nola zen amatxi, bai-eta zertan zituzten lanak, hain bagingen guhaur lurrari hurbil hurbila haziak izanak eta zinez araberako moldeak hartuak, eta gustuak ere.

Alta opporraldietarik semenariorat joaiteak ere leku bereetik egiten ziren. Geltokia baino lehen, egundainokotik, Bidarteko sar-jalgia egin behar, eta sar-jalgi bat baino gehiago, han baitzen ttantta Xanen kaxa beltxa barnekoarekin. Semenarioko haste hartan, lehen urte batzuez, amak berak laguntzen ninduen Bidarteraino, beste aldietan baino kargatuxagoa nin-

tzan batzuez. Menturaz bazituen berak ere ene joaitea barna-  
gotik senditzen zuen egunak. Ttanta Xan zen lehenik min-  
tzatuko zena Bidartean: «Jin dea, Emil, joaiteko eguna?» Or-  
duan amak lauzkatuko zuen, nihauk baino aintzinago: «Baa,  
baa! Jiteak joaitea zor! Eta egun kondatiak fite pasatzen!»  
Kafesneak mozten zaukun solasa, nahiz hau ere laburrago zen  
nolazbait joaiteko egunean, bainan baginakien orai holako  
baten berri. Hots, bi etxeak gureak ginituen, sortzezkoa eta  
hautuzkoa. Bi etxetako xakur beraz gu? Bai, bainan lehengoa  
goseak hil bazuen, guretzat ez da hala izan. Bi horiek hazi  
gaituzte gu, bakotxak bere hazkurritz. Ttanta Xan bera zen  
hasiko, orenari beste behako bat emanik: «Baa, orai tenorea  
duzu ba naski, Emil, billetaren hartzeko aski goiz hobe baita,  
beste lagunak ere hor izanen-eta». Beste lagunak ez ziren ez  
ainitz Eiheraldeko geltokian: Aitattoko Peio, eta gorenaz ere  
Kanboraino ari zen eiheraldar zenbait edo bazketarat bere ar-  
taldea gogoan zoan artzain bat. Laguna nuen Aitattoko Peio  
Iriart. Komunionea nik baino lehenxago egina zuen harek, be-  
ra ere azkartuxagoa, pilotan eni nautsi, eskola berean ginen.  
Haren aita Battittak, eta ama Marik, ez baitziren batere aha-  
lik gabeak, eta langile haundiak, hainbeste lan itzulikaturik,  
hek bai izanen zuten beren semeari eskolen pagatzeko ahala  
eta gogoia; mediku bat ere beren hurbilekoetan bazuten eta  
bertze hainbertze eginen zuten gogotik beren semearen hortar-  
ratzen laguntzeko, bainan ez baitira beti asmatu guziak egia-  
tzen! Gisa guziz, etxeko eta herriko gustu gaitza zuen Peiok,  
lagunekin, pilotan, lanean eta denetan. Hortakotz, hor berean  
zituena Peiok bere biziari buruzko amodio eta ametsak oro.  
Eta hola zuen tratuan egin bizia, aita Battittaren haritik, eta  
Josep koinatarekin batean, beti elgar adituz; elgar adituz ere  
bakotxak bere saila hartua zuten arreba eta koinatekin. Da-  
murik dugu Peio aspaldi galdua, 42 urtetan ixtripu batek ere-  
manik bere negozioko lanetan zabilalarik, bere emaztea eta  
haurño bat utzirik. Nik ez dut segur ahanztekoa Peio ene es-  
kolako laguna; apeztu nintzalarik ez ninduen harek ere ahan-  
tzi present eder batekin. Bera konpainia onekoa, eta lagun  
alaia izana. Pilotan luzeko xapeldun izana eta zintzoa, Jain-  
koak berekin duela.



Urriaren lehenean sartua Uztaritzen (ortzeguna ote zen?) joan zen gure lehen ilabetea leku berrian. Lagun berriak, erakasle berriak, liburuak, hango ixiltasuna, behin ezkilatxo harek joz geroz, mintzaira frantsesa eta frantsesa denetan, hori ordu arte egundaino ezagutu ez nuena, ainitz zen hori guzia. Konda ere, bestalde, janariak etxean ez bezalakoak zirela, jokoak eta begien ikusgailuak halaber, Lapurdiko Urtsumendi, Baigura, Urtzumu, semenarioko hegi hartarik so ginaudelarik Amundaraineraino, gero tontor ezti legundu batzuen giblean gure Iparlako mendi zorrotzak hantxetan urrun, kanpo ezarriak bezala zirela. Eta guk beti eskualde bererat itzuliak ginituen begiak, ez haatik beheiti eta itsasalde bainan gure mendietarat eta sorlekuari buruz.

Etorri zen lehenbiziko **Omiásaindu** besta. Meza-nausi bezperak izan ginituen semenarioko kaperattoan (oraino ez baitzen eraikia Greciet superior zenaren denborako eliza ederra). Gero, besta eguna zelakotz, «errekreazione» edo liberti-orduak ziren, holakoetan luzeagoak, eta ez segur geldirik egoitekoak trebatuenentzat. Bainan gu, oraino berri, hasiak baizik ez ginen hantxet ausartatzen. Futbola zen korrale haundian, ikasle haundienen alderdiko jokia. Gure alderdikoa ere bai, nahiz hau ttipiagoa. Bainan guk, euskaldunek, ez ginuen oraino balon hari ostikoka ikasia, ez baitzen holakorik Urdozko eskolan orduan, ez-eta, naski, Baigorrikoan oraino. Baginituen ordea pilota-lekuak. Ehun eta gehiago metra luzetasun izanez semenarioak bere pentze maldaren kaskoan, eta neurri bereko korralea bastiza haundi haren pean, jostaleku haundi horrek bazauzkan 16 pilota-leku, bakotxa bere marraz mugatuak elgar ez trabatzeko, pilota-leku horiek orok, giblean, futbolekoena utziz pentze-hegiko murruraino. Holaxet, bakotxak bestearena errespetatzekotan, pentsa beraz zenbat jokolari artzen ahal zen, oro batean, nolazbait bederen, zakitenak futbolean eta gu pilotan, baloi joko arrotz hori guk ere ikasi artean.

Hola joan zen gure Omiásaindu. Bainan gure superior Garatek bazuen hitzemana sari pollit bat Omiásainduko ontsa gobernatzen baginen arte hortan: baietz bai, egun oso bat uka-

nen zutela merezituko zutenek, besta biharamun hortan, aratseko berriz itzultzeko modua zuten ber, erran nahi baita, beren etxea ez urrunegi. Dena ere on, lehen ilabete oso bat lanean arizan ondoan. Erran behar da ez zela ororen menean zorion hori. Baziren alabainan urrunegikoak, landeŕtar batzuedo, are gehiago, bordeles edo holako bakar batzuedo.

Azken horientzat, ez naiz xuxen oroĭt bainan izan bidez kontsolagarri zerbait, zinema, ateraldi edo beste jostagailu mota. Guk baigorriarrek, gure herritar haundien batzuekin mintzaturik, eta hek gu eskolaturik (Fernand Anatole, Erramun Mendivil, Jean Larre ene kusia) laster atera ginituen konduak: bazela goizeko treina, Garazi eta Baigorriat zoana, eta halaber hartan berean aratseko gibelerat itzultzeko erretasuna, denbora labur hartan, erne ibiliz haatik. Euria eta euria, harrigarriko aro txarra egin zuela egun guzia, hori ez dut ahortzia. Barneko aro hobea, xedera prestatzen ari ziren etxe-ko ezkaratzean, biharamunean mahastiko hesietan hedatzeko, jada eginak zituztenen gainerat, xori, xoxo, biligarro batzuen enganatzeko menturan. Etxea eta etxe-koak goxatu nituen, daukat aro harekin supazterra piztua zutela negua gabe, artzainaren arropa bustien xukatze-ko. Bordako hazindetarainoko bat egin nuen ottorekin, eta Uhideko otto Piarre eta ttantari eta kusieri ere bai bisita bat, laburra alabainan, naukan egun xoilarekin, ixtanteko jin baitzen berriz, denekin bazkaldurik, beheitiko treina-tenorea. Hau izan zen halere gure zoriona, hain ginuen berezia egun hartakoa: ikusi ginuela etxe-xokoa, etxe-koak besarkatuz eta kabalak ere ikusi, etxe-ko salda, sekulan baino hobea, jastatuz egun hartan. Horiek guziak Belarrea gure etxean eta Bastida gure auzogune kartierean. Baigorri aldiz ez ginuen ikusi, hura han baitzen eta gu Bastidan.

Gaineratekoan, letrak edo gutunak hor ginituen ikastegitik etxera eta etxetik ikastegirat, astetik astera xuxen. Igande aratsaldeetan ginuen hori, lehen egitekoa, semenarioan. Bazkalondoko josteta ahusaldiaren ondotik, oren bat xuxen ginuen gutunen egiteko, hiru orenetako bezperak aintzin. Maitte ginuen epe hori, oren libroa baitzen eta ez batere lanekoa

besteak bezala. Amarekin nituen nik ene lumazko solasaldiak oren hortan guzian. Ordainez, ama bera izanzen nuen ere, bere lan guzien artean eta osasunaren gora-beherak bestalde, xuxen ihardetsiko zautana. Nik erraiten nion ontsa nintzala, notak nolakoak nituen, batzuetan aratsalaskariko gasna edo xokoleta ttipitua nuela, amak griña bazuen hortaz, eta Uztaritzeko oseba Frantzua eta izeba Mariren etxean izan nintzala ortzegunean eta han ere lauretakoa (han ikasi hitza) egin nuela, astelehenean Ezkandan izan ginela ere erraiten nion, betetzeko, joan-jina oinez eta hantxetan jostetan artzen zirela batzū, eta gu pilotan. Artean behin kondatu nion nola baiones lagun bat eskapatu zen ikastegitik eta jandarmek ekarri zutela gibelerat.

Ortzegunean berean ez bazen, handik laster banuen amaren ihardespena. Gaixoak erraiten zautan hek ere ontsa zirela, salbu amatxik medikua ukana berriz ere (amak berak eza ote? bainan amek ez dute holakorik salatzen). Eta emaiten zituen etxeko lanen berriak: iratze pikatzea edo sasoiko beste bat. Eta ez zuen sekulan ahantziko gomendio on bat, ontsa beztitzeko, neguan, eta, are gehiago, ontsa goberna nindadin eta ez baiones hura bezala. Ahantzi dut erraiteko, letra guzi-guziak euskaraz erabili ditugula beti amarekin, funtsean, beti mintzo ginen bezala. Ai! Oraiko haur batzuek ere balute gurea bezalako ama bat, kiskun kaskun ari diren horiek ez bezalakoa! Guk aldiz ez dugu aski estimatzen!

Ez ginen batere jenatuak gure gutunen hetsi gabe emaiteko, orduan Uztaritzen egiten ginuen bezala. Zer nahi izanik ere, ene letrak euskaraz idatziak, errana dut, zer konprenituko zuten hor begi-luze ez-jakin batzuek, erakasle batzu barne! Letrak euskaraz bai: hortan ere zer eskerrak zor diozka-gun guk, Belarrekoek, amari, hura izana baitugu gure lehen andereñoa, berak batere jakin gabe, gure etxeko ikastolan. Gure lagunetan ikusi ditugu, eta ikusten gure bizi guzian, berak gu bezain euskaldunak izanki eta, ahalge batekin edo gabe, aitortu behar ez dakitela euskaraz idazten, ez baitute nehor izan euskaraz izkiriatzeari ohar-arazi bederen dituenik. Euskaraz idatzi bai! Bainan ez ote zen hori eskolaren lana

izan beharko? Gu eskolarat abiatu ginelarik 5 edo 6 urtetan, ez ote zen ordua gure hasarazteko, handik goiti, jada ontsa ginazkien hitz heien idazten? Ginakien mintzaira hura debekatzeko eta betiko mespretxuz mendratzeko orde. Bai, zinez, milesker, ama, zu izan baitzaitut balio hortako ama eta aspaldiko ene andereñoa. Orai baditugu ikastolak, baditugu andereñoak. Haatik holako amak ere ez ote ditugu sekulan bezain beharrak? Oraiko amez eta geroko amez, bi bertsulari heldu zaizkit gogorat: aspaldi du, gaia izan zuten, Hazparnen naski, zer egin behar zen herrian euskararen geroarentzat. Errexil zenak, bere familia ederra gogoan, erran zuen: «Hazia ereiten ari naiz». Eta egia zuen, harek zaukan familia ederrarekin. Alta Mattin Ahetzekoak ere bota zuen berea, gai hortan berean uste dudana: gazteeri zeien kontseilu eman bere bertsuan, erranez: aski zutela euskaraz idaztea elgarri mutil-neskek, «esplikatz euskaraz elgar zein maite zuten». Egiazko Mattin. Amak daut eni aldiz lehenik euskaraz idatzi. Nik ere halaber berari. Hola zen, orduan euskararen indarra. Orai aldiz zenbat haur, ez baitute beren burasoen euskara ikasi, eta gero joan baitira... beste euskara baten ikastera. «Zer munta du, euskara den ber» erranen du besteak. Egia hori ere. Bainan eni bizia eta odola eman dautan amak, ez ote zautan bere mintzaera ere zor!

# Ez egin irririk

---

**B**AI, zinez, beste mundu bat zen guretzat Uztaritzeko hura. Eta beste nehun ez nehoiz aurkituko ez dugun bezalakoak. Mintzairaz lehenik, eta jada erakusterat emana dut. Eta nola! Laño lañoa, eta neholako aiherkunderik gabe behar dut hau erakutsi, gainerateko argitasun eta gogoetak utziz gero. Uztaritzeko ikastegirat etorriak ginen gu, ginen bezalakoak, baserrietako laborari kumeak, apezteko asmotan gehienak. Besteak hor ziren ikasteko eta diploma edo gaitasun baten irabazteko. Jakintzarekin batean galdatua zen ere hezkuntza edo formazio bat: orduko munduaren araberako moldakuntza eman nahi zen hor, guzientzat berdintsua, bakotxari emanen ziona nortasun bat bere munduan. Hezkuntza hori girixtino hatsekoa izanen zen, ebanjelioko gatzaz doi bat bederen ondua, eta hori denendako, biharko apez ala aita familia-ko edo kargudun haundi ala ttipiangoentzat. Formakuntza orokor baten zimenduak, hots! Eta hori, euskaldun zirenen ala ez zirenendako: euskaldun eta laborariak beharko zuten, ez da dudarik, beste nornahiren mailaz jabetu, nornahi bezain trebea bilakatuz, beren burua errespetaraziz orotan, erdal mintzairan eta denetan: ez baitzuen, alabainan euskaldun izaiteak mendratu beharko batere gizona.

Horiek hola, guti aipatzen zuten orduan euskara eta euskaldungoa gure Uztaritzeko erakasleek beste ikastegietako gisan. «Eskola» zen orduan haur eta gazteeri eman behar, jakintzaren zimenduak, jada errana dugun bezala, edo erroak, hots !

Eta euskara bera semenarioan? Euskara aipatzearekin Uztaritzen denek erranen dute hain segur Piarres Lafitte zenaren izena. Arrazoinekin. Halere, ene orroitzapenetan naizen

huntan baditut gorde behar ez ditudan batzu. Badira ere Uztaritzen ene euskaraz ez ahalgetzen erakatsi zautatenak, eta ez nornahi. Lehen lehenik, Josep Garat hazpandar apeza. Seminario ttipiko superior buruzagia zen, gu han sartu ginelarik 1937 an, eta ez bere kargu eta xingolez urgulutan batere gure hazpandar kalonjea, horiek oro izana gatik. Gu ginen haurreri bai arras hurbila eta kasu-eman. Behin, oroitzen naiz: jiten baitzen noiz-nahi gure ganat, haurren libertaldietan ala eskola-klasa denboran berdin berdina, parte hartzen zuen doi batez gu egiten ari ginen ikastaldian, eskolako galdeak berak egiten zituela gure erakaslearen orde. Halako galdezkatze batean, nere aldi zen ihardesteko eta eman ere nuen ene gisan neurea: errepostua xuxena nuen bainan erraiteko moldea arras eskoila eta moldegaitza frantsesaren aldetik. Zer irri zafila egin zuen orduan H.H. baionesak ene molde traketsari! Ez luzazko, zeren irriak eta trufak sar-arazi baitzizkan superior on harek, ene aldea hartuz nolazbait: «Ez egin irririk, otoi, zuk, H.H. Alabainan, zuk mintzaira bat dakizu bakar-bakarrik, Baionako frantsesa. E.L. ek aldiz bi mintzaira badazki, hunek euskara ere baitaki». Ordutik hasi nintzan sinesten norbait banintzala, eta konfiantxan sartzen neure euskararekin.

Berdin berdina izan dut Uztaritzen, hau aldiz erakasle hiletarra, Etienne Salaberry kalonjea. Nolako bihotza erakusten zaukun hunek ere, Peio eta ni, bi baigorriarri; eta gu iduri batzueri berdin. Guretzat bazuen beti ele on bat, ez sekulan apaltzekoa ez-eta gurikeriazkoa, bainan estimu zerbait erakusten zuena eta bihotz-althagarria akulu sustatzaile baten gisan.

Eta huna hirugarrena: Ziburuko seme zen Andre Dubernet apez argi eta plaxenta, bosgarrena deitua zen klaseko erakaslea ginuena, latin eta frantses mintzairetan. Euskal semea zen hau ere ni bezala bainan ez ginen lur bereko semeak. Ber harek, itsas-hegi hortako seme baitzen, gure baserrietako berri guti zakien, eta nik itsasokorik eta Ziburuko kaxkarotenik baterez. Halere, haste hastetik elgarren izariak hartu ginituen erakasle gazte, arrai eta omore oneko harek eta biek. Bazakien ni bezalako menditar hezgaitzen goxoki hartzen. Oharturik, bixtan dena, nik naukan frantses mugatuari, edo xoil

xoilik nitan zen aberastasun doi hori baliatzea gatik, euskarazko hitz batzu sartuko zituen orobat, holaxet argitasun hobeak ekartzen ahal balinbazautan bere argitze lanean. Haatik, egun batez, gauza batean ez dugu elgar konprenitu. Ari ziztaizagun latinezko «suus» eta «ejus» esplikatuz beharrez, noiz eta nola erabil zitakeen, eta behar, bat edo bestea, eta erran behar da lanak zituela ene lagun batzuekin eta enekin segurik. Bat-batean, horra nik, ustegabeko argi pindar batean, erraiten diodala ene funts: «Ikusten dut, jauna, euskaraz bezala da, “suus”: “bera”; “ejus”: “harena” edo “horrena”». Badakit ordu berean baietz erraiten hasi zitzaidala ziburutarra bainan handik laster dudatu, eta gero ezetz, eta baietz eta bazirela kasuak nun !.. Hots, sekulan baino nahasiago erori nintzan haren argitasun guziekin «eta beti bezain Petan». Geroago dut hartu nundik heldu zen hori, eta zertako ez ginuen elgar konprenitzen ahal hortan euskararekin ere: Dubernet ziburutarra izanik, ez ginuen euskara bera, bereziki pondu hortan, ziburutar ainitzek «bere» erabiltzen baitute guk Baigorriin «haren» edo «horren» derabilagun lekuan. Hori bera aski zen jakiteko ez ginituela elgarren euskarak hortan lagunduko bainan berdin nahasiak utziko. Bainan hargatik berdin maite izan nuen erakasle hori, suerte txar batek gu ganik goizegi ereman zuen artean. Parada huntaz balia, erran behar dut hobeki entzuten dugula orai elgar Georges Rebuschi Pariseko Unibertsitateko erakasleak eta biek, hain zuzen “bera” eta “haren” horien eza-gutzan osoki jakintsun bilakatua denarekin. Goraintzi zuri, gramatikalari adiskidea!

Alta ez ditut ez denbora hartako ni iduri ikasle batzu he-men ahanztekoak. Lehena izan zen **Leon Oxarango**, joan deneko hogeita zenbait urtean neure erretor auzo on ere dudana Ortzaizen: ez nintzana ni Irisarriko erretor sartu igande aratsalde huntan bezala, eta hura ondoko zortzian Ortzaizen 1980 irail hartan, bi igande segidakoz, bat eta bestea. Elgar laster begiztatu ginuen Uztaritzen sartzean harek eta nik, biak boneta buruan eta pilota eskuan ez baginuen sakelari, harek haatik ezker hobe eta eskuina ere abila. Zango-jokoeri laster ohartu zen korrale haundiko balonarekin. Euskara-frantsesetan biak berdintsu ginen, latinean ere bai. Bazuen haatik, bes-

talde, abantail bat ez ttipia gu denekin: anaia baitzuen harek apeza. Hau, **Ganix**, Makeako Ganix famatua, bere izengoitia prest-presta zuena, gure 25 urteko apez gaztea zen ordukotz, buru onekoa eta izpirituz arraia, bere jite onarekin ikasle ala erakasleen artean arras onartua Uztaritzen. Kirola arduraduna ere ginuen Ganix eta ikasle guzien besta eder batzuen paratzailea, musika alai gidari.

Hirugarren lagun bat bildu nuen, ni idurikoetan, Peio eta Leonen gainerat, bigarren urteko Uztaritzen, donazahartarra, **Eñaut Elizondo**, Zabaltza Sokarrokoa. Hau, lagun extia, eskolan biziki langilea, apez baliosenetarik izana da, Biarnon pasaia bat eginik zenbait urtez, Larzabalen eta Oztibarre hortan guzian gaindi, Kanboko herri ederrean eta Lapurdi hortan gero. Damurik, goizegi galdu baiginuen holako lagun eta apeza, 54 urtetan. Hain maite zuen Garaziko mendi-bortuan (anaiak artzain zituenean) zendu zen, adiskide batzueri Urkuluko toki xoragarrien erakustera joana zelarik kanpotiar batzuekin, bihotzak hutseginik.

Beharko nituen hemen aipatu Uztaritzeko beste erakasle batzu: **Beñadin Oyharzabal** hazpandar apeza, gazterik hil zena, gure espainiol mintzairako lehen erakaslea eta istudio zaindaria, gaineratekoan osasunak hanbat laguntzen ez zuen apez gaztea: bere iloba **Gabi** eta **Beñat Oyharzabalek**, hau erakasle eta euskaltzain ezagutua, ez bide dute naski hanbat ezagutu.


Baiginuen **Mailharro** apeza, hau ere gazteegi zendua. Gure seigarreneko lehen erakaslea ukana dugu amikuztar erakasle bipil eta pilotari segur hau. Eta bazen **Serval** apeza, erdaldun hutsa bainan begi eta izpiritu xorrotzekoa, bihotz haundikoa gainerat, gu deneri eta ikasle ohieri arras atxikia. **Sabarots** jauna ginuen musika erakaslea, ez larderia haundikoa baina zenbaitek ainitz zor diote, bakotzak musikan ere zaukan edo ez zaukan dohainaren araberan. Azkenik, urriki dut ene erakasle guziak hemen ez lerrokaturik bainan aitor ere bai, ni deneri buruz zordun nagoela eta hoiiek orok naute-la egin atera naizen gutia. Eskerrak!



**Eta Euskara bera Uztaritzen?** Erdi axalez eta gainez gain ibiltzeko bidea hartua dugun lantto huntan, konprenituko ahal du irakurleak ere: **Piarres Lafittek** fama berezi bat bazuen ordukotz, eta araberako errespetua euskara mailean batzu eta bertzeen aldetik. Hirugarreneko klasea egiten zuen, beraz goratasun eta garrantzi doi batekoa. Lan eta lan, langile haundi eta ixil bezala ezagutua zen Piarres: egin-ahala klase eta lan bazaukala bai, eta, ezin-helduaren bortxaz, musikatzen ere zuten ikasleek, ez zituela gure lanak hurbildik zaintzen, ez-eta beti begizatzen ere bainan nola helduko zen guzi-guzietarat? Alta gure denboran ez zuen oraino HERRIA kaseta bere gain, ondoko egunetan hori ere bizkarreratuko zaiona. Bizkitartean ez uste izan lo egona zela Lafitte ordu arte. «Aintzina» aldizkaria batetik, Hiztegi-lanak Aranartekin eta Tournier eta beste, Euskal Gramatika, hainbeste ikasleren bisitak egunero zernahi kontseilu eta laguntzaren galdez, eta ikerketak, eta mintzaldiak, semenarioko kofesioak eta kontzientzia aholkuak, oro harendako ziren, hurbileko ala urrungoen, apaleko ala gorenekoen beharorduak, arimako, gorputzeko, ala izpiritu edo historia edo kultura mailekoenak. Eta ez ote zen ere, azen ontzeko, Espainiako gerla hor denen artetik, bere bonbardatze, fusilatze, hainbeste ihesle eta mugaz gaindiko mila kurutzamendu eta laguntzarekin, handik heldu zirelarik errefusiatuak, oihestuak eta mila arrazoinezko anai behartuak. Hor zen Lafitte bide horietan ere. Eta denak ixilean zauden Lafitten barnean, egunazko lanek, obrek eta ixiltasunek estaliz gauazko edo segetupeko ardurak. Ai, Lafitte, zer ez duzu zuk egin Uztaritzetik hanbat mugitu gabe, zure begi erdi-hetsi haren pean izpiritua ere iduriz lokartzekotan eta bizkitartean hain erne zinauan denboran! Ez, ez zinen zu, beste batzuek beren neurrirat apaldu nahi izan duten gizon ttipi hura bainan, haundietan ezartzekoa.

Zure lo-idurian, Lafitte, erbiaren beharri punta bat zinaukun erakusten doi-doia gu ikasleeri: euskal antzerkitto bat edo bestaño batean, lehengo euskaldun eta erromanoen bataila bat berriz bizi-araziz, hala-nola. Gaineratekoan, eskola mailean, astean behin zinaukun eginen euskararen klase bat, konduaren gainekoa, libroa, erdi-mintzairakoa eta erdi gure

historiaz. Noiztenka piztera emanen zuen zure barneko su horrek bainan ez! Etxeko hautsaz estal etxeko sua: haurrak baidin gu oraino, bazakien zure esperientzia xaharrak noradino su har, gu ginen hurrekin. Eta, zure barneko kar guziaren gatik, ez zintuen ez gure buru-muin guriegiak goizegi erakitan ezarri nahiko. Gorenik ere kanpoan zinuen, kaseta batzuetan, artikulutto bat aterako, ez haurrentzat segur, bainan kasetalari, edo erakasle, edo politikari kazkarregi batzuen ozarkeriak ezin onetsiz eta beren lekuratuz. Bainan hor ez ginen gehiago semenarioan.



Gu, Emile eta Jean Pierre haurrak, otto Jean Leonekin: hau gerlan hila  
1940-V-18-an. Ikus 128 orrialdea.

# Zazpi urte

---

**B**AKOTXAK bere berri daki Uztaritzeko mendixka haren gainean ereman ginituen egunez eta epeaz. Nik neureak emaiten ditut hemen, larri-larria, nihauk ikusi eta senditu ditudan bezala. Baditut, nihauren lagunetan, bestelako ikuspen eta oroitzapenik dutenak bainan bakotxak bere berri.

1926 an (ene sort-urtean, barkatu) zabaldua zen Uztaritzeko semenarioa, etxe gotor eta xuri-gorritu hori, Euskal Herriko apezgaien formakuntzarako, orduko beharrek manatu bezalakoa. Lehen maila zen hor, 11-18 urteen arte hortakoa bana-beste: gero joanen ziren apezgaiak, gehienak Baionako semenario haundirat eta besteak, Pauc, Bordele, Tolosa edo Erromako eskola haundietarat, edo lanerat, edo ere misionest edo fraide komentuetarat.

Gure San Frantses haundiaren (Jatsu eta Xabierekoa) gerizan emana zen eskola; hor dago sailduaren zimentezko itxura haundia erdiz-erdi eskolen gainean eta bastizaren erdian ezarria. Kristoren Kurutzea mundu zabalerat eremaiterat doa Misionest Saindua, haur gazteño bat eskutik daukala. Toki hori ez zuten itsurat berexia: Baxenabarretik Lapurdi eta itsasalderat doanik ez da geroztik etxe ospetsu hori hegigunean ikusi gabe pasatzen. Eta sinetsazue norbait zirela hango erakasleak guretako, apezak gehienak, etxe gain hartan ikusten ginituelarik guk, peko jostalekutik goiti behatuz. Jaun bat zen orduan erakaslea, funtsean guk, Uztaritzen, ez ginuena «Monsieur» erraiten erakasle bakotxari! Haatik, batek beste-ari berea zor, berek «Monsieur» zaukuten erraiten gu ginen haur ikasleeri. Eta «zu» ka mintzatuz, hek ala gu elgarri: frantsesez «vous». Geroztik da ikasi Jainkoari ere erdaraz «tu» erraiten. Gure Aitan berean. Haatik bego euskara, guk baitu-

gu denentzat «zu», «to eta hi eta no» baino ederragoa eta denekin, haundi ala ttipi, errespetua daukana beste bien artean.

Errespetua erakasten zen beraz denbora hetan Uztaritzen, bai erakasleen ala ikasleen alderakoa. Bainan horra Uztaritzen, jinen dela errespetuaz besterik laster. Erran nahi dut: bakantzak, edo oporraldiak. Lehenik, ez dugu horietan ezarriko, jadanik aipatua dugun Omiasaindu biharamuneko egun xoil hura. Bainan nola ziren orduko lan-arteak eta etxerako aldiak? Baziren bakantza haundiak, denetan bezala, udan. Bestalde, hor ginituen Eguberrikoak, eta Bazkokoak, hamabosna eguneko hori, ezbaian. Bien erdiko hiru ilabeteen arte hori luze kausiturik, gure lehen urte hetan ziren asmatu arte-bakantza batzu, hiruna egunekoak, Ihauterietan eta Mendekostez.

Eskola denboretan hatsaren hartzeko, edo aireztatzeko, baginituen astearen barneko bi aratsalde, «promenada» deitzen ginituen ibilaldiak, astelehenetan eta ortzegunetan. Bi multzo haunditan erdizkatuak ginen ateraldi horietako, bat «haundien» multzoa eta bestea «ttipiena», hirugarreneko klasaz gorakoak eta pekoak. Eman dezagun ehun bat ginela baktxean ezbaian, denak lerroan, hirunazka. Bi erakasle zauzkan multxo baktxak arduradun edo zaintzale, bat emaiten zen aintzinean, kurridaren urratsa neurtzeko, eta bestea giblean, azkenen jarraikarazteko. Multxoak beti batasun bat behar zuen zaindu, lerro baktxa bere aintzinekoari jarraikiz, hausturarik izan ez zadin.

Baginakien norat joan: ortzegunean andana bat Ezkandarat balin bazoan, Larresoron gaindi Kanboko mugaraino, bestea Uztaritzeko freretarat zoon. Freretako eskola girixtinoa zen «anai erakasleena» bere plaza zabal ederrarekin, hau orai Uztaritzeko pilota-plaza haundia da, xapelgoak hor egiten, esku-huska ala luzean. Ateraldi hau maiteago zuten pilotariek, partida ederrik egiten baitzuten hor esku-huska ala atxiki ttipian. Ezkandakoa urrunago zen eta hau kurrizaille onen gostukoa; aldiz ez baitziren denak kurrizailleak, lanak zituzten zenbaitek jarraikitzen, zangoetan pintzak jauziak edo ixter ondoak sutan ere gizenkorrek. Larreztatzeko eta jostatze-

ko paradak baziren bestalde Ezkandan: hor bazter gaitza baitzen behin helduz geroz, bazen ororen gostukoa: bazen pilota, hiru-lau arraboterekin, bazen futbola bi pentzetan, eta baziren larre-zoko ederrak, hatxemanka ibiltzeko, edo gaztaina biltzen edo onjoketa ere berdin. Gaineratekoak bestalde, erran nahi dut salatzen ez diren horietarik: haur guziekin bezala, fruitu debekatuak. Zer parada alabainan zigarreta baten erretzeko, gostaia gusta eta irriskuak irrisku! Badira hortan ere konda-ahala bailukete, ondotikako zigorrak eta guziekin.

Ezkandako eta Freretako bi hautu horietaz kanpo, baziren bestelako paradak ere astelehen eta ortzegunen ateraldi horietako. Piarres Lafitte batek hala-nola, gizon zaila eta zainarta baitzen orduko itxura txarra gatik, eremaiten ginituen, zenbait aldiz, beste norapait, eta berdin aski urrun. Toki hurbilenak Larresoroko plaza, Haltsukoa eta Jatsukoa ziren, bai eta Kapitoharrikoa ere bainan baginakien horietarik bi edo hiruren inguratzen, itzulia haundiago eta ederrago, errana den bezala. Eta bazen hoberik ere oraino: Arruntza, Heraitze, Milafranga (hemen bi eliza eta teileria eta taneria ari ziren denbora hartan) eta Salbatoreko kapera. Baginuen, aipatu horietaz kanpo, naski hau Vergez bastidar erakasle gaskoinak edo hautatua eta hola izendatua, Pont du Diable erreka edo nik dakita zer deubrukeria Larresoroko gibel hetan nunbait. Bazen, bidez bide joanez, Senpere aldeko larre-oihana, eta zer erran Santa Barbarako mendiaren gibel hartaz! Egun batez, eta hau oroitzekoa da, Lafitten aldi zen Uztaritzeko «haundien» ibilaldiaren ardura, gure Piarres jarri zen, zoakion bezala, lerroaren aintzinean, eta beste erakaslea, gazteago bat, gibelean. Joan eta joan, nik dakitana da, bost orenetan zelarik gibelerat sartzeko epea, beste multzoa, gurea, ttipietan bainintzan orduan, aspaldi hartan sartua tenoreko, eta besteak ez ageri. Beha ta beha egon ginen aiduru, oro batean sartuko ginela istudiorat, eta azkenean, oren baten buruan bederen, horra haundiak heldu direla, urrats bizian, eta errana den bezala: eiharan egon eta etxerat laster.

Zer ote zen gertatua, denak kurios pinterdi, hauxe zen noizbait zabaldu; bizpahiru filusen jokoa zela dena, hunelaxe

gertatua: Piarres Lafitten ingururat bildu ziren bizpahiruak ele ta ele, hunek oro bazazkiela, eta jo, galde eta galde, hautatu solas-gaiarekin. Orduan, gure Piarres ona, bere jakindurietan sutatua eta ezin atertua, joan zela, Arruntza eta Santa Barbaratik bazterturik, Arrangoitzeko bidea baino urrunago. Azkenean, bizpahiru filusek, begi kliska batekin, Lafitte berari zer ordu zen galdegin (erakasleek zuten bakarrik orduan muntra edo ordularia, guk haurrek ez ginuen orai bezala) eta... badakizu orai historiaren segida eta zer zen gertatu. Ez dugu sekulan jakin zer nota izan zuen Lafittek egun hartako zerbitzuarentzat aita superiorarekin.

Ateraldien hortaz beti, izan ditu ere Uztaritzeko seminarioak Gerezien eta Gaztainen promenadak deitzen ginitue-nak. Gaztainen ateraldia Kanborat egiten zen, zazpi bat kilometretan ginuen Kanboko patronaiarat. Gogoan dut hori Paul Salaberry hango bikario zenaren denboran eginik: oinez joan ginen, hantxetan pilotan eta jostetan arizan, eta etxeko auto zaharrak ereman gaztaina erreak zein gogotik ez ginituen hantxet jan! Bakotxak badaki auzoko salda beti hobea dela. Eta pentsa beraz gaztainak!

Gerezien hura Kanbo baino urrunago ginuen oraino, beraz hobea hura ere, Itsasun! Salburik sudurpetik ez pasatze-kotan zorigaitzez urte batez bezala. Badaukat nik holako oroitzapenik. Alta ederki hasia zen eguna. Nola oroituko nintzan ni hori ez balitz egia, orai, 60 urteren buruan? Eta halako iguzki ederrarekin hasia izan ez balitz egun hori? Iguzkia baze-n bainan goizeko iguzki gorri hura, mehatxu zerbait gorde-tzen duen aroaren maltzur aire harekin. Izan ginuen meza, hau aro ederraren galdatzeko egin baginu bezala. Denboraren buruan gogoan dut zein kantu eman ginuen ere meza bururatzean. Gero askaldu, dudaka egon, zer erabaki jinen zen superioretarik eta, ororen buru, euria heldu zela, gu Itsasurat ezin joan. Huraxe bai dolua, gerezien ateraldiaren gabea! Bixtan da zerbaitez ordaindu zutela arduradunek, bainan guk ez Itsasurako ateraldirik ukan.

**Seroretako neskato ikasleak** ere ikusten ziren Uztaritzeko bideetan zabiltzala gure gisan. Ez haatik gure urrats be-

rean, ez beti bederen; bagineien hortaz izengoiti bat ere asma-tua, hemen ezarriko ez dudana. Gure adin bereko neskatuak ziren han eskolatzen, gure lagun batzuen arrebak edo herritar-rak, ez batere serora-gaiak, hauk ez baitziren hoin gazterik sartzen komentuan; aldiz familia onetako alabak ziren, burasoek hor eskolatzen ezarriak, fama ona baitzuten horgo era-kasle serorek. Hor ere nola ez dira geroztik modak aldatu! Se-rora beltzetako ikasleak kolore iluneko jauntzitan emanak zi-ren eta gainetik beherera ontsa estaliak, orduko gazteak ziren gisa berean eta ez orai bezala batere. Ateraldietako, heiek eta gu ginen tropa haundiekin, ikusteko zen nola ez ginen gehia-gorik kurutzatzen bide beretan. Egiten ginuen gure artean, hain segur ere hitzartuak zirela bi alderdiak, heiena eta gurea, ez leku beretarat joateko promenadan. Bainan ez dugu seku-lan deus segurrik zilatu ez-eta jakin hortaz. Zer nahi dela, iku-si behar da ez zirela orduan oraiko denborak batere, ez baitzi-ren orduko gazteak oraikoak bezain ausartak elgarri buruz, bederen egun argiz.

**Neure anaia Jean Pierre** izan nuen urte batez Uztari-tzeko ikastegian neurekin. Ni baino bi urte gazteagoa, aitak eta amak asmatu zuten, indar bat eginen zutela harendako ur-te batez Ikastetxeko barnetegian ezarriz enekin batean: esko-lako zertifikata pasatzen bazuen pasa, bere Urdozko eskola bezain balios ukanen zuela gutienez horgoa. Hazparneko San Josep ikastetxean ezartzen zituzten bestela buraso ainitzek holakoak, etxe horrek Gastellu izpurar apez famatuarekin bil-dua zuen fama berme. Gure anaiarena berezia zen: gerla den-bora, otto Xan Leon amaren anaia gazteena eta etxeko artzai-na zena gerlarat joana, ait' amek erraiten zuten Jean Pierre de-na hazinda zela, gustu gaitza ardien ondotik, bainan eskolan ere zerbait ikasteko adina orduan zuela. Beraz, ni Uztaritzen bainintzan, argitasunak eskatu zituzten ez ote zuen berdin ba-lio Jean Pierre han ezartzea, biak han izaiteko. Baia ukanik, egin zuten indar hori burasoek eta anaiak berak, ni laugarre-neko klasean nintzan urtean. Adin hartako urratsak ere bete ginituen bi anaiek urte heietan: nik Konfirmazione edo Sen-dotzeko sakramendua hartua nuen aintzineko urtean, bosga-rrean nintzalarik: Baionako katedralean Mgr Mugica Gas-

teizko apezpiku ezagutuaren eskutik. Jean Pierrek berriz komunione haundia egin zuen Uztaritzeko semenarioan 1940 ko Jondoni Salvatore bestan, etxeokak ere haradino jinik; bazkaria Uztaritzeko ostatu batean egin ginuen komitekin, Larueñean; eta zertifikata ere erreusitu zuen bere klase urtearen bururatzean Jean Pierrek. Kondatzen du beti segurki, etsamina pasatuz geroz, Uztaritzetik etxerateko baimena izan zuela segidan, eta biharamunean berean ardien deiztera joan zela Itanazteiko borda eta etxolarat, Iparlako kaskoaren pean zelarik hau: 12 urte zituen, eta jadanik gizon baten gibelondoa. Orduan eskolan ikasten ziren larrienak ikasiak zituen eta... lana bazuen... bere denborakoa!

Zenbait egun lehenago (nola ahantz holakoak!) ukana ginuen bi anaiek Uztaritzetat, maiatzean, otto Xan Leonen gerlako hil-berria: 23 urte zituen, nik baino 9 gutiago, hura aintzineko hazaldiko azkena eta ni ondokoan lehena. Oroitzen naiz, atzo balitz bezala, nola jin zen berria, banakike erakusteko zer lekutan ginen ere Uztaritzeko korrak haundi hartan, futbolzelaia eta pilotalekuen arteko juntatsu hartan, gutunak banatu zauzkutelarik: ni ari nintzan gora-gora amaren letra irakurtzen eta Jean Pierre eni so. Eta! horra berria, izigarria! Eta gu, bi-biak han, bakarrik! Lagun guzien artean, bainan bakarrik! Orain izan balitz holako gertakaria, orainko errextasunekin, jinen zitazkeen hain segur aita edo ama, edo biak, haurren balakatzeko, kontsolatzeko eta sokorritzeko. Orduan hola ginen, berdin sendikor bainan gogorkiago eta mainu gutiagorekin haziak eta guhaur ere zailago, gurikeria guti ezaguturik, bai burasoek eta bai hurrek ere. Beraz, kasu izigarria heldu zelarik, oihesteko orde, mendekatzeko orde, Jainkoari edo norbaiti, ezinbertze txarrago batetara pulunpatzeko orde, behar zen jasan, iretsi eta berriz xutitu. Nik segurik badakit bai, senditu ginuela, eta anaia ttipiangoak nola ez? Orain gogoan dut, eta luzaz senditu, anaia nigar ixila, ixiltasun pisu eta kargatu hura. Gaineratekoan hau baizik ez dakit egun hartaz: promenade aratsaldea zela, Ezkandarat, eta joan ginela beste lagun guziekin, ele guti eta etxea gogoan, hain maite ginuen otto Xan Leonendako Agur Maria batzu eginez eta begiak hauntuak.



Ez ez! Ez dut sekulan uste ukan indar hori guzia gurea ginuela, batek 14 eta besteak 12 urtetan. Ainitz goragotik heldu zena bai, eta zuetarik lehenik, amatxi, aitatxi, ama, aita, Otto Xan Leon eta besteak. Zer daki alabainan bizi, eta bizitzeko indarrez, horien guzien parekorik berak sekulan jastatu ez duenak?



Horra nolakoak giren Uztaritze hartako ikasle lagunak, 60 urte joan eta.



Bidarrai eta Irisarriko lehen kusiak beren bizi-lagunekin.

# Denak erran behar-eta

---

**H**OLAKOAK ziren orduko denborak: Zaharrer Segi, Baigorriko pilotariak berentzat hartu zuten izena bezala. Zure aintzinekoetan hartuko zinuen orduan beti zure bidea eta modela. Ikas lanean aita bizi deno, betiko erran zaharra; ikas bai lanean, kantatzen eta dantzatzen eta mintzatzen, hor baitira erroak; jostatzen ere bai: aspaldiko jokoak, jokotriak eta mila segetu baitituzu zuhaurenatarik etorriak, ukanak eta bekatu laitekeenak galtzerat uztea. «Zaharrer Segi» ez baduzu egiten, ikasten eta bizitzen, zer egingen eta ikasiren duzu? Ez gehiago zure aitarenak, ez beraz zureak, bainan beste aita batenak edo beste batenak, nunbaitekoak. Bainan orduan zer izanen zira zuhaur ere: aitarik gabea, barkatu bainan baxtarta deitzen dugun hura bezalako bat? Ez ote du, zinez, erdarazko erran zahar batek erraiten, etxeko zaharra hiltzen delarik berak zauzkan guziekin, liburutegi eder bat duela su handi batek bezala suntsitzen betiko! Nun ez diozun zuk bere ondortasuna bere ganik bildu, harek zazkienak ikasiz eta zure-tuz.

Etxeko zaharrak eta guhauren aintzineko gizaldiak izanik, horietarik bazuten gure Uztaritzeko erakasle jakintsun zintzoek ere. Damurik, gure adin hura bera baitzen, errana den bezala, axola gutikoa. Bat heldu zait hangoa gogora, alta hau ez ginuelarik gure euskal erroetakoa ere, gure buru arinegietan zerbait xertatu nahi zuena, zinez: **Canton** apez xaharra, gure superior ohia; beharbada hoberenean pasatua zen ordukotz bere dohainez, zer buruko minak ez ditu bildu gurekin, nehor gehiago izitzen ez zuten erasia minberatu batzuen artetik! Hura ari zelarik, gure kaskoetan zerbait utz-ahala utz bera joan aintzin eta sar-ahala sar eta gure gogoak orduan hain

arin ziren denboran. Erran behar dut frantses kultura, berea, zuela hunek erakasten. Bainan ez dea zabala, berez, kultura!

Bestelakoa zen **Sauveur Bisquey** luhustar apeza, itxuraz eta denez hura izana zitakeen gizon eder pilotaria, eta gerroztik erakasle kartsu beroa. Gerlako kolpatu haundia, orduan zituzten artamolde txarrekin ezin sendatu ziozkaten bere zangoetan gerlako zauriak eta, ondorioz, begitartez eder bezain gorputzez pisu eta neketsu gelditua zen bere ibilmoldez bainan zer bertuteko gizona! Iduri-ta, ordainez, gogorrago, zailago eta bertutetsuago egin zutela gizona bere osagarriko ezinbertzeek. Gogor eta bortitza ginaukan bai erakasle hori bainan geroago dut ezagutu nik bederen Bisquey apeza: hantxetan, Bankako seroren apez ezarri zuelarik ondarrean apezpikuak, Baigorri ene herritik bi urratsetan. Orduan dugu beste begiz ikusi, arras bertzelakatua, gure lehengo erakaslea, ala gu ote ginen bertzelakatuenak! Hura bederen hunela agertzen zitzaigun ondikotz: atzo harrizko iduri, eta egun ogi fresko muflea bezain gozo eta mamitsu egina, hots, ez ote ginuen hori egiazko Bisquey apeza!

Erakasleetan naizeno, gogoan dauzkat, guti aski, bide horietan aurkiturik, ainitz gisatara zorretan utziak ditudan erakasle ainitz. Heietan **Andre Beheran** apez pilotaria, J.B. Harambilleten denborako ezpeletar semea hura ere; eta **Jean Leon Etcheverry**, baigorriar xorrotxa, eta **Pierre Etchebarne** Lekorne Leizarragako etxondoa sekulan ukatu ez duen bertute haundiko predikaria, eta **Leon Pochelu** gereziatar erakasle jakintsuna. Gogoan, Greciet superior lapurtarra, gu bezalakoeri aldiz «baxenabartar» arinto aire bat kausitu izan daukuna, gure onetan dudarik gabe eta hezten ari ginen denbora hartan.

Gu ez baginen ere halako zaintzaleeri aski behatzen orduko adin gaixto hartan, izan ditugu bizkitartean beste batzu gure begien aintzinean hurbilagoak eta behatzen giniotenak, erakasleataraino joan gabe. Erran nahi dut ikastetxeko ikasle haundiagoak. Ez, ez dute sekulan jakinen horiek berek, zer balio zuten guretzat Uztaritzeko ikasle haundiek. Berek guk baino bospasei urte gehiago zituzten gorenaz, halere zer jau-

zia ez du egiten gazteak 12 tarik 17 urteetarat! Lehenik haurtasunetik gaztetasunerakoa, zintzurak kantuan oilaskotzerat emaiten eta oraino karranka bitxi batean hutsegiten; eta horra berriz bizarra bere luma hartarik latzerat zoala, eta ikasle gazte zango-luze batzueri erakasleak berak petik gora behar diola behatu... horiek oro ziren gure Uztaritzekoan egiten ari ziren aldakuntzak eta lillurak.

Berehala diot, orduko «haundiez» ari naizen huntan, ez dudala ahantzi, ene Uztaritzeko lehen eguberrien bezperan, «haundi» batek egin zautan distira. Antzerkito bat izan ginuen eskolen bururatzeko. Nundik eta nolakoa erraiteko ez nakike orai, bainan ikusten dut hantxetan **Graxien Setoain**, Luzaide-Arnegi Bitorianoenekoa, ordukotz orai bezain haundi egina, merkatuko artzainaren jauntzi arrunta espalda hegian, erdi dilindan, mokanes gorria, naski, lepoan eta ordukotz harek egina zuen gizon-bozarekin kantari: «Nik erosi dut mando zahar zahar bat!» Ez dakit ikusi dudan geroztik teatro edo Operarik ere, barnea hola inarrosi dautanik.

Eta, sail beretik, zer erran Uztaritze-Kanboko **Mixel Labeguerie** baten boz beroko mintzaldi edo kantu batzuez! Eta, halaber, beste mail batzuetara sartuz, futbola, lasterka eta pilota, ikusten ginituelarik Solaberrieta eta Iramunoren kirola balentriak. Arats batez berriz, zer esku-zartak ez zituzten ukan, afariteko jateko salan bitorios sartu ziren Salagoity eta Trollietek, beste batez Ximun Duhour eta P. Lazconateguyk, ikasleen xapelgoetako partida batzu irabazi ondotik. Baziren ere zenbaiten izpiritu-lehiaketak, xapelgo moduan, edo jakintza batzuetakoak, idazki mailean beren sariekin, beren domina eta medailak zituztenak superioraren eskutik, urrunagotik edo goragotik ez bazen.

Horra beraz hor eskolako notatze eta sariztatzeen aipatzeko parada ere dudala. Noten aldarrikatze edo publikatze hori, batzuetako ordu goxoa, besterentzat txarragoa eta durduzakorra, jateko salan berean. Superiorak irakurtzen zituen denen asteko notak, gora gora. Xehetasunetan sartu gabe, baziren notak eta klasamenduak gaiez gai: bat izanen zinuen latineko nota, bestea griegokoa, eta matematika, eta oro hola-

xet. Orotan nota on edo txarrez negurtuak ziren ikasleak, diziplina barne, hunek erran behar baitzuen nola zinabiltzan, nola gobernatzen jarraikitasunez, laneko zintzotasunez eta serioستاسunez. Hor ziren ezagutzen, eta ezagutuak langile ixil eta eginbidetsuak, bai-eta haur arinagoak, ergelak edo oraino zintzoen mailerat heztekoak zirenak: horiek oro aipatuak eta estimatuak bide ziren erakasleen kontseiluan bainan hori beren artean egiten zuten arduradunek.

Aipatu ditugun guzien ezagutgarri, baginituen guk denek ilabeteko taulak edo merezimendu ageriak: paperezkoak bainan beren balioa zutenak, horietan baitzen gure ikasle emaitzaren gora-behera. Hiru taula mota bazituen ikasleak. Lehen mailekoa zen, kolorez bederen, urrezkoa, gorenean ibili zirendako, ez baita hori deneri emana. Bigarren mailekoa, taula urdina, ez lehen klasa bainan hein pollitekoa eta onargarrria, doi bat segurtasun eta iraupen erakutsi zuen ikaslearena. Hirugarrena zen taula beltza, hori nota txarra, gaztigu gustu bat zuena. Dukat beltz horrek bazuela beihalako ostaler hari gertatuaren zer-bait. Ostatu hartara beraz, joan omen ziren lau lagun aratsaldeko askaria egin behar zutela, ogi ta gasna manatuz pinta bat arnorekin, hasteko. Etxekandereak baietz bainan ogia zuela ez hanbatekoa, hots, ez hain xuria egun hartakoa eta, funtsera-ta, beltza. Gasna on batek oro ahantziko zituela, eman zezala denaden entzunik, joan zen emaztea sukalderat eta... berriz itzuli, erranez ahalgeturik bezala: «Ez dakit nor izan den. Batere ez dut ogirik. Eta lau gizonek: «Hori da hori beltza!». Semenarioko taularekin ere hola zen. Paper beltzezko taularik ez izaitea batere, gabea. Gabea zen zinez hango beltz hura.

Euskararentzat izan ginituen sariak semenarioan P. Lafitte miresgarriari esker. Ezagutuak dira, **Euskalzaleen Biltzarra** hain luzaz eta hain kartsuki bere gain izan dituen sari-ketak: **Elissalde** apezarekin bereziki eta **Janamari Malharin** anderearekin; gero Lafittek ez zuen Uztaritzen nehoren beha egoiterik ukan. Berak egiten zituen sariztatze ttipi batzu han berean gu bere ikasleekin. Batean, eginarazten zaukun euskaraz idatzizko lan bat. Beste lana berriz Euskal Herriaz jakin behar ziren gure historiako gertakariez edo jakintzez.

Etorri zelarik gure sarien eguna, ene baitan naukan J.B. Etcharren azkaratiarrak, edo J.B. Itzaina aldudarrak, edo C. Arribilaga senpertarrak edo P. Lazcanotegui urruñarrak, edo R. Sancinena ainhoarrak zutela irabaziko euskarazko saria, horiek baitzituzten lehen medailak eremaiten beste gaietan. Hala da Etcharren azkaratiarrak izan zuela lehen saria bainan ez euskarazko ariketan; beste saria irabazi zuen harek, euskal historiakoa. Euskaraz idazketakoa berriz nik nuen irabazi, ez bainintzan guti harritu: uste nuen alabaina latinez, griegoz edo frantsesezkoetan lehen zirenek eremanen zutela euskarazkoa ere. Orduan naiz hasi neure euskarari fidatzen, gehixago. Oroitu ere nintzan haatik, urte zenbait lehenxago, Baigorriin, izana nuen holako seinaleto batez: Marguerite Olçomendy ene klasako lagun otikorendarrak eta biek ukana ginuena, bereziki harek bainan nik ere haren ondotik. Hauxe izan zen kasua: hameka bat urtetan ginenean jaun bikarioak egin arazi zaukun, katixima ondoan, Euskalzaleen Biltzarren sariketako lana; Marguerite Olçomendy, Elizabehereko alaba gazteena, izan zen lehen saria ereman zuena, eta nik nuen bigarrena.

Ez da gehiago holako sariketarik egiten. Egiten direnak ere bestelako sariketak dira, mailez eta zabaltasunez. Geroztik, zorionez, ainitz ikasbidetan sartua da euskara, ofizialtasun zerbaitekin ere orobat. Bainan ez da ahantzi beharko herrian nola eta zertarik heldu diren oraikoak, eta nor izan ziren lehenbiziko buru-beroak, apez eta beste, euskararen sustatzen irriskatu zirenak eta maiz beren sakelatik. Izanak ziren aitziatik egunak ordu arte, jende eskolatuek uste baitzuten, erdarazkoa eta erdararena zela jakitate guzia eta jende haundiek uste baitzuten mintzaira xumeak traba batzu zirela egiazko aintzinamenduentzat. Detxepare Eiheralarrekoak nola ez zuen hori deitoratzen bere kantuetan!

Horiatarik denetarik jastatu dugu guk Uztaritzeko ikasdenbora guzian eta guhaur gehienik haunditzen ari ginen zazpi urte heietan. Gainerat, gerla denbora, 1939 tik 1945 artinoko hura. Hor ikusi ditugu gure erakasle andana bat, gazteenetarik, gerlarat joaiten, gehiago ez itzultzeko zenbait, eta

ikasleak ere bai, haundienetarik. Heien ordez etorri zirenak aleman soldadoak izan ziren, gure etsaiak beraz kasu hartan, bideak oro betetzen zituztela beren armadako martxa eta kantu gogor, bortitz eta ausartez; soldadoak ez zirelarik berriz, heien tresna burrunbadunak ziren, auto edo moto militarrik zirurikan, edo kamiun eta karroak, kasik arroiarrat edo pendoitzez bestalderat jauzi egitekotan baiginen gu adin hartan, guhaur beren ganat bil ginitzaten beldurrez.

Horiek hola, Frantziak bakea eta ixiltasuna sinatua, arrazoin guziak baginituen guk denek, zakur-joa bezain apal eta ezti ibiltzeko bazterrez bazter eta xokoz xoko. Gure etxeak ere halaber: ilunduz geroz oro zerratu behar eta argirik nehon ez ageri, kanporat zauden berina bakarrak ere han zauden gerla galtzalearen ahalgearekin bezala, tindu urdin eta ilunez ontsa zirrimarratuak. Alta behar gabeko eta indarrrik gabeko larderia ez ote zen hori ere. Hainbeste zoinurekin gure etxeak gauazko desbistaraziak zituztelarik alemanek beren etsaien errebelatzeko, ez zituztena hauk, trufa baino musika gehiago, Miarritzeko karrikak eta inguru batzu egun argiz bonbardatu, gure eskolier lagun baten arreba hilez hain zuzen, Miarritzen, eta, halaber, Bidarrai Pipinttoeneko seme bat ere Miarritze inguruko etxalde batean mutil zena, dohakabea.

Gerla edo ez gerla, bizi eta hazi behar ziren, egun latz heietan ere, gu ginen bezalako bizpahiru ehun mutiko kozkor, bainan zerekin hori? Ele gutirekin eta beti zerbaiten ondotik, nolako gizona ez ginuen guk ukan orduan **Jean Uhart bar-dotzar ekonomia**, gure aita hazle baliosa. Bazaukan bere eskuko gaizoak, ezantza edo beste erregailu faltan, ikatz indarrean ezarria zuen auto txar eta zahar uzkerkari bat, lanak baitzituen semenarioko patarrari lotu eta gainerat ezin helduz bere karga guziarekin. Gu egoiten gintzazkon korrale hegitik beha eta eskuzartak ere egiten giniozkan gure klasa eskolen artetik; baginakien-eta nola eta nun zabilan, ahal zuen aldi guziz bezala: Uztaritzeko etxalde edo Senperealdeko bazter-etxe zenbaitetan bazuela zaku-ilar, kuia edo urde zenbait tratuz tratu errosia. Hura zuen hain segur eskoletxerat ekartzen, aleman kontrola zenbaiti ahal zuen gezurra sakaturik. Zinez-




eta, nork pentsatuko zuen, den armadun gaixtoenak ere, bekatu zela holako gezurra? Gaixo bardoztar apez ona, zure horiek bederen bai, barkatuak daudela aspaldian gain hartan! Gure partetik segurik, aspaldi huntan.

Etsaiak erran dugu hor beste zenbaitendako. Eta nolako etsaiak ez dira izan, holako egitateekin! **Dubernet apeza** ereman zutelarik gure artetik, ez baitziren berak ere guti oihestuak holako lanen egiteko. Ixtorio bitxi eta ezin-konprenituzko baten ondotik ereman zuten ziburutarra, Alemaniaraino azkenekotz, deus gehiagokorik gabe, bainan sekulan ez itzultzeko, han ezarria izan zen herio zelai izigarrietan. Alta ez zuen berak hoben izpirik, gaixoak. Haurren arteko haurkeriazko josteta batean izan zen hatxemana apeza, eta haur-josteta kondu salatua, ustez-eta ez zuela gerokorik izaiten ahal josteta horrek, bainan zoazte zuek josteta eta holakoen konpreni-arazterat gerlaren beldur-ikaretan haztoratuak diren etsai durduzatuari. Guk dena patxada ginauzkan hemen aleman okupatzaileak. Baina ez ahantz berak zirela izituenak, hemendik landa errusoen kontrako tiro-erauntsietarat joan beharrak zirela zakiten dohakabeak. Hori ere baita gerla: zure jabe daukazun etsaia, hura bera da gogoetatuen, beste batek daukalarik eskua haren gainean!

Bai bai, ainitz eta haundiak izan dituztela jasaiteko gure gogo-bihotz guriek holako urte pisuetan. Guziz, jasan-gaitz batek ordaintzen zuelarik, gutienik ustean, aintzinekoa. Alta beste gertakari batek ere ez ginituen hotzik utzi gure haurrean. Erran nahi dut **Garat** gure Uztaritzeko superioraren hiltzea. 67 urte zituen, beraz aski xahartua gu ginen haurrendako. Xahar pixkorra zitakeen bere gisan, ustez bederen; bere apez-lagun eritu baten ikustera zoalarik aratsaldez, Uztaritzeko semenariotik Zuraideko erretortegira Larresoroko larreetan barna, gertatu zitzaion hari sekulakoa. Ezin-ahantzizkoa hori ere, gu ginen 15-16 urteko ikasleentzat: biharamun goizean, askal-ondoan, eskola-klasetarat hartzeko orde, bil-arazi gintuzten kaperalat, berri txarraz parte emaitako: hila aurkitu zutela, gaueraino bilaka ibilirik, larre hartan superior xaharra eta otoitz egin ginezala. Ehortzeta hunkigarriak egin ginioz-

kan ondoan, Garat hazpandar-zelaitarraren lekua hartu zuen **Greciet** ezpeletar apezak, herri hortako mediku auzapezaren anaiak, Uztaritzeko semenarioaren buru.



Xuberoan, pastoraltzale.

# Zuberoan urte bat

---

**1** 944 eko irailean, 29 a edo hola: etxeko ezkaratzean ari nintzan, puskak oro bildurik, kutxa berri haundian ororen plegatzen eta ohatzen, amak ere begia zaukala, bixtan dena. Horra pietuna, edo faturra, edo berriketaria. Erdal egunkaria ere hartzen zuten gure etxekoek beren gisan egunero, asteko «Eskualduna» kasetaz bestalde. Gutun bat ere izaiten zen noiztenka, nahiz bakan. Egun bai, Baionatik. Ez nintzan guti harritu ikustean, lehenik horri behatu bainuen, **Baionako semenario** haunditik zela: aita Candau, superior biarnesa bera eni mintzo. Hau zuen erraiten, ele alferrik gabe: «Zuk, adinez, ez baituzu presarik, eta apez erakasle eskasa baitugu ikastetxe giristinoetan, Mauleko kolegiar bat behar duzu joan erakasle lagun, urte batendako. Hala da, zure istudioetan urte bat galduko duzula, bainan beste alde batetik on eginen dautzu eta zohituko zaitu esperientzia horrek». Ustegabea ginuen hori, nihaurk eta etxekoek. Bainan ez zuen nehork trabarik egin, ez-eta estakuru-keta abiatu ere. Ohoratuak bezala ginauden orohar parada berri hortaz eta aita superioraren hitzez.

Bide berriaren alderdiak hartu ginituen berehala: autobusa bazen Baigorritik Maulera, zenbaitek departementala eta besteek portemantoa, trebeskatuz, deitzen zuten hura, eta ortzegunarekin, urriaren lehenean, uste dudana. Ni Garaziraino jada izana bainan ez Donibane baino urrunago, oroitzen naiz nola joan ginen gerla denborako autokar xaharrean (1944), urriko hego-xuri goiz batez, Buztintzeko ordokian harat, jendea soroetan ari eta bazter horiek guziak nolakoak ziren xoratua. Pentsa, 18 urteen bezperan, beste axolarik bannuetz! Mauleko ikastetxean, erakasle saldoaren erdian,

orotako gazteena izanik ere ni, eta guti aterara, norbait nintzala haatik! Ikastetxea gotorra zen, nahiz Uztaritzekoa baino ttipiagoa, eta kolorez eta denez hitsago, bainan bazaukan bere ospea, Mauleko karrika nagusiaren buru hartan, zubia eskuarean. Nik banuen han, enetzat bakarrik, lehen aldikotz, ganbera berezia bere ohettoarekin eta bulegoa leihoko aldean, idazteko. Laguntzat berriz, **Paul Haristoy** bardoztar apezgaia, ni baino bizpahiru urte zaharxagoa, eta enetzat lagun goxo berezia. Biek kurrituko eta ezagutuko dugu Zubero alde hori, lan-arte aratsaldeetan, lehen-lehenik Mauletik eta Haueraino. Herri huntan berean zen Ofizialdeguy apezgaia, sortzez garaztarra: hau ezagutzen zuen ene lagun Paulek, Bardozen ezagutua baitzuen, bere herrian, bikario. Jaun errektorak arras ongi hartu ginituen, Bardozeko katiximako karnet xaharra ere atera zuen, Paulen denborakoa, aspaldiko notak eta oro.

Mauleko San Frantses etxe hortan, haurren istudioetako zaintzale begirale lana ukan ginuen Paul eta biek. Ez haundien partea, hau **Xemartin Pebet** duzunariztar apez pilotari bipilaren eskuetan ezarria baitzen, Alemaniatik osasun arrazoinez libratu etorria zen ondoan. Paulendako erori zen artekoen istudio gela zaintzeko, eta enetzat ttipien gela, alabainan, bainan huntan ere 40-50 putiko zitazkeen ezbaian 10-14 urtekoak. Zaintzale lan horrekin batean izan ginituen bestalde, klase ordu batzu multxo ttipiagoeri egiteko. Nere partea, historia, geografia eta aritmetika eskola batzu ziren, seigarren edo bosgarreneko eskoletan. Gerlan gerlako gisa, bixtan da guhaur apendiz ginela erakaskuntza mailan eta izanen ginuela ikastekorik pedagogian, bainan ez gogotik gal gerla urteak zirela oraino eta holakoetan ere erakaslerik ez izaita zela beltza. Denaden, guk emanarekin egon ziren urte hartan Mauleko San Frantses ikastetxeko gatzetxo batzu.

Ez dut oraino deusik erran Mauleko ikastetxe hortako buruzagiaz. **Ithurbide** apezgaia zen superiora, kalonjea. 70 urte etarat ari zaitekeen. Errespetu haundiko nausia, nahiz ele gutikoa eta orohar goxoa. Ni baigorriarra nintzala jakin orduko eta izen deituraz Larre, behatu zautan eta mintzatu deplauki: «Hi, Baigorri, zein etxetakoa haiz, zeren nik ama-

txi Baigorri Enautenekoa bainuen eta hire izenekoa?» Gehiagorik gabe, ihardetsi nion: «Nik berriz Enautenekoa nuen aitaxi, eta gainerat, Enautenean dut orai amaren ahizpa». Ez ginuen jendakitasun hori gehiago barnatu egun hartan, ez-eta gero ere... handik hiru asteren buruko zendu baitzen tupustez jaun superiora. Bere iloba, Andre Ithurbide, Ahetze-Arbonako erretor du den tenorean, eta hunen beste bi anaiek ez dute zortzi orenetako meza hutsegiten Donibanen igandez, apezari ere kafea pagatuz ondotik Luis eta Mariaren ostatuan.

1944-45 urte harek izan zituen bere aldaketak eta nahasturak. Gerlaren seigarren urtea, baginuen ikastetxean, erakasle iheslari bat, Strell alsazianoa, sotana erabiltzen zuena bainan ez zen apeztua. Gerlaren segetutzeko berriak hartzen zituen irrati berezi batean eta gu ere komitatzen ginituen entzuztera: alemanen azken-aintzineko gudukak ziren orduan Poloniako lurretan, Dantzig eta beste, kalapita eta hilketa frangoekin. Frantzian gaindi eta Zuberoa zokoraino ere baziren holakoen hedadurak sasipeko soldado zahar eta berriak jazarririk aleman militareri, oraiko J.L. Davanten pastoralean ikas ditakeen bezala. Alemanek zituzten orduan, beren furfuriaz guzien ondotik, egun txarragoak hasiak. Ez baitugu guk hori hemengo gaia, begote berean holako berriak. Badugu beste kondatzeorik orai hemen, eta hau lehena: abiatu zirela gure presunerak etxerat buruz (aintzineko urteetan bakar batzu ziren xoilki, handik eskapaturik, jinak) eta laster hasiko ziren Frantzian eta Mauleraino, bixtan dena, zorioneko bakearen alegrantziak.

Alegrantzia egun eta giro horietan ezartzekoa dugu, urtetsu hartan Pierra Etxahun Irurikoak Maulerat eta Atarratzerat, bi izenak agertzen baitira kantuetan, bera presunergotik itzultzean, bere gartzelatik ekarri zuen kantu fa-matua: Agur Xuberoa! Ainitz entzun dugu guk segurik orduan kantu hori zorion haunditan denek kantaturik. Datxikola hasi ziren orduan herri guzietan alemanetarik libratzearen bestak eta dantzaldiak. Libratzearenak ezarri dut: zenbaitek bitoriarenak erraiten zuten bainan nun da bitoria, herri bat urratua eta arroinatua gelditzen delarik eta bisean-bisekoa halaber?

Besta giroa aipatu behar-eta denaden, pilotariak bederen bazauzkan, mailez aski onak, San Frantses kolegioak bere apez eta adiskideetan. Nork ez ditu orduan txalotu Pebet, Susuarreguy eta Bidegain apezak plazetan, eta heieri kontra, Carrasco, Lapuente, Servielle anaiak, Houyou, Espel eta besteak, edo, xixtera haundian, Tintin Aguer, Crohare eta gehiago; paletaz berriz trinketetan, Heugas anaiak, Paul Salaberry apez, Kanboko bikari ohi hura bera eta holakoak, denetan ere guk ahantziez kondu atxikiz.

Bere alde ilunen herrestoak ez zituen oraino ezeztatuak kolegioak ni han nintzan denboran: lehen lehenik, bere murrutan oraino tapatzekoak ageri zituen tiro eta bonbardatze zenbaiten zauri beldurgarriak. Horiek guziek, elgarrekin pairatuak jasanik gerla jestu horietan, etxeetako erdi-gosetik eta sasi-peko guduka eta ukaldi txarretaraino. Ezinbertzeak tinkiagotuak baizik ez zituen herritarren eta Mauleko apez eta erakasleen arteko lokarriak. Erresistentzia bipila izana baitzen etsaiaren indarkeriaren aintzinean, hilak eta oro, eta baziren hor fama eta ospe egiazko bat bildua zuten gizonak herrian eta heietarik bat izana zen Ithurbide aita superiora: herriko komunisteria gogor batekin ere eskua emanez ibilia zen Ithurbide, batzuk eta besteek etsai higuingarri zaukatena kontra eta herritarren alde.

Gerlako egintzetan edo bestalde arras ezagutuak ziren kolegioko irakasle batzu: heien artean Lacoste apez, herriko semea, eta Pitchouague famatua, gazte hezle bortitza, bai-eta, jakintza mailean, Etcheverry-Kixker, Orabe eta Charritton apezak; nola ere Coyos Arrokiagako seme eta misionest famatu higatuko dena iguzkialderaino ondarrekotz herriz kanpoan.

Eta nola ez dut erranen ni zor haundian gelditua naizela pasaia labur hortan Zuberoarekin! Lehen lehenik zuberotar mintzaira ospegarriarekin. Ainitz hegoaldeciar ikusi izan dut geroztik ere hor gaindi, gutizia eta nahikeria xoil hunek ekarririk: Zuberoako hizkuntza hobeki ezagutu, barnatu eta sakondu behar zutela; ez baita gure herrian euskalkirik baztertzea eta galtzea merezi duenik eta, are gutiago zuberera. Ai-

tortuko dut halere, beste batzuekin, azken urte hautako ortografiaren aldaketa batzu ez direla errexegiak gu bezalako ainitz manexendako oraiko beste aldaketa batzuen ondotik. Nahi dut zuberotarrena dela zuberera bainan gure beharra ere badute horgo 13.000 herritarrek eta, hortako, guk ere behar konprenitu bederen: zuberotar kantua baizik ez balitz ere, eta mintzairarekin, ahal duguna.

**Pastorala** ere da, hangotiar eta auzokoentzat Zuberoa, eta horri datxikola, maskarada, zuberotar dantzak, kantuak eta oro. Egun batez, maitatuan maitatu, ainitz gira, orohar, manexak, eta hegoaldekoak ere, pastoral guti hutsegiten dugunak, euskararen debozione bat bezala bilakatua baita hori guretzat. Nork daki, Zuberoan, Pastoralak salbatu beharra ote den euskara! Eta, berdin berdina, kantuak Baxenabarren! Beira gaiten halere amets xoroetarik, bai Zuberoan eta bai Baxenabarren. Ez amets xororik egin, kantu xoilak salbatuko gaituela, batean ala bestean: gehiagoko zerbaiten gostua, xedea, urratsak eta obrak behar ditugu. Beraz Pastorala bai, kantua bai, antzerkia ere, bainan ez haatik horietan gelditzekotan, hots, mintzatzea ere hor da, ala ez ote dauku horrek min egiten, Zuberoan eta beste euskal herri batzuetan: gu joaiten girelarik euskal besta horietarat eta han euskara bezenbat frantses entzuten. Otoi! Hau ez kritikatzat har, bainan gure buruari erranez lehenik: badugula orok zer egin... gure etxetik haste! Horra zertarat ereman gaituen, Zuberoan maitatu ginuen pastoralak.

**Garraio eta komunikazio nekeziak** ginituela gerlako ondar urte hartan, hori ere beharko dut hemen erakutsi. 50 kilometra Baigorritik eta Maulerat, errana dut autokar zerbitzua bazela. Denbora hetan ahal zen bezalakoa. Itxura hanbatekoa zuen oraino bainan emaiten zuen bihotza zuela akitua, bereziki erregailutzat zuelarik ikatzean ari zen gazogena hura, gerlak ekarri «aintzinamendua» dena ere: hots, bere arroltze hoberenak errunak dituen oilo zaharraren iduriko, eta urratsa halakatua. Hori sinesten ez duenak jakin dezala, behingoaren gatik, nola gelditu behar ukan ginuen, etxetik Maulerakoan Etxarriko patarrean: motorrak pur-pur-pur eta azkenekotz tu-

rrut! Jautsarazi gintuzten autokarreko gazte guziak, hots, gehienak. Eta, ez bakarrik oinez igaiteko patarra bainan eskukaldi baten emaitako: on ginen guziak gibeletik lotu-ta, behar ukan ginuen berriz bultzatzen indar egin, flakutzen hasten zenean gure manddoa. Beharrik, orai ez bezalako «pottokak» baiginen Mauleko ikastetxeko haundienak eta gu heiekin, adin bertsuko erakaslegaiak.

**Beste ondoriorik** bazuen denbora harek: jan-edanen eta beztigailuen xuhurreria. Jan-edanentzat Uztaritzeko manera hartarik zerbait bazuen Etcheto ekonomak. Beraz ez du balio berriz hortan sar gaiten. Oinetako xuhurreriaz nahiago dut zerbait erran; lekuan ginelakotz Maulen, espartin eta oinetakoen lantegi-herrian. Gune hori ezagutua da aspaldian bere lantegi guziekin. Mende hunen hastetsuan egin ziren hor lantegi xoil batzu eta gero-ta-haundiagoak, nausi batzuenak eta langileria ederrari lan eman ere, galdea hala zelarik: espartin azkarrak egiten ziren eta gero-ta-oski azkarragoak ere, hala nola armada eta holako erosle haundi batzu behartu izan dirrelarik. Hain zuzen gu han ginen gerla-ondo berri hartan, beti bezain samin zen galdea. Eta guhaurek ere ez ginion tu egitekhoa holako paradari, gure beharren doia, bixtan dena eta ez komertzioa gatik. Izaiten ziren parada batzu Maulen: holako botigan, aldian pare bat izan zitakeela, edo gure ikasle gazte baten etxera joanez, ahal ginituen paradak baliatzen ginituen holaxet; halakoak ginituen alabainan beharrak eta oro: 18 urteetan zango gaixtoa du gazteak, beti baitabila, harat jauzi eta hunat itzul, pilotan, futboleant edo hatxemanka.

**Pilotan** ere. Espartin-egileen gainera, edo espartin-egitekoko estakuruan, ez dakit xuxen, bazen Mauleko karrika nauasian pilota egilea. Hala da, zinez, harria bezain gogorak zituela hunek bere eskuzko pilotak hastean segurik bainan ez ginuen hautarik. Polliki eta ezti-eztia hasiz, hezten ginuen pilota, erreposki, hezten gure eskua ere denbora berean. Jokalekuak baziren urrunegi gabe. Maulen berean, ikastegitik bi urratsetan ginuen barne hetsi bat, Couture ostatukoa: lau paretak ziren, laburrak eta saretto batekin, pilota itzulian zabilan eta hori ginuen maite, paret edo errebot hartuz xixteraz beza-



la. Gero bazen Glaria trinketa, hura bai ederra eta partidak ainitz bazituena orduan, pilotari haundienekin ere. Eta plaza laxoak: Bildoze herrikoa ginuen maite, izari onekoa baitzen eta ez urrunegi oinez joaiteko. Mauleko plaza haundian ez ginen ibiltzen. Aldiz ez ditut oraino aipatu kolegiokoak eta hor ginen egunero eta alde bat ari, bai bi korraleen barneko bi plaza laxoetan eta bai ikasle haundien ala ttipien aldeko bi plaza hetsietan. Horiek orok aski garbi erakusten dute pilotak zuela Maulen, kirola guzien aintzineko lehenbiziko lekua eta ez batere itxura xoilean bainan ooren gustuan eta egian.



Xalbador eta Mattin.



Bertsulari gazte eta zaharrekin  
hurbil egonak beti.

# Bost lagun

---

**B**AZEN, Mauleko ikastetxean, jateko sala haundia. Haurren mahiekin, bizpahiru lerro, edo lau, burutik buru. Buru buruan zen, haurren mahiekin trebeska eta esku-airrean ezarria, erakasleen mahi nausia. Hamabost bat edo hola ziren erakasleak, emazterik ez, non ez zen marrazki erakasle lagun bat edo erizain bat (haatik hau serora, ez zen besteen mahian). Hastean, beren mahi osoa betetzen ez zuteno, han ginuen, guk erakasle gazteek gure lekua, haraindiko buru ezkinan. Mahi haundiaren betea bildu zirelarik, azken batzu etorri orduko, guk, gazteek, kanporat joan behar ukan ginuen jateko sala haunditik. Ezarri ginituzten, sala-haundiaren eta kozina-sukaldearen arteko barne ttipi batean, mahi ttipi batekin, iduri gradoz apalago bainan zinez libroago. Ez baiginen gradoz axola, haatik gostuanago ginen hola. Bost ginen gu hor: **Rif jauna** denetako zaharrena, 32 urteko gizon egina (hortako erraiten ginion hari jauna), erakasle ona zen, ofiziokoa, bainan erdaldun hutsa nahiz ez urrungoa (biarnesa) ele zuhurrekoa, amarekin bizi zen eta hau maiz aipatzen zuen, arras atxikia baitzen. Beste gisan arraillanta zen eta omorez alaia, denekin gizon xehea eta gurekilan aitaso bat arras gutartekoa beste gisan.

**Clement Larroque** ginuen bigarrena: hau gu-iduria eta menekoa, zenbaitek erran lezaketen bezala: 25 urteko musika erakaslea zen eta... itsua! Hau ginuen, berriz erran-eta ere, arras gutartekoa, jostakina baitzen eta solasean gure pisu bertsukoa, ez gehiago, eta beti jokotria zerbaitetarat ekarria, bere begietako ezinbertzea gatik. Egun batez, pario bat egin zuten, harek eta Kaiet Idiarregaray ahastar apezak: bai-eta, bere itsuan, eginen zuela Mauleko hirittoaren itzulua, bizikletean,

zangorik lurrari eman gabe. Gu denak harrituak, nola itsu batek egin zezakeen holakorik (kilometra pare bat bazitakeen hurbil). Biak izan-ahala fida beren parioaz, gure gain utzi zuten parioaren topatzea eta jujatzea. Bere segurtamenak hartuak zituen itsuak aintzinetik: gauerditan eginen zuela bere balentria, bideak hutsak zirelarik (ez baitzen orduan orai bezenbat auto irrisku tenore hartan). Etorri zen hautatu eguna, edo gaua, hobeki erraiteko. San Frantses ikastegi aintzinetik zen abiatzea, eta han berean bururatzea, aldiz itzulikatu behar zen treinen geltokitik (gara) eta Glaria trinketa eta Victor Hugo karrikan gaindi heldu berriz ikastegirat.

Abiatu zen gizona bere tresnan, hesaka edo andarka lehenik, eta bide gainean segurtatuz gero. Berak ondotik esplikatu zaukunaz, bide-bizkar erdiaren goratasuna senditzen bide zuen, erdian egoiteko, bazterra jo gabe. Egin zuen bere itzulia, gure bi lagunek segituz juje gisa, eta... ez ordea parioa irabazi. Huna zertan izan zuten auzi baten lokia: protesta egin zuen Idiarregarayek zango bat lurrerat eman zuela behin. Hori izan zen Glaria trinketaren aintzineko bidean: bide hartan moztura bat eginik, obran ari ziren han uraren hodi batzuen antolatzeke eta bazen urratu lekuan konkor bat gelditua bidean, gure Clement durduzarazi zuena. Baietz eta ezetz, batek bidearen estatu txarrak zuela hor hoben, besteak aldiz estakuru txar horrek ez zuela baliorik, denaden galdu zuen itsuak egun edo gau hortako parioa.

Badu haatik galdu ez duen pariorik gure mixteriozko itsuak (Biarno muga horietakoa zen). Gizon ernea baitzen eta alaja, frango ausarta, arras maite zuen ikastetxeko kuskua hetsi hartarik jalgitzea, dena mixterio eta espantu, hau «ikusia», hura egin, eta beti zerbait berri, gure lilluragarri. Egun batez segurtatu zaukun, aspaldian errepikatzen zaukuna eta guk ez sinesten: bazuela bai emaztegaia, 22 urtekoa, eta laster jakinena ginuela ezkont-eguna ere. Pario hori ez baitzuen galdu gure gizonak! Itsua zela zinez, oraino sinetsia ez duten Santomas guziendako, erran behar dut eta finkatu, baietz ba, egiazko itsua zela Larroque, bi urteetan edo hola galdurik osoki bere bixta guzia. Aprendizgoak egiten dituzte holakoek

gero, begitik ez dutena, beharritik, usainetik, airearen hatsetik eta nik dakita zer asmotarik hartuz, badute guk ez dugun trebetasun eta usna edo suna bat bildua non harritzekoak senditzen baitituzte, hala nola beren bidean duten traba baten jotzerakoan tanpez gelditzeraino, nik dakita nolaz!

Eta ezkontza hura? Ezkondu ziren ba, eta bost seme-ala-ba ukan gure bi urtxoek eta ez bat ere itsurik. Beren etxe pollitean egin deiet bisita, Maulen, urte batzuen buruan. Clement izana da, luzaz, musika erakasle, eta organa-joile Mauleko elizan. Ez da egungo errana, batzuek bi begiak eta besteek begirik batere ez duten mundu huntan: bat goseak hil zuenaren leku berean, besteak bereaz egin zuela eta zenbait aberastu zirela. Dohainez ere gauza bera erran ditake: gizonak alde batetik ez duena beste nunbaitik izan dezakeela, eta ausarkian ere zenbait aldiz. Zenbat itsu ez ditugu denek ikusi, dohain ederrenez gaintituak baitziren, ala musika, ala gogoeta, olerki edo zernahi jakintzatan. Guretzat ere badu horrek bi gogoetarena: zer egiten dugun, futxo guhauk, gure bi begiez, beharriez, eta gainerakoez! Baginukeela bai, guk, zer ikas, holakoekin!

**Paul Haristoy** bardoztarra jadanik aipatua dut eta hemen ezarri behar dut erranez gu bosten lagungoan zela. Apezgaia ni bezala, ene kasu berean ezarria izana zen hura ere urte baten-tzat Maulen, bainan hiru urtez ni baino zaharrago eta aintzina-go ere zen semenarioko ikasketetan. Lagun goxo, prestu eta ezti hori joan den urtean zendua da, Biarrio hegi hortan betarik beti bere apez zerbitzua. Haatik ni bezain euskalduna zen familiaz eta bere izaitez. Anaia apeza ere badu, gazteagoa, bai eta iloba bat aihertar neskato batekin ezkondua. Paul eta ni bi anaia bezala ibili gira gure Mauleko egonaldi guzian eta gero ez dugu sekulan elgar ahantzi.

**Georges Guillot** ginuen gure laugarren laguna eta hau ez zen gutiago arraroa gertatu. 21 urteko mutil gaztea ezagutu nuen, Mauleratzean: gazte luze bat, doi bat mendrea, izpiritu ta mintzo onekoa, irrizafila karkailadun bat solasartetik aise zariona. Halako bitxi bat egin zitzaidan jakitean holako gazte argia ikastetxeko haur ttipienen irakasle xoil zela Mau-

len eta besterik ez. Behar dira, ikusiko dugu, gauzak hobeki zilatu, hola jukatzen hasi gabe. Doi bat mintzatzearekin ikasi nuen osasun arrazoinez zela hor: Toulon hiri-portukoa zela Mediterraneoko itsaso hegian, nahiz amatxi miarritzarra zuen sortzez; eta eri egona zela, bular-birietarik, urte bat edo beste, azkenean Euskal-Herrirat aire-onketa jina, eta hola gertatu zela, apez adiskide batek gomendaturik, Garroko eskolan lehenik, Mendiondo-Lekornen, Landetcheberry apez onaren zuzendaripean. Osasunean geroztik pixkorturik, haren irri karkailak berak orai salatzen zuen bezala, hasia zen, Garroan, Euskal-Herriaren ezagutzen, maitatzen ere bai segurki, bere osasuna eta geroa ahantzi gabe batere. Orai aldiz, Mauleko ttipien eskola eginez, ez zagon geldirik bestalde, zituen dohain ederrekin: bera ikasketan, eritasunak gibelatu baccalaurat diplomaren prestatzen ari zen, denbora berean, lanartez lanarte, Zuberoko euskararen ikasteari lotua: hori guzia, ez bakarrik axalez eta denbora-pasa, bainan bere eskolako haurrak euskaraz mintzaraziz trebatzen ari zen heiekin egunetik egun. Denbora berean maitarazten ari zuen Maulen bere burua, berak ere herri hau maitatuz bezala.

Hola joan zen urtea. Gurekin, ez zuen Guillot ek pilota edo kirola zerbaitetarako balio, harek izana zuen gaitz hitsarekin. Aldiz loriatzen ginela bai lagun arrai horrekin, Paul Haristoy eta ni, bera ere heldu zitzaigularik, omore on harekin eta beti galde zerbait mihian, eta beti ikas-gose, gu baino jakintsunago zena berez. Halere, bakantza haundiak jitearekin egin nuen nik Guilloten ezagutza egiazkoa. Uztailean ukan nuen, Bastida-Belarrean, Mauleko lagun izan haren bisita. Berriz segurtatzen hasia zuen osasunarekin, haren izpirituko gai ederrak bestalde, nork daki zer beharra zen egun batez: erakasle, notariki, mediku, ala deputatu? Aratsaldean atera ginen, Belarretik, lauretakoa eginik, Eaparriko eta Elgarte-ko mahasti-buruetan gaindi, Oilarandoi-Munoa-Jarako mendiak hantxetan begiztatuz, solas eta solas, elgarren berriez eta lagunez mintzo... noiz-eta, mahats-hesol bati loturik, erraiten baitaut: «Baxoa erreusitu diat, eta... semenarioan sartzerat abian nuk, helduden urrian berean!» Ze harritzea eta ze atsegina izan zen nerea! Behar izan du oraino bere osasunarekin

borrokatu gure Toulondarrak bainan denak ederki bururaturik zoinutegi berezi batzuetan, gauzak oneratu zaizko. Apeztua, han da beti Toulongo diosesan, bere mailak oro zintzoki iraganik, bikariogotik, omoniergo eta erretorgorat; izan zen urte batzuez Brignoles arno-lekuko herri gotorrean apez, gero Toulon hiri portudunean itsasoari so. Horien guzien artetik euskara bizi du bere buru onean Guillot apezak, *Herria* kasetaren irakurle harpidedun dut geroztik orai arte, hartan segituz beti hemengo berriak. Noiztenka ikusten dugu elgar, Lurden bereziki, hala-nola, duela bi urte ondarrik, hura beilari eta ni xixta batez haren mintzatzera joanik Andredena Mariaren harpe sainduraino.

Dolumin bera dugu biek, Guillotek ala nik, horien guzien artetik izana, galdu ginuelarik ez aspaldi gure Maule hartako bosgarren lagun on eta zinez goxoa: **Paul Haristoy** bardoztarra. Harek ere gurekin batean egin zuen Mauleko denbora bere putikoen zaintzea eginez ikastetxean eta eskolatto batzu bestalde. Urteak joan, urteak jin, Biarnoan egin ditu Paulek bere apezgoko urteak oro baina on izanen zen, nehor izaitekotz, Euskal parropia batendako ere. Nik bederen, elgar gurutzatu dugun aldietan, euskaraz eman diot maizenik hari solasa eta banakien beretik izanen zela gutiz gehienetan haren ihardespena. Funtsean Paulen anaia gazteago Cyprienekin berdin berdina, familia horrek ez baitzuen seme bat emana xoil xoilik Elizari bainan biga. Eta, hau erran dezadan, horra hor Bardozeko familia euskaldun on baten semeak. Horiek Biarnoari eman diote beren apeztasun zintzoa, eskaintza bat bezala, berak euskaldun garbi egonez. Eta orai zertan ote da holako ainitzen familietako euskaltasuna besteak beste Bardozen ala nun-nahi?



1954ko gazteria, Aita Gachiteguy eta E. Larre-n inguruan.



# Bizikletez

---

**D**ENBORA heietako ibilpide modu xuhurrez badut zerbait erranik, autobus xahar hartaz eta beste. Hoberena zen bizikleta baten gastua egitea, Mauleko, gerla denbora hartan, tresna ez xaharregia haatik, ahalaz. Hori ez ene irabazietarik eresia, bixtan dena (nundik ote? ). Laguntzaile bihoztunak, beren amak izaiten dituzte, ni orduan nintzan bezalako seme sakela-hutsek. Nik, ordea, ama gaixoa 21 urte nituelarik galdua, aita nuen ene mentura bakarra bainan beti ontsa heldu izan naiz hunekin ere: 14 eko gerlan aski kolpatua izana zen, bihotzari hurbil beti berekin ekarri duen tiro zaparta batekin, bazuen aitak pentsionetto bat ordainez, beti zerbait laguntza ekarri diona. Horrek lagundu izan du aitaren bihotz ona guk eskukaldi bat behar ginuenean, hala-nola bizikleta bat. Bizikleta hari esker, bakantzak etortzearekin, ez ninduten Baigorriainoko 50 kilometra hek lotsatzen, bereziki negu minaz kanpo. Izariz goragoko balentriak ere egin-arazterainokoan zenbait aldiz, aitaren arabera. Ez ginena, Ihauteri batzuez, bakantzakari beti, goiz guzia pilotan arizan Mauleko trinketean, eta aratsaldean berean Baigorriko bideari lotu! Holako batez ikasten baitziren nun dauden gorputzaren mugak eta neurriak.

Zerbitzu ederrik eta baliosagorik ere badute haatik tresna on batzuek, neurri hori zaintzekotan, hala-nola Zuberoa zoragarri haren ezagutzan. Ibili ginen, Paul laguna eta ni, alde horietako kapera, eliza eta otoitz-lekuen bisitatzen: hor berean ginaukan, hala-nola, Sohütatik harat, Barkoxe alde, Berrogaine eta Lehüntzan gaindi joanez, Hokiko kapera lehenik. Aintzinago joanez, eskuinerat Arrokiagako herri ttipia, ezker berriz Ospitale Pia, hunek bere eliza erromaniko parerik gabearen ezagutzak egin-arazi baitzauzkun. Oro ikasteko gini-

tuen denbora hartan, begien aseá bederen ez ginuena horietan denetan aurkitzen, zokoz zoko ginabiltzalarik batetik bertze-  
ra, Mitikile, Larrabile, Urrüstoi eta izenak bederen ikasiz eta  
izenarekin beste zerbait, geroagoko argitasun hobe batzuen  
menturan.

Zuberoko apez eta parropien ikasten hasteko ere ez ahal  
zen goizegi guretzat! Nork zakien ez ote ginen egun batez  
horgo herri batean edo bestean apez beharrak! Ez haatik gaz-  
tiguz, lehenago erraiten baitzuten bazirela holakoak. Guretzat  
haatik, Zuberorearen maitatzen hasiak baiginen jada hor gain-  
di, ez zitakeen gaztiguzko lekua izan Zuberoa.

Gure ikusminak ez zuen bazter horietan mugarik. Min-  
tzaira lehenik: hasi ginen u guziak ü bihurtuz. Laster ohartu,  
zuberotar debrü horien irriño ñaukeletik, gaizki gaizki ginabil-  
tzala: batean “ü” balinbada «zü» hitzean bezala, bestean “u”  
dela «zure» hitzean bezala, beraz baginuela hor berean zenbait  
ikasketarena.

Eta baziren horko gizon famatuak eta heien herresto-  
ak: Etxahun-Barkoxeren Gaztelondo edo Matalazen historia.  
Orduko bizietan berriz Mgr. Etcheber Mauleko artxipretra  
bere sotana motzarekin eta Elizabide Maulekoa eta Etxahun  
Iruri. Aintzina segituz Zuberoko apez ezagunetan, biga, bat  
haundia eta bestea ñimiñoa, Mendikotan eta Idauze-Mendin.  
Haatik ez baitzen haundia baino gutiago mintzo ttipia. De-  
plauki erranen zautzun hunek aintzintzera, bere burua tente-  
xutik zaukala: kokotsaz gorago hartzen zaiola neurria gizonari!  
Eta hor zerbait bazen hura, elasturiaz bederen. Eta ez ba-  
karrik elasturaz: euskalzale ona zen Harizmendi apez hori be-  
re xumean, bazuen besteak beste euskal gramatika bat asma-  
tua eta egina, nahi zuenak ikasi.

Eta ez duta erran behar gizon erneak zirela Zuberoko  
erretorak eta buruz ontsa eginak beren eguneroko gauzetan.  
Ikusirik badirela horgo herrietan leku dorpeak eta hotzak ne-  
guko, orai bezalako berogailu eta tresneria berezirik ez zen  
denbora hartan, huna zer zuten asmatu goizeko anjelusaren  
jotzeko: hari luze bat apezetxetik eta elizako ezkilara zoana  
gainez gain. Alanbre hari esker, apezetxetik jotzen zuten an-

gelusa eta hari-alanbre hori ikus zitakeen, ene oroitean, hiru herri hauetan bederen: Ainharbe, Pagola, Lohitzune eta uste dut izan dela besterik ere, ahantziek barka bezaidate.

Horra zeren eta noren ikusten ere ibiltzen ginen gu, Paul eta ni, bi apezgaiak eta ez ditugu, segur, ahantzi Maidalenako kapera, Muskildikoa, biek ere biltzen baitute hainbeste ikusle ta otoizlari, eta ez oro zuberotarrak. Guk gure urte laburrean beila gustu bat hartu gineien horier guzier eta, funtsean, Zubero guziari, hoinbertze eta gehiago balio baitu guretzat Zuberoak.



Altzürükü herria ere ezagutu ginuen, Xubero euskaldunenatarik bat, Eppherre familiakoak eta beste. Hau Gregoire Eppherre apeza, adinik hoberenean zendua.



Piarres Lafitten azken ateraldian, Iruñean,  
Gramatika Jardunaldietan

# 1945. Semenariio haundirat

---

**J**OAN zen beraz gure Zuberoko urte hura eta ezagutu nuen, azkenean, Baionako semenariio haundia. Hor nuen aurkitu, famaz bakarrik ezagutzen nuen **Aita Grat Candau** jaun superior biarnesa, bainan beste bi urte gabe galduko ginuena, denbora laburrez eritasunak eremanik. 67 urte zituela. Han ziren ere, Candau ren inguruko erakasle lagun, aita Sorre, Paraliou, Berrogain-Dupré donapaleutarra, Lesbordes biarnesa, musika erakasle haundi eta apez goxoa, horiek biak arras maitatuak, gazteak gainera, eta Amespil hazpandarra, Barnetche behauztar apez prestua, P. Etchemendy erdalduna... Erran behar dut horietarik Paraliou eta Barnetche jaunak ditugula beti eta pixkor, agian luzazko.

Zerbait zen gure semenariio haundia bere laukarako bastiza hiru-lau estaikoarekin eta komentu-kapera moduko eliza gotor bitrailadun nasaia, hogeigarren mendeko otoitz-etxe argiztatuaren estiloan egina. Parke haundi zabala erdian, bazuen kirola-tokirik aski eguneroko, harrizko pilota-plaza erditsuan eta inguruan aldiz bi baratze gotor eta seroren etxea, bai-eta haratago semenarioko etxatiarraren konduko lur batzu.

Begiena batetik, bazaukan beharriena ere, erdiko teilatuaren goreneko ordulariaren ezquila: semenarioko ofizio ta gora-beheren orenak jotzen zituen. Semenariotik ospitaleraino, auzotegi hartan guzian entzuten ziren etxe hortako orenak eta zeinuak.

Istudioak aipatuz larri-larria lehenik, bost urterena bazen apezgaientzat han iragaiteko: biga filosofia eta moralarentzat, sakramenduen ikasketekin. Gero etorriko zen moztura bat, urtetsu batekoa, soldadogoa hor ezartzen baitzuten gutiz-gehienek, parte beren hautura, gobernuak eskaintzen zuen

luzamen edo gibelapen errextasunarekin (erdaraz «sursis» deitua). Azkenik eginen ziren teologiako hiru urteak eta apeztasunerako prestakuntza hurbilak.

Istudio zimenduzkoenen osagailu bazituen semenarioko formakuntzak: Liburu Sainduen ezagutza, Elizaren Zuzenbidea, Kantua eta Musika, Liturgia... Behar zen publikoari mintzatzeko eta predikatzen trebatu. Predikuko trebantzia zerbaitendako, izaiten ginituen noiztenka frogakuntzak beste apezgai laguneren aintzinean. Besteeri denborarik ez galarazteko, ez eta gure erakasle-epaileeri, hots, harri batez bi xori, bazkalartean egiten ginuen, laguneren jateko artetik, gure predikua fama-tua. Gero beharko zen aita superioraren bulegoan pasatu, eta han ukanen ginuen epaile ospetsu horien notatxoa, buruzagiaren aholku zenbaitekin. Gertatuko zen, aldi batzuek, ipurdia lastoz ibiliko zela bat lehen aldi heietan, mututua geldituz, gehiago hitz bat ezin ateraz. Hitzen segida galtze hori heldu zelarik, jo behar zuen bere izkribu paperetarat gure predikari errebelatuak: paperari beha eta aintzina segi, ahal bazuen. Behin, huntan gelditu zen, tanpez, gure lagun iholdiar baten iturria, Jesusek farisaua ixilarazi zuen hartan: «Eta tuntik ez atera gizon harek!» Hori erran-eta, jo futxo papererat, han berriz irakur... «tuntik ez atera gizonak»... eta berriz ere galdua, berriz bera mututurik, egundainokotan. Hiru aldiz hola egin zuen bainan zinez moztua zuen haria eta elasturia. Holakoe-tan, hirugarren aldian, bere marteilu zurezkoa hartzen zuen aita superiorak eta jo ozenki mahiari: horrek erran nahi zuen jausten ahal zela alkitik predikari mutua, beste aldi batez hobeki ikasirik berriz hasteko !.. Gaizo iholdiarrak, apez saindu hila da oraino gazterik, lanak izaneren baititugu guk hura bezain saindu izaiteko, predikuak hobeki troxaturik ere!

Baziren haatik durduzaten ez zirenak. Denbora hartan, ebanjelioko hitz sarkor batekin hasten ziren predikuak, latinezkoa bazen hobe. Ez zuena batek hau botatu, lehen hitz, sekulako sanfretean eta ausartzia irrutsuan: «Nigra sum sed formosa, filiae Jerusalem: ene larru beltzean zinez ni ederrena, Jerusalemeko alaben artean». Edo, beste batek, oldar izigarrian guri mehatxu egingez erhiaz botatu zaukunean: «Zoazte,

zuek, madarikatuak, betiereko surat», denak Liburu Saindue-tako hitzak alabainan. Ez ahal baitzen talendu ttipia behar, hortik entzulearen harrotzen artzeko! Ez zuten zenbaitek ta-lendu eskasik, eta jaun superiorak ez du sekulan jakin, desa-fio eta pario bat zutela bi apezgaiak egina, holako hitzekin hasteaz, baietz eta ezetz!

**Zerbitzu batzu** baziren semenarioan, ofizio eta apren-dizgo, ikasketez kanpokoak. Hala-nola, baginen, euskaldunak maizenean, bilo-mozleak, eta orozbat liburu-larruztatzaileak, hauk biarnesak gehienak.

**Bilo-mozleetan** sartuak ginenek eguerdiko bazkalondo-ko ahusaldia izaiten ginuen lan hortako, pilotan artzea utzirik egun hartakotz. Ez erran lan ttipia zela hori. Izan gira denbo-ra hartan 140-150 apezgaitaraino semenarioan, bestalde sol-dadogoan edo ikastetxe batzuetan erakasle-lagun izan zitaz-keen berrogei-ta-zenbait, urtea nolakoa zen. Bai, bai! Be-rrehuneko hortaraino heldu izan gira apezgaiak, ez-baian, berdin gehixago, oro-konda gerla ondoko lehen urte hetan.

Hortakotzat, oren bat zuten epea, eguerdiko oren batetik bi orenetarainoko lan-arte hartan. Bakotxarentzat oren laur-dentsu bat emaiten ginuen, heldu baitzen orenean lau, izari ona trebatu batentzat. Lan emendiotto bat ere baginuen haatik or-duko eliz'gizonen hastapeneko lerroan abiatuak ginenek; orai ahantzia ere da naski. Apezek buru gainean ekartzen ginuen koro hura, ostia, ostia ttipi baten haineko biribil xuria, biloetan haixturrez eta bizar-nabalaz ximenki arrasatuz egina. Apeztu baino lehen egiten zen hori lehen aldikotz, apez ordena baino lehenagoko zazpi aintzin-ordenetarik bat baitzen, ordena tti-piak deitzen ginituen. Beraz gu ere korodun eginak ginen se-menarioko denboraren erditsutan edo hola, Elizako gizon sa-garatu bezala. Seinale hortarik pasatuak izana gatik gu, ez da gehiago apez-ordenarako urrats hori aipatzen ere, gehiago.

Gure biarnes lagunak ez ditut ahantziak. Hauen eskuko zen, bana-beste, **liburu-larruztatzeko** gela eta ofizioa seme-narioan. Bazuten horgo langile lagunek beren tresneria bere-zia eta paper azkar, larruki, larru-faltsu eta denetan behar ze-na, kolatzeko bike, haixtur, zapagailu tornua eta denak. Lan

horietaz guhaur behartzen ahal ginen, hala-nola ebanjelioko liburutto bat, edo euskarazko zerbait balios, maite ginuena, nahi ginuelarik gastu gutiz, bainan gostuz, larruztarazi azalez: gastu gutiz, zeren arras merkerik ari baitziren gure lagun biarnesak apendiz-lan hortan, hala-nola guhaur, euskaldunak, bilo-moztekoan urririk ari ginen bezala.

Halaber, ikusi dira semenarioan, **liburutto egileak**, gure artekoak. Dohain eta gustu zerbait zutenek idazteko, ateratzen zuten, urtean bizpahirutan, **Militia Christi** (Kristoren Bermantza) izeneko aldizkarittoa bat, gu apezgaien arteko lokarritzat, eta denbora berean soldado ginituen laguneri helarazteko. Arras interesgarria zen hori, bere semenarioko berriekin, eta ixtorio-mixterio pollit batzuez loreztatua, argazki xoragarriz, nundik ez? Idazteko edo marrazkitzeko dohainaren jabe ziren batzu hori dira trebatu. Orain, denboraren buruan, beren talenduaz xoratzen baigituzte, HERRIAN, ENBATAN eta beste. Hots, zenbat gauza, eta zenbat motako, ez dugu guk ikasi semenarioan gure klase-ikasketez kanpo! Irriño batekin ikasle eta erakasleen gustua eta sosegua eginez denbora berean. Hala-nola gure superior xaharra itxuratzen zaukutelarik marrazkilariek arrailleria goxo batekin, gure xahar onaren sudur motza eta begi erdi-lausotuak betaurreko pean tapatuz. Ez da beraz harritzeko hain gustukoa baiginuen Militia hori; segura zen, hura agertzearekin, beren lo goxoan utz ginetzazkeela teologiak eta besteak, orenerdi baten doia, Militia irakurtzeko.

**Erizain**, edo infirmier zerbitzua baginuen semenarioan. Nahiz osasunaren adina zen gure 18-25 urteen hura, badakigu denek, ez-ontsa batzu ez direla nehoren beldur eta ez dutela hauek beti errespetatzen gaztea ere. Gisa guziz, baginuen gure semenarioko medikua. Behartzen ginenean, Baionatik hor ginuen jestu gutiz eta, uste dudanez, beti Jainkoaren grazian Gaudeul medikua, lehenago, Uztaritzen Souberbielle jauna bezala. Ni izan nitzaio, ene urtean, diakre nintzanean eta gehixago ere, erizain-lagun gisa. Banuen, hortako, gaitasun eta eri-artatzaile gustu zerbait lehenik amaren eritasunetan eta geroxago soldadogoan bildua. Oroitzen naiz nola hasi



zen armadako hori. Soldadogotik itzuli orduko, gertatu nintzan suertez egun batez, urte hartako diakre-erizainarekin, hain zuzen bazuelarik hunek pikura-xixtatze bat egiteko beste apezgai bati, medikuaren manupean. Denbora hartan ez zen diplomarik behar bi pikura motaren egiteko, hauk baitziren larru-axalpekoa (sous-cutané) eta ginarribarnekoa (intramusculaire). Horien bientzat aski zen behin ikasia izaitea, hala-nola beste erizain batekin edo medikuak erakutsiz. Besteak zituen, odol-zainekoak (intraveineuse), diplomadun batek bakarrik egiten ahal, mediku edo erizain.

Beraz, ni han gertatu nintzan egun batez, lagun zaharrago biarnes diakre harekin (Jean Segot), harek ez zakiela eta nahiko nuenetz lagundu. Bixtan da egin niola eriazen pikura hura. Handik harat naiz beraz, ene diakre urtea igurikatu gabe, erizain izaiten hasi semenarioan.

Eta zertako ez aitor halere egia bere osoan, hemen: beharrak ninduela hortaratua nihaur lehenxago. Hogei urte nituelarik pasatuxeak, ama eri haundi ukan nuen etxean. Orduan nintzan, Aguirre medikuak berak eskolaturik amari pikura egiteari ohartu. Ez baitziren ordea gure makurrak hortan gelditu! Etxeko egunak eta soldado joaitekoak luzatu behar ukan nituen ama gaizkiturik bainan gehiago ezin luza etxeko baimena. Joan behartu zitzaidan, ama gaizkienean zelarik, soldadogorat Tolosarat (Frantziakorat), ene lehen kusi Matildak eginen zizkiola pikurak amari. Berriz itzuli nintzan etxerat, hiru asteren buruan, amaren hil berria ukan-eta: 1947 ko agorrila zen. Baigorriko hilarrietan bai, gira gu zinez baigorriar senditu, aita eta hiru anaiek, gure Bastidatik, ama hantxetan utzi ginuenean.

Ondoko lehen egunetan, berriz soldadogorat. Han gertatu zitzaidan semenarioko kasu haren eiteko zerbait zuena. Apezgai soldado bat eni etorri otoizka: «Hi apezgaia, ni apezgaia, badiat zerbitzu bat hiri eskatzeko. Hemengo mediku-xefak, jakinik apezgaia nintzala, galdatu dautak nahi nuenetz hemengo eritegiko erizain ikasi eta bilakatu. Nik ez diat gosturik ez kuraiarik hortako. Egin hezakea hik?» Nik berehala baietz, eta hortan gelditu zen tratua. Horra zer egiten gaituen

beharrak. Beharra nagusi haundia zinez ere. Kantuak ziona: «Beharrari oihu egiok». Ez omen zen jin beharra laguntzera: «Nihaurk altxatu behar izan dut zama». Eta aitak orduan: «Hori duk, hori, beharra!»



Semenariotik landa, bikari gazte ginen  
eta laborari munduari hurbilak.

# Oxobi ere

---

**L** ANEKO astearen hausteko, baginituen bi ateraldi Semenario Haundian, Uztaritzen bezala: astelehen eta ortzegun aratsaldeetan. Gure aintzineko urteetakoak, nik entzun dudana, oro saldo berean joaiten ziren bidez bide beren hiruzpalau oreneko kurridaren egiterat. Nik aldi xoil batez ezagutu dut holakoa tropa haundian: 1946 ko urriaren lehentsu hartan zen, denek batean egin baiginuen, lerro-lerro, gure itzulia. Bigarren asteko berekotz zitzaizkun gauzak aldatu. Aita superiorak esplikatu zaukun multxo ttipiangoetan behar ginuela banatu, zazpi apezgaieko multxoka eta hola ikasiko ginuela gure gain hartzen ateraldia eta gure burua. Ordu ginen, hogeit bat urte eta gehiagotan ez baiginen haurrak semenarioko ikasleak.

Arras gure gain ginela ezin erran zinez oraino. Gu zazpi lagunetako zaharrenaren ardurapean ginen ateraldian. Hau, ordukotz, diakrea izanen zen semenarioko urteen bururat hurbildua. Hura gidari, beste seiak urteka mailkatuak ginen gaitetik behera, klasa bakotxetik bat edo biga, azken urteraino. Beraz, gu zazpien arduradun zenak egiten zuen ekipako izenen zerrenda, zolan ezarriz norat gindoazen eta buruzagiekin engaiatuz bost orenetako hor izanen ginela xuxen. Hola joaiten ginen, batzu Hiribururat, besteak Angeluko parte zenbaitetarar, berdin itsaso hegiraino, Miarritzerat halaber, edo Arrangoitze, edo Basusarrirat. Ez ginen bideak lotsaraztekoak, adin hartan. Norat ere baiginuen hel-burua, hango baiginuen maizenean zerbait xede edo bederen tirria: Mugerren, **Urricariet** aldudar apez argi jakintsunaren ikustea eta mintzatzea izanen zuten zenbaitek gure lehen urte heietan. Arrangoitzen, **Moulier-Oxobi** famatuarekin mintzatu nahi beste

batzuek, zenbait urte lehenago Leon-Leon batekin bezala. Eta hor ginuen Bassaisteguy **Blancpignoneko** erretor buztintzarra. Guk bai, zinez prezatu dugula garaztar apez ixil eta langile suhar hori! Parropia berria emana zioten has eta has moldatzeko, erran nahi baitut oraino larre zela lurra. Hasia zen gazteria pollit batetarik: dantzari talde bat sorturik Jeannot Nesprias gaztearekin, dirua ere bilduko zutela orobat, parropia horri bihotz bat emanez lehenik. Eliza-bastiza noizbait egitekotan. Eta huna norat noan: eliza harentzat ari izanak dira lanean, lehenik lurra berdindu eta gero haren gainean erakitzekotan. Lur hori area edo salbea zen, laxo laxoa, eta mendixka konkorduna pinope batean; ez zuen aitzurtze beharrik, palaz mugitzea eta kargatzea baizik. Eliza lekuaren husten eta berdintzen arizan ginen gu, apezgaiak, astelehen eta ortzegunetako ateraldi horiek baliatuz, jo lurra eta pusa bagoneta, eta itzul beste tornuaren bila. Ai zer izerdiak atera ditugun hor apezgaiak, **A. Etchegorry, A. Aguer, Chabalgoity, J. Irigoyen, L. Erramouspe** eta hemen izendatuko ez ditudan guziek. Saria baginuen han berean, **Bassaisteguy** onak eta haren gelariak eman aratsalaskaria, botoila bat edo bi arnorekin, oi zenbat estimatua! Ez luzatzeko, Antton Etchegorry ren izena dut bakarrik errepikatuko, hemen finkatuz altzumartar apez azkarrak ez zakiela ez orduan Blancpignonen berak beharko zituela egun batez han hasi obrak bururatu, bera hango erretor: Eliza, trinketa, plaza eta guziekin. Horiek gero jinen ziren. Arte hortan baziren urte batzu aski xuhurrak pasatzeko, gure prestakuntzaren urteak, bide hertsitto batzuetan gaindi.

Holako egunak aipatuz ez nuke nahi nehork hala-ez denik uste izan dezan. Gurikeria guti zen orduan: ez ginen bakarrik apezgaiak Blancpignoneko eliza-lekuaren zimendu prestatze horietan ari girenak, eskuetako pintz edo baba batzu goiti-beheiti. Eta ez ginen bakarrik gu, oinez eta oinez, urratsa luzaka ginabiltzan gazteak; baziren ere semenarioko erregelamendu bipilak bestalde: tabakoa eta erretzea ez haizu, ostaturik eta zinemarik ez, eta holako; eta horiek oro 18-22 urteetan. Behar da ikusi haatik nun eta nola zabiltzan ordu beretan gure adineko lagunak edo haurrideak: gerla ondoko urteak, baziren segurki gutizia bero edo ergelez hanpatuak bai-

tzituzten gogo-bihotzak, bainan ahalak nun ziren? Eskolan guti ikasirik, geroko bideak hertsu eta xuhur, atrebituen batzuek Ameriken irriskua hartuz batere ofizio ez mintzairarik gabe, edo zenbaitek etxean berean laguntzaile gelditzeko mentura xoila izanki, jiten zena jin... jinen balinbazen egun batez xantza bat, maiteño batekin ezkontzari buruz. Gure geroa ez bazen hain ageria, heiena ere ez! Nork ez daki biziaren berri! Hots, denbora hartan latzak ziren eta patartsuak bizirako bideak.

Geroko bikari hatsa ginuen guk aldiz hor biltzen jadanik, denaden, gure herriz-herritako ateraldietan. Hala-nola, zenbat ez ginuen guk estimatzen Arrangoitzeko Jules Moulier-Oxobi bati egiten ginion bisita. Ni nintzan Oxobi izen hori nundik zuen zinez nakiena. Guarda semea zen bera: aita zuen Baigorri-Urdozen guarda egona bera gazte zelarik eta Bastida Otsobiko familiarekin adiskidetu. Jules seme gaztea ere oporraldietan Otsobian egoiten bide zen gure auzoan eta horra nundik hartua zuen bere izenordea, Oxobi. Artetik erraiteko, Bastida Otsobian sortua da eta bizi da Otsobiko nausia, Erramun Martikorena, denek ezagutzen dugun kantari errexiñola, beraz; Oxobi zenaren adiskide zirenen umea.

Arrangoitzeko Oxobi apez bertsulari-olerkarirat itzuliz berriz, hango apezetxeraino jotzen ginuelarik, edo plaza inguru heietan balinbazen bera, sar-araziko ginituen eta botoila bat jestu gutiz idekiko. Gero, guk egin galdeeri bere murrutun aire harekin ihardetsiko zuen, ez erakasle sabantaren gisan bainan sanoak ziren beti haren ahopaldi bortitz eta koskak ere, sendi baiginuen barnean bihotz bat bere herriarentzat sutan zagoena. Itxura dorpe hartan, atsegin zuen berak ere gurekin.

Maite ginituen gure herrietako apezak beren desbardinean. Hor ginauden heiekin, begia xuritu... Eman dezagun **Leon Leon Uztaritzeko erretoa**, nihaurk gerla denboran Baigorri soldado arropan militar ezagutua nuen apez luze ederra, eta nolako hizlari eta idazlea euskaraz! Eta zer erran semenarioko erakasleez: A. Berrogain, A. Lesbordes, E.Laxague hala nola! Denak hain bereziak zirenak eta denak elga-

rrren lankideak, eta biharko gure bide-urratzaileak ginauzkanak. Semenarioko eskolak, ikasketak, otoitzak eta hezkuntza hura behar-beharrak ginituela, dudarik ez. Bainan ez ahal zuten gutiago balio semenarioko amets guzietan! Egun batez biharko apez izanen ginela gu ere!

**Gure Katedralea** hor ginuen Baionan, ederrena, hura diosesa guziko Eliza-Nagusia. Lehenik ikasi ginuen haren lillura: zein eder eta zein gora hango arku gotikoak eta nola sinets heien denen orraze ongi josiak zaukala bizkarrean, iduriz senditu ere gabe, bastiza miresgarri hori guzia. Eta ikasi ginuen eliza ospetsu haren maitatzen. Hor ginuen, apezpikua-  
ren eliza berezi hortan, igande guzitako meza nausia bere haur kantarien taldeak ekarri xarmapean. Multxo hau, 11-13 urteko apezgai ttipiez egina, bederen oraino haur boza zuten, xoramendu huts egiten zen Jaunaren laudorioak xaramelatzen zituztelarik. Enetzat ordukotz berantegi zen bainan beti deitoratu izan dut ez nautela ni horgo formakuntzarat gidatu 11 urte nituenean, ordukotz naukan kantuko gostuarekin. Horren faltan, beti gibeletikako lan bat dut egina kantuz eta notetan ikasten, han moldatueri urrundik jarraikitzerat eginez beti; ahal ginuen bezala lagun batekin guhau bermatu baigira zenbait urtez eskuz esku notetan. Ba, oroit hiza, Sauveur Olhasque, Bastida Santxetako ene laguna, nola arizan ginen hi eta ni, bi biak noten ikasten urte bat osoa?

Itzul gaiten gure semenariorat: 150 apezgai izanki han, bana-beste, hiru multzotan ezarri gintuzten urte guziarendako, andana bakotxean 50. Horietarik 50 joanen ziren lehen igandean Katedraleko meza-nausi bezperetako, beste bi 50 ekoak semenarioko mezarentzat geldituz eta hiru taldeak holaxe itzulikan aldizka. Hiru talde horien egiteko, behatu ziren gure buruzagiak gorputzaren luzetasunari, gisa batez armandan bezala: lehen multxoan haundienak, bigarreanean artekoak eta hirugarrenean xeheagoak. Hola, ofizioetako ez zen izanen haundia ttipiarekin despere ezarria bainan oro izaritakoak bana-beste. Ni haundietan gertatu nintzan, nahiz baziren ni baino haundiagoko zanga-luze batzu. Igandean beraz, katedraleko meza nausian, gu apezgaiak batetik, haur kantariak

beren alkietarik kantuen hasle eta koplen emaile, kalonjeak beren korogainean, eta mezako jendea eliza zolan, bazuen gure katedraleak meza on baten mentura igandea heldu zelarik. Bestaburuetan aldiz semenario guzia zen katedralerat bilduko eta zenbaitetan hiriko korala osoa gurekin bat eginik. Bezperak ere baziren orduan katedrallean, guretako egunean bigarren ateraldia heldu baitzen, bazkaldu-eta. Berriz gure semenariorakoan, Aviron baionesaren kirola-zelaiaren ondoan baginakien zein aldetarat luza lepoa, errugbiko oihuak eta txaloak entzuten ginituelarik hango Dager, Gachassin, Etcheto, Mendiboure, Elissalde eta holakoen denboran. Edo gertatzen zitzaikun guhauk ere urratsa luzatzea semenariorat buruz, hala-nola semenarioan berean finala bat baginuelarik gure arrabotean, ez baitzuen semenarioko partidak gutiago balio guretzat, hor ginituen pilotari onekin.



Pilotarien Biltzarrak sariztatu ninduenean, Baigorri.



# Pilota eta kirolak

---

**G**URE pilota bai, leku haundia izana baitu hunek gure semenarioan. Errana dut pilota plaza bat baginuela korralearen erdian. Neurritz ez haundiegia bainan izari onekoa esku-hutsezko jokoarentzat, bereziki gure lehen urtetsuan egin zioten arrabote goratze harekin. Hau egin zen harri pikatuzko lerro oso bat ezarriz gainean, metra batez hurbil goratu baitzuten lehengoa. Bi aldeetan jokatzeko balio zuen gure arraboteak bere aintzin-gibelekin. Aintzin-pareta zen apezgai euskaldunen alderdia; erran nahi dut, nehoi afrunturik egin gabe, pilotari hoberenena, eta hauetan zen A. Salette biarnesa bainan euskaldun hoberenen mailekoa pilotan. Gibeleko parte biarnesena zen, hauk palantxaz ere ari ziren bainan ez beti, palantxa guti baitzen orduan. Tenizeko pilota maletak zizutzen maite biarnesek. Ez dugu ikusi guk alfer egoiten, erraiteko maneran, plazaren bi aldeetarik ez bat ez bestea, aro txarez baizik. Erran ditake lehenbiziko kirola ginuela, erabiliena, pilota, denek, edo halatsu, jokutzen ginuena denbora hartan, bereziki kanporaketan ariz, hola deneri idekia baitzagon jokia denbora labur ginuelarik kanpoko, gure eskola orduen artetik.

Bazkal ondoan, batere aro balinbazen, hartuko ginuen, euskaldunek, gure alderdiko errabotea, ahalaz pilota gogorra-rekin, eta partidana. Edo, partida bereziak bazirelarik, aintzinetik beiratuak, xapelgoak egiten baitziren. Egun batez nihauri gertatu zitzaidana behar dut kondatu, irakurlea, zuk barka! Ekaineko bero haundi zenbaitetakoa zitakeen, ez, gisa guziz, nornahi irriskatuko zen heietakoa. Beti baiginen errabiatu batzu, amor emanen ez ginuenak, arizan ginen lau lagun «jozak eta emak», lehenik partida eta gero kittara beretik, bi

orenetako gelditzearen soinuak ekendu ginituen arte. Orduan, bat-bateko ixiltasuna beti egoki zen, zeinuak jotzearekin, eta denak gure gela-bulegoetarat. Baginuen oren bat istudio ixil, gure klasetako gaien errepikatzeko, edo liburu zenbaitetan ikasteko osatzeko. Epe baten buruan berriz zeinua eta, uste dudana (hainbeste denbora joan baita geroztik) izaiten ginuen segidan kantuko notetan ikasteko orenerdia, eta, hunen ondotik, bi oren klase, teologia, sakramenduez, edo Liburu Sainduak, nolakoa zen eguna. Hemen dut salatu behar ene «bekatua». Pilotatik landa, gure geletan ginuen oren libro hartan, nahiz istudioko orena, behar nuen lehenik aldatu, atorraraino, izerdi lapetan nintzan alabainan. Orduan ez nintzana ohearen gainean, nekadura harekin, doi bat zabaldu, ez luzazko ene gogoz bainan, minotaño baten doia. Damurik nintzan ordea ni... lokartu, zura bezala! Eta... bostak hamar guti ziren atzarri nintzalarik! Eskola 5 etan bururatzen ene lagunek, zer eginen nuen? Ez nuen hautarik. Jauzian jeikirik, jo nuen Candau aita superioraren bulegorat, burua apalik, egundaino izan badut. Harek, bere betaurreko haundiak higitu zituen, hobeki ikusteko nor nintzan, bere lausoan, eta galde hau egin: «Zer gertatzen zaik?» Nik: «Gertatzen... Barka jauna, lokartu naizela!» Dena kondatu bainion, gatua bezain apal nindagola, irri goxo batean erran zautan aita on harek: «Loak botatu hau, eta hik lo egin? Hori guzia duk, beharra bahuela. Bego beraz hortan, eta emak heure eginbideetan zintzoki». Sekulan ez dut egun hartan bezenbat maitatu gure aita superior biarnes xaharra.

**Beste kirolarik** bazen Baionako semenario haundian. Aski leku ona zen hango korralea Basket-Ball jokoarentzat, neurritz eta denez. Eta baginituen hortan arras trebe ziren lagunak, hala-nola P. Lazcanoteguy, L. Erramouspe, J. Camino, A. Coudroy, E. Labourdette, Testemale, batzu euskaldun, besteak biarnes edo bien arteko. Barne-jokoetan, ping-pong edo mahi-jokoak ere bazuen arrakesta. Hartan banaukan nik ene alderdia, J. Lardapide, F. Dassance eta J.P. Peyroutet (hau bereziki) batzuekin. Urte guziz jokatzin ginuen hortan xapelgo bat eta erran behar dut nihaur atera naizela beti xapeldun: deusetako ez denik ez baita.

Futbolaren jokatzeko, bixtan da ez ginakala aski eremu semenarioan berean. Behar ginuen kanporat atera hortako. Hortan ere, behartzen zitzaigun gazte baiginen. Eta huna zertako behar zen gazte izan: kilometra batzu egin behar baitziren, eta beti oinez, futboleantzeko. Izanen ziren, egia-erran, kirola-zelaiak aski hurbil, hala-nola Aviron Baionesaren pen-tze eder hori, bainan ez baitzen, damurik, hori guretako! Beste bat bazen Hiribururako bixkarrean, Sant Andreseko patro-naiarena; edo, urrunago oraino, Bokaleko bat, guti baliatu du-guna. Eta horra guk gehienik baliatu duguna, baimen zerbai-tetan truk: Angelu Olinpiko kirola taldearena, hau ez urrunegia denaden eta bi kilometra oinez eginez geroz hortxetan gi-nuena. Beti gure artean artzen ginen hor, gure ateraldi egune-tan, ez ordean sekulan hangoeri kontra edo heiekin nahaste; ez baiginituen, ez egun, ez oren berak, nahirik ere. Eta beti 5 orenetako itzuli behar gure ateraldi egunetan.

**Bainan pilotara** behar dugu berriz itzuli hemen, seme-narioko kirola nagusiak hein hori hartze baitu. Baginuen gu-re Pilotako Batasuna sortua semenarioan (ez ofiziala bainan gure artekoa edo semenarioko berekoa). Batasun horri guhauk hautatzen giniozkan gure buruzagi arduradunak, hau-teskundeak edo bozak eginez gure gisan han berean. Bi ardu-radun ginituen zuzenean hautatzen lehen bozaldian ez bazen bigarreanean: bat batasunaren buruzagitzat, bestea segetario. Diruzainaren hautatzeko lanik ez ginuen, ez baitzen dirurik kudeatzeko: aipatu bi arduradun horiek berek zuten beren gain hartzen pilotez axolatzea. Pilotena zen gastu guzia nun ez zituen hauk ere bakotxak berak ekartzen: espartinak bako-txak berak bere gain, bixtan dena, eta ez ginuen galtza xuri eta jauntzietako gasturik, sotana xahar batek egiten baitzuen afera, eta hura ahalaz laburra, beste hoberen hura igandeeta-ko beiratuz. Damurik ama batzu ez baitziren hurbilago, hitz bat bederen erraiteko, bazterretik! Nik segurik gogoan dut, nahiz ez duen hunek pilotarekin ikustekorik, amaren erasiak irabazi nituela bakantza batzuez. Jean Baptiste Etcharren ene eskolako lagunaren ama zen hil, gu etxean ginelarik oportre-tan, Azkarate Irigoineko etxekanderea. Eta ni ez nintzana Be-larretik Azkaraterat joan ehortz-egunean, sotana xahartto ba-

tekin! Egun hartan ikasi nuen, amak erranik, sotana hoberena hartzten dela holakoetan eta xaharrena pilotako. Holako zenbat kasutan ez da frogatzen, haunditu-ta ere, amaren beharra!

Pilotako bi arduradun andana ditut hemen izendatuko bakarrik, gure denbora hartakoak: gure aintzineko urteetan, bi garaztar Marcel Larralde lekunbertarra eta Pettan Maitia aintzildarra izan ginituen buruzagi eta segetario, biak hiruzpalau urte zituztenak gehiago guk baino. Biak zenduak dira, damurik, lehena Heletako erretor eta bestea Garazi-Jatsuko. Horien ondotik, guk ere kanpaña bat eginik, gure korraleko arboletan itzaten ginituen esku-afixa batzuekin, Leon Erramouspe eta ni pasatu ginen, hori, oraiko Bankako erretora, izan zen batasuneko lehendakari, ni aldiz segetario. Gerla ondoko lehen urteak ziren, gure batasuneko moltsa tturrindua, pilotak ez merke, eta onak nekez aurkitzen: oroitu ginen Euskal Herriko Pilotaren Federazioneaz (Française deitua ere zutenaz). Hau Ybarnegaray jaunak sortua zuen eta bera minixtro izanik Uharteko deputatu zelarik, eskuinekoa, eta bera zen beti Pilotako Erakunde horren buru.


Gogorat eman zautan hain zuzen Leon Erramouspe ene «presidentak» behar giniola minixtro ohiari idatzi, semenarioko apezgaien izenean, eskatuz, huts edo kausi, heian ez ginuen pilota zenbait ukaiten ahal semenarioko gazteriarantz. Aho hetsitik ez baita ulirik sartzen, ez ginuen hortan hutsegin guk ere: sei pilota berri eta gutun batekoa izan zen deputatupilotazalearen ihardespena: goersten gintuen uhartiarrak gure pilotako suarentzat, bere oroitzapen eta balentria batzu ere berrikatuz, noiz-eta, gazteago zelarik, joko-garbian ari izana baitzen euskal plazetan, eta, uste dut, xapeldun ere gainerat.

Bi xapelgo antolatzen ginituen, bat lehen mailekoa eta bestea bigarrenkoa. Partida batzuek bederen gure lagun saldo ederra, eta gure erakasle batzu ere, izaiten zuten ikusle bazkalondoko ahusaldietan. Artetik erraiteko, jan-eta segidan jokatzeko hortaz mila baldintza badituzte orai, eta beste hainbeste aholku kirola arduradunek: ez dela jan-berrian jokatu behar eta jatekoekin ere, dietetika eta nik dakita! Gure semenarioko bazkariak asmatua zukeen, orok baino lehen, dieteti-

karik hoberena, barne-betedura eta tripako minik gabeko hura: biba semenarioko mahia! Eta hango edari arin gardatxa!

Finala hau bederen nola ahantz nik, semenariokoa: Maitia-Larralde (horiek berak) eta Larre-Etchegorry (To!) gertatu ginen finaleko eta guk, gazteek, galdu (40-37). Antton Etchegorry eta Leon Erramouspe orori nausi ziren ordukotz eta ez elgarrekin haizu bainan ona txarrarekin egiten ginituen pareak eta uzten zaituztet zuek juje, hea nor zen gutan bietan ona eta nor txarra!

Erran behar da partida eta pilotari ederrik ezagutu duela Baionako semenarioak orduko egunetan: Erramouspe, Etchegorry, G. Diharce, G. Iramounho, P. Labadie, B. Metche, T. Bonnet, J. Camino, B. Etchegaray, J.P. Iratchet, J. Lardapide, B. Solaberrieta, J. Errotaberea, J. Salha, A. Salette, P. Lazcanoteguy, E. Baptiste, gure denborakoak baizik ez aipatuz, eta ere orduan Beloken ziren P. Aphaule eta A. Irola batzuekin.



Beloken, liturgiako euskaratzailetarik batzu: aita Xabier, Marzel, Andiazabal eta Emile Larre. Beste guziak (J. H. U., M. Idiart, B. Olhagarai...) hor ez ageri, damurik.

# Soldadogoa

---

**B**AIONAKO semenario haundiaren artetik izan zen soldadogoa. Moztura bat bezala baginuen semenarioan, istudioetan kenka hortan. Semenarioko lehen bi urteak filosofia-kiak deitzen ginituen, eta azken hiruak teologiakoak; berrekuntza hori izenak bezain garbia ez bazen ere arras, hola ginituen deitzen, laburpenez.

Bien arteko moztura hori errespetatzea gatik, egin zaitezkeen soldadogoaren gibelatze bat, «sursis» deitu antolakuntza bat ardietsiz armadatik. Hola nintzan, ni klasa 46 ekoa, 47 kokekin gertatu ene militar urtearentzat. Erakusterat emana dut jadanik ez zela hain militarra izan ene soldadogoa, kondatua baitut nola nintzan han erizainen lanean sartu, gure etxea dani-ama zenaren erizaingoarekin hasi-ta armadako erizaingorat sartuz kasik zuzen zuzena.

Behar nituen halere armadako erizainen apendizgo labur batzu egin lehenik. Tolosako gure kazernatik igorri ninduten Bordeleko Robert Piquet ospitale militarretatik ilabete bat eta erdirendako, jakingai beharrenean ikasterat erizaingotan. Ospitale haundi bat zen hori, soldadoena, hiritik bazterrago eta goiz guziz joan behar ginuen guk soldadoen kamiun arrunt batean 8 orenetako. Neguaren hastea zen eta aro hits euritsuak urte hartan, eguna nekez argitzen. Badut nik hango apez-omonier zahartusko baten oroitzapena, erasiak egin zauzkidala ez nuelakotz nik militar salutazioneaz ontsa agurtu. Arrazoin ximple bat banuen ba nik neure gisan: gure amaren eritasuna zela kasu, besteak baino beranduago heldua nintzan armadarat. Hola hutseginak nituen soldado gazteek egiten dituzten klaseak, han ikasten baita militarki agurtzen eta holako, gradoen ezagutzen ere bai. Nik beraz R. Piquet ospi-

tale haren sarreran, ez nuen ontsa ezagutu apez militar haren gradoa: apeza zela bai kurutze harekin, bainan zein behar nuen nik agurtu, apeza apez guzieren ekartzen neien errespetuan, ala ofizieran, lieutenant colonel bati egiten zaion salutatione militarrean. Denaden, ene soldado berri eta ezjakinaren herabea sumatu zukeen, eta hortan joan zen aintzina, eni erasialdi bat emanik, beste gaztigurik eman gabe, armadan aintzindariak emaiten dituzten heietarik. Halere, zer zakien apez harek ni apezgaia nintzala, nitaz urrikaltzeko?

Nik aldiz, apez gradaturik ez nuen oraino biga baizik ikusirik ordu arte: lehena zen Uztaritzeko erretor, Leon Leon apez hazpandarra, gerla denboran soldado jauntzitan, jada aipatua dudana bainan ez nakike orai batere erraiteko zer grado zuen ere, haundi ala ttipi. Bigarrena haatik bai banakien, hura ikusia nuen kapitain eder lehenik, eta gero gomendanta, Emilio Laxague ene herritar baigorriarra. Harek bederen beste graziarik eginen bide zautan bere amerikano irri-zafla karkailadunarekin. Bainan ez nituen batere harekin ordu hartako egitekoak eta damurik!

Bordeleko egunak eta asteak laster joan ziren. Hortxetan ginuen gure kazerna: Carayon Latour izenekoa, Bordeleko Kiroldigitik eta hiriaren inguru-bulebarretik hurbil, Pessac hirirateko ateragiaren alde hortan. Pessac karrika hor baitzen, baginuen hor (Xantrailles kazerna ere ez urrun) eliza pollit bat. Harat joaiten nintzan, lagun zenbait enekin orobat edo nihaur bakarrik, aste barnean meza bat edo bertzeren entzuterat, eta igandea heldu zelarik bixtan dena.

Kiroldegia erran baitut, oroitzapen bat bederen badut horgoa: hor ikusi dudala rugby 13 koan jokatzen Puig-Aubert famatua, katalana. Eta hau: kiroldegi eder horrek badaukala pilota-plaza haundi bat, ederrenen izarikoa xixterako eta han ikusten ginituela euskaldun batzu larunbat edo igandez. Halaber ere Bordeleko trinket zaharrean bisita bat eginez geroz, bainan ez dugu han partidarik jokatu ez-eta ikusi ere trinketa behin baizik. Horiek guziak hola, ez dut ahanzten erizaingotan zerbaiten ikastera joanak ginela Bordelerat. Hoin denbora gutiz ez ginuen mirakulurik ikasi, bai haatik erizain-lagun



ageritto bat bildu eta, guziz, eriekilako gustu zerbait ere, sekulan galdu ez dudana ene ustez bederen.

Ez baiginen gu Bordeleko kasernetako soldadoak. Joan ziren laster gure erizain apendizgoko asteak. Ni orduan itzuli ene Tolosako Perignon kasernarat. Horgo infirmerian ezarri ninduten erizain ofizioan. Gure lanak ez zuen baitezpadako ezin eginik. Goizetan heldu zen harat klasako soldado gazte multxo bat medikurat «consultant» edo bisitan, horrek erran nahi baitzuen eri ekarri zutela goiz hartan beren burua medikuaren aintzinerat agertzeko beren minarekin. Ene lana zen heieri sukarraren hartzea, neguan orok izaiten ahal ditugun zintzurkeko min, eztul edo gripakirik sendi zuteneri, edo loturaren desegitea, zauri zenbait edo bederen loturak zituzteneri kiroletan bilduak: medikuari horiek oro erakutsi-ta, paperño batekin itzuliko zitzaizkun andere infirmiertsu baten peko ginen apendizkeri. Hau zen andere mutxurdin sudur luxedun bat, ofiziokoa, eta hunek erranak ginituen guk erizain-lagunek egiteko. Loturak eta artamenak eginik igortzen ginituen gure lagun eriak, batzu bi sosen mina eta lau sosen loturarekin. Zenbait baginituen heietarik eritegian berean atxikitzen ginituenak medikuaren papera hala ukanik, funtsean ez zuten besterik nahi zenbaitek. Bainan baziren gazte batzu ospitale-  
rat igortzekoak edo beren gisako gaitz eta eneguak baitzituzten gazterik bilduak, zoazte nun gaindika. Ez, ez da egia, eritasunaren eta herioaren aintzinean denak berdin girela. Estimatzeko duela bai osasuna baduenak, edozein adinez: nun ez duten zenbaitek, berek bilatu, eta holakoak ere baziren han.

Erran behar da halere ez dela kaserna batean eritasun haundien lekua. Guk eguneroko artamen xumeetan ginituen gure egitekoak. Guk, jada aipatu eguneroko eztul, sukar, marranta eta mafrundi kasu horiez bestalde, xertoak, noiztenkako medikuaren bisitak eta kiroletako ixtripu batzu ginituen orozgainetik segitzekoak.

Eman dezagun soldadoen noiztenkako xertoak: zer gerta ere tetanos edo T.A.B.D.T. letrez deitzen zituzten gerizabide baitezpadako batzuenak ziren soldado gazte heindako segurtatu beharrak. Denek behar zuten hortarik iragan. Bainan

ez zen hori denekin berdin pasatzen. Gutiz gehienak heldu ziren eritegirat pisutegirat eta neurtegirat bezala (horiek ere baitziren: baktaxaren pisua, goratasun-izaria, denak hartzen ziren eta fitxategian xuxen ezartzen). Beraz, xertoaren hortarat jin behar zen atorra kendurik edo bederen espalda-hegiraino soinekoaren besoa goititurik, irriño bat ezpainetan eta jo aintzina. Beste batzuekin ez zen batere hola: gogoan dut aubernes putiko luze zingila bat, kanpoan otsoaren beldur izanen ez zena hain segur, bainan xertorat ikaraminetan etorri zena. Nik ez dakit nork zer zion kondatua mutil gaizoari, ala bere jitez ote zen holakoa, jin zen pikura xertorat bi begiak hetsirik eta hortzak tinkaturik eta hantxetan jarri, konkortua, karabilkatua... eta ez joaiten handik gehiago. Erran behar izan ginion: «Ehaiza joaiten?» Harek, lo haundi batetik atzarri balitz bezala: «Eta pikura?» - Egina duk! Leku hadi! Ez dut ikusi gizonik hura bezala harriturik, ez sinetsi nahi ere pikura eginena zela. Ez zuela xixtakoa senditu ez pairatu diozu, irakurlea? Nik uste dut aintz pairatu ere zuela: ez haatik xixtakoa egitean! Aintzinetik zuen harek pairatua, eta sofritua, bere ustekeriaren ikaran. Eta zenbat holako ez da, ez bakarrik xertoaren hortan bainan mila kasutan, sofrikarioa ustezkoa baitute.

Joaiten ginen ere mainutegirat erizainak, zer gerta ere ureko ixtripu horiekin! Mainutegi edo pizinarat bezala, halaber armekin tiratzen ikasteko tirategi pentzerat, edo beste kiroldegi mota batzuetarat, han behar zuen izan erizainak bere artamentetako tresneria guziarekin bere maletañoan, sekurismokoak ere deitzen ditugunak. Gertatzen zena gerta, norbaiten edozein zauritze mota, aldixartze eta sokorritze beharbidetara, han behar zuten armadako zaintzale eta laguntzaileek. Eta denbora hartakotz! Orain badakigu nola minberatua den jendea, hau izan dela eta hura gerta ditakeela, aintz ixtripu mota eta auziren ondotik, egin dira legeak eta larderiak, gero ta latzagoak eta sekulan ez aski, erraiten den bezala. Bainan ondu oraiko jendeak jakitea, aspaldikotz hasia zela jendea kasu egiten; hots, betitik hartu dituela bere alderdiak, atzoko munduak ere, biziaren, osasunaren eta salbamenaren alde, hots! Horra beraz nola behar ginuen tropari segitu gure tresnekin, erizainek.

# Paxkal ene laguna

---

**E**RRAN dut Tolosan berriz hatxeman nituela, Bordeleko pasaia hartarik landa, ene lehengo lagunak. Enetako, heietan lehena, Paxkal iholdiarra. Hura, hain zuzen, klasa 47 a. Hura zen han bere adin zuzenean. Ni urte bat zaharragoa, istudioen gatik gibelatua. Gogoan ginituen bi ilabete lehena-goko solasak, kasernarat heldu gineneko hek: «Hi euskalduna? Nungoa ote? – Iholdi Irigoinekoa, eta hi? – Ni Baigorri, Bastida-Belarrekkoa!» Laster eginak izan ziren ezagutzak. Beste euskaldun guti, bat gu baino zaharxagoa, hatxeman ginuen halere gure kaserna berean, Minaberri, Ortzaize Amedinekoa, engaiatua zen eta ez ginuen hanbat parada izan elgarretartzeko, salbu noiztenka, basoño baten aintzinean, Mez deitu ostatuan.

Paxkal Belleau horrek, ene gisa, erroak egin zituen nolazbait, gure soldadogoko urteño haren doia, Perignon hortan: ni erizaindegian banintzan, harek egin zuen bere xiloa, kasernako kozinan kokatu baitzen hura berriz, beste ofizio berri harekin. Bai eta lokarriak egin elgarrekin, guri bieri esker, gure kasernako kozinariak eta erizainek. Huna nola hasi zen hori. Erran zautan Paxkalek goizeko kafea bazutela kozinako sukaldean, soberatua eta xortaño bat begira zezakeela guretzat eguerdirat heltzeko edo aratsaldean berdin. Telefonatzeko, behartzearekin. Baietz ba, xortaño hura zorta ere bilakatu zen laster: ura merke baitzen, untzi gotor baten betea ere baztertzen zautan Paxkalek erizaindegiko lagun guzien doia. Ontsa joan zen hori, behin eta bietan eta handik aintzina. Bainan Paxkal asaldatu zen laster: «Errak, Emil, gure kafe tratu horri ohartu dituk beste batzu, artean. Zilatu die gure mezua kasernako telefonaren kudeatzaileek. Eta hek hurbila-

go baitira kozina huntarik, aintzindu haute eta hik behar kafea ereman; badiat oraino ondar bat bainan gutixago, gai-  
zoa! Beste aldian hara zer eginen dukan: euskaraz telefona,  
beti bezala, bainan kaferik aipatu gabe. Aski duk erraitea  
heian badutan, «beltx» hartarik. Eta huna nola ernatu ginen  
Paxkal eta ni, gu baino erneagoekin. Eta guri ederki baliatu  
iholdiarraren zuhurtzia!

Paxkal eta biak gutiz gehienetan elgarrekin ginabiltzan  
ateraldietan, «les basques», denek erraiten zaukuten bezala.  
Tolosako hiri ederraren ikusten ibiltzen ginen, Saint Sernin  
aldeko «kukuso merkatua», Capitole plaza, Saint Etienne ka-  
tedrale zahar bitxia eta beste. Apez-omonierak ere biltzen  
zuen Tolosako karrika batean soldado andana pollita igande  
goizetan, nahiz meza zenbait ere hatxemaiteko, ez zen eska-  
sik bestalde hirian, haatik euskarazkorik ez alabainan. Ostatu  
bat begistatu ginuen behin, «Euskadi rojo» izenarekin, bainan  
gu politika hortan, (politikoa balinbazen), ez ginen batere  
barna. Futbola baitzen igande aratsaldez, joaiten ginen ba-  
tzuetan ikusle ainitzen artean gu ere. Plaza-arrabote bat bai  
azkenean hatxeman ginuen eta beste bat ere ez urrun, Emula-  
tion Nautique klubarena. Han artzen ginen pilotan, ez baigi-  
nen guhaur sakelan pilotarik gabe joanak ez Bordelerat eta ez  
ere, gero, Tolosarat.

Hola joan ziren gure Tolosako egunak, Bordelekoen on-  
dotik. Bi hiri horiek, lehenagoko Gaskoinia haundiarenak di-  
ra, eta hitz berean dute Gaskoiniak eta Baskoiniak beren  
erroa. Ez da harritzeko anaitasun zerbait balinbadugu ere ho-  
riek eta guk, Gaskoinek eta Baskoin edo Euskaldunek. Ni, de-  
na den, ez naiz sekula osoki arrotz senditu batean ala bestean.  
Eta ez nituena hor, hutsen tapatzeko bezala, pilota eta arrabo-  
teak batetik, Paxkal eta holako lagun arraroak bestetik! Bai,  
ene aldetik herria ukan dut beti gogoan, neure Euskal Herri  
hau sekulan ahantzi gabe: herria bai, eta nik herri horren zer-  
bitzuko amesten nuen geroa. Soldadogoaren adin hartan, ger-  
tutzen ahal ez denik ez da, soldadogotik landa dira hainbeste  
gazte, bide bati edo besteari lotu, izan zadin ofizioa, biziko la-  
guna, etxea ala Amerika. Nik bederen badakit une hartarik

hasi zirela ene biziko azken hautu eta segurtamenak finkatzen. Denak ez dira ez oraino salatzen, euskaldunak baitu bere barneko baratze xoko ixila, oraino beste nehor sartu ez dena; ez dakit segur zer pasatzen zen Paxkalen baratze ixilean orduan, ez-eta harek enean, bainan orduan zen gutan bereber xutitzen ari geroko gizona. Nik, orai, erran dezaket, Paxkalekin ereman solas eta ixiltasun heietan dudala ikusi, funski eta fermuki, ene azken delibero eta erabakia: orai banakien Euskal-Herrian izanen nintzala, euskaldun eta apez, Paxkal bezalako herritar zintzoekin, bai eta besteekin, alta ez nakielarik ere orduan, Paxkalen herriko apez izanen nintzala 15 urtez hunen lehengo Iholditik eta geroko Suhuskunerainokoan, Iri-sarrin eta Suhuskunen nihaur ere!

Suhuskune bai: urteak joan-eta, zertan nindabilan ni Lurdeko Harpe Sainduaren aintzinean egun hartan? Otoitzean, bixtan dena bainan zer otoitz ote, eta norendako xuxen? Hantxetan, Lurden beraz, bat-batean, ni Mariaren aintzinerat, arrosaria eskuan joaki eta, nor ikusten dudala? Hura bai, Paxkal! Eta norekin? Marie Jeanne Lahargou, Suhuskune Etxeberribordako alaba, Euskaldun Gazteriako aspaldiko ezagun bat hau ere, enetzat ez beraz arrotza: biak, besoz besoz heldu Harpe Saindutik, ezkonberri, lehen behakoak berak salatu zautan bezala. Hor nuen hor, nik zerbitzatzeko amestua nuen Euskal Herria, Euskal Etxea! Eta ametsa berez ahul bada, bazen ordutik dei bat enetzat, adiskidetasunez bezala, gazte horiek Elizaz behartzen zireneko. Paxkalek eta Marixanek, lekuko naiz, eman zituzten haundizki, beren lau semeekin, orduan igurikatu eta eskatu fruituak.

Holakoak dira biziko gorabeherak, beren ongaitzekin. Familia eder hori Etxeberribordan ongi altxaturik, ez du izan Marixanek bere ilobatxoan haunditzen ikusteko fagorea. Paxkalek berriz lagun on hura gabe derama etxeko aitatxi on eta maitatu baten bizia. Doala aintzina eta bide beretik gazteria horrena ere, Paxkal eta Marixanen ondotik.

Eta joan ere, Etxeberribordako Jean Lahargou, Marixanen anaia, ene apez lagun izana zena. Hunek zenbat egin duen bizi laburregi batean hainbeste sailetan, Jainkoak berak

daki: apez zerbitzuan, langileriaren zerbitzuan, Euskal Herri guziaren zerbitzuan kasetalaritzan eta beste (HERRIA gure astekarian). Ez ez! Nik ene aldetik ez dut sekulan ahantziko adiskide suhar eta bero horri zor diodana.



HERRIA kasetan. Paxkalek ere hor du bere lana,  
bainan ez egun hartan, hain zuzen.

# HERRIA kasetak

---

**B**ERE aintzineko lanetik erretiratu ondoan Jean Lahargou, adin onean ikusiz bere burua, eta zinez lana go-goan, beti izana zen bezala, huna non HERRIA kasetan laguntza xume batzuen egiten hasi zen bere buruaren eskainka eta herabe batean bezala. Ez dut errana 30 urte pasatuak ditudala nihauk orai HERRIA kasetaren lanean: beti danik Piarres Lafitten kasetak euskaldunaren adiskide izana nintzana, gure kalonje maiteak bere ganat deitu ninduen, egun batez, Mixel Labeguerie zenaren emazte zenduaren ehortzeta egunean zen. Ofiziotik landa, Lafitte Uztaritzetat autoan eremaiten nuelarik, egin zautan galdea: kasetaren idazlegoa nik hartu behar nuela otoi. Ez ninduen errexi berotu: nik hastean ezetz. Banakien diru-konduetan halaxe-holaxet zoala orduan kasetak, nahiz Andre Ospital adiskideak bere ahalak oro eginik ere aspaldiko urteetan.

Banakien segur euskaldunen bihotzak zuela bere kar guziaz bizirik atxikia beti ere gure euskaldun kasetak, sekulan kasik beste nehoen diruen ondotik ibili gabe: lehenago elizabortetan salduz eta gero-ta-gehiago, irakurleen urte-sariaz bizi, dirua eskastearekin zenbait sos gehiago paga-araz, nahiz sos guti beti ere, eta hola bizi zen HERRIA. Funtsean, bizi ere ezin erran, ez baita nehor kasetak hortan ez besteetan bere lanetik bizi izan euskal iparralde huntakorik: langileak bai urri-rik ari, urri-rik arizana beti Lafitte, urri-rik herrietako berri-ke-tariak, urri-rik apez batzu, urri-rik erreportaia egile bere-nahiz-ko guziak. Hots, papera zen ordaintzeko, paperarekin tinta, argazkirik ez, eta kasetaren igortzeko posta sariak xoilki paga eta kitto. Bihotzez bai ordaintzen dutela irakurleek beren ordain-sariarekin HERRIA, hori da egia: hola-hola maite

duenak ez baitu deus gehiago galdatzen beretzat, ez delakotz beretzat ari.

Bainan denborak aldatu dira. Beren kasetaren maitasuna badute beti irakurleek eta hori ez da segur gelditu. Bainan bere baitezpadako beharrak eta legeak baditu mendeak. Kaseta batek behar du egon beste kaseten eta bere mendearen haxean eta mailan. Gainerat, hunek ez du barkatzen, beharrak eta mendearen urratsak ez dute amor emaiten, hertsadurak eta legeak badira, errespetatu behar ditugunak, denek, nornahi izan gaiten.

Horra nolako kezkek eta griñak zabiltzan ene buruan, eta ene adiskide aholkulari batzuenean, Lafitte xaharra ene errapostuaren beha zagoen denboran. Azken azkenean jin zen Lafitten galdea: «Eta? Zertan zira, Emil?» Ni beti neurean nintzala, behar ginuela zerbait bide hartu kasetaren diruzaingoan, hola segitzerik ez zela. Bazazkien, bixtan dena, Piarresen nik bezain ontsa, eta hobeki, nik erranak oro. Bainan behar da gogoari eman gure kalonje onak orduan zuen adina, 70 urtetan goiti joana, eta bestalde zituen lan guziekin, izpiritua ez batere libro, osasuna betiko ahultto hura, hots, ez gehiago erabaki funtsezko batzuen hartzeko gauza. Orduan eman zautan ihardespena nola ahantziko dut nik sekulan: «Bon! Segituko dugu beraz hola hola, ahal duguno... Jainkoaren menturan!»

Hitz xoil horrekin bildu ninduen azkenean Lafittek. Egun hartan, ilundura horrekin gelditu baginen ere biak, nola egin lo onik aratsean, Lafitte xaharra neure gogotik haizaturik! Biharamunean berean igorri nion mezua: baietz ba, entseatuko nintzala, egiten nuena egin, eta ondoko asteartean berean hartuko nuela autoan Lafitte Uztaritzetik Baionara; kasetaren egiteko eguna da asteartea eta huna nik ere 31 garren urtea dudala orai astearte guziz Baionarat joaiten naizena HERRIaren egiteko. Oraiko ene adinak ez dio batere zorrik ordu hartako Lafitten adinari, bainan urak bide egina du bere gisan orduz geroztik. Lehenik, hor dugu orai J.B. Dirassar, ofizio haundiko kasetalaria, gu ez ginen bezala. Bestalde, ez gira orai buruz-buru HERRIAN bi lagun, J.-B. D. eta ni, orduan Lafitte eta ni ginen bezala, bainan multxo bat osoagoa,



oro beren kargu, egiteko eta erantzukizunekin, eta irarkola eta komunikabideetako teknika aintzinatua bestalde.

Kaseta bera besterik bilakatua da, horiekin guziekin: haunditu ez bada ere, merezi lituzkeen irakurleak ez badiu ere oraino, hor dugu HERRIA, berriagotua argazki, marrazki, paper, tinta eder, kolore, badu segur lehen ez bezalako itxura argitsu eta graziarik. Bizi-solas, diru gehixago ere ikusten bederen da HERRIAN, nahiz xuhurki beti. Eta diru guziez goragokoa, hor du HERRIAk bere taldea, beste talde guzien artean eta denekin eskuz esku doana gure mintzairaren eta kultura orokorraren aintzina eta beti aintzinago eremaile.

Zerk eta nork gaituzte hortaraten lagundu? Bi izen dira bereziki, hemen beren leku handia merezi dutenak: **Beñat Mendisco** eta **Jean Lahargou**, hau gorago aipatua, oraiko langileak utziz... lan egin dezaten.

**Beñat Mendisco.** Gure goraintzi beroenak hartze ditu Beñat Mendisco adiskide euskaldun suharrak, Baionan bere familiarekin dagon xokorat. Bere erakasle ofizioak hoin argi egina zuen gizon bipil eta goxo hori, ez batere amets eta liburu axalezkoetan hazia, saltegieta lege-gauzetan ere trebatua aurkitu ginuen adiskidetasunez. Errotik miatu zituen kondu eta egitekoak oro, eta aferak pikoan ezarri administraritza aldetik. Geroztik hunarat, ez da segur mirakulurik, ez eta urgulutan sartzekorik HERRIAN, bainan urte bakotzeko konduak erakusten dute denaden bi buruak juntatzen dituela HERRIAk, ondoko egunetan beti zerbait hobetzen ahalko dugun artean. Hobetze bat, egia erran, badugu jadanik, eta ez ttipia: hor dira orai beste euskal kaseta eta agerkariak, atzo ez zirenak, beren maila zainduz orobat.

**Jean Lahargou** beste gisa batekoa zen. Bi dohain handi bazituen hunek, biak elgarrekin josiz, gure zerbitzuko ezarri zituenak. Batetik, langile munduan trebatua izana zen, ezagun ainitz bazituen hor eginak, sindikalista munduan bereziki. Eta bestetik Euskal-Herriaren maitasun suhar bat bazuen, langileria hortarik eta gure herri barnerainokoan bildua. Abertzaletasuna aintzinago eta gisa batez barnago sartzen dela erran ditake, bereziki zenbaitena, bainan erran ditake

egiazko abertzalearen izena eta errespetua ere merezi zituela Lahargouk.

Horiekin guziekin, zer sua ez du erakutsi herriaren eta HERRIAren zerbitzuko! Lahargou nork ez du ikusi, besotara bat HERRIA galtzarpean, eta mahain baten gainean zabal zabaldurik, biltzarre eta ferietan, plazetan eta karriketetan, kaseta bat sal, beste bat eskura saka eta gaineratekoa solas eta ele suharrez: «Zer? Ez duzu ezagutzen HERRIA? Bainan, zure herriko kasetarik hoberena da! Hor da hor gure herriaren bihotza, geroa: Euskara! Ez duzula Euskara mintzo edo irakurtzen? Bainan orai denek ikasten dute, eta eskatzen! Eta zu, jaun mera, baitezpadako dute auzapez guziek orai HERRIA kasetaren abonatzea. Eta Herriko-Etxeek ere! Eta heldu zen aste guzietan Jean bulegorat, harpidetza edo abonamendu berriekin eta ez dudakor batere gizona. Ehunka eta chunka egin izan dauzku Lahargouk harpidedun abonatu berriak. Hala da-eta, holako gaia badugu, Lahargouk zion bezala euskaldunek euskara, eta gure euskal kultura, kirolak, bertularitza, kantua, antzerkia, eta iduri dugu ahalgez eta beldurrez gaudela, holako publizitate ederrak ahapetik eta motel motela eginez doi-doia.

Bai, bai, behar beharrak dituela gure herri hunek geroztik ere Mendisco eta Lahargou bezalako gizonak. Mendiscok zer ez zuen eginik, Angelu eta kostalde horietan, euskara erakasten eta euskararekin dantza, kantu eta besteak. Lahargou berriz beste gisa bat zen: lehena barneko langile ixila bezala, bigarren hau zen plaza-gizona, zabaltzailea eta karrikaratzailea. Biak behar ditu gure herriak, eta gure mintzairak ere: lan ixila eta publizitatea, hots, hala denaren jakin-araztea.

Mendisco, Lahargou eta gu guziak baino ainitz gorago-koa da, eta lehenagokoa, HERRIA kasetaren munduko itzulia. Izana zuen hunek bere arbasoa: ESKUALDUNA, 1887 an sortua: Louis Etcheverry donazahartar deputatuak sortua zuen hau, orduko giroan eta denbora hartako politikaren haritik. Ez zen orduan kaseta ainitzik, eta euskarazkorik are gutiago. Politiko Alderdi batzu bai haatik, eta, guziz, xuri ta gorrien arteko gataskak. Hemeretzigarren mende hortan guzian,

errepublika ezin finkatuz egonak ziren batzu eta lehenagoko erregeen denbora gogoan beste batzu. Denaden, bazoatzin batzu eta besteak beretik, bakotzak bere errepublika xutituz emeki emeki. Louis Etcheverryk euskaldunendako holaxet sortu zuen kaseta hori; lehenik hamabostetik, geroxago aste-kari, izan ziren ondoriotasun gorabehera batzu: batean ES-KUALDUNA, bestean ESKUALDUN ONA, azkenekotz lehenbiziko izena berriz, holaxet dugu ezagutu guk, gure adinekoek gure haurrean, Piarres Lafittek HERRIA sortu zuen artean.

Bere izena «Eskualduna» izana gatik, erdaraz egiten zen hastean parte haundienean. Hala da-eta: orduko euskaldunek frantses mintzaira guti zeramaten beren artean eta ainitzek ez zakiten ere. Bainan ez baitzen orduan ainitz idazten euskaraz, Detcheparek hiru mende ta erdi lehenago kantatzen zuen bezala. Emeki emeki da euskaldunduz joanen kaseta xaharra eta hor parte haundia ukanen dute Jean Hiriart Urruty, Mgr Saint Pierre, Oxobi, Soubelet, Arotçarena eta besteek.

Uste dut hemen oroit arazi behar zirela lehengo ixtorio horiek, ahantz ez dadin nundik heldu giren kasetaritzan, bai eta euskara idatzian eta irakurrian ere gure herrian eta familietan. Gure adinekoek, elizako berettergotik landa, Arotçarenaren eta Soubeleten ESKUALDUNA dugu eliza bortetan saldu eta guhauk irakurri duguna. Eta hau zor diogu orduko Elizari: apezek dutela, beren kideko batzuekin, bizirik atxikia euskara; abertzaletasuna, ondotik jin ikastolak eta gaurko «talde» ainitz sortu direneraino. Oraiko eliza beste giro batean da eta beste eginbide batzu ditu, bizi-bizia hertsatzen dutenak: batetik, zaharrer segi eta gauden gu! Bestetik aldiz bere publikoa nahasi eta baxtartatu zaio; kanpoko jendea sartu, eta herrikoek ez beti euskara zaindu familian, lanak dira batzueri eta besteeri berea emaiteko, auzoa mindu gabe eta gure betiko nortasun hura galdu gabe. Horra nola dabiltzan HERRIA kaseta eta holakoak, herritarrak lagundu nahiz eta askotan ezinez!

Eta huna HERRIA kasetaren sail horren bururatzeko erran behar zen azken hitza: mirakuluz dela holaxe bizi HE-

RRIA aspaldiko urteetan. Eta gure arteko batzu direla noize-tik noizera ateratzen mirakulu ttipi batzuen egile paregabeak: herri batzuek gintuzten kenka txarretan lagundu, partikular batzuek ere bai, gure aiten euskararen maitez. Bainan holako pindarren ximixtek ez gaituzte behar itsutu. Eta beraz, zertako ez diot gure herri huni aurpegira botako bekoz beko egia: nolaz ez dute berek senditzen herri huntako kargudun eta burasoek eta ere gure gazte eskolatuek halaber Ondare horren zaintzeko Eginbidea? Herri hau gure Ama balinbada, zer pentsa bere Ama maite ez duten haurrez?

# Egun haundien bezperak

---

**H**UNA beraz, Semenariotan, teologiakoak deitzen gini-tuen hiru urteak. Josteta guti hortik goiti. Ez erran hatik oro finkatuak zirela orduan gure gogo bihotzetan. Urrats haundi bat, bai, baginuen egina. Zenbait bakarrek hartua zuten hasi sailean ez gehiago segitzeko deliberoa. Behar zen kuraie doi bat hortako ere: aspaldiko lagunak utzi, beste bide baten bilatzen hasi, ixtudiotan edo ofiziotan... bakar zenbait izan zitakeen bere burua laxoago sendi zuena, aspaldian ezin menturatuz zagolakotz edo borroka batean bizi ere orobat, bere buruarekin edo beste bide batekin. Batzu badira ere lo-karri batzu sekulan hausterat utzi ez dituztenak, lehengo apezgai lagun batzuekin. Elizarekin berdin berdina: zenbait gelditu dira girixtino suhar, badira oraiko laikoetan arduradun funtsezko gelditu direnak: semenarioko hezkuntza eta formazio on baten ondorioa dute hori, sekulan apeztasuneko urratsa egin ez bazuten ere: orobat laiko kartsu edo aita familiako zintzo baten hautua finkatu zuten ezkontzan.

Edo haustura haundi bat egin zuten beste bakar batzuek: semenariotan zerbaitek edo norbaitek hutsegin zeielakotz, oroitzapen txar edo desgustu zerbaitekin utzi baitzituen; halaber ere beste lagunik, beste teoriarik, ideologia, sineste edo irakurtze motarik ezagutu zuten batzuek, hartu izan dute osoki kontrako bide bat. Zertako ez aitor errespetu haundiena hartze dutela horiek ere Semenariotaren eta Elizaren aldetik! Ez ote du Jainkoak berak errespetatzen gizonaren libertatea, eta gizon batzuek nundik ez?

Horra hor gogoeta xoil batzu, erraiteko nolako zuhurtzian eremaitekoak ziren semenarioko azken urteak eta ez, batere, buru-berotze bat bezala. Holaxe ziren semenariotan az-

ken urteak ere lehenak bezalakoak orohar: izpirituen laxotasunean batetik, eta barnatasunekin bestetik.

Istudioak osatzen ziren orduan, ikusiz bereziki zimendu beharretan zer ginuen ahantzirik eta ikustekorik. Denbora berean, buruzagiek uzten zaukuten laxo eta libro hura, ez bagingen gehiago lehen edo bigarren haurtasun hartan, bakotxari zagokion hobeki baliatzea eta gorpuztea: hortarat zoatzin superior buruzagiak, eta bakotxaren aita-kontseilari edo kofessorrak ere ekartzen zauzkuten sustapenak.

Denbora berean, behar ginuen biharko lanari pentsatzen hasi. Ez zuen berdin balioko batere hiriko apez izaitea, edo gure herri ttipietakoa. Gainerat ez zirena hor Euskal Herria eta Biarinoa! Hor bazen pondu bat garbi garbia: Euskal Herria euskaldunek zuten zerbitzatzeko ahalko apez bezala. Baginuen euskaldunek geroaren errespetu bat, gehienek balio zerbait emaiten giniona. Baginakien euskaraz beharko ginuela predikatu eta ez ahal zen guti hori. Ikasketa guziak erdaraz eginak ginituen eta, zertako ez erran hau ere, ikasle mundu guzia erdaraz ari zen, solasean, mintzaldietan, eta zinema, publizitate eta gehienetan. Hortakotz, behar ginuen ordukotz hortaz oroitzen hasi. Semenarioko predikatzeak, lagunuen aintzinean, ez ziren baliorik gabeak hortako.

Euskararen maitasun egiazko bat ere baitezpadakoa zela, horri ohartzen hasia zen ikasle mundua beste mailetakoa baino lehenago. Gure herrietako laborari lagunek mintzo zuten euskara, naturalki, beren artean, menturaz guk baino gehiago. Bainan euskararen maitasun politiko hori, batzuek kontzientziazte politikoa deitzen dutena, ikasle mundutik eta semenariotik zen hasi eta biek elgarrekin dute balio guzia: batek bestea behar du. Beraz, guk, baginuen ene klasako euskaldun apezgaiek «kaier» bat elgarri pasatzen ginuena, bakotxak bere artikulutxoa egin, eta aintzina kurri. Ez ginuen hor baitezpadako ideologiarik edo gogoetarik, ez aski ere menturaz orduan, idazten trebatzeko ere egiten ginuen hori. Uste dut hortarik hasi zela halere gure abertzaletasuna, eta hori zen guretzat herriaren maitatzea. Aspaldi du ez dugula, gure orduko lagunekin, elgarretaratzen girelarik, euskaraz baizik hitzegiten, erraiteko maneran.

Biarnes lagunak ez ditut ahantzi. Baginen, arras elgarrekilakoak, gure euskaldun multxoak eta biarnes batzu gurekilakoak. Batzuk bezain maite, heiek eta guk, gure herria, dena ere erro beretarik ateraiak, euskaldun, basko, gaskun... Maitasun horrek biltzen ginituen batzu eta besteak eta hortako ginuen ere elgar konprenitzen. Askok gauza ginituen alabainan elgarretaritzen gintuztenak: ez hanbat mintzaira, heien okzitanoa baita aspaldi latinarekin kotsatu zen mintzaira, gureak aldiz bere euskal nortasuna zaindu duen denboran. Aldiz kantuak hobeki biltzen ginituen elgarretara: ezagutuak dira, hala-nola elizan, bi mintzaiteran, euskal eta biarnesek kantatzen ditugun kantuak. Eta baginuen dantza, guk semenarioan ikasten ginituen euskaldun dantza jauziak eta biarnesek beren aldetik dantzatzuten eta zaintzen zituzten biarnes dantzak, denek beren xirulekin, batzuen eta besteen kulturako loreak hoik oro.

Dantza semenarioan? Eta zertako ez? Galda Belokeko Aita Marzel adiskideari, ez ote duen egundainotik bere lekua izana dantzak erlisione guzietan eta, guziz, Euskal Herrian: zuzen delakotz segur, bere izaitaren dohain guziekin gorets eta otoitz dezan gizonak bere Jainkoa. Eta erakusten dauku aita beneditarrak zenbat balio duten eta zer erran nahi gure Bestaberritako dantza, zanpur eta oilarrek. Argitasun horiekin denekin nor ez du onartuko zer aberastasunak dituen gure herriak eta zenbat balitakeen oraino hor egiteko!

Huna, guk aldiz, zer eta zertan ginuen dantza semenarioan. Lehenik, izan ditugu apezgai lagun batzu, aurkitua baitzuten bakantza denboran aita Castanchoa lapurtar misionesta, dantzari talde bat bazuena, bere Afrikako Misioneen aldeko ateraldietan plazaratzen zena. Eta zer ez dute ikasi ene lagun on batzuek harekin eta laster Aita Bassaisteguy eta Nespriak guziekin: hor eman dituztelarik, eta lehenik berek ikasi, hainbeste dantza-jauzi euskaldun eta fandango eta arin-arin. Gehiago dena, batere soinuari famatu batzuen ondotik ibili gabe, berek ikasirik, xixtua, zilbotea, ttunttuna eta xirula. Hor dira ibili, batean Beaudonneko misionest eskolan eta bestean Blancpignonen, gure ezin ahantzizko Jean Irigoyen ainiztarra, Jean Donetx uztariztarra, J.P. Belhagorry ortzaiztarra, Jean Loustau amikuztarra, eta nor ez oraino!

Ez baiginen ordea denak plazetan eta taulen gainean ibiltzeko artista arraroak, semenariokoak, asmatu zaukuten ere guzi-guzientzateko baliagarri orokorra: mutxikoak semenario haundian. Arrazoin ximple batek gidatu ginituen huntako. Negu latzak ezagutu ditugu gure denboran semenarioan. Ez dakit neguak ote ziren orduan bortitzagoak eta ez nuke horren frogatzeko modurik. Hau bederen baginuen, ezin-ukatzkoa: berogailu guti ginuela orduan semenarioan. Berogailu ederrak baziren, teorikoak edo itxurazkoak, «chauffage central» eta guziak, bainan, beihalakoaren argiak bezala «ez baitzuen egiten». Funtsean, nork forni holako etxe haundi batendako aski erregailu negu oso batez! Bainan hor ziren, beharrik, gure 20 urteak. Goizetan, askal ondoan, baginuen oren laurden baten epea, klasea baino lehen kanporainoko baten egiteko, laster edo pilota. Kanpoan karroina balinbazen, edo euri-zipirtak, orduan barnean egiten ginuen gure berotzea. Hor zen eskola-klase haundia: minota erdi bat aski ginuen mahi guzien erdirat lerra-razteko meta batean eta horra hutsarte inguru haundi bat libratua dantzako. Ez baitzen besta eguna bainan lanekoa, utziko zuen Irigoyenek xixtua bere lekuan; berak hasiko zuen mutxikoen airea, kantatuz, eta guk harekin, Irigoyenen gain bakarrik urratsen markatzea Camino eta holakoekin, eta jo gogotik. Jakizue hori ginuela berogailurik hoberena eta zangoak bero-berorik ginela eskola klasean bi orenez bermatzeko.

Norbaitek uste balu halere bere latza, dorpea edo herturak bazituzkeela semenarioan bizitzeak, ahal daki denetakoa dela hori: edozein ofiziotan ere bere lan eta oren xuxenek hertsatzen dute langilea. Bere familiari, abiatu sailari, lotua da ezkondua, ofizialea, aita familiakoa. Etxeko ama familiakoa edo soldado aintzindaria bera, berdin berdina. Guk semenarioan, eta hori baginakien aintzinetik, baginuen gure erregelamendua, bere abantailak zituena, eta harek lotuak ginauzkan nolazbait.

Lehenik, nausi bat bazuen etxe horrek, nausi guziak bezalakoa: batzuek ona eta gozoa senditzen zutena, besteek latzagoa eta xorrotxa, gisa guziz ez da sekulan bi nausi berdi-



nik izan eta nausi berri bat heldu delarik ez ditake hau izan aintzinekoaren idurikoa: erraiten dugu orduan, batek ez duena besteak baduela eta bakotxak baduela bere alderdia, batean latzago eta bestean gozoagoa, kausitu beharko zaiona. Guk bi superior ezagutu ditugu semenarioan, biak biarnesak, hola gertatu zen; gero jin zen, gure ondotik euskalduna. Lehena aita **Grat Candau**, jadanik aipatua dudana, loak hartu ninduen hartan pilotatik landa. Bere xaharrean, maitatu ginuen, gizon fina baitzen eta gu apez on egiterat helarazi nahi gintuena. Ondotik jin zen, lehena hil-eta, **Roger Paraliu**, lehena bezain suharra eta berdin fina bainan hau bipilagoa, gu ere bera bezain suhar eta finak nahi ginituena: hortako zuketen zenbaitek ez beti konprenitzen, gure pottoka gazte hartan ginen denboran.

Baginituen gero beste erakasle-moldatzaileak, denak apezak, eta biga ez berdinek. Guretzat ainitz erran nahi zuten heien desbardintasunek, hola baiginuen bakotxak hauta heien artean. Erakasle balinbaziren, **gure moldatzaile** ere zirela erakutsi nahi izan dut ene lehen hitzean: gure arimen eta bihotzen moldatzaile nolazbait ere. Gizona gazte, azkar eta bolbora den hartan ere, oraino guri eta moldakor da ez-idurian: alde bat edo besterat bere hautuak eta formakuntzak egin artean, ez ditu oraino hartuak gero izanen den gizon haren pleguak. Hortako ginen hain zuzen semenarioan: ez baterre beste batek hezteko eta plegatzeko, burua berotuz edo teoria batzu sakatuz, hori ez! Bien elgar-lana dute hori, ahalaz adosean, solastatuz, bilatuz, ikertuz eta elgarrizketan hautuak eginez. Hori da Elizako kontzientzia moldatzaileek, aspaldiko esperientzia baten gostuz, ikasi eta erabilia izan duten bihotz-hezkuntza lana. Egungo egunean gizonaren barne-ikerlariak ere ekarri diote lan horri berea: psikologoek ekarri dute hor beren laguntza bainan funtsa bera dute hor Elizakoekek eta zientziakoekek: badut ustea laster elgarrekin konpontzeko errexak direla psikologo zintzoa batetik eta kristau kontzientzia ikerlari moldatzaile zintzoa bestetik.

Beraz, urtea hastean egiten ginituen apezgaiek gure hautuak: semenarioko bospasei apezetan berexiko zuen bakotxak

bere gostuko aita moldatzailea: haren ikustera joaiten ahal zen nahi edo beharra zuen aldi guziz: kofesatzeko, solastatzeko, edo iduritu gaiaz mintzatzeko. Bere gizona izanen zuen apezgaiak apez hura. Eta huna noradino zoan hori. Ez dut errana oraino bazela semenarioan **gure moldatzaileen kontseilua**. Ez zen batere kontrabandan eta ilunean pasatzen hori, nahiz beren arteko ixiltasunean egiten bazuten ere. Dizi-plina mailean gira hemen, delako erregelamenduaren hartan: eman dezagun apezgai batek ez zuela satisfamendu emaiten, bere lanaz, bere kartsutasunaz edo seriositasunaz, hala-nola zerbait ergelkeriaz hobendun ezagutua zela, nork utziko zuen hori erlisionekeo misterio sainduetarat, eta araberako karguetarat, aintzinzatzerat? Gutienez abisuño bat, kontseilu bat edo zerbait laguntza beharko zuen holako batek. Epe bat ere eman ziezoketen, hobetuko zelakoan. Hori ez bazen aski... hots, bazituen semenarioko kontseiluak holakoetan bere buru-hausteak eta azkenean eginbideak. Hauxe zen hain zuzen semenarioko aita-moldatzaile hartaz erran gogo nuen: dizi-plinako kontseilu hartan ez zuen apezgaiaren aita kofesor harek deus erraiterik bainan bera ixilik egoitea. Hunek bazakien alabainan apezgaiaren kontzientziako segetuen berri eta segetuak sakratuak dira: hortakotz ez zuen dretxorik han «bere» apezgaiaz mintzatzeko. Gauza ona zen kontzientziako errespetu hori: hola joan zitakeen bake eta fidantzia osoan apezgaia bere kofesorraren ganat, oro erranez eta aholku galdez; baitzakien han erranak han berean egoiten zirela.

Holaxe ginuen guk gogotik hautatzen, bakotxak gure moldatzaile-kofesorra: **aita Berrogain donapaleutarra**, hunek arrakesta haundia, ala **aita Barnetche behauztarra**, lehenago aita Amespil hazpandarra euskaldunetan, edo aita Lesbordes, Paraliu, Lanusse-Cazale biarnesetan, edo aita Sorre, Etchemendy, hunek izena zuen bakarrik euskalduna.

**Lana** ere hor zen. Zenbaitek uste zuten naski, denbora batez, mezaren emaiten ikastea ginuela xoilki gure semenarioko lana. Horrek ere ainitz balio du, mezaren ongi emaita; badakite segur girixtino ainitzek, berek diotelarik apez batez

meza emaile ederra dela, edo aldarea beztitzen duela, edo kantari xuxena, edo predikari ederra. Ez ahal da halere 25 urte arte istudiotan egoite beharrik, hortako bakarrik. Aski ditugu irakurtzea ebanjelioak, eta lehenagoko profetak, eta Paulo, Joani apostoluen gutunak: laster ohar gaitezke ez zirela eskola gabeak hola mintzo zirenak eta hola idazten. Egia erran, izan ditu bai hortan ere gora-beherak Elizak: hala-nola baitziren denbora batez, apezak mezaren emaitako bakarrik apeztuak. Ez dea erraiten, omen, **Sarako Axular erreter** haundiak bere liburu famatua, «Gero», idatzi zuela parte haundi batean Saran berean zituen jakitate tipiko apez batzuentzat! Artetik erraiteko, apez gutiagorekin daude orai Sara eta besteak, bainan ez haatik guti moldatuak heien aldean.

Bainan, zinez, zertako da apeza? Apezaren lanetarik bat da bakarrik mezaren emaita, haundiena balinbada ere. Beste eginbide bat badu apezak, erakasle lana. Eta erakasteko, behar da jakin. Horra nolaz diren bilakatu apezgaitegiak eskola-etxe. Semenarion zertan ari? Ikasten, bixtan dena, gogoeta eta otoitzarekin orobat.

Erroak edo harrobia baditu lehenik eliza-jakintzak. Eta erro horiek, edo harrobia, **Liburu Sainduetan** daude, horra nun dagon iturria, oraino bestela erraiteko. Liburu Sainduetako irakasle bat bazuen semenarioak, hortako bakarrik zena, Paul Etchemendy apeza gure denboran. Zer ez du egiten Elizak Liburu Sainduen hobeki miatzeko, ikertzeko, argitze-ko? Harrobia hor baita, Biblia bere testamendu zaharreko idazki guziekin, eta Ebanjelioak ondarrean, beti ari baitira hortakoak direnak harrobi zilo horren barnatzen, harrira atera, eta atera, bere lur tzarretarik etsitu gabe berex eta berex, garbi eta garbi! Alde bat baditugu, apez eta laiko, Jerusalem eta eskola berezietan gaindi dabiltzanak eta daudenak. Israelgo mintzaira, eta hizkuntzak, eta historia, ikas eta ikas. Semenariotik ere igortzen zituzten izpiritu argien batzu, beren ikasketen Lur Sainduetan egiterat, hango jakintsunekin beti argituago bilakatzekotan berak. Eta ez Jerusalemerrat bakarrik, eta ez Izkirio Sainduen ikertzerat xoil xoilik.

Beste ikasketak ere hor zirela erran dezagun, parada huntaz balia. Zenbait Jesusen herriko Iguzkialde hartarat bezala, horra ere bazirela gure semenario lagunetan, batzu Tolosako (Okzitania) Fakultaterat, besteak berriz Erromako frantses semenariorat, han aurkituz beren nazionekoak eta besteak. Erroman istudiatu dute zenbaitek Elizako Musika, Lesbordes gure erakasle maitatu zenak bezala, Elizako Zuzenbidea eta Morala, J. Hiriart-Urrutyk eta B. Goityk bezala. Gure eskolier lagun bipil horiek han ikasten zutena, Baionan berean ginuen guk gure hainean ikusten, gure teologia erakasleekin. Heiek Erromako edo Jerusalemeko ikasketen ageri bereziak bazituzten, eta baginituen guk ere gure etsaminak semenarioan berean gure erakasleen aintzinean; bainan baginakien gure herritarrak izanen ginituela jujari eta epaile zorrotzenak, beti heldu baitzen aldarekat eta predikalkirat predikuarentzat igan beharko ginuen denbora haren epea.

**Mailkatua zen arras ederki gure eguna** istudio horientzat: goizetan oren pare bat klase baginuen, aintzinetik gaiak aldizkatuak ziren, egun batez teologia, bestean Liburu Sainduak, edo Zuzenbidea, Elizako Aiten Historia eta holako. Aratsaldean ere beste bi oren. Eta klase horien ondotik, aratsaldeko krakada, ogi-ta-gasna edo erreximetarekin, eta horra aratsalde apaleko istudioa: hor behar ziren klaseko erakaspenak eta han hartu notak berrikatu, xuxendu eta osatu, ginituen liburuekin, hori dena zen bakotxaren egitekoa, ez beti errexena, bainan gisa batez behar zena ere. Hunekin pareka nezake nik bakotxaren lan hori: laborariak iraultzen duen alorra bezala: irauli ta, hala-hala uzten baduzue, berriz laster zikinduko da lur hura eta ez du deusik emanen. Aldiz ildoak berdintzen badira, lur mokorrak lehertuz, eta garbitzen, erro gaixtoak kenduz, azkenean hazi onak eraiten edo landare on batzu lerrokatzen, orduan bai itxura ona hartuko duela landak, laneko kuraia eta gostua ere berak emanaz artatzen duenari.

Guk, gure apaindura eta eraitzia haren osatzeko, baginuen sala gotor bat, irakurgai-sala deitzen ginuena. Han baginituen gure ganbara-bulegoan ez ginauzkanak oro. Oro eta guk balia ahala baino gehiago. Liburua beti kario, semenario-

ak berak erosten zituenak, eta bera harpidedun editore eta sal-tzaile etxe batzuekin abonamenduz, bazen han zernahi erre-bixta, agerkari, liburu, miatzen ahal ginituenak, notak eta ar-gitasunak bil eta bil. Zorigaitzez, orenak beti goizegi joko zuen, elizarainoko otoitz-itzuli bat ere egin behar eta ixtante-an afaria. Guk aldiz zernahi egin gogo oren bat eta erdi har-tan, edo gehixagoz, beti uste baino gutiago ginuen egina, ha-la-nola laborariari iluna nagusitzen zaiolarik, bere egunean egin beharra segurtatu gabe.

Biharamunean argituko duela erraiten du orduan labora-riak. Guk ere han holako zerbait, bainan nor da lanak oro egi-nik gelditzen denik? Erakaspen haundi bat bederen badago nik hemen ezarri ditudanetan, nihaurek sekulan meneratu izan ez dudana: bakartasun-lana. Semenariotan hasi ginen zi-nez istudio lanetan ikasten. Ordu arte, besteez manatu ikas-keta bat egin behar zela eta gero beste bat, textu lerrokada hau ikasi eta hura ondotik eta kitto, eta hartan geldi! Semenariotan ohartu nintzan ez dela lana sekulan bururatua: hau egin du-dala, baina hori behar nukeela, eta frangotan ezin! Eta, futxo, joan behar hemendik beste zerbaitetara, orenak jo baitu. Ha-atik, denbora berean griña horrek gaitu hezi, hazi eta molda-tu, gose horrek eman dauku beste gose bat ere, eta horrek ez du gelditzerik izanen bizi gireno... Gelditzea hiltzea da eta goazen aintzina, besteak ziona!

Libertatea bai ikasi dugu semenariotan, eta biba libertate hori! Neure buruaren jabe eta beti zerbaiten meneko. Aprendizgo bat hori ere. Denbora galtze aintz egin dut semenariot haundiko lehen denboretan... hastean, denboraren kudeatzen ikasi artean. Alta libertatean da gizonaren egiazko indarra, hor-tarik dator merezimendu eta irabazi guzia. Eskerrak zinez gure semenariotari: hantxetan, egunaren erdia bederen gure gain gi-nuelarik, eta nehor ez gibeletik gure akulatzeke, zaintzeke, guhaur ginen bilakatu laneko idia (orduan ez zen traktorarik), itzaina eta akulua denbora berean. Badut bai orai ustea ez dela holako akulurik, ez-eta holako idirik, ez-eta itzainik.

**Alta semenariotoko ixiltasun** hartaz ere banuke erraiteko. Hor ginuen lehenik gure konduko ganbara ixila, bakartasune-

an. Huna nolakoa zen gure ganbara. Bakotxak bazuen berea, bere lumeroarekin. Barneak ez zuen urgulurik batere. Ohea alde batetik. erresorta sare bat zuena zumier deitua eta gainen matalaza. aintzinago. alde beretik, mahi-bulego bat, zabaltoa. erdian tireta gotor bat zaukana eta, eskuinean edo ezker, nola gerta. beste bi sahets-tireta edo holatsu; beste paretaren aldetik harmairu bat gorattoa eta xokoratago lavabo ikuztegia. Eta ez dut ere ahantzi behar berriz erraiteko bazela ganberetan berogailu hodidun bat. nonbaitik etorri ur beroarekin berotu beharko ginituena. Ahantzter dut hori aipatzeko bainan ez zen makur haundia ahantzirik ere, ez bainau sekulan haren beroak erre. Ez ginen lotsa ez adin hartan, ur hotzarekin karrikaldi baten emaiteko negu minean ere lepondoari.

Bakartasun eta ixiltasun gune zen bertzalde apezgaiaren ganbara. Semenarioko hiru estai hartzen zituzten ganbarek, artebide zabal baten bi aldeetan lerrokaturik. Solasak eta elgarrizketak uzten ziren kanpoko denborako: han ginen, eskol' arteetan mintzatuko eta jostatuko oihu handiegirik gabe, beheerko klaustropean ere, berdin berdina. Barnetegi ziren, hots, ganbarak eta semenarioko estaiak. beraz ixiltegi. Bakartegi ere bai. bixtan dena. apezgaiaren ganbara. Xorrotxegia ez izaiteko lege hori. baziren halere onarpen batzu, behar den zuhurtziako mugen arabera zaintzekoak. Joan gintazkeen lagun baten mintzaterat. segurki. haren ganbara-bulegoradino. Haatik ahapeitik mintzatuz. edo halatsu. Lagun haren atean solasean egoiteko epea ere arrazoinki mugatuz eta bestearen ganbara barnerat bisitaria osoki sartu gabe. Lege hori bakotxak mugatzen zuen egia-erran zaintzalerik gabe: lagun baten ikustera joana zenak zango bat bederen beirutzen zuen kanpotik ageri. Azkenik, baginuen gauazko ixiltasun haundia deitzen ginuena: aratseko afal-ondoko orenerdi ahusamendua bururatuz geroz zeinuak emaiten zuen gauazko ixiltasunaren seinalea, biharamun goizeko askal-ondo arteraino iraun beharko zuena.

Ororen buru. erran behar dudana hau da: otoitz-etxe bat zela Semenarioa. Sartu-ta ezker-alde haren erdiz erdi, bazaukan kapera: kapera deitzen ginuen bainan eliza eder bat zen, goratasunez. bitraila argitsu edo berina koloratu ederrez

apainduak apez eta apezpiku sainduen itxurekin, apezgaien zurezko tokiak bakotxaren jarleku elgarri lotuekin, eta, aintzinean elizkizun ederren egiteko tauladura zabal ziratua. Han bai egin ditugula, gain hartako organoa lagun, elizkizun zinez ederrak, apezgai bat gure koro eta kantuen gidari eta gu denak kantari, apezgai gazteenek aldareko berettergoa eginez, argiekin bai eta kurutze, liburu eta intsentsuekin. Orozgainetik ezin ahantzizkoak dauzkagu guk han iragan oren batzu, batetik xaramelak, eta bestetik hor egin ditugun otoitz ixilak ere. Ez dea ote, horgo oren batzuez finkatu gure geroa, hor hartzen ginituelarik gure bizi guziko delibero-xede bultzadak eta finkatzen, federik hoberenean, biharko egunak, Jainkoaren eta gizonen zerbitzuko? Erran behar da ez ginela segur bakarrik, bakotxaren xede eta erabaki horietan: baiginuen guk indar bat paregabea: 28 lagun baginituen guhaur bezain gazte ta suharrak, urteko apezgaiak, eta ere... Euskal Herri gixtino bat, gure beha zagoena, itxura guzien arabera, orduko herrietan.

Hori zen gure Baionako semenarioa, orai arrotzen bezala hasia duguna nahi ala ez hainbeste denboraren buruan. Hori ere gertatu zaio gure etxalde edo jauregi ederrenen ere gertatu izan dena: denborak aldatu direla. Bokazioneak eta apezgaiak xuhurtzen hasiak zirela ohartu zen aski goiz Mgr Vincent, Baionako apezpikua. Hain zen haundia etxe hori, eta lehengo denbora batekoa eta gaurkotz desmodatua, nun ohartu baitziren buruzagiak, gastua nausi zuela eta fortuna gostako zela nahi bazen ongi antolaturik eta berriturik ezarri. Uste dut zenbaitek nahi ukan zutela Baionako Eliz'barrutiaren eskuko atxiki aintzina ere: ez ote ziren elizaren zerbitzuak oro horra biltzen ahalko? Apezpikua bera ez bazen, diosesaren zerbitzuak oro, eta kalonjeak, eta apez xaharren etxea, eta apezgaiak, bulegoak eta nik dakita, denak horra bilduz? Lekua ederra zen eta abantail zenbait bazukeen eskaintza horrek, bainan abantail guziak ez dira sekulan batean gertatzen: katedralea gisa guziz deskart eta urrunegi izanen zen eta ere, etxe haundi horren gastu izigarriak ez ziren ezeztatuko, egiteko ziren obra haundiak bestalde. Orduan saltzea erabaki zuen elizako kontseiluak eta beste Elizetxe bat egitea, ttipiagoa, era-

bilkorragoa eta zerbitzu hobeak eman ahalko zituena, gaurko mendeari zoakotenak. Erran eta egin! Baionako hiriak erosi zuen Etxea, bere Unibertsitatea hor egin, araberako biltzartegi, musika eskola eta xedetan zauzkan zerbitzu mota batzuekin. Biak hantxetan daude orai, bidearen bi aldeetarik, idurita beti hor eta hola izanak direla. Baderamate biek beren bide berria eta zerbitzua. Guk dugu bakarrik, gure urte hoberenak, gazte denbora alabainan, hortxetan iragan ginituenek, bihotzean ximiko bat senditzen, noiz edo noiz hor gertatzen girelarik biltzarre batean, edo berdin ikuska, non ez den kanpotik lepoa luzaka. Alabainan, ikusten dugularik han, korralearen erdian gure plazattoa, harrizkoa, iduri-ta Jean Lardapide Izpura Jauberriko apezgai harek bere beso luzez pilota sakatu behar duela, edo han, gibeletik Beñat Metche pagolarrak bere esku jestutsu eta seguraz, nahiz besoa laburrago, altxatuko diola sakea. Ikusten ere bai, hantxetan, bere bigarren estaian, Candau superioraren bulegoa, ez ote den handik bera agertuko, betaurreko lodi hura erhi batez baztertuz, begi ñaukel eta biarnes hartaz guri so; edo Gaxte, hazpandar baratzezaina, edo Xarlex suhuskundar mutila jatsarekin, bainan ez, ez, joanak dira denbora horiek, joanak xaharrak, beste mundurat ez bada, xaharretxe zenbaitetarar edo erretretarat. Semenarioko apez xahar hilen hezurak ere ereman zituzten hortik, eta behar ere: hantxetan daude, errespetuz ezarriak, Hiriburuko San Josep Apezetxearen inguru-pentze baketsuan.



## Zango bat barnean

---

**2**4 urte. Hor zen gure azken harat-hunata, gure betiko hautua, gehiago gibeleratzerik ukanen ez zuena, apeztu baino urte bat lehenago. Sudiakre ordena hortan zen hartzen eta finkatzen betiko engaiamendua, eliza-gizon egiten gintuena, betiko. Ez dut sekulan ahanzi semenarioko buruzagiak, hitz bakotxa neurtuz, bainan bere aita-bihotzarekin, eman zaukun hordago hura: «Oroit zaitezte, orai denbora deno, zeren egitera zoazten, gizonki eta libertate osoan. Baditutzue lagunak, zuen adinekoak, beste biderik hartu dutenak, beste maite baten amodioa bihotzean. Oroit eta pentsa zuek ere, aski goiz baita!» Solas eta ordu horiek 24 urteetan entzunak, ez dira sekulan ahanzten. Nik bederen estimatzen dut eta eskertzen, semenarioko denbora hura paregabea ukan baiginuen, gure buruen argitzeko, sendimendu eta erabakien, astiz eta artaz pisatzeko eta hots, delibero haundi horien neurtzeko eta izartzeko, merezi duten seriosotasun guziarekin. Geroa ez du nehork berea eta sekulan ez gira biharkoaren jabe. Halere, hau gogoan egona naiz frangotan, guk semenarioan izan dugun xantza edo suertea izan balute beste batzuek, hala-nola ezkontzaren aintzinean!... bainan bego hortan eta utz dezagun bakotxa berean.

Zango bat barnean ginuela erran dut, Eliza horrekin, gero eta barnago. Banituen ere lagunak 24 urte baino aise lehenagotik, zerbitzu edo kargutxo batzu hartzen zituztenak: bakantzetako haur kolonia edo oporraldietan egiten zuten zerbitzu ederrik ene apezgai lagunek, bereziki garaztar eta lapurtar zenbaitek. Nik ez nuen hori egin ikas-urte haren azkenean baizik: D. Garaziko Mayorga eskolan izan nintzan uda hartan haurren kolonia bateko ekonomia edo aita-hazle, esne, arrol-

tze eta baratzekari ekarriz Azkarate Bidartetik eta Espilatik bereziki. Eta, guziz, hau izan nuen oroitzapen haundia: Sauvour Auzqui apezaren erretor sartzea Lasan: ez ginuen arrotza guk arnegitar apez hori, Baigorri gure herrian bikari ginuena eta hango gazte ta herritar oste haundi batekin lagundu ginuena Lasarat. Eta ez zitazkeen alferretan izanak gure horgo otoitzak. «Tzauri eta zaude» errana zioten lasarrek sartzean. 47 urte atxiki zuten beren artzain, hots, xaharturik erretiratu artino bere biziko azken urteetan.

Ordutik, atxiki dut nihauk lokarri zerbait Lasako herriarekin eta herritarrekin. Hiru-lau urteren buruan, Mayorgan gertatu nintzalarik, bainan orduan erakasle, jin zitzaidan Lasako erretora, S. Auzqui hori bera, zerbitzu baten galdez: Oilarandoiko beila zen, Baigorrikoan, inguru hortako herriek batera bildurik egiten zutena izen hortako mendiaren kaskoan den Mariaren kaperan. Behar da jakin Mendekoste biharamunean biltzen zirela herri horietakoak kapera hortan emaiten zen mezarat. Oinez, bixtan dena. Huna zein diren herriak: Baigorri, Banka, Lasa, Azkarate, Anhauze, eta Irulegi, beren apezekin orduan, bixtan dena: eta meza ondoan airearen beneizioa eginez apez bakotxak bere aldian. Orduan hala egiten zen, apezak denetan baziren denboran. Orai ere irauten du beti beila horrek bainan xinglekiago.

Nik aipatzen dudan urte hartan beraz, 1955 edo 56 an zitateen, Auzqui Lasako erretora ez zen hain ontsa gertatu osasunez Oilarandoiko gaineraino oinez joateko. Erran behar da badela bide eta apez hori, Alemanian presuner egona, ez zela osasun haundikoa, geroago adin ederra bildu badu ere. Beraz, bere ordain galdegin ninduen, Lasako apezaren lana egiteko mendi gaineraino. Baietz ba, nik aldiz, gogotik, 29-30 urteetan. Gogoan dut beti, gizon multxo bat pollita bildu zen Lasatik, eta Beñat Iribarne Etxebesteko nausiak hartu zuen kurutzeta. Geroztik ere kurutzamenduak behar nituen apez bezala Etxebesteko familiarekin, eta azkenik 2.000 urte huntan Etxebesteko etxekanderea bera, Mari, bere azken egoitzarat lagundu dugularik adin haundian. Orai, Mendekoste biharamuneko beila ez dute hutsegiten ahalaz lasar zenbaitek, ez-eta

nihauk bainan ez orduan bezala: bide onttoa bada orai Lasatik eta Oilarandoira egina, gehiena gudroneztatua eta autoak baliatzen ditugu segurki bainan dena ere on; mendea aldatu da eta gu ere bai. Betiko atsegin bera dugu halere, lasarrekin lehengo oroitzapen horien aipatzeko: bizi direnekin, segurki, gero ere beste batzuek gureak kondatuko dituztelakoan.

Horra nola eremana ninduten zenbait urte aintzinago, apezgai nintzaneko ondar oroitzapenek. Garaziren ezagutzen hasia nintzaneko denborak ziren horiek. Garazi bere astelehenekin. Ene ekonomia lanak eremaiten ninduen maiz Donibaneko plaza hortarat eta horgo komertzio etxe eta nausi-mutilneskatoekin afera zerbaiten egiterat, Mayorgan ase behar nituen putiko heientzat (putikoak erran dut, denbora hartan berex ziren mutikoak eta neskatoak, eskolan bezala haurren koloniak deitzen ziren bakantzatoki heietan). Eta Mayorgan mutikoak izan ginituen 1950 urte hartakoan.

Hau ere zertako ez dut aitortuko hemen! Europa baturik aipu ere ez zen denbora hartan, Frantzia Frantzia zen, eta Espainia Espainia. Eta guk, futxo, hor berean ginuen, lau bat kilometraren buruko, Piarreñoeneko zubia, Untzoronerat eta Loposaitzerat hartzen duen hura, eta berehala gero Behereko Menttak. Zinez, gutarik urrun izan da beti tratulari trebea eta kontrabandixta bainan nork debekatuko ginituen iranja eder batzu edo muskatel botoila bat handik ekartzetik, bereziki prezio hartan! Gertatzen zitzaigun ba holaxet guardekin kukka ibiltzea Lasako pentze, erreka edo artebide batetik, guarden ondoan ez pasatzeko. Halere segur bezala naiz orai, guardek begia xorrotx zutela eta ikusiak ginela nunbaitik. Bainan bixtan da hauk ere hobeki ateratzen zirela noiztenka begiak hetsiz ezenez alferrikako lasterretan.

Donibaneko plaza hortan beti herritar zenbait ikusten zen, Baigorri, Bidarra edo Banka alde hortakorik. Orduan zirena ote gure artzainen eztabadak ardi-esnearen eroslee-kin? Eta beren aratheen prezioez inguruko harakinekin? Aratxe ainitz ateratzen zuten orduan Donibaneko merkaturat. Berderatzi ala hamarretan ez dakit, bazen tenore edo ordu bat merkatuaren hasteko. Laborariek hantxetan zituzten, bixtan,


Garazi eta Baigorriko harakinak, beste erosle haundi bat ere bai batzuetan urrunagotik jina. Hauk denak ikusiko ziren, merkatua has aintzinean, elgarrekin solasean, eta jakizue bazakitela tratulariek elgarren berri, laborariek zioten bezala. Laborarietan berriz baziren saltzale prestuak, laster amor emanen zutenak, beren gizona zuten eroslean behin fidatuz geroz. Eta baziren saltzaile gogorrangoak, beren kabalarentzat doi bat estimu eta bi sos gehiago ukan artean barkatuko ez zutenak, hala-nola gure otto Piarre, tratulariek ere ezagutzen zutena irriño batekin. Goizean ziren horiek, aratsaldean emaztetso merkatua, eta heiek ere beren aferak izanki, ez baitzuten gutiago balio.

Semenarioan errana zaukuten, bainan errana bakarrik, nola beharko ginuen ikasi gure bidean ibiltzen: zango bat barnean bai, elizako mundu hortan, bainan bestea kanpoan, orai-ko munduan; eta bi zango horiekin maingurik egin gabe beharko ginuela ikasi kurritzen. Bigarren mundu horren berri ikasten ari nintzan Donibanen. Norbaitek kondatua zautan Basabürüko xuberotarraren ateraldia. Han ere, Atharratzen, astelehenetan baita merkatua, galdegin omen zioten gizonari: «Eta? Mezan zinena igandean?» Eta hunek: «Ez! Xankü (maingu) nündüzün». Eta aintzina: «Bihar, astelehenean, merkatian? – Bai, herrestan balitz ere!» Ba ote zen holakorik garaztarren merkatuan? Jendea segurik bazabilan, nasai.

Bainan xuberotarraren horrek gogorat emaiten daut neurekin dudan Xuberoko beste oroitzapen hau ere, nahiz ez duen ikustekorik orai arte erran ditugunekin. Hau bederen erakutsiko du, beti neurekin eta neure bidean nauzkala bi zangoak ene gisan: apezgaiarena eta euskalzalearena. Eskualzalen Biltzarrak izan ditugu denbora hartan, eta geroago ere, biziki arrakestatsuak, eta mundu bat biltzen zutenak, ez zahar ez gazte bainan orotakoak. Beha bada nor ginen joan urte hartakorat. Barkoxen zen Egun Haundi hori. Noiz, nun edo nolaz elgarganaturik ez nakike, hiru baigorriar joan ginen Xuberoko herri famaturat. Meza nausia eman zen pareta dilindako organo zahar arraro harekin, ondotik ohiko biltzarra, bazkaria betiko zikiroa eta ilar saltsarekin. Ondarrean, mintzal-

diak bururatzean, izan zen dei erlastu bainan fermu bat erranez: «Helduden urtean Baigorri!» Burua itzuliz, ikusi nuen ene auzoa zela, boneta buruan eta beharrezko makila belauenen gainean trebes: Aitatto, Battitta Iriart, ordukotz ene aitaren adintsua zuena. Hain zuzen hura bera ginuen egun hartako auto gidaria, nik ez bainuen oraino autorik. Horra nork ninduten Barkoxerat eremana: Battitta Aitattok eta Joanes Bombet Baigorriko errient ohi eta auzapez erretiratuak. Galdea hola eginik, Baigorri egin zen, Arce trinketean ondoko urteko Biltzarra.

Holakoa zen orduko Euskal-Herria. Eta holakoa gure herri-maitasuna, nehor baztertuko ez zuena. Aintzinean zauzkan herriko auzapez, apez eta jauneria batzu. Mirakulurik ez zuketen egiten eta denborak erakutsi du ez dela hori ere aski bainan holakoak ginen herritar kartsu batzu, ainitz apez ta apezgai ere barne. Harrokeriarik gabe hasi zuten orduko gizen zenbaitek piztura bat emaiten herriari. Indarkeriarik ez zen aipu, bai haatik Jainkoa eta Lege Zaharra. Gutarik ainitzendako mintzaira eta ohidurak izanen dira lege zahar hori, beste batzuek urrats berri batzu sortu artean. Haatik hauk ere ez dute sekulan ahantzi beharko noren umeak diren eta denen beharra izan duela herri hunek. Hobe segur elgarrekin konpontzen badira gure herriko indarrak!



1951ko ekainak 29, Baionan, hogei ta lau apez berri egin ginen, eta geroxago lau. Beherean, Mgr. Terrier apezpikua, Mgr. Daguere, Paraliu superiora eta 50 urte apeztasuneko jubilautiarrak.

# Urratsa

---

**J**IN zen 1950 urtea: sudiakre urrats haundiaren urtea. Argitasun zerbait zor diot hemen irakurleari. Hunek badaki, liburu hau hasi dudanean, 2.000 urtea ginuela, jubilau urtea: munduko Eliza guziarena. Jubilau urtea, hots! Jesusen sortzearen bi milakari.

Gure apez-jubilaua deitzen duguna besterik da: guk, 1951 urtean apeztu ginen klasakoek, 2001 urtean ospatzen ditugu gure Ordenako Sakramenduaren 50 urteak. Hortako erraiten dugu gure apeztasuneko jubilau-urtea dugula 2001 ekoa. Hots, gure apezteko hari Apez-Ezteien izena emanez, erraiten dugu gure apeztasunaren urrezko ezteiak ditugula 2.001 huntan.

Goazen orai gure Urratserat, gure engaiamenduko Urrats haundirat. Bainan zein izan zen eta noiz ote gure Urrats haundia? Apezak bazituen apeztasunekoa baino lehen beste bi urrats egiteko: lehen sudiakre egin zenekoa, eta bigarrena diakre ordenaziokoa. Horietan bietan, gizon bat Elizari lotzen zuen lehenak, ezkontzak gizona emazteari lotzen dion bezala, eta hori betiko batasun batentzat; hots, ezkondua zen lehen ordena horrekin, gizona Elizarekin, beste batzuek bezala emazte batekin ezkontzeari uko eginik, Kristoren hautua ginuen egina betiko eta ez emazte batena.

Guk beraz 1950 eko uztailaren 29 an egin ginuen sudiakre urratsa. Orditik ginen egin Elizako zerbitzari kargudun eta otoizle, apezten otoitz ofizialetan partedun. Uste dut 21 sudiakre egin ginela uztailaren 29 hartan; gure urte bereko batzu ordenatu ziren eta gutaratu beste egun batzuek, baktotxa bere arrazoinez. Hala nola, bi aldudar lagun: baginuen Jan Batixt Itzaina gure klasako aldudarra, Mentako semea, misio-

nest egitera joana zena, semenario haundiko urteak han bururaterat (MEP edo Missions Etrangères de Paris delakoan). Geroztik misionest egina du aldudar lagun horrek bere apeztasuneko bide guzia, batean Malaisian eta bestean Erroman eta Pariseko misionesten etxean. Beraz, Alduden berean eman zion, herriko elizan, ordena Mgr Urrutia apezpiku misionest bere osebak J.B. Itzainari; eta harekin batean ordenatua izan zen ere Alduden Leon Erramouspe sudiakregora, 1950 ko Uztailaren 16 an izan zen hori. Ondoko urtean haatik gurekin apeztukoa da Leon Erramouspe, ene bigarren kusia, Baionan 1951 ko ekainaren 29 an.

Badea zinez munduan besterik, guk bezenbat ukan duenik? Gure etxeokotarik haste: errana dut ene anaia ardien deiztera joan zela 12 urtetan, bere eskolako zertifikata pasa eta biharamunean berean. Eta nik 25 urte bildu ditut ene ogiaren irabazteko lanik egin gabe beti ikasten eta beti moldatzen!

Eta oroitzen naizelarik ene gazte lagunez: eman dezagun, familia baten kargapean gertatu ziren batzuek... beren karga eta erresponsabilitateeri pentsatzeko ere denborarik izan gabe, formazionerik are gutiago, denak gero ikastekotan, biziari eta geroari konfiantza eginez lotu baitziren! Eta ikusten dudalarik horien aintzinean zenbat urte, oren, ikasaldi, liburu, laguntza, denbora, diru, gostaia naizen ni apeztasunerat heltzeko! Orduan da ikusten zenbat eman daukun semenarioak.

Horiek denak haztatuz eta pisatuz, zinez, ene burua zortetan daukat ni hazi eta hezi nauen mundu eta kristau sozietate huni buruz eta lehenik ene etxeokeri eta, nundik ez, ene semenarioko arduraduneri!

Diakre ordena hura izan zen apeztasunerako azken maila. Hala da sudiakregoarekin klero-mailan sartuak ginela baina ez oraino diakre, Apostoluen Egintzek aipatzen dituzten Extebe, Laurendi eta besteen mail hartan. Diakreeri beste bi ahal eta kargu zaizkote bizkarreratzen ordena horren egunean: badute Jainkoaren Hitza predikatzeko ahala, Ebanjelioa eta hunen erakaspenak zabalduz. Eta, bigarrenik, hartzen dute karguetan bataiatzekoa, Jesusen errana betetzeko: «Hedazue Berri Ona eta bataia». Doi bat xokorat utzia bezala izan badu Elizak diakrearen hori denbora batez, gure mendeak be-



rriz argitarat ateratu du eta ikusten ditugu orai diakreak, ezkongai edo ezkonduetan, Elizan beren ordenaren araberrako lekua eta lanak betetzen dituztenak.

Guk azken urtearen barnean hartu ginuen diakregoko hura ez zen ez bururapen bat izan, oraiko diakre ditugun batzuen bezala. Guretzat azken mailaren aintzinekoa izan zen hori bakarrik. Izan ziren gure lagun bakar batzuek, ordena horren botere berriekin, predikatu bat edo beste egin izan baitzuten Elizan, bataio bat ere halaber, beren kargu berria estrainatuz. Nik ez nuen izan holako paradarik eta, deus gehiagorik gabe segitu nuen ene semenarioko azken urtea, istudioak bururatuz eta neure bihotz arimak prestatuz.

Bihotz-arimen izpiritual prestakuntza horientzat, aipatuak ditut jadanik semenarioan ginituen gogoeta aste edo erretreta espiritualak. Baginituen ere, urtearen barnean, egun bateko gogoeta eta otoitzaldiak, seriosotasun handiz segitzen ginituenak. Gogoetaldi haundi eta luzeentzat izan ditugu semenarioan predikariak, aski ezagutuak, urrungo jesuita bat, dominikar bat edo kaputxino, hurbilagokoak ere berdinean, hala nola Mgr Costedoat Ortsekoa edo Theas Lurdeko apezpikua. Eta hurbilagoetan, nehoi zorrik ez zutenak baziren Beloken berean, eman dezagun Aita Gabriel Hondet fraide «saindua», edo aita Thomas Dassance beskoiztar beneitano predikaria arras maite ginenena... guk aldiz denen beharra ba hartu bidearen ontsa bururatzeko, eta denak gogotik hartzen, gure gazte gose harekin batean.

Egun haundia hurbiltzen ari, berotuz zolan bere gisan gure sukarra bainan aingerukeria mindulirik gabe halere. Egia da, denbora hartan bihotz-barneko lana zela gehienik konda apezgaien hezkuntza eta formakuntzarendako. Oraiko gazteak kanpoari eta munduari idekiago prestatzen dira eta nork ez daki gaurko hunek hori behar duela! Gure orduko hezkuntzamoldeak axola gehiago zuen teologo eta izpiritual egiez, munduaren ezagutzeaz baino. Bainan ez baiginen gu komentatu batetako beharrak! Ari ginen ere, ondoko egunak gogoan. Orain zen ordua, ikasteko biharko meza nola kantatuko ginen, predikatuak berdinean, eta bikariotan izan ginituen gazte-

ak, heien patronaia, kirola eta laborari-langile munduetako ezagutza sozialak, horietaz denetaz baginuen zerbaiten eza-gutzeko tirria, bainan, mintzaldi eta kurutzamendu labur batzu salbu, axalean ginen oraino gu, horietan denetan eta geroari ginion konfiantza egiten, han berean argituko eta heziko ginela, ariz, ariz, mundu horien erdian gu ere.

Horiek hola, oro mugatu ondoan, nola ez aitor gure gogo-bihotzak kanporat ere airatzen zirela nolazbait ordukotz. Halako beldur edo errespetu apal batekin, baginabiltzan azken orduko laguntza batzuen ondotik: kantatzeko, boza markurra zuena ari zen lehen meza hura bere herrian kantatuko zueneko, treba eta treba. Bestalde, denek gogoan ginituen gure etxeoak, jendakia, lehen auzoa (Euskal Herrian hain konda den «kurutzeketaria»), nor beharko zen lehen mezarat komitatu, nehor ez ahantzi! Preseski ez dea gure herrietan ohidura zahar bat hau ere, norbaitekin zerbait izana duena berriz baketzen baita, familian zerbait parada, bozkario edo dolu, etorriko denean. Halere, gu aspaldian semenarioan ginen eta ez ginuen holako kezka ainitzik. Familia eta etxeoak ziren herrian, gu baino axolatuagoak, Lehen Meza Eztei heietan egin beharko ziren herriko komitatze eta bazkariez.

Horiek hola, behin semenarioan noizbait gertatu zen bat ez duta hemen kondatuko nehor izendatu gabe? Izan zituzten herri batean gataska saminak bi familia auzok, eta bietan apezgaiak izanki: bai-eta, batek hau eta besteak hura, eta biek arrazoin... izigarria gogoratzerainokoan armak eskuan! Bietako apezgaien hau zertako ez duta hemen salatuko, hain denaz geroz erakaspentsua; nik bederen erosi bezala salduko dut: apeztasunerako gogoeta asteen, semenarioko otoitzen artetik, izan omen zen heietarik bat, aratseko ilun beltzean, beste lagunaren bulego-ganbaran: barkamendu galdatzen eta Jesusen bakearen egiten, elgarrekin, aldarerat igan aintzin.

Nik ere banituen neure griñak, ez haatik gisa berekoak batere. Ene ttantta Mañaña Amerika Buenos-Airesetakoaz nola ez naiz hemen mintzatuko! Ene biziko kasu hunkigarrietarik bat dut nik izeba horrena (gure amaren ahizpa). 1928 an joana zen itsasoz haindirat Urdoz-Karrikako Mixel gizon-

gaiarekin han bereaz egitekotan. Luzatu gabe hantxetan ezkondu ziren, baina 39 ko gerlak debekatu zituen berriz itzultzetik beren hiru haurrekin, hauk artean sortuak. Areagoa gertaturik, urte laburrik barne, senarraren hiltzea, horra nolako zorteak zituen Argentinan berean itzatu denak, betiko. Gure gutun eta letrekin elgarri osoki josiak egonik, nola nuen nik ene apeztasuna ospatuko izeba gaixoa komitatu gabe?

Etorri zen etorri gure ttantta alargundua 1951 ko ekainaren 29 hartako xuxen: bere haurretan gazteena zuen Mari-Angele 17 urtekoarekin. Beste bi umeak, mutikoak, etxeko lanetan utzirik han berean. Hantxetan diot ttanttari musu eman lehen aldikotz, Baionako katedrale gotikoaren atean. Kantu eta organo xaramelen artean egin ginuen elizkizunetik jalgitzea, guk hogeitau lau apez berriek (geroago apeztu ziren, abendoaren 8 an gure klasako beste lauak). Nik ezin ahanzizkoa daukat, ene apez ordenarekin batean ttanttaren lehen aurkitze hura, ene familiako guzien artean, ezker aldetik nuela han oraiko ustez; hura nigarra begian, ni berriz, lehenagoko bi urtetan besoetan erabilia ninduen haurra, eta geroztik ez ikusia: eta orduan ni apez, 25 urtetan. Hau behar duta salatu? Izeba gaixoak erran izan daut berak geroztik, zer izan zuen lehen hitza, ene aitari musu emaiten: «Ah! Mañix! Oroitzen zireta zuk lagundu baigintutzun untzirat, joaiten: biga joan ginen Michelekin eta orai ni bakarrik heldu!» Eta gure aitak ere, halaber, gure ama galdua, lau urte lehenago. Ez, ez! Ez dela beti josteta bat bizia!

Mgr Terrier izan zen gu apeztu ginituen apezpikua. Hura bai gizon ona eta gutarteko apeza izan ginuela Baionako diosesaren buru. Gorputzez gizon azkar eta doi bat betea, hala halakoa zen bere jitearen gozoaz eta bihotzez ere. Menditarra gu bezala, gu baino gehiago, Alpesetako mendi gorenen Savoie lurraldekoa zen. Laborari sano baten treitu eta gostuak zituen. Hori badakite oraino, ezagutu duten lekuindar eta aihertar laborari-langile xaharrenek, besteak beste. Bazuten orduan Baionako apezpikuek beren bigarren egoitza Lekuienen, Karrika etxea. Hor Baionatik 30 kilometretan doi-doia, egiten zuten Terrier bezalako artzain arrunt batzuek beren ai-

re-berritzea. Ezagutzen zuten segurki, Tuturruteiko, Mendi-berriko edo Xedarriko herritarrek, beren landarako bidean agurtzen zutelarik, eta solasean gelditzen beren arto, belar, hazindez eta egiten zuen aroaz. Gaixo apezpiku ona, urte bazuen buruan, minbiziarekin hila da pairamen haundien artean, baina orotzape gozoena utzirik. Lekuine-Karrika ge-roztik saldua dute apezpiku berriek herri hortako familia ba-ti.



Apeztu nintzanean, aita eta hiru anaiak  
gelditu ginen, ama zendurik.

# 1951 an apeztuak girenak

---

*CAMINO Joseph, COUDROY Albert, DONETCH Jean, ERRAMOUSPE Léon, GARAT Louis, GOITY Bernard, HOURQUEBIE Pierre, ITURRIA Gabriel, LACOUTURE Henri, LAHAILLE Albert, LANGLA Jean, LARRE Emile, MONCAUBEIG Joseph, OLHASQUE Sauveur, POMMIEZ Maurice.*

*ARBELETCHÉ Jean-Baptiste, BELHAGORRY Jean-Pierre, LARROUDE Charles, MAYSONNAVE Pierre-Marie.*

## **Zenduak**

*BERROTTE Lucien, DEBAIG Raymond, DORDEZON Pierre, ETCHEGARAY Pierre, FERRENET François, HIRIART-URRUTY Jean, IRIGOYEN Jean, PECOITS Jean-Louis, POMMIÉS Paul.*

## **Geroxago apeztu lagunak**

*IRIART Théodore, LAGISQUET Robert.*

Eta gu, nor ginen, urte hortako apez berriak? Hamalau euskaldun. Beste biga baditugu, adinez gurekin beharrak zirenak bainan geroxago apeztuak, osasun edo beste arrazoienez. Apeztu-eta, ondoko igandean eman ginuen lehen meza nausia bakoxtak gure herrian. Nik Baigorri eman nuen, herriak parte hartuz eta guziz herriko kantarien koroak Peio Erramouspe gidari. Belarren egitea hastekoa baitzen, edo doi bat hortako gibelatua nahitara, etxeko sabaia hutsik eta garbiturik ezarri ginuen bazkariarendako. Aratsean herriko kantariak, ene kantari lagunak, ni heiekin ibiltzen bainintzan ahal nuelarik, etorri ziren afaitera. Hau ere erran behar duta? Kan-

tari lagun batek erran izan daut sanoki orai erosi prezioan saltzen ahal dudan hau: «Errak. Emil, nik hire lehen mezaren arats hartan egin nian emaztegaia! Badakik, besteak baino lehenxago joan bainintzan afal ondoan: hitzordua banian emaztegaiarekin!» Bi senar emazteek beren gisan lagundu ninduten beren etsenpluaz eta atxikimenduaz bederen, eta beti segitzen. batek hemen berean eta besteak beste mundutik, neure apeztasuneko bidean.

Urte hartako apez-lagunak oro elgarretaratzen gira urte guziz: urte batez Euskal Herrian eta bestean Biarnoan. Agurrak egin-eta, meza emaiten dugu hautatu tokiko elizan, Joseph Camino kantuen gidari semenarioan bezala. Predikua gutarik batek egiten du eta lagun hilez oroitzen gira izenak emanek. gero bazkaria. Lagun hilak bai: urteak joanez bezala. baditugu. 50 garren huntan. bederatzi lagun galduak, eta ez txarrenak. beti bezala: euskarazko liburu huntan ditugu, euskaldunak baizik ez aipatuz. hek dira Pierre Etchegaray hiletarra, Jean Hiriart-Urruty hazpandarra, Jean Irigoyen ainiztarra eta Jean-Louis Pecoits lakartarra. Jainkoak berekin dituela, gu ere haren ganatu artean!

# Hazparneko Bikaritegia

---

**2**5 urtetan lanerat! Adin haundia zen denbora hartakotz. Errana dudan bezala, gure haurrideak 12 urtetan zertifikata pasaturik etxeko lanetan hasten ziren garaian, eta beste batzu mutil joaiten, edo aprendiz. Gaineratekoan, mediku edo maraxelgaiak ziren hoin luzaz egoiten eskolan, edo apezak. Gu beraz, hasten ginen, ordu hartan, behaka: nun baitzen bikario leku bat hutsik eta asmaketan, norat igorriko ginituen apezpikuak. Baziren ere ikastetxeak: Hazparne, Maule, Uzta-ritze Euskal Herrian; edo Baiona, Miarritze eta Biarnoko Nay, Pau, Oloron, Ortese eta gehiago. Baziren ere, bestalde, herrietako eskola girixtinoak, Kanbo, Hazparne, D. Garazi, Donapaleu, Urruña... Herri ttipiangoetan ere izan dira holako eskolak, Aldude, Altzai, Ortzaizen bezala... holakoetarat ere baziren erakasle igorriak.

Astetik astera agertzen baitzen Diosesako astekaria, haren beha egoiten ikasi ginuen, noren izendatzeak ikusiko ginituen han. Guhaurentzat ez ginuen handik igurikatzen bainan nork erran hori ere? Ez ziren oraiko denborak, gutiz gehienetan apezpikuak, edo maizago haren ordainak norbera mintzatzen baitu orai, kargu baterako mezua eman baino lehen. Denbora hartan urrunago eta jaunago ginituen buruzagiak eta hauk berak ere ez ziren orduan auto baten jabe.

Huna beraz nola izan zen guretzat. Hasi ziren pirka-pirka berriak agertzen: hala nola J. Hiriart-Urruty Baiona Santespietarat bikario zoala, L. Erramouspe Itsasurat bikario, J. Donetch katedraleko kantari ttipien erakasle, J. Luis Pecoits Biarnorat... eta gurerik ez ageri. Biga izan ginen, udako egunak han harat joaki-eta, herriko plaza gainean tente zauden ebanjelioko mahastizainen gisan: «Nehork ez gaituelakotz

hartu!» Jean Irigoyen ainiztarra eta ni hola ginauden, biak elgarri so, bainan ez haatik lo. Errana dut asmaketan ari ginela. Eta huna hain xuxen bi herri begiztatuak ginituela bikari baten hutsa betetzekoa zutenak, Donibane Garazi eta Hazparne. Hori ginuen erran elgarri «Badituk ba hor bi herri... haatik nik ez nikek Donibanerat joan nahi!— Alta nik ere ez Hazparnerat!»

Denbora berean, gure herabe hura beti gurekin izanik ere, gaztea gazte eta bero baita, gustatzen ginen gure lehen urratsetan, zerbitzu batzuen galdea ginuelarik. Huna heietarik bat: herriko bestak zirena, batere ez nakike orai, izan nuen baigorriar apez baten galdea. Mugerrerat. Herri eder hortan zen erretor, Pierre Hariñordoquy, Baigorri Plaza-Indianoeneko apeza, jada aipatua dudan Beñat espartin-egilearen semea. Komitatu ninduen Mugerreko bere parropiarat, meza nausiaren kantatzerat. Bera predikari haundia baitzen, ez zautan lan hori aipatu batere eta enetzat hobe!

Haatik hasi beharko nuen egun batez hortan. Hain zuzen, banakien, norbaitek zerbait salaturik: Andredena Maria Agorrilakoan hain segur norbait beharko zuela Baigorriko J. Olhagaray erretor onak predikatzeko. Horren beha bezala nindagon, noiz-eta beste eskaintza bat heldu baitzait, Gabaditik. Amikuzeko herritto hortan zen, ene eskolako lagun P. Hourquebie ren herrian, Jean Chipy erretora, Baigorri bikiari egonik, Amikuzerat izendatu berria. Bikari ohia Baigorri maitatua, ni harekin ausart, eta lehen prediku harentzat jende arrotza Gabadin, zer gerta ere, berehala eman nion baia; zuk juja, irakurlea, heian Baigorriko prediku hartarik eskapatzeko emana ote nuen Gabadikoari holako bai presatua. Bazen naski hortarik. Beharrik hain ona baitzen Olhagaray jauna. Bainan huts ttipi hori, urrikiturik, zuzendu nuen eta ordaindu lehen paradan.

Nola konpreni hastapeneko herabe uzkur hori, gure lanari bero-beroa lotzeko kenkan? Errana dut jadanik. Ez ginen batere ausartak orduko gazteak, eta gure herrietakoak halatsu. Gaurkoak etxetik goizik jalgiak dira, beren eskolatik haste, kurrituak, kanpo herrietan ibiliak, mintzaira ikasten, auto,



moto eta permisen jabe goizik. Orduan zen gazte apala, uzkurra, herabea, eta gu apezgaiak berdin. Ez dugu erranen bat hobe delako eta bestea ez, hori besterik baita, bainan bakarrik beste mundu bat ginela gu.

Eta gertatu behar zena gertatu zen gurekin: Jean Irigoyen Donibane Garazirat izendatu bikari, eta Emile Larre Hazparnerat. Bizikletean joan nintzan larunbat aratsalde batez ene posta berrirat. Urriaren ondarra zen ordukotz, Omiainsandu hor berean. Mgr Mirande ene erretoa zaharrak errana zautan aski nuela Omiainsanduko meza nausi hartako prediku bat prestatzea. Prestatu nuen segurki, eta dena hitzez hitz ikasi, jendeketa harrigarri haren aintzinean hitz xoil batez baztertu gabe eman bainuen.

Meza eder eta hunkigarri hartan, eni eman zautan jaun erretoarak gizonen eskea egiteko, kalerietan. Hor agertu zen haatik ene aprendiz durdura bat. Badu Hazparneko eliza ederrak, lehen kalerian, herriko kontseiluko korotegia, buruzagien errespetuzko lekua, beste izen bat ere baduena, omen, bainan bego hortan. Kaleria nasai eta lerro bikoizdunetan ibili nintzan ni ahal bezain xuxen eskean, salbu... kontseiluko koro haren barnerat nihauk sartu behar-eta, utzi nuen alderdi bat, bestaldetik eginen nuela eta... beste aldetik kororat sartzea ahortzi. Besta haundi eguna hain zuzen, ez zuten hortan barkatu jaun mera, axuant eta lehenek: sankristiaraino jiten beren sosarekin ikusten ditut oraino, eta entzuten erretoa zaharrari ziotela: «Ez da ez deusik, jaun erretoa, ikasiko du bikari berriak bainan egun ahortzi baigitu, huna, Jauna, gure eske saria». Hori egin nuen, Hazparnen, ene lehen pettoa.

Ikasiko! Daukat zerbait ikasi dudala Hazparnen, eta ez eskearen egiten bakarrik. Hazpandarraren jauntasuna, hasteko ta bat. Eta jauntasun hortan ez dezala nehork haizezko betedura baten huskeria ikus. Har azu zuk, beharia, Hazparne herria bera. Denak nasai dira hor: herriaren eremu bazter zabala, pilota-plaza, eliza, hazpandarraren patxada, solas arraillanta, zuri behatzean hartzen duen astia edo haizina, denak! Hazpandarrak badauka zuretzat beti bere gaitetik irriño baten dirdiran darion jakitate ixurki zuhurra. Zuhur ere beteko

zaitu hazpandarrak bere gainditik: jar zaitte bada harekin, hazpandarrak eginen zaitu bera iduri, gozo eta baketsu, azkenekotz herritar ospe hortaz kotsaturik hartua izanen baitutzu zuhauk ere hazpandar aire bat, bertsuak ez baditutzu ere oraino.

Nausi xahartto bat nuela jaun erretora, hori errana dut lehenik, 79 urtekoa. Bainan egiazko nausia. Egiazko nausiak ez ditu denak berak egin behar. Lanaren banatzea du bere lehen eginbidea nausiak. Begia berak atxikiz. Hastetik eman zauzki-dan frogak, ez zuela ez begia, ez-eta beharria, tontotzen eta lanbrotzen hasia, izanik ere eskuan halako daldara bat. Kuraie, bekokia eta nortasun beharra sumaturik hain segur, ni, gaixoa, nintzan gazte urttunean, erran zautan: «Baduk aski boz eta mintzo argia elizan» (hura zen xuberotar abilarekin, horrek erran nahi zuen behar nuela oraino hobetu). Kantuaren hortan gineno, eman zautan Hazparneko elizan erabili behar ziren euskal kantuen zerrenda. Hiru mailetan: «hauk betiko kantuak, horiek aspaldiko xaharrago batzu bainan balioa badutelakotz, galtzerat utzi behar ez ditugunak. Eta azken horiek, berriak eta denborarekin sar-arazi behar ditukanak». Geroa gogoan zuen, bere xaharrean.

40 urte hartan Hazparnen zagon eta hastean zitakeen bezain bipil eta xuxen emaiten zuen oraino bere gisan. Lau apez ginenen artean laurdenkatuak zituen Hazparneko lanak: Manex Arbeletche lehen bikariak Elizaberri, Peña, Hazketa zola eta neskatoen patronaia eta bilkurak (langileria ala laborantzakoak). Nik Zelai eta Larrarte-Sohano alderdia, Labiri erdizka, eta mutikoen patronaia eta bilkurak. P. Andiazabalek eskola girixtinoa zuen berea, beste lan batzuekin, Mirande jaun erretorak beste ainitz, nausigoarekin. Baginuen ere haatik bosgarren apezka: Leon Larregain, hazpandar semea, osasun eskasez etxean zagoena orduan bainan asko lanekin hau ere bere osasunaren araberan, haurren patronaia, koroaren kantua, eta beste. Bere doi osasunekin da beti bizi eta pixkor, ainitz lan eginik, Lekuineko erretor ohia eta oraino ere han bizi, agian luzazko.

Ni bai, lagunez, ontsa eroria nintzala! Bikarioen etxea ginuen, Bikaritea izenak berak dion bezala, gu biendako, Manex Arbeletchek eta nik. Elgarrekin berehala konpondu gi-

nen, lehen egunetik. Alta, adinez baginuen 12 urte gu bien artean. Armendaritze Mehaberriko semea, bazuten beren familia ederrean bigarren apezza, Damatit, hau ene adin berekoa, Senperen eta Hazparden erretor egon dena geroztik, besteak beste., eta orai Donibane Lohizunen, ni Garazin bezala. Eta, Hazparden, baginuen gelaria, Mañexen kusia, Armendaritze Urrutiko Margarita, apezetxeetan izan diren gelari mutxurdirin paregabe horietarik zen: izan ahala xuxena bere lanetan, ele alfer guti kanpoan, beti han ginuen oro prestaturik jateko tenoreetan, lehenago, sehigoan, aberatsen etxeetan ikasia zuen bezala. Erasia marmarika batzu bai eginen ziozkan Margari-tak bere kusi apezari, bizia baitzen, bainan etxeko etxeko egiten diren heietarik, osagarriaren biltzeko, erraiten den bezala, bainan ez dugu sekulan ikusi mutur egoiten edo zinez hasarre. Pazientzia eskola bat zuen gorenaz ere beretzat, gu, ginen bezalakoekin.

Pazientzia behar zuen ere herriko gazteekin. Bikariteia-  
ren auzoan, lurralde berean, bazen Gaztetxea bere antzoki, zi-  
nema eta biltzarre-gelekin. Han ainitz gazte zabilan beti eta  
heiekin ere bazituen gora-beherak gelariak, bere oilo, arrol-  
tze, baratzerat maiz jauzia zen balona, eta guziekin. Oilo, ba-  
ratze eta horietaz bikarioek axola ttipia, berak behar izaiten  
zituen horgo auziak xuritu, gelari gaixoak. Horrek emaiten  
zion nortasun zerbait eta bera bezalakoak, gelariari. Behar ere,  
funtsean. Ezagutua da errana: gelari berria jiten delarik ape-  
zetxera, erraiten omen du, hastean, «apezaren oiloak», gero-  
xago «gure oiloak» eta azkenekotz, mintzoa goratuz, «ene oi-  
loak».

Horiek hola, bi estai zituen Bikariteiak Hazparden: gaina  
Arbeletche bikarioarena, eta andere gelariak xokoko ganbara.  
Behera aldiz enetzat. Bazen, huntan ere, bigarren ganbara bai-  
nan ez hutsa batere: gazte horien guzien tresneriaz betea egoi-  
ten zen, musika, teatro, pilota, balona, bakantzetako ateraldie-  
tako ta beste mila jostagailu, liburuki eta orotan baliatzen zi-  
renak. Hots, otsoaren burua salbu, denak baziren han.

Bikario berriak behar zuen bere laneko leku berria eza-  
gutu. Eta banuen nik zer ikas Hazparden. Ni Omiasaindutan

etorria, berehala gainean nuen Eguberri, eta hunekin Urtats. Ordukotz izanak ginen, bixtan dena, Zelaiko lurretan, alderdi hau enetzat izanen zena. Zelaiko eliza-kapera lehenik. Eskola ohi batean zen huntan kapera-sala egina, ortzegunetako katixima eta mezaren toki ginaukana. Eta, guziz, bazuen etxe horrek bere baitariko zaintzalea: **andere Zabalo**. Errients ohi bat zen hau. Emazte luzetto bat, euskalduna bere euskara zerratu eta ongi juntatuarekin, nahiz ageri zuen maiz frantsesez arizana zela bere ofizioarekin. Kaperaren zaintzalea, katixima egilea bereziki erakasle ofizioa utziz geroztik, bazuen andere harek errespetu haundia zelaitar haur eta haundiago ainitzek boneta kenduz erakusten ziotena. Funtsean, merezi zituen horiek oro. Zelaiko eskola ondoan, eskolatik etxerat joan gabe biltzen zituen kaperalat haurrak katixima ttipiaren eta otoitzendako. Haurren otoitzen ikasten ez zuen lan haundia egia erran, salbu familia bateko bizpahirurentzat. Ordu hartan etxean berean ikasten zituzten haurrek otoitz xeheak, komi-nione ttipia aintzin, amaxirekin ez bazen amarekin.

Amaxirekin erran dut lehenik. Mañex Arbeletche ene bikari lagunak baininduen argitzen, errana zautan: «Ikusiko duk, etxean amaxi baduten haurrek errotik badazkitela otoitzak, eta besteek baino lehen. Badiuk gure etxekandere xaharren beharra»!

Kurritzalea baitzen ene bikari laguna, eta oinez, bixtan dena, denbora hartan, bi arratsalde eginarazi zautan Zelaiko itzulia bisita labur batzuekin eta ikusiak oro agurtuz. Lehenik eskuin, Munixtan goiti joanik, Deniztea edo Kardinallea, Munorainoko bat eta eskuin Lorda, hortik erakutsiz, ezker, Tanteenea, Elorria, Zelaiko plaza, Peesenea, Hastinga, goraxago Jauregia eta guziak bainan horiek beste aldiko utziz. Lordan eta Peesenean bai! Ez nituena nik hor ene Uztaritzeko lehen superior zenaren familiakoak: hura bai, Garat xaharra, gu euskaldun laborarikiak hain maite ginituena bere garratzean! Azaroko aratsalde laburretan, laburregi zoan eguna bainan su emaiten zautaten bihotzean jadanik holako ateraldiek ni nintzan apez gazteari, denbora berean ene lehen herabe hotx hura oraino garaitua ez nuelarik ere. Bigarren ara-

tsalde batez Larrarteko auzoan gora osatu ginuen Okindeitik Dorrea eta Kaminorainokoa, Gerezieta eta Lekorne ezkerretik zein hurbil ginituen ikasiz eta agurtuz.

Hor laburzkan eta puntaz punta sailkatzen ditudanek hartu zuten halere iduri baino gehiago denbora, Bettigazteenerainokoa. Eguberri pasatu-ta erran zautan Arbeletchek: «Badituk oraino elizako kargudun eta laguntzaile onak ezagutzekoak gure herriko girixtinoetan. Ez ginen segur laburzkan abiatu beste aratsalde batez, beheiti alde Janbattitteeneko Amespil jaun andereak agurtuz, Itzuli Onan eta Lassustean mintzo bat eginez, Hazketako alderat Arbeletche eta biak. Alabainan, gu Abittuenerat orduko iluna! Ez nuena nik Abittuenera Jean Hiriart-Urruty bikari jeneral gaia, enekin apeztua eta ezin ahantzizko adixkide-mina! Hau ez dut segur behin kondatu ene adiskideeri bainan doala hemen halere. Abittuenean bazuten amatxi xaharra, ene apez lagun horren etxeko amatxia, 95 urtetan arras pixkor zagoena eta burua beti xuxen. Sartu ginen tupustez, batere jo gabe kanpotik zuzen zuzena Abittuenera sukaldean. Eta joan, hau ohargabea, Arbeletche supazterrean zagoen amatxiri «kuku» eginez. Gai-xoa orduan harritu, ez baiginituen sartzean ikusiak. «Kuku» hari, hau zuen xoil xoilik ihardetsi amatxik: «Bainan, nundik sartu ziizte?» Arraillant eta jostagin hutsa zen Arbeletche eta amatxik bigarren aldikotz galdea egitean, heian nundik sartuak ginen, erakusten dio, petik gora, laratzari goiti... ximinea xilo beltza, erranez: «Hortik!» Irri egin ginion Arbeletchen ateraldi frikunari, irri egin amatxi gaixoaren bizkar, bainan ez zen partida bururatua.

Etxeko berriak, Abittuenera, Jean apezta nun zen, ni nintzala bikario berria, Jeanen laguna, eta beharrenak pasaturik, ez ginuen ilunaren gatik luzatzerik. Beste aldi batez goizago etorriko ginela hitzemanik, hartu ginuen etxerako alderdia eta abiatu ate alderat. Bainan amatxik, Arbeletchen joaiteko agur hartan, erakusten dio, petik gora, ximineako laratza eta zilo beltza, erranez: «Etzireztea hortik joaiten, jin bidetik?» Gure irri zaflak! Badut ustea Xoriteiranoko ilun beltza argitu zaukula Abittuenera amatxiren erreferak.

Zelaiko gisa, izan ginuen zer ikas, Arbeletche ene bikari lagunarekin Hazketa eta Elizaberriko bixkarra eta xokomokoetan ere. **Elizaberrin** bai. Hor ere baginuen kapera ederra, geroztik ederragotua ere dutena. Hoditeikoek egiten zuten hor, Elixabet eta Maiuk, Laurent en kantu ederren artetik, Zelaian andere Zabalok egiten zuena. Kaperaren sahetsari bizkarrez dagoen plaza pollitarekin herritto baten estimuan daukate Elizaberriko jende guziek, gure Bastida-Urdozeko heien gisan (Baigorri) beren Elizaberri. Elizaberriko bestak ez dituzte ahanztekoak, Trinitate Sainduaren egunean. Horiek aipatu-ta, erakutsi zauzkidan Arbeletchek Elizaberriko gainak eta «oihanak» deitzen dituzten eremu zabal buluziak. Oihanik ez baita hor hanbat ageri, bai haatik Hazparneko herriaren zabal, bere zilomilo eta tontorrekin; lur berriak ere badira labora-lur eginak eta han dago, horien denen haindian, «Pilota-Plaza», bixkar bat osoa hartzen duen auzogunea orai etxe pollitez beterik.

Bere historia ere badu Elizaberrik, bertsu eta kantuek galtzerat utzi ez dutena. Galerianoaren kantua hor dugu gure kantatuenetarik bat, Plumagaineko zorigaitza gogoratuko daukuna sekulakotz, kantuak berak dion bezala.

Azkenekotz, erakutsi zautan ene bikari lagunak Belokeko komentua aldea, Peñako bizkarrak eta Pelloenekoak dituztenak lehenik. Horiek oro ez dauzka arrotz eta urrunak Hazparnek bainan bereak sekulan baino gehiago, legez eta bihotzez.

Hazparneko karrika eta hiri-barnea oraino berriago izan zen enetako. Elizarekin ez naiz berriz hasiko, hunen erraiteko ez bada: herria bezain ospetsuak dituela Hazparnek eliza-dorre hori goratasunez eta bere plaza-karkana, herri guziarekin bide-kurutze ezin hutsegina. Aintzineko mende ondarrerat egin zuten eliza nasai horrek ez ditu beiratu lehenagokoaren harri eder zaharrak eta ekei historikoak. Bakar bakarrik badaukate hazpandarrek urgulu zuzen batekin, oraino gure eliza guziak baino ere zaharrago den erromano harri famatu hura. Horiek hola, arrazoin haundiz zuen goretsi Otxalde famatuak bere 1883 ko bertsu ederretan hazpandarren eliza paregabea, 19. Mendeko herritarren fedearen lekukoa izanen dena luzaz.

Beste lekukorik eman du egia-erran Hazparnek geroztik: herri euskaldun horrek Euskal-Herriari eta munduari eskaini dion apez lerroa, Elizako kargu guzietan berduratua aurkitzen duguna: Aita Garat, Larregain eta Hazparneko Misio-nestetarik eta Mgr Mathieu Akizeko apezpikuraino. Denbora berean goresgarri ditu Hazparnek euskal mintzairaren argitzaile haundi eman dituen apez, kargudun eta izar dirdiratsuak, bere Broussain, Hiriart-Urrutyarrak eta geroztikakoak. Bai, zinez, enetzat ohore eta akulu izan nituela horien guzien hurbiltzeak eta, ez sekulan aski, ezagutzeak! Orai, denboraren buruan, atsegin berritu batean ikusten ditugu beti ordukoak eta berriagoak Hazparneko herrian. Eta hau ere: nolako gostuz zaindu diren hor hazpandar eta euskaldun itxurak: besteak beste, karriken eta etxe zaharren ohizko izenak, Pinatel auzapezaren eta B. Inchauspe segetarioaren denboran berrikatu zirenak P. Ipuay, A. Bordato, P. Espil poeta, J. Zabalo eta beste ainitzen argitasunekin.

Horien guzien ondarkin-ondorio bezala, edo gibel-sasoineko onjo gorringoen pare nituen nik jastatu, ene urte heietan, Misionestean eta San Josep ikastetxean, Euskal herriaren erle-kofoin izan ditugun langile guziak. Mentura xoil hunekin: atzo eman duen lurra ez ditakeela agor eta kazkarturik geldi bihar ere agian!

**Hazparneko lantegiak** izan ziren, horiek hola, beste guzien artean, edo heien gaintetik, 1951 hartan, enetzat lilluragarri. Ezagutuak nituen, hiru-lau urte lehenago, Mauleko lantegiak hango espartin egile nausi-langileekin. Huna Hazparnen zapeta oski egileak aurkitzen nituela. Eta Maulen ez bezalako gizon eta emazte uhaina zen, karririk gaineraino betetzen zituela lanetik bazkaltzerakoan, eguerdiko Anjelusaren lehen joa abiatu orduko. Zenbat ote ziren? Mila edo mila ta berrehun erraiten zuten, zenbaitek, hain segur batere emendiorik gabeko kondua. Mila ta laur-ehunetaraino bazoatzen besteren konduak, bederen lantegiko langileeri lotzen zituztelarik beren etxeetan josteko lanak egiten zituzten langile xoilak. Eta jende hori arras gutartekoa zen orduan: euskaldunak ez ziren bakarrek beren erdara euskararekin kutsatua zutela

nahi-t-ez. Eta igandean elizan ikusten eta mintzatzen ginuen jende hura. Astean sortu haurrak igandean bataiatzen ginituen oro batean, biga, lau eta seitaraino. Ez, ez luke behar uste izan irakurleak, gauzak neure ganatuz naizela hola mintzo. Nola zen orduan, erraiten ari naiz hemen, nihuneko alderdikieriarik gabe, duela 50 urteko berri horietan. Geroago zuten, ondoko urteetan, berek ere ikasi, eta erraiten hasi, bestelako mundu bat zela sortua, langileria industrialarena, eta berak orduz geroz ziren kontzientzia hartzen hasi. Xuxen edo makur, huntan dute beren urgulua ezarri luzaz eta luzaz herri hortan: Hazparne egon zadin langile bezain hazpandar.

Holaxe ginen gu, orduko giroak beharturik, biltzar eta gogoeta desbardinaren egiten hasi, hunekin hau eta harekin hura, nork bereak, eta bakotxaren baldintzak ongi ikusiz ahalaz, aldatzen hasiak ziren denboretan. Gu apezten lana ere ez zuen horrek errettuko, ez-eta arinduko ondoko egunetan.

Hola ginituen girixtino mailean, laborarien egintza katolikoa, laborari munduko gaiak ikertarazten zituena, langileria katolikoa, lantegietako gazte eta ez hain gazteekin. Denentzat orokorrena gazteen Patronaia ginuen, hunek aldiz orokortasun batean biltzen zituela gazteak, bereziki libertimendu, kirola eta biziko gai orokorren inguruan batetaratzen zirenak. Patronaiako musika ere orokortasun hortan sartuko zen.

Mirande jaun erreter xaharrak esplikatua zaukun, gu ginen bikario gazteeri, zer ginituen gazteria horrekilako eginbideak. Igande aratsaldeetan bikarioen lekua zen hor, bezperen ondotik, ni mutikoen jostalekuan, pilota, baloi eta zernahi josteta. Ilun nabarrean despedida emaiterakoan etxerat erretiratzeko errana zaukun, ahalaz abisu batzu eman-eta otoitz bat egiteko gazte heiekin han berean bildurik eta egin zitakeen orduan otoitz-giro hori errexki. Haatik otoitzarendako baginituen urrats formalagoak. Ilabetean behin, hirugarren igandean naski, bainan beste batez izan daiteke orobat, baginuen gazteen igandea, bat mutiko gazteena eta bestea neskato gazteena, kofesatzeko eta kominiatzeko. Ezagutu ditugu gazteria ederra zabilan egunak duela 50 urte Hazparden kaleria lerro beteka. Eta baginituen Lurdeko beilak, ez dakit zenbat urteta-



rik, gazteentzat. Oroitzen naiz Frantziaren hegoaldeko laborari gazteriaren beila biltzar haundia izan zela 1953 an hogeita-hamar mila gazte bildu zituena Lurden. Hiri hortako kirola-zelai ederra bete ginuen erakutsaldi zoragarri batekin: arruda haundi batez seinalatu zen hor, gure mendeko aintzinamenduaren arruda, gurekin edo gu gabe, bereari aintzina doana eta gurekin hobeki. Erran gabe doa gure urteko gogoetaldien bururapena zela besta hori, herrian egin bilkuren ondotik. Gure Eskualdun Gazteria ez baitzagon lo, badakit gazteak milaka izan ginela beila Biltzar Nagusi hartan Euskal Herri Iparralde huntarik 30.000 heietan. Ez dut uste horrenbertzeko gazteriarik bildu dugun geroztik laborari girixtinoenik, ez-eta besterenik ere. Orduan eta geroxago Eskualdun Gazteria horren apez arduradun zen Idieder ortzaiztar apez ezagutua, gazteen predikari guziz prezatua eta geroago Hazparneko erretor izanen zena.

Nik hemen aintz apezan izenak emaiten ditudalarik, ez da uste izan behar oro apezan eskutan zirela, apezek aintz leku balinbazaukaten ere. Gure gizaldian dira hain zuzen Elizaren aldakuntza haundiak abiatu, eta, guziz, laikoen formakuntzak eta gero-ta-gehiago gider beren eskutan hartzeak. Hasi ziren gure gazte batzu beren lagunez arduratzen, denen aintzinean mintzatzen, beren erabakien berek hartzen beren lagunekin eta elgarren artean. Hortarik dira geroagoko karguen jastatzen eta berak ere trebatzen hasi aintzak: ez ditugu ustegabetarik geroztik herrietako buruzagiak, eta gorago joan diren batzu, beren buruen eta herrien kudeatzeko gai bilakatu direnak.

Badakit ba ez dudala nik aldiz Hazparneko herri ederraren itzuli osoa egin, ez herriarena ez-eta herri hortako Elizarena ere. Nik bikari bezala jastatu ditudan gazteriako gai batzu ditut bakarrik hemen larri-larria aipatu; eta hori ere hango ene egun laburregietan.

Bi urte ditut bakarrik pasatu Hazparneko parrochia hortan, ixtantean erranen dudana bezala. Halere, bi urte horiek beren lehen herrestoa utzi dute nitan uste dudana, ene apeztasun denbora guzian ahantzi beharko ez nituenak. Hazparnen naiz ohartu Elizaren zabalari. Apezak, nehongo apezak, ez du

sekulan haundikeriazko gosturik bildu behar bere laneko, berak Eliza pobrea eta apala predikatu behar-eta. Bainan, den herri xumeeneko apez apalenak beiratu behar du xokokeria hertsu eta ximurtu batetarik. Xokokeria hitza ez da nik pentsatua batere: ene lagun zenbaiti dut ikasia hori, erran nahi dutelarik badirela herri batzu eta hango arduradunak beren bitxikeria xuhurreri sobera atxikiak daudenak eta mundu zabaletik heldu diren haize ederreri hetsiak. Hazparnen ez dut gaitz hortarik ezagutu. Behin, hazpandar adineko batek, nihauri bihotz eta bertute eman nahiz naski, erran zautan deplauki: «Hazparnen egona dena on da nungo nahiko!» Eta nik sinetsi! Bainan hitz osoegi horiek ere badute zerbait egia, alde xuxenetik erdizkatzekotan bederen, eta ez urgulutan sartuz.

Hazparnek beste zerbait ekarri zautan ene lehen urratsetan: ene sortzezko herabe hura haizaturik, neure baitako konfiantza zerbaiten hartzen hasi nintzala. Hau sinetsiko ote dautazu, irakurlea? Lehen urtean, predikuaren izkirioz hitzez hitz prestatzen emaiten nituen igandeari buruz asteko lehen hiru egunak. Gero hori dena ezin ikasiz beste hirurak. Eta aski uzkur nintzala ni horiekin ere igandea heldu zelarik! Bigarren urtea nuen predikatzeko, igande goizerat, ustegabeko gertakari bat azken orduan gaineratu zitzaunkun batez, baitezpada predikuan aipatu behar zena: orduan nuen, lehen aldikotz, irriskatu ene predikuan bi hitzez, gertakari hori, batere idatzi gabe eta ordu bereko ausartzia zerbaiti fidatuz. Eta hori Hazparneko elizan.

Elgarren errespetua ere ikasi dugu Hazparnen. Hazparne dionak iduri du denak berdina dauzkala, hazpandar guziak. Hori ez da egia, ez hor ez-eta nehon ere. Zapeteria mundu horrek erakutsia zuen emeki emeki, badirela langileak eta nau-siak. Erakutsia ere horietarik berexa dela komertsant eta tratalaria, eta, nundik ez, laborari mundua. Horien guzien griñak eta beharrak ezin-nahasizkoak zirela behar zen onartu. Gainerat, bazen Hazparnen ikasle eta erakasle mundu bat San Josep ikastetxea eta gobernuko eskolekin.

Xaharretxe eta eritegiak halaber aurkituak ginituen hor. Ospitalea ni baino lehenagokoa zuen herriak gain hartan bere xahar eta erretiratuekin. Bainan hau izan zen berria gure egunetan: eritegi-klinika bat, Blondeau medikuak ideki zuena 1952 an uste dudana. Serorak ere ekar-arazi baitzituzten, Bordeletik, serora irlandes eta beste, ni igorri ninduen Mirande jaun erretorak hango mezaz arduratzerat. Beharrik baitziren San Josep eskolan apez erakasleak, handik bildu nuen Harraoubere apez, isturiztarra, eguneroko mezaren emaitako. Kolejioko apez heietaz bai, behartu girela gu, parropiakoak, frangotan! Maiz han ginabiltzan, aste ondarretan bereziki, apez baten galdez, meza baten emaile.

Eta klinikako zerbitzua ez zena hor! Ene berri hartan, arras hunkigarriak izan ziren, ni nintzan apez gaztearendako, bi eri haundi, biak ere hiltzera zoatzenak. Bat zen Hazparne-Urruñaneko atxo xaharra, bere etxean zendu zena. Eta beste, beskoiztar gizon bat, hau gazteagoa, 54 urtetan azkenerat zoana hau klinikan. Eta denbora hartan, guti ziren, arras guti, apezaren sokorriak gabe joaiterat uzten zirenak. Oroitzen naiz ere, goizeko 3 orenetan izanik Zelai-Mantenutean, sakramenduekin.

Azkenik, kirola eta pilota mundua. Kirola solas, laster erranak ditut ordu hartakoak. Futboleak, baloi bati ostikoka bai patronaiako pentzean, bainan herritik kanpoko jokaldirik ez. Errugbian are gutiago. Pilota zen errege, Noizbait Elkar-tearekin Plaza berrian eta Berria trinketean, eta ere Union Basque orduko patronaietakoa. Horiek guziak segitzen nituen, gure gazteriari jarraitzea baitzen hori, Laco-Behengaray-Irigoyen-Detchart, izen ezagutuena eta gazteria guzia gibeletik. Joko Garbia eta Luzea (arrabotea) ere hazpandarrenak ziren beste ekipa haundien artean; J. Salaberry ren andana, geroago Mongour, Apesteguy eta besteak jin artean. Horiek guziak ditugu Hazparnen kurutzatu eta txalotu, herri-tar gazteriarekin segitu ere. Arduradunak arras ezagutuak eta omendunak baziren, Harriague, Darmendrail, Madre eta guziak, parropiarekin ere lokarriak zituztenak. Badakit behin komitatua izan nintzala ni ere, Berhouet apez eta Ayherzare-

kin, hazpandarrek Billabonan hangoekin jokatu zuten luzeko partida batetarat.

Bai, zinez, orotako on ez bada ere bilakatu, ainitz ikasi duela holako mundu zabala ezagutu duenak.



Holako merkatuak ziren Hazparneko abere portuan ene bikari denboran.

# Ortzia bezala

---

**H**OLAKORIK ikus dezake bere burua besteren esku ezarria duenak. Eta nik, futxo, hori nuen egina apeztasunaren galdea egina nuenean. Alta ez zuen gure apezpikuak hobenik, bere kargua zuen betetzen Mgr Terrier onak, ekainaren 29 hartan, obediencia galdea egin zautanean, eta nik baietz erran. Bainan zoazte zuek bihotzaren lokarriekin eta gazte baten gostuekin kontraka. Hazpandarrak ere ohar-tuak ziren ene gostueri, ez baitzautan gehiago nehork ere gal-datzen heian laketua nintzanetz, bi urteren buruan.

Alta hazpandar apez adiskide bat, ordukotz ni baino gorago zena, izan nuen lehen berriaren salatzailea: «Errak, Emil, badakika hitaz mintzo direla jaun horiek? Donibane Garazirat joaiteko; Mongaston apeza omen duk, Mayorga eskola girixtinoaren buru dena, Lakarrarat erretor joaiten. Eta hik behar omen duk haren lekurat joan, bainan ez batere berdin, beste kargu mota batekin: Laborantxako eskola bat hik sortzeko Donibanen, Garazi, Baigorri eta Larzabaleko kantonamenduendako». Ni harrিতua, zuritua naski, gelditu omen nintzan. Marcel Mendiboure apez onak, hura baitzen, ez ninduen ele on bat gabe utzi, bainan zer eginen zuen besterik ene gainera erori zen ortziaren pean. Narbaitz kalonjeak egin zuen gaineratekoa; bere jite legunarekin itzulikatu ninduen polliki: izanen nituela behar ziren laguntzak, ados zirela politikako kargudunak, Louis Inchauspe auzapez eta kontseilu jeneralaren burua hor izanen nuela desmartxa eta behar-ordu guzietako. Eta Mayorgan banituela bi lagun segur, ene adinekoak, bi urte gorabehera: Pettitto Berterretche lasar erakaslea eta J.B. Etcharren uhartiarra, hau izanen baitzen orai Mongastonen ordaina Mayorgako erakaskuntzaren arduradun berriat.

Hazparnen, izan ahala on eta goxo izan ziren gazteria eder bat eta familia ainitz ene joaitean bainan nik joan behar. Mayorgan hartu nuen, aintzinean, erdiko ganbara, Donibanerat beha zagoena gain-beheiti. Apezen ongi-etorria, Josep Lecuona erretor nausia eta J. Irigoyen ene eskolako lagun harena, hain goxoa izan ez banu, zinez urrikgarri izanen nintzan ni.

Berehala lotu behar zen lanari eta ez neure dolua gogotan egon bihotzari loturik. Hori bera egin ginuen: Louis Inchauspe-Xerbaxorekin eskola berriaren paperak (beharrrik harek baitzazkien denak), prefeturako urratsak, hots, hiru ilabete gabe xutik zen eskola berria, paperean. Haatik lekua ere behar zen: Mayorgak eskaintzen zuen gaineko eskolan arrabotearen eskuineko xoko hura, haurren pilota lekua. Arkitektoak egin zaukun plana, pilotako leku haren gainean bi eskola gela egiteko, bat ederra eta bestea ttipiagoa. Han daude, Donibanetik ageri, sei leiho haundi, orduan egin zirenak.

Batere urrun ibili gabe aurkitu ziren epe laburreko eskolaren altxatzeko ofizialeak (epe labur erran dugu zeren ez baita 1.999 urteraino eginen orai ezagutzen dugun Frantseseneko eskola berria Donibaneko Lizeoaren ondoan). Beñat Arbuza hargina aurkitu ginuen Donazaharren, mahaixturuntzarendako aldiz, Michel Cristeix eta Domingo Daguerre. Horra nolako lekuan hasia den Mayorgan Frantseseneko Laborantza Eskola. Ez baitira ordea bastizak aski, behar zuen, eta ukan zuen Frantseseneak sustengu zabala. Louis Inchauspek egin zuen behar zena hortan ere. Berak zituen, kontseilu jeneralean, Baigorri, Garazi eta Iholdiko hiru kontseilu nausiak mintzatu eta hauekin, Urepeletik eta Gamarterainoko 31 auzapezak halaber, guziera proposatuz eskola horren ardurapena, diruz eta beren funtsaren itzalez. Goragokoak ere bere gain hartuak zituen Donibaneko auzapezak: Jean Errecart eta De Chevigné deputatuak: badakit hauek biek orduko milana libera igorri zautatela ere nihauri eskola hastean.

Estrena egun bat behar zuen holako batek: hori egin zen ikastegi berrian berean, jauneria hori guzia gomiturik eta ahal zuten guziak etorri ziren, behar ziren mintzaldi beroak eginez, Azkarateko auzapezetik (adinezko lehentasuna gatik

hau) eta Louis Inchauspe eta Pierre Minjonnet Baigorriko auzapez jaunerraino. Pierre Narbaitz azkaratiar bikari jeneralak benedikatu zuen eskola, Josep Lecuona eta Mongaston apezak aldean zituela. Lehen eskolierrak ere hor zituzten ordukotz eta argazkiak han daude beti lekuko, batek bederen Guillaume Etchamendy (orai Azkarate Etxarteko nausia dena) erakusten baitu, eta beste batek Germain Esponda, geroztik Senpererat ezkonduarik, herri hortan auzapez guziz prezatua izana dena; holakoak ere eman baititu Frantsesenek eskolak besteren artean.

Erakasleak ere beharko zituela eskola berriak, laster atera ginituen konduak eta planak. Lau gazte mintzatu ginituen, Mongaston apez horrek berak ontsa ezagutzen zituenak, bere ikasle ohiak ukanak baitzituen eta bat bederen oraino berriberriki. Horietarik bat bere ikaslea zuen Mongastonek oraino, baccalaureateko istudiotarat prestatzen ari zuen berak. Hau zen Joanes Goyhenetche Ezterentzubi Intzabikoa, eta hunekin ziren Alexis Inchauspe Donazaharre Errekaldekoa, J. Claude Luro Gamarte Menddikoa eta Beñat Ahamendaburu-Haltzu gure artetik gaitzak eremana duena geroztik. Lau horietarik hiru auzapez izanak edo direnak, eta laugarrena ez da gutiagokoa atera.

Laborantza eskola Frantsesenean, laster aurkitu ginion izena, Jatsuko eta Donibaneko San Frantses haundia gogoan. Bainan zer erakaskuntza, eta nolako irakasleekin, lau horiek hoin gazte izanik? Aurkitu ginituen bi ingeniari, biak laborantzako diplomatuak: **Beñat Dassance** uztariztarra, herri hortako auzapez zendua dena eta bestea **Aita Adrien Gachiteguy** aldudarra, Belokeko beneditarra, eskola ber-berena jabea. Horiek biek zuten beren gain hartu Frantsesenek erakaskuntza, lehena jiten zen bere moto txarrean Beloketik Ma-yorgarat astearte goiz guziz, bere eskola-klasea emaiten, besteak berdin egiten zuen auto ttipitto batean ortziraletan eta horiek biek zituzten lau gazteak argitzen eta gidatzen, hauek kurtsoak emaiteko laborari gaiari. Nahi duenak nahi duena erran dezala, ez ditake oraiotik juja ordu hartakoa. Orai, 48 urteren buruan badituzte eskola klase, gela eta ordu guziek

beren irakasleak, formatuak, diplomatuak eta bat bestea baino prestatuagoak. Bainan orduan, hastapenak zituzten ikaske-  
ta eta Etxe horiek, eta lehen urratsak doi doa. Denaden, erra-  
dazu zuk, irakurlea, norenak izan diren hor zailenak, eta me-  
rezimendutsuenak.

Urteka berexi ziren ikasleak: lehenik gazteenak, 14 ur-  
tekoak, aste batez. Ondoko urtean 15 urtekoak. Azkenean 16-  
17 urtekoak, eta etsamina ororen buruan, laborantxako gaita-  
suna frogatuko zuena. Heldu da ikasleek aste bat zutela esko-  
lako eta biga etxeko. Granereau deitu Xarantesetako erroter  
batek asmatua zuen eskolatze mota hori, «Maisons familia-  
les» zirelakoak sortuz, mutikoen ala neskatoenak, eskolako  
lana eta etxekoa aldizkatuz ari zirenak. Guk **Donibane Ga-  
razin** egin ginuen orduan Frantsesenea mutikoentzat eta ba-  
zen ordukotz Argizabal, neskatoena.

Bi hiru urte barne sortu ziren, Narbaitz kalonjea bezala-  
ko sustatzaileekin, eskola gisa horiek: **Hazparneko** San Jo-  
sep eskolan, **Donapaleuko** Garikoitzenea eta Maison d'Art-  
hez, **Maulen** berriz, San Frantses ikastetxearen Bixta-Eder,  
hau Artzain Eskola bilakatuko dena. Horiek denak Laboran-  
tzako Ministerioaren kondu, programaz eta diru laguntzaz.  
Eta eskola horietarat joaiten ez zirenendako baziren ere EAC  
deitu ikasketa axalezkoagoak (Enseignement Agricole par  
Correspondance), herriko laguntzaile argituago batek  
(errient, apez edo beste) lagunduz zoatzinak Laborantxako  
norbaiten ardurapean.

Zenbait urterena eginen dute horiek guziek. Emeki eme-  
ki dira eskasegi agertuko, argituago bilakatzen ari den mundu  
batean, epe laburreko eskola horiek. Laster behartuko dira  
ikasketa luzeago eta barnagokoak, gazteek beharko baitute 14  
urtetik gorago ere eskolan segitu, laborantzako Baccalaureat  
eta Letretako edo Ofizioetako eta orain ezagutuak diren gu-  
zietaraino.

Apez eta herriko apez izana nintzana Hazparnen, ez us-  
te izan bide hari uko egina niola Garazin. Lehenik, uste dut  
aski erakutsia dudala nola nintzan hor, Mayorgan, Donibane-  
ko parropiaren lurretan. Mayorgako eskola girixtinotik berex



Frantsesenea, baina nolazbait ere, parropiak sortu laborantxako eskolan.

Gauzen argi uzteko, erran nezake, zango bat Donibaneko Elizan nuela eta bestea Eskualdun Gazterian (hau zen Euskal Herriko gazte girixtinoen muimendua).

Goazen lehenik Donibaneko Elizatik: bikario bat bazuen parrophia horrek, jadanik aipatua dudan Jean Irigoyen ene klasako laguna, Ainhiza Idiondoko semea. Harekin batean hartu nuen nik ere bikari titulua, eman dezagun hura lehen bikario eta ni bigarren, lehenago erraiten zen bezala, eta bien erretora, Josep Lecuona doaien ona. Elizako lana, liturgia, otoitz, kantu, prediku, eri eta holako zenbaiten ardura, hori baitzen nik nakien lana, horietan denetan hartu nuen ene doia, salburik ez nintzala ni osoki donibandarren apeza, bainan hangoen laguntzaile bat, guziz igandetan.

Inguru heietako gazterian nuen nik ororen gainetik, Donibaneko herriaz kanpo, ene kargu lehena: **kantonamenduko** laborari gazteekin asko bilkura, ateraldi, elgarretaratze eta beila, horietara bai aise ta gogotik lerratzen nintzan, arras neure gostukoa ez nuen erakasle lan hartarik. Jakin behar da denbora hartako bikarioek, guhaur gazteria haren adintsuko baiginen, zernahi kurutzamendu izan dugula orduko gazteriarekin. Denetan barne ginen, eta ziren gure gazteak berak ere: teatro, pilota, laborantxako besta eta elgarretaratze, Lurraren Bestak deitzen ginituen heietarik ainitz, egun herri batean eta gero bestean, kantonamenduka edo herrika. Baginuen gure kaseta ere, ilabete guziz ateratzen ginuena GAZTE deitua Euskal-Herriko Gazteria guziarena. Hartan eman zautaten Editoriala nik egiteko: betiko ixtorioa, beharra lege hor ere. Lehenik dudaz eta ez-jakinez hasten duzuna, gero han duzu bizkarrean eta ondarrekotz zer egin? Jo aintzina eta berma!

Jadanik askotan erraiten duguna: hartu bidea, eta nork daki norat eremanen zaituen? Zer nakien orduan GAZTE kasetarendako hitz batzu idazten nituelarik, beste kaseta baten egitea ekarriko zautala egun batez «behar» horrek, eta horra nola naizen orai HERRIA kasetan erdiz erdi, leporaino, eta hain aspalditik! Arte hortan, Eskualdun Gazteria hortako mu-

til-neskatoekin, baginuen zer egin: arduradunen aurkitzeak kasetaren saltzeko, idazteko, hedatzeko, eta dirua: Aljerian soldado zireneri; adrezak bildurik igortzeko kasetak, gutun eta elgarren berriak kasetan agertu eta zer lokarriak ez ote ginauzkan hemendik eta Afrikarainoko gazteria guziaren baitan!

**Eskualdun Gazteriaren** lan eta griñetan sartu naizen huntan, erran behar dut ez nintzala ni gazteen muimendu horren apez arduradunetarik bat baizik. Ukan berria dugu 2.000. urte hortan Heletan, Gazteria horren guziaren egun eder bat, historia luze bat berrikatu baginuen, gu baino lehenagoko Soubelet eta Ibarrart apezak eta Etienne Pochelu eta Idieder, Ellande Etcharren, Elixabet Irazoqui eta denekin josia.

Hau nahi izan dut hemen erran: Euskal-Herri guziari ederki bere hatza utzi dion Gazteria baten indarrean partialier izan zela denbora heietan Garaziko Gazteria girixtinoa. Jostura horien itze bezala baginuzke beti frogatzat oraino, orduko ezkontza batzu: hala-nola Garaziko arduradun zen Beñat Ahamendaburu-Haltzuk hartu baitzuen emaztetzat Senpereko M.C. Mendiboure. Eta badugu beste holakorik.

Eihalarreko herrian ere ez ote nintzan bikari egon, galde hori egin daut berriki, ene gisa oroitzapen xaharrak nahastekutzen hasiak dituen batek. Ohoretzat hartuko nuen nik gogotik herri hortako bikarigoa, Detxepare baten herrian, nik nituenen eta ez nituenen gainetik, bainan gauden dugunarekin. Huna zer gertatu zen, ni Frantsesenean egon nintzan guti hartan: J.B. Coscarrart, ene baigorriko herritar lagunak zuen batbateko bihotz-hutsegite bat izan. Aski lotsagarria ere zitakeen haren eritasuna beste nornahirentzat.

Denaden, medikua bera ere ez zuen guti harritu. Hunek erran zion deplauki, ezetz, ez zuela Eihalarre bezalako herri menditsu batean erretor ihardokitzen ahalko. Baigorriar kaskoa baitzuen berak, eta, gainerat, Eihalarreko herri hori gain-gainetik maitatua, onartu zuen medikuaren larderia, dena ez bazen erdia bederen. Onartu zuen gain-gainetik pausatzea, eta artatzea, behar ziren guziak eginez hortako, eta erran zion medikuari: hunen erranak oro (edo erdiak!) egin ondoan, auto xahar bat, okasionezkoa, erosi eta harekin egiten ahalko

zuela Eiheralarreko zerbitzua. Erran eta egin! Badut ustea 28 urtez egin ahal izan duela gure lagun baigorriar apezak herri hortako zerbitzua geroztik, eta zenbat lan eginez, eta nolako apez herrikoi maitatua izanez!

Neure hura ez dut ahantzia Eiheralarrekin. Nik asteko lanak neuretzat nituen Frantsesenean: Donibaneko apezkilaria egitekotan. Hauen baimenarekin, hasi nintzan Eiheralarrerat joaiten igandeetan Coscarrart apezaren ordaintzeko, eritasunean: goiz meza eta meza nausiak Eiheralarren eta Zaron aldizkatzen nituen, bezperak ere bai, aratsaldean, hauen ondotik hango gazteekin nindagon, loriatua; erran nion gogotik apezari, pausa zadien eta arta ere behar zen denbora guzian, eta ez kexa. Bederatzi ilabete iraun zuen horrek, nik gazte horiekin ofizioetarik landa, kantuak ikas, antzerkiak molda Etxeberriko sabaian... nihaurk motoko istripu bat ukan nuen artean... eta Coscarrart apeza pixkortzen hasi artean. Ai! Zer igande goxoak iragan ditugun han, gehiago gaurko denborakoa ez zen gazteria batekin! Ez dituguia hor kermeza batzu jastatu, Mattin eta Xalbador bertsulariekin, hain maite baitzituen hauk Baigorri Xihiteiko apezak berak ere!

Eta hor aipatzen baintuen Eiheralarreko gazteak, baginituen ba, gazte ez ziren batzu ere, ez ahantz errexak. Halanola Zaroko musikari bat. Ez ahal zen hau Faustin haundiarren mailekoa bainan kondatzen dute beti aspaldiko hau, Idiar-teko Mañexena: gazte-gazterik ikasia zuen hunek, zerbait bederen, klarineta jotzen. Eta, ihauteriaz kanpo igande batez, Zaroko gazteak bere klarinetarekin dantzarazi, omen. Jakin baitzuen ordea Lesgards apezak, eta Zaroko elizan ez ixilik utzi afera, bereak eta asto beltxarenak entzun baitzituen herriko klarineta joileak.

Jin zen apezaren Zaroko Eguna. Ohidura zen Eiheralarreko apezak ilabetean behin Zaron emaiteko meza-bezperak, eta besteetan Eiheralarren. Zaron apezetxerik ez, ez-eta gelaririk, etxe guziek aldizka hartzen zuten apeza igande hartan, bazkariteko. Jin baitzen holaxet Idiar-teko familiaren aldia, apezaren komitatzeko. Eta apezak komitik ez ukan. Apezak,

ixilik ezin egona, berriz ere erakutsi: «Ez dut ez egun komit-  
tik bainan bada herrian beste arima onik, beharrik!» Orduan  
Mañexek, galeriatik: «Noren faltaz, jauna? Eta zuhaur nola  
mintzatu zinen nitaz?» Eta haste, kalapita, Zaroko elizan. Or-  
duan bat izan zen elizako errespetua ezarri zuena, Kattalin  
etxekanderea, elizako serora: «Hi, Mañex, ago ixilik eli-  
zan! Eta zuk ere, jaun erretora, emazu ebanjeliotik!» Eta se-  
gitu omen zuen meza, Credoarekin. Bat eta bestea ezagutu di-  
tut nihaurek. Lesgards jaun erretora apez xahartu bat zelarik,  
bere herrian larderia eta itzal haundi bat zuena, Donetch Ar-  
negiko erretoraren denboran eta biak elgarren adiskide; Ma-  
ñex berriz, hura, Idiarteko nausi xaharra zelarik eta zer gizon  
pollita! Roger Candele mugertarra egin zuen Idiartean ondo-  
ko; hau ere gazte on eta zintzoa zen bainan, osasun edo zer-  
baiten gatik, ez zion segidarik eman ahal izan etxeari.

Horiek guziak, igandeko goiz-mezan ziren sorka-sorka  
beren kantu xaharrez eliza ttipia gogotik harrotzen zutela.  
Gero eliz'ondoko ostatuan bisita labur bat gazteek, xaharrak  
aldiz meza nausiko. Bigarren itzulia ere eginen zuen andana  
bat pollitak bezperetako Eiheralarreat: hor neskatoak lehen,  
gero, ondotik, Janpiarreineko bortatik Etxeberrikorat kalakan  
edo kartetan artzeko. Gizon horiek Karrikaburuinean edo  
Urreinean mus partida bat eta beren solasak artetik: Mañex  
Uxixteibordaren ixtorio pollitak ere maite zituzten gazteago  
batzuek eta hauk bietan doblaturik aterako ziren kondatzaile  
miresgarri horren ahotik, guziz apeza han balinbazen entzu-  
teko; orduan irri-zaflak are ozenagoak ziren, azkenik pentsa-  
tu hura oraino haundiagoa izanen baitzuen Mañexek, aintzi-  
nekoa baino.

Nun utzi ote ditugu Eiheralarreko gazte hek? Primade-  
ran, edo udaberrian, Coscarrart apezak eman plegutik, behar  
zen «komedia» prestatu. Hastean irri egiteko komedia labur-  
tto batzu ziren, etxeko gisan prestatuak bainan Pariseko Cha-  
telet edo Donostiako Victoria Eugenia batean emaiten ziren  
fama haundiko teatroak bezain prezatuak: Matturinaren Ga-  
poinak eta Eiherazainaren Astoa eta holako. Halere, gosea ja-  
nez jiten, mintzatu ziren gehixago jalgiak ziren gazte ba-

tzu: zertako ez dugu guk eginen Larzabal apezaren antzerki hetarik, mutil eta neskato, Hazparden edo Urruñan bezala?

Eta zertako ez? Hola eman ginituen, «Etxahun» urte batez, eta «Bordaxuri» naski bestean. Etxeberriko sabaian, eman zaukun Peio jaun merak gaitzeko lekua. Beharrik ez baitziren orai bezain minbera orduko segurtamen larderiak! Halere zerbait gertatu balitz! Belar idorra han berean eta gu, holako jendeketa alde aldean. Oro ontsa joan ziren denaden eta jende guzia loriatu zen. Trabarik haundiena uraren harrabotsa ginuen, ondo-ondoko errekatik. Bainan zer zen hori? Bazakiten orduan jokalariek zintzuraren ongi idekitzen eta bozaren klartzen naturalki eta indarrean, orai ditugun micro eta entzungailu horietarik ez zen denboran. Zer nahi dela, Eihalarrek ez ditu achantziak, herri bat osoak bere gazteeri esker holako bizia eta bizitasuna zuten denborak. Ez-eta zuek ere ez ahal ditutzue achantziak egun hek, orai buraso aitatzitu eta amatxitu kasko zuri edo pelatu bilakatuak zirezten Joanes, Janbatixta, Kaiet, Marixan, Iren, Pierre, M. Laura eta besteak. Denek beti gogoan dauzkagun Kattin, Beñat, Jan Batixt eta heiekin joanak diren hoberen batzu achantzi gabe! Ala ez ote dira hoberenak joaiten lehenik, aspaldiko legea hori, berriz ere erraiteko.

Horiek bai, eta beste ainitz jende ta gertakari gehiago behar nituen nihaurk ere gogoan berritu, Eihalarretik, Mayorga eta Frantseseneko neure eginbideetarat itzuli baino lehen.


Han, bihar, astelehen goiza, aurkituko nituen, laborantxako eskolan, gazte batzu: Frantseseneko monitore erakasle gazte hek, Alexis, Beñat, J. Claude, Manex eta gure eskolier putikoak, Lasatik, Aldudetik, Bidarraitik, Donazarretik, Lekunberritik edo Behorlegitik jinak. Hauk ere maite nituen, Frantseseneko xoriak, Eihalarrekoak bezala. Xoriak maite, Garaziko airagiak ere bai, kaiola zitzaidan gostatzen: eskola egiteko lan hura ez nuen sekulan gogoan izana, apez egitera joaiten. Neureagoan nintzan bai herri bateko elizkizunetan, eta bezpera ondoetako harreman eta ateraldietan, edo beste egun batzuetako otoitzaldi eta beiletan.

Holako bat ginuen asmatu, Eihalarretik Orreagarat

egin ginuen oinezko beilan: goizeko hiru orenak aldetsuan, bildu ginen herriko plazarat ilun beltzean gure askariak bizkarrean. Ez nuen nik bidearen ezagutzeaz axolatzerik: bazazkiten zenbaitek bideak eta xendrak, beren ardiak eta saroak Biakorrin, Elusaron eta hor gaindi izanik, horiekin guziekin omore ona segura, denak gazteak alabainan; debozione sano bat ere bai, gure gisan, Agur Maria bat edo zerbait otoitz egirik abiatu ginen, batzu Etxeberriko bortatik, edo besteak Janpiarreinekotik. Saroetara heldurik eta eiheralartarren etxoletarat, ez nakike erraiteko heian Goanetxekoan ala Kondixenekoan askaldu ginen. Hau segurik badakit, guk ernerik iragan ginituela, argitu ondoan Leizarrateka, Bentarte, Elizatxarre eta besteak eta goizik han ginituela begipean Urkulu, Xangoa eta zeharraldetik Adartza eta Luzaideko aldeak, Ibañeta eta Orreagako komenturat jautsi aintzin Lepederretik, Ortzanzurieta aldiz ezkerago utzirik. Orduan ikasi nuen, ene partetik, Orreagako beilaren maitatzen eta ez dut uste ainitz aldiz hutsegin dudana, Lapurdi aldean ereman nituen urteetaz kanpo.

Mendiak eta kurridak hutsegiteko egonaldia bat bederen izan dut bizkitartean, ezinbertzezkoa: ixtripu bat gotorra ukan nuen ondoan motoarekin. Garazin nintzan denboran zen; Hazparnetik heldu, uztailearen 14 eko aratsean, 28 urte nituelarik. Kanboko herrian, elgar jo ginuen baiones autodun batekin. Haundizki kolpatua, ereman ninduten Labenne-ko landestar klinikarat zango besoak hautsirik. Berrogoi egun han egon, ilabeteak joan nituen ontsa sendatu eta zaildu orduko, Pariseraingoko bat egin behartuz azken apaindurendako. Pariseko San Josep ospitalea kontseilatu zautan Aldude Auzkiri-ko Michel Gosterratxu apezak, bera Uharteko erreter zelarik. Bazuen hain zuzen berak arreba serora ospitale hartan erizain zuena. Gain gainetik artatua, lehenik Labenneko etxe hartan, eta azkenik Parisen, erran dezaket kasik lehen bezala nintzala urtearen buruko. Bai, bai, erran behar dut eta zor deiet ene artatzaileeri aitormen eta eskertze hau: ez dut sekulan, epe hura iraganez geroz, ene zaurien ondoriorik senditu ez senditzen, den mendrenik ere. Mendietako kurridak eta besteak arras maite izanak ditut, eta ditut beti, gaurko adinaren negurrian, Jaunari eta beste ainitzi esker. Azkenik hau ere erranen

dut: zauri artatzeko urte hartan guzian, Frantseseneko ene lanek, eskola eta beste, ez zutela ene istripuaz jasaiteko haundiegirik izan: arte-marteka ibili nintzan eritegietako bisiten egiten, makila batekin edo erdi-mainguka izan bazen ere zenbait aldiz, Donibane Xarloteneko Margueriten eta Hazparneko Pierre Carrau adiskidearen ezkontzako mezan ibili nintzan bezala. Horra nolatsu bururatu zen ere Garaziko aldia: laborantzako eskola sortua zen, Eiheralarreko erretora berriz pixkortzen hasia, eta nihaur ere berriz bidean, pasatuak pasatu.



Urruñan gazteekin ginuen musika talde ederra.



Gainean, HERRIA kasetaren egiten, J.B. Dirasarrekin.  
Beherean, Mixel Oronozekin.





# Sokorriko Ama ganat

---

**H**IRU urte Garazin nintzala, gazteria hura guzia eta Garaziko bazter xoragarriak maite, bainan eskola egite hura ez, horra nun izan nuen Narbaitz kalonjearen bisita. Bertiko ele goxoekin, galdegin zauzkidan berehala neure berriak. Bazakien euskaldunen berri, eta denek barnean estaltzen ditugula ere polliki gure koropiloak. Ez baitzuen balio halere gure artean kukulauka artzea, berak hastetik erakutsi zuen bezala, laster joan ginen harirat: nik ez nuela Laborantzako eskolarat jitean emana nuen hitza janen, bainan herri batean bikario hobeki eman nezakeela, Hazparnen jastatua nuen lanean. Arras goxoki hartu zituen denak eta nihauri hala-hala mintzatu: bazirela bai, gisa guziz, beste bikario lekuak, Hazparnekoa ondikotz hartua bazen ere.

Urruñan bazen hain zuzen, bere bikari urteak ederki beterik, Antton Etchegorry apeza eta gogotik Frantseseneari lotzera zagoena Narbaitzen eskaintza hola izanik. Horra nor eta nor aldatu ginituen Azkaratiar kalonjeak, truk eta truk, Etchegorry Frantsesenerat eta ni Urruñarat.

Ez dut segur ahanztekoa ene lehen bisita Etchegorry adiskideari eta gero ene erretor berriari, Urruñarat joan nintzanean. Ez zena han Jan Batixta Etcheberry, Donoztiri Basagaitzeko apeza, 52 urtetan oraino! Joan ginen hura eta biak Sokorri gainerat, lehenagoko arrantzaleek itsasotik bere argiarekin ikus zezaketen kaperaren ondorat. Alde batetik itsasoa, bere pentze zabal, neurrigabearekin, aro onak berdindindua, bestetik aldiz, eta horrek zuen enetzat balio, Urruñako herri zabala, eta han, eskuin, Aiamendiko Hiru-Koronak urrunean, eta erdi-erdian, zuzenean, Larrungo mendia. Hurbil hurbilean berriz, ez ginuena hor Sokorriko gainaren

pean eta oinetan bezala, Urruñako karrikaren etxe multzoa! Hor zen eliza gipuzkoar moldeko ospetsuaren inguruan bildua etxe multzoa; ezkerragotik zauden, haindian, Ziburu eta Donibane Lohizune, nik denborarekin ezagutu beharko nituenak. Zerbait entzute banuen ene nausi berriaz, bainan ageri bat izan nuen berehala. Hasi zen Etxeberri-Basagaitz, nik ontsa ezagutzen eta maite nuen bere kusiaren eskarniotan: Mañex Arbeletche apeza, ene Hazparneko bikari lagun ohia, berak ere bere jendakian askazi zuena.

Ez egun hartan bainan lehen paradan eginarazi zauzkitan ene erretor berriak bisita beharren batzu: De Coral jaun auzapeza, Felicien Chevrey sakristaua, Sorhouet Oleta-Pentzekoak, Irazoqui Manttubaitakoak, Zozaya Beñatbaitakoak eta, gerokoak geroko. Hunek zautan bihotza lasaitzen, ene erretoraren bihotz haundiko famak, Etchegorry eta besteekin erakutsia zuenak. Denek badute zerbait onik eta gu ginen bikarioek ez ginuen euskal erretoretan bat ere mendratzekorik, bainan biga baginituen heietan paregabatzat ginauzkanak, jada errana dudan bezala, beren bikarioentzat onak: Baigorriko J. Olhagaray, ene sort-herriko hura, eta bestea Etcheberry, Urruñakoa: «Etzeerri», berak ere zion bezala.

Denbora hartan, erretor ala bikario, bakotzak bere lanak ongi mugatuak zituen. Nun eta noiz ote ziren herriak, jaun erretorak berak baitzituen egiten etxe onetako bataioak eta ezkontzak eta apalago batzu, baxtartak eta holako, bikarioarentzat uzten? Nik ez dut holakorik ezagutu, sekulan, Etcheberryekin. Aldizka ari ginen, haundi ala ttipi, berexgorik gabe. Eta beti irriño baten gaia, artetik. Hala-nola, hauxe kondatzen zuen, ez baitakit noren ateraldia; apezek badituztela, beren egitekoetan, hiru lan xume, arras emaitza xuhurrekoak: eskearen kondatzea, zapeten ziratzeta eta seroren kofesatzea! Laugarren bat ere bazitakeen, oro ahanzten eta ordaintzen dituen: serorek beti bisitariarentzat prestik daukaten kafettoa!

Ez, segur, apez haundikaria, Urruñako erretor hori. Edo bai, haundietan noiztenka ibiltzeko ohidura bat bazuen apez horrek, eta huna zerendako. Baziren, Urruñako gain heietan,

egoitza ospetsu batzu, aski jende aberatsenak, alde bateko edo udako bederen baliatzen zituztenak: besteetarik beti urrunxago, beti bixta ederrean, tokiko laborariek deitzen zituzten haundi hoi villa edo Etxeak zirela holakoak. Eta, ez idurian, beti begi onez ikusten zuten heietarako Etcheberry jaun erretoraren bisita. Erraiten zuten berek atseginekin: «Baa! Jaun erretora gaki da aberats hoitara !.. behi esnadunen deiztera gaki da. Badaki hor badela eta hortik behar dela atera, ez duenarentzat!» Eta hau zen egia: Afrikar jaun haundi bati, edo etxekandere hanpatu bati, bazakiela, eskarnio edo ixtorio pollit batekin, bai bazakiela, obra bat bazueanean elizan edo eskolan, aberatsen eskutik ardiesten, herritar xumeeri eskatzerat ausartatzen ez zena.

Hor ginuen, Urruñan, Leon Dongaitz pilotari famatu ohia ere. Pilotari haundi hura nornahik baino gehiago preza-tzen zuen bere hainean Etcheberry jaun erretorak, elizan ez bazuen ere gehiago hanbat ikusten. Nork kondatu ditu harek baino hobeki, urruñarraren trinketeko bitoriak eta balentriak! Pasatuak pasatu, beti begi onez ikusi du jaun erretorak, gu, bikarioak joan ginten astetik atera Dongaitz trinketera, Ibarburu, Etchegorry, Gosterratxu apez pilotariak eta beste, hala nola Panpo, Usarralde, Vignau, Bercetche, Marcarie, Aginaga eta besteekin. Nik berriz, pilotari xumeagoa nintzana, erran dezaket Leonekin ikasi dudala zerbait trinketean, bereziki trinketeko xokoan dakidana, lehen lehenik. Ez haatik adin berean ginela biak; nik 30 urte nauzkan eta Leonek 70. Ikustekoak ziren Leonen abileziak: eginaraziko zion pilotari, dilindaka, punpe bat ezkerreko tranpa gainean, bestea gibelean eta pilota hura xuxen xuxena arraskatuko zen ezkerreko paretatik loturik, nehork ezin ekarrizko heinean: airetik aski goiz hartu ez ginuen tontopilatus guzientzat akabo kintzea! Leon Dongaitzek erraiten zuen, pilotariak begia eta burua dituela behar lehenik, bainan eskuak ere bai. Eta laborariaren eskuak hobe: bera laborantxan ari zen bere hainean, nik ikusi dudalarik, behi bakar batzuekin. Harek zion beraz tresna giderrak ere duela eskua gogortzen, «kaillua egiteko», eta «bego, hortako, laborariaren eskua». Hau dut nik ene urri-  
kia: ez dudala aski mintzarazi bere lehenagoko balentriez, Ar-

ce baten aintzinean eginez eta hola. Bainan harek ere, denek bezala, irabaziak zituen kondatuko gogotik. Bada hainbeste pilotari, ez baitira gehiago galduez oroitzen, adin batera helduz geroz.

Holako bihotzeko dohainekin, eta apez suhar baten karrara orozgainetik, lan haundia egin zuen Etcheberry apezak Urruñan. Beti bazabilan, egunero, eri bisitan parropiaren gibelondoetan. Oletako kapera xoragarria da ere donoztiritar apezaren obra haundia, Mixel Garikoitz hain maite zuenaren gomendio utzia.

Eta Etcheberryren eriak! Hitz hau erran daut nihauri, apezpikuak ospitaleko erien apez izendatu zuenean: «Hala da bai, ainitz gogoan ditudala beti eriak. Ez dut egunik pasatu eriez oroitu gabe ene erretorgoan. Aratsean huts bat senditu dut ni baitan, eri bat ikusi ez nuen egunetan. Hauxe nion neure buruarekin: «eri bat ikusi duk, onik egin ez badiok, atsegin bederen egin diok». Horra zer zion ospitaleko erietarat joaiten Urruñan 18 urte egon ondoan. Eta hor daude lekuko, bere erran horiek egiatu dituela, Baionako ospitalean orok dakiten bihotzarekin ereman dituen adin haundiko 25 urteak. Funtsean, ospitaleko eriek bezenbat maite izan dute Ospitalean medikuek eta erizainek Etcheberry apeza. Idazle ederra, gainera, xahartzeari egin dituen 13 liburuekin.

**Josep Gosterratxu** izan zuen Etcheberryk Urruñan bere ondoko erretora. Ez badut apez hori liburu hunen gaia, neure erretor bezala hartze ditu aldudar apez suhar horrek hemengo hitzak. Lekornetik etorri zen, Garroko laborantzako eskolatik, Urruñarat. Apez-sartze bat, guziz ederra eta beroa, egin ginion; zernahi jende jin zen Lekorne-Gerezietatik eta Irisarritik (aintzinean hor egona zen, bikari), eta Urruña guzia hor zen. Apez-sartzea lehengoetarik izan zen, bizikletadun, zaldizko eta kantari. Egun hortan berean hunkitu zuen jendea aldudarrak: zer apez fina zen, bipila, otoitzekoa eta eginbide-tsua. Horiek oro zituzten ondotik frogatu behar urruñarrek, hogeitau urtez. Nik lau urtez izan dut J.B. Etcheberry Urruñan erretor, eta beste bi urtez Josep Gosterratxu. Horiek biek zituzten azken bikarioak izan herri hortan, Urruñan egon zi-

ren denbora guzian. Ondotik du A. Etchegorry apezak bikariorik gabeko erretorgoa hasi behar, eta nork ez daki zenbat aldatu diren denborak geroztik, Etchegorry apezak hainbertze lan egina gatik. Erran dudan bezala, denborak bai aldatu direla!

Laborari-langile herri haundia zen Urruña. Laborari lehenik: gehienek bazuten lurra lantzeko, ez haatik denek berea: etxatiar edo bordari asko ezagutu dut nik oraino 1960 hurbiltze hartan: ezagut errexak ziren etxea ere berea ez zutenak, ez baitziren hain apainduak beren lan guzien artetik. Beretu dituzte halere denborarekin ainitzek beren ontasunak, ez baitzuten horgo lurrek bienik emaiten ahal, nausiarena eta bordariarena. Lanerat bai, jornalaren irabaztera, joan behar izan dute familia eder askotako seme-alabek eta holako diru berriarekin dira etxe berriak eta egoitza pollitak egin. Bazen alabainan lana, urrun joan gabe: ofizio-lantegiak, ainitz mota, bideetakoak, muga horien trafikuetakoak Hendaian, edo itsas-arrantza, burdin-bideak eta treinetakoak, gizon ala emazte, eta besterik oraino, horra nun aurkitzen zuten lana herriko mutil neskatoek.

Gazte horiek berak nituen nik aurkitzen, herriko elizan asko, ainitz baitziren aski segituak elizako urratseri, bai-eta euskarari orduan Urruñan, Baxenabarre edo barnagoko herrietan bezenbat gisa guziz. Elizaz kanpo, han hatxeman netzazkeen nik gazteak, herriko pilotarietan, Dongaitz trinketean, errugbi hortan eta futboleant ez hanbat oraino, bai haatik klika-fanfara musikan.

**Bertsularitzako gostua** eta zaletasuna bazen Urruñan, hegoaldeari hain auzo izanik Hendaia eta Biriaturtik. Urtean behin, herriko bestetan, biharamuneko partiden ondotik eta abere-prima saridunetan, han zituzten han Mattin eta Xalbador bertsulariak, oi, zenbat prezatuak! Izan ginuen parada haundi bat ere. Hernandorena bertsuzale famatuak sortu zuen egun bat gaitza. Etcheberry jaun erretora bera itsutua baitzen bertsularitzarat, etorri zen Hernandorena jauna, sortzez hegoaldekoa bainan luzaz Donibane Lohizunen egona, ahoko artatzaile, etorri zen gure mintzatzera: behar ginuela saio bat

egin Urruñako Itsasmendi salan bertsulariekin: egun hartako lau hoberenak berexiko ginituela Pariserat igortzeko ohore haunditan: han antolatzeko beste saio bat, hegoaldeetik bi eta iparraldetik bi, hautatuko zirenekin. Errexa izan zen hautua: hegoaldeetik Basarri eta Uztapide, iparraldetik Mattin eta Xalbador. Oroitzekoa izan zen Parisen izan zuten ongi-etorria. Oroitzekoa handik bertsularitzari eman zioten omena.

Ederrena ez dut salatua halere: nolakoa izan zen Urruñako egun hura. Harrigarriko jendeketa bildu baitzen Urruñara. Orduan, guk salatu ere behar ez gindukeen egia hau, kontrola ofizialek ezin onetsizkoa baitzen. Beha bada: 320 lagun, gorenaz, haizu zituen Itsasmendi salak, eta guri 700 entzule nausitu zitzaizkun burrustan ateak ideki orduko, Urruñarat etorri ziren mila heietarik. Hernandorenak mugaren bi aldeetan egin zuen publizitatearekin, oro gaintitu ziren mundu harekin: salan bazen jendea, bertsularien eta antzerkietako aktoreen taulagain hura bete beterik, bertsularien gaineraino itoka (gaizo Mattin ttipia lehertu bezala zuten haundiagoek!), horiek oro zutik, salako taulen inguruan ere bai, eta artebideetan zutik, bazter-sahetsetako ate haundiak zabalik kanporat eta jendea berriz, kanpotik, lepoa luzaka... Ondarrekoetz, ikusle gaintidura hartarik andana bat beren etxera joan ziren etsiturik eta ezin hurbildurik, beste batzuek, ez joan nahiz hoin laster, herriko ostatuak bete zituzten, mus partida bat bederen egiteko. Eta zertako ez erran, ene gain uzten baitzituen holakoak Etcheberry apezak, ene gazte antolatzaile multxoarekin, bai zertako ez erran, ordu hartarik hasi zela ni baitan ere, Hernandorenak piztu su hartarik zerbait, geroztik beti ekarri dudana bertsutako sukar hori: geroztik izan bainaiz ni ere bertsuzale sutatua, luzaz bertsu-saio antolatzaile, epaile eta maitale, geroztik beti naizena. Horiek oro, bai, Hernandorenari esker. Zer su-piztalea izan den jaun hori, Xalbador eta Mattin hain batean plazaratu zituena, eta beste mail batean heiekilako batzu ere harrotu, ala nihaur ala Mixel Itzaina eta geroakoak ondotik. Baginuke orai ere beste Hernandorena baztuen beharra, iparralde huntan.

Ene haineko bertsularitza horri zor diozkat hemen xehe-tasun zenbait. Lehenik, bertsularien mahiburuan izan nintzan denbora hartaz ez naiz gehiago luzatuko. Euskaltzaindiarekin lehenik, eta are gehiago bertsularien Elkartearekin geroago, gure ur ttintta diogu bakarrik ekarri iparraldekoek bertsularitzaren ur haundi eder horri, bi iparraldeko ginelarikotz doi doia epaile mahiko hamabi heietan: Lafitte eta Labeguerie lehenik, eta gero Itzaina eta ni, eta beranduago, J.P. Etchegoin, F. Mihura eta beste.

Aspaldiko denbora heietan ez naukan nik ohore ttipia, lehenagoko Zepai, Bordari, Lekuonatarrak edo Amuriza, A. Irigoien eta beste guziekin barne izaitea lan balios hortan.

Eta zer erran gu, hiru lekuko hautatu baigintuzten bertsularitzaren izenean omentzeko: Hernandorena, M. Izeta eta E. Larre! Ez ginen gu bertsulari bezala hautatuak izan, baina bertsularien lagun eta sustatzaile bezala, Donostiako Victoria Eugenia Antzoki ederrean, harat etorri baitziren berrogei bat bertsulari, haundienetarik, gure eskertzeraz: nik bederen halako ahalge bat senditu nuen, ez ttipia, holako ohore gaididurez. Gauza bat bederen utzi zuen nitan ohoratze haundiegi horrek: zor niola oraino gehiago bertsularitzari eta Euskal Herriari; hots ez banituen horiek oro aintzinetik merezituak, behar nuela lanari oraino ere lotu ene kar guziaz, ondotik bederen. Eta izan ginituen oraino ere omenaldiak, gure zor hori areago haundituz gutan: izan zen Elizondoko omenaldia, Marianoren herrian lehenik elizako meza nausiarekin, nihaur predikari, eta gero Antxitoeneko trinketean; eta Baigorrikoa, Manexeneko bazkarian, denen gainerat, omore onean.

Nafarroako bertsularitza ere horra, beste akulu xixtadun bat gure larruan sartu zena. Iparraldeko baxenabartarrekin jokatu ginuen hegoaldean hangoek galdegini, heien mailaren goragotzen laguntzeko Ezponda, Mendiboure, Alkhat, Arrosagaray eta M. Xalbadorrekin, Laka eta Mihura ere bai, baliosak. Ez dira segur horiek denak ere merezimendu gabeak. Geroxago zaizkote bertsu eskolak sortu hegoaldekoeri, fruitu ederrak ekarri dituztenak gazteetan, eta geroakoak geroko.

Gerokoak aipatzean hor dauzkagu, iparralde huntan gure kezkek eta griñak eta badakigu, nehorik jakitekotz, zenbat

dugun egiteko. Hor heldu zaigu gogoia, herriari bereri dei saminago batzuen egitekoa. Baditugu bai herriak lagundu eta kuraieztatu gaituztenak hala-nola Sara, Urruñia, Azkaine, Zuraide, Itsasu, Aiherra, Bidarra, Heleta, Arberatze, Irisarri, Aldude, Urepele, Baigorri eta ahantziek barka. Badira gure lurretan, hala-nola, onjo-lurak, besteak baino emankorragoak. Ala ez ote dira ere gisa berean, gure herriak bertsulari-lur bilakatzen ahal... gisa hartarat lantzen eta apaintzen badira!

Beste su-emailerik izan nuen Urruñan: lehenik Piarres Larzabal apezka eta gero Telesforo de Monzon.

**Piarres Larzabal** ez nuen arras arrotza: Hazparneko bikari ohia, ni bezala, Larzabal joana zen Zokoa-Urruñakorat erretor eta ni nintzan haren lekuan sartua Hazparnen 1951 an, Arbeletchekin hain zuzen, jada errana dudan bezala. Biak adinak ziren Larzabal eta Arbeletche, elgarrekin eskolatuak. Suerte haundia izan nuen nik, geroago Larzabal apezaren lehen auzo bilakatu bainintzan, hura Zokoan erretor eta ni Urruñan bikari. Laguntzarik baizik ez dut ukan harekin. Etor zadila urteko antzerkiaren denbora, eta baginituen holako paradak urtean zenbait aldiz, komedia baten prestatzeko, orduan erraiten zen bezala, jauzi batez han nintzan Zokoan, antzerki xahar baten galdez, edo bat-batean asmatuko zaukun berri bat; eta banuen jestu gutiz behar nuena. Egin ginuen Lurraren Besta Urruñako plazan. Nehork usteko ez zuena pentsatuko zuen Larzabalek han berean, burua itzul artean, holako besta bati bizi emaitako. Hala-nola, kontrabandako lasterkada baten gogoratze herriko plazan, ezarri zituen hiru gazte lerro xutik eta hostaila batzu haga baten puntan eta horra seinalatuak zuhaitz eta arbolak, heien gibelean gordetzeko guardak eta kontrabandistak.

**Bertsularien eguna** egitea abiatu ginuen, urtetik urtera Urruñako Itsasmendi salan. Gaien prestatzeko biltzen ginen, Urruñako ostatu batetara ez bazen Biriaturat, hiru lagun: Larzabal, Telesforo eta ni; Monzonek pagatuko zuen beti bazkaria. Ez bakarrik bazkaria, gaien emaita ere bere gain hartzen zuen saioko. Zer loria hunen entzutea! Berak zaukun, mintzatzeko zaukan talendu xoragarriarekin, osoki biziarazi-



ko hautatu gaia, beti herriaren maitasunez orhatua. Gai emai-leari egoiten zen xoraturik entzulea lehenik, hain zen Telesforo bera gizon sutua, antzerki gizona, ordua osoki ahantzia ariko zen bere gaian, ahantzia bainan ez galdua. Holako presentatze edo aurkeztearekin, beharko zuen gero bertsulariak berak ere jokoan sartu, berotu eta kaldata; ondotik, aurkezleak holako goratasunerat hupaturik, izarretaraino, nola pulunpatuko zen bertsularia zero hortarik beheregi, gu guziak bere mailerat hurrupatu gabe berekin. Gora ezarriak ginen Telesforekin eta gindoazela oraino gorago izarbeletako zirta bezala Mattinen irri karkailak edo Xalbadorren gorakadak bulzaturik bertsu senditu batean.

Larزابalekin Hegoaldea, beti Euskal Herrikoa, ainitzez hobeki ezagutu dudala, hori bai zor diot Zokoa herriko erre-tor maiteari eskertzea. Bi kasu nituen Larزابal bere mobiletatxoarekin Urruñako Apezetxerat jiten zitzaidanak: lehena, elur lapasta batzu hasten balinbazituen neguan: orduan behar ginuen, plasta plasta, Oletan goiti abiatu zapeta onekin eta makilatxo bat eskuan. Aro ederrak ez zuela baliorik erranen zuen Piarresek, orduan nornahi abiatzen baita bideari. Aldiz hodei beltzak kopeta zimurrean jartzearekin, hura bai egiazko gizon eta menditarren aroa.

Berdin berdina arrazoinatzen ginuen hegoalde horrekin. Badira hor ere autokar ederretan eta jatetxe famatuetan segu-retik ibiliko direnak. Larزابal ez baitzen ordea holakoa. Hobeki gustatzen zitzaion ene bi zaldiko “trapuzko auto” txar hura, gure ilobatxo batek zion bezala. Bide haundi ezagune-tarik urrun, nahiago zituen Larزابalek baserrietako xokoa-ak: joan eta joan, artzain zahar bat edo bideko langile bat aurkitzen baginuen, «geldi hadi, horrek bazakik», hari galda bide-a eta beste galde bat, eta beste zerbait oraino, hori zuen maite gure azkaindar apezak: herritar sanoaren solasa. Jateko ordua hurbiltzearekin, berdin berdina eginen ginuen, zutenetik, bazter ostatu xahar-xahar batean arrolltze moleta tortilla bat eta zerbait holako, tokiko gasna eta kafea eta nor zen gu baino urosagorik etxerako bidea hartzen ginuelarik, batzuetan zuzen zuzena edo berdin erdi-galdurik ibiliz Aralar aldean.

Bai, bai, Larzabal zen bezalako gizonekin ezagutzen duzu gizona eta tokia, ez beti liburuetan eta publizitate zabaletan ikusten duzun hura, bainan jende xehea, apala, etxe xokoetan eta landa-berroetan aurkitzen den xoil-xoil hura, bera den lekuan.

Ez du halere den baino apalago ezarri behar Larzabal ezagutu ez duen irakurleak. Larzabal ezagutu dugu ere Euskaltzaindian, bere fama ederrenean, eta mintzaldi argitsuenen egiten. Ezagutu dugu Donostia Zaharreko Principal Antzokian, antzerkilari haundi horren teatro emanaldi batean, eta han ikusi, entzulego nasai batek, xutiturik, txalo eta txalo eskuzartapean luzaz zeraukala. Ikusi, berdin berdina, bere lanetako zirto jeinutsu batentzat irri eta txalo ari zela jende guziarekin, berak hura egundaino entzun edo ikusi izan ez balu bezala. Eta, guziz, ezagutu dut bere ezintasuneko azken denbora latzean; noiz-eta gu bisitarien aintzinean kantuz, bai, kantuz, hasten baitzen bere paralesiak trebeskatu aho makur harekin, eta bere omere onaren kantari denaden hasten zelarik: «Ez da munduan gizonik, erregerik ez printzerik ni bezain urosa denik!» Nork ez dio hori ere entzun? Nik eta ene lagun frangok bederen bai.

Eta hau badakite ainitzek bainan nahi dut erran nik nihaurek ikusi dudana: azken hatsa eman zuelarik Larzabalek, ezarri zuten, berak aintzinetik eman manutik, ez ohe batean, bainan bai lur hotzean zabalik, azken otoitz batentzat etorri egileek hala ikusi baitute. Eta Larzabal hil ondoko hura! J. Hiriart-Urruty bikari jeneral euskaltzainak erran zautan telefonoz: «Errak, Emil, Larzabal hil duk. Hi haiz haren lekua hartu huen Hazparneko bikari ohia, auzoa eta euskaltzaina, hik behar huke egin ehortzetako mintzaldia. Lehen urratsa hortako, otoitz bat egin beharrez nik Zokoan, joan nintzan denak utzirik Larzabalen Apeztxerat, han, Zokoan, berak egin eta eginarazia zuen elizaren ondoko apeztxerat. Beste bi apez-lagun hauk aurkitu nituen hain zuzen haratzean, Larzabalen lur-hotzeko gorputzaren ondoan, Roger Idiart eta Mikel Epalza; batek paper bat eskuan, hau erran zautan: «Horra gure ustegabea, Emil; eta zer hitz hatzeman dugun Larzabalen

bulegoan bera zendu-ta: bere ehortzetako mintzaldia badik utzia, berak egina, Roger Idiartek ehorts egunean irakurtzeko». Bainakien Larzabalekin holako baten berri, beste ainitzek bezala, ez nintzan batere harritu eta biharamunean zinez hunkigarri kausitu ginuen, eta guretzat erakaspentsu ere gisa batez: Larzabalen azken hitzak, berak idatzirik, herioari bekoz beko zagoela apez argi eta kartsu hori. Ai! Zer bildutasunean entzun ginituen Larzabalen azken hitz hunkigarriak!

Urruñarat itzuliz berriz, erran dezagun lehenik, haundizki parte hartu zutela urruñarrek Larzabal apezaren ehortzetan. Ainitz ezagutua, auzo hurbila, bazuen ainitz zordun zuenik berari buruz apez on horrek Urruñan, bai-eta beste auzo herrietan. Bestalde holakoa da urruñarra. Bere elizari eta fedeari, nornahi bezain atxikia, familiako ohidureri ere bai. Hor nuen, behin, entzun eta ikusi etxeko seme bat, aita baino haundiagoko mutil kankaila, eta errugbilari famatu zelarik, etxerat heltzen, erranez: «Egun on!» Aitak han berean: «Nork egin dik?» Eta semeak zintzoki: «Jainkoak egun on!» Urte alde bat badu horrek. Geroztik, ez ahal da «Jainko» hori hortik urrundu!

Elizako ofizio ederretan neskatx edo emazte multxo eder bat kobla emaile, ez dut ahantzi Urruñako kantuen soinua eta beroa. Meza nausian orduan, izan ginituen haur kantariak aldare zolan. Izan nituen ere nik enekin, gaineko organoaren koroan, mutil gazte xantreak, bikarioaren lagun, halanola Josep Goya eta Leon Rivera. Goraintziak aspaldiko laguneri!

Sokorriko Ama izendatu baitut kapitulu hunen tituluan, orok badakite Urruñan, ez dudala ustegabetarik ezarria aipamen hori. Lehenago, aspaldi, Itsasoko arrantzaleen gidari eta fidagarri izana den Zeruko Amaz ederki behartu izan da, due-la bi mende hurbil ere Urruñako herria, bai-eta horgo familiak: hala nola 1830 aldean izan zen peste izurritearen denboran, hainbeste hil ekarri behar izan baitzituzten Sokorriin ehortzeko.

Ez dute, egia-erran, holako oroitzapen minen beharrik urruñarrek Sokorriat etortzeko edo Ama horren otoizteko.

Beti gogotik eta bihotz haundiz badaukate, maiatzean, Sokorriko beila eta otoitzaldi hura, dena kantu eta otoitz, geroztik han ezarria duten «Mariaren Bide» hunkigarri maitatu harekin. Hain zuzen, bazuten Belokeko beneditarrek Sokorriko Amaren kantua eder bat egina eta guti kantatua denbora batez. Ez dut nik bederen ahantzia zein gogotik eta kartsuki ikasi ginuen kantua hori, nihaur Urruñan bikari nintzanean. Han zen liburuan, eta aski izan zen ikastea:

Sokorriko gainetik begira, oi Ama  
Itsas, mendi hauk eta Euskaldun Arima!


Agian luzaz, eta beti!

Horiek hola izanik ere, noiz arte irauten ahalko ote du Urruñak, nik ezagutu nuen herri sano hura izaiten? Jende prestua, solas onekoa eta zintzoa ezagutu dut nik Urruñako laboraria, bere idiak, lanak egin eta gizendurik saltzeko etortzen zelarik plazarat Etcheberri jaun erretorak bere solas gozo eta maitezkoen artetik idien pisua estimatzen baitzuen, xuxen edo makur, huts edo kausi, elgarrekin kafe bat hartu baino lehen Akertebaitan. Gizonak erran dut bainan emazteak ez ote ziren araberakoak: zintzo eta langileak, «gaki» zirelarik asteart eta ortziraleetan Donibane Lohizuneko baratzekari merkaturat, beren forru, azaburu eta biper-tomateen saltzera; eta horiekin beren etxeetan eginak zituzten behi-gasna gizenak hori-horia, eta etxeko arroltze ta oilaskoak, denak ere, orduan, etxeko artotik eginak. Ilabeteko lehen ortziraLEAN amak eginen zuen gero elizako deboziona, alaba merkaturan zen denboran, edo, alderantziz berdin berdina, amak eta alabak elgar aldizkatuz.

Halako ama eta amatxiek, halako putikoak. Bikarioak ez zuen baitezpada hau bere egitekoa, behereko eskolan, bainan hola galdatua zautan anai Mathieu, erakasle buruzagiak: etor nindadien ba, astean behin, euskaldun kanta xahar edo berrien erakasterat holako egun eta orduetan. Hau ere erraiten zautan gainerat: «Senditzen diat hi sartzearekin, eta hik hitza euskaraz emaitzarekin, pizten eta alaitzen direla haur horien

begiak; mintza, mintza hadi euskaraz haur hoieri eta etor hadi eskolarat nahi dukalarik!» Hara nola mintzo zitzaidan anai Mathieu, Lourdes aldeko bigurdan seme sana, hots, «hango euskalduna» zela erran bainezake hura bere gisan: gizon baktzak zaintzeko dauzkan erroak sendi eta maite baitzituen harek ere urruñar zintzo batzuen artean.

Eskola eta haurretan gireno, nola ez seinala hemen, zer modu zen orduan Urruña eskola mailean; behereko San Frantses Xabier eskola hori aipatu dugu: hori zen mutikoen eskola giristinoa, 120 bat haurrekin. Parropiak bazuen beste eskola bat, gaineko eskola, Seroretan, hau zen nesken eskola eta huntan 140 bat haur baziren orduan. Gobernuko eskola bestalde bazen herrian, mutil-neskatoena, eta beste bat Oletan. Erran behar da geroztik ainitz haunditu dela herria, etxez, haurrez eta denez, eta gerokoak geroko. Azkenik hau ere diodala nik, Urruñan sei urte iragan ditudan lekukoak. Urruñako eskola horiek, denek ere hezi eta formatu ondoan hedatu dituzten gizonak eta emazteak badira denetan. Heietarik da gure eskola girixtino guzien lehendakari bipil eta estimatua: Maite Irazoqui, Oleta-Manttubaitako alaba: euskaraz ere HERRIA kasetan berdin trebea duguna eta irakas-kuntza grixтиноaren buruzagia.



Urruñan bikario nintzanean, Urtubiako De Coral jaun auzapezarekin.



Adina bildu: klasako lagunak, apeztu eta 50 urteren buruan.

# Bikarioen biltzarra

---

**H**ERRI guziek beren apezak bazituzten denbora hartan, zahar-gaztez Euskal Herriko etxaldeak bezain aberats ziren parropiak ere. Baigorriko Adorazionea heldu zelarik irailaren lehenean, beha zagon herri guzia, ikusteko beti pixkorrik jinen ote ziren, hala-nola Lasako erretor bat, Falxa jaunna, Bankako seme, Darraidou haundiaren lagun pilotari ohia, Anhauzko Albandoz jaun erretora, bai-eta, hau oraino xaharragoa, Sein apeza, Irulegikoa, biak ere senpertarrak; halaber gaintarrak ere, lehenik Aldudekoa, lehenagoko Lazcanotegui urruñarra, eta haren ondotik Uhart apeza, Ezterentzubi Xauxarrekoa. Urepeletik berriz jinen zen Uharriet apez azkarra, Aldude Errientaeneko semea. Baginakien horietarik zenbaitek beren auzo-erretoraren auto xaharrean konda zezaketela jiteko. Beste batzuek bazuten auzoko laborari bat bere zaldikarrosarekin bila etorriko zitzaiena, bezperak bururatu orduko, goizean meza nausiko ekarria zuen bezala.

Bizkitartean baziren bikari gazte batzu auzo herrietan, berak etorriko zirenak, bizikletean eta, bakanago, moto zahar, okasionezko batean. Bikarioak baziren Ortzaizen, Alduden eta Bidarrain, lehen biek eskola ere bazutelarik egiteko beren herrian, eskola girixtinoa. Baigorri berean berriz bi bikario, bereziki eskola girixtinoaren sortzera etorri zelarik Xemartin Arrabit apeza lehenik eta Mixel Laxague gero haren ondoko, Aldudeko J.P. Urrutia eta Ortzaizeko Mixel Idiarren denboran. Beste bikarioak, herri horietan denetan, Xalbat Sanzberro, Mogaburu, Hastoy Arrosakoa, Ganix Ibarburu Bidarrikoa eta zenbat ez dugu ezagutu oraino! Araberan apezek eta bikario gazte aberats zirelarik bai bestalde Amikuze, Xuberoa ala Lapurdi guzia.

Hoinbertze bikario ginelarik gu gazteak, elgar-ganatze batzuen beharra senditzen ginuen noiztenka. Hala-nola, nihaur Urruñan nintzalarik, baginakien elgarretara biltzen Senpere Amotzeko trinketerat, J. Etcheverry Sarako bikarioa, B. Miremont Senperekoa, edo geroago P. Aphaule halaber, Senperekoa, B. Eyherabide Ezpeletakoa, F. Ibarburu Biriaturko erretora eta besteak. Hala-hala Baigorri aldekoek edo Hazparne inguruko batzuek eginen zuten beste hainbeste. Gure griñak eta xedeak ere elgarretaratzen ginituen han, pilota edo mus partida baten ondotik, gure nausiak ziren erretorez mintzatzen ginen, hauk oro desbardinak gure gisa; batzu gozoak eta guretzat arras menekoak, beste batzu aldiz jaunago eta gure diru beharrentzat xuhurragoak zenbait. Erran behar da ez ginuela orduan saskitaraka erabiltzen bikarioek dirua, bainan lehen denborak ziren moto xahar okasionezko batzuen eskuratzen hasiak ginenak eta heien doia bederen behar.

Aurkitu ziren halere gu baino doi bat xaharragoetan biga, bikarioen elgarretaratzea pentsatu zutenak. Ez baitziren ordukotz normahi, hek ziren **Marcel Mendiboure** apez hazpandarra eta **Roger Etchegaray** ezpeletarra. Lehena Apezpikuaren diosesako zerbitzuen segetario nausi zen ordukotz, egun batez Katedraleko erretor nausi eta kalonje bilakatu baino lehen. Etchegaray aldiz, hau guk semenarioko ikasle eza gutua gure ixtudio denboran, apezpikuaren segetario zen ordu hartan eta apezpikugaitzat ginaukan jadanik, eta badakigu orai guziek nor den Etchegaray Kardinala.

Horra beraz bi apez on eta argi horiek proposatu zaukutelara, ez ote ginen bikariak noiztenka elgarretaratzen ahal. Leku goxoa hautatu zuten hortako: Angeluko Serora Urdinen komentuari datxikola, bazen, baserrian bezala, herri hartako baratzezainen artean, Latxague Etxea. Hor baziren elgarretaratzekeo salak eta barneak, kozinak eta sukaldeak jateko mannerarentzat, eta bi serora beren neskato ikasleekin errezebitzen zakitenak. Ez ditut hemen kondatuko han egiten ginituen lan guziak: bai haatik erranen, eta hori aski da, arras laxoki mintzatzen ginela elgarren artean gure lan, egiteko eta griñez, oititz egiten ere elgarrekin eta gure apez-lanetara arraberotu-



rik eta aireberriturik itzultzen handik, hurren aldiko elgarretaratzea gogoan.

Entzun dugu bai zenbaiti erraiten, eta apez xahar bazueri lehenik, ba omen ginuela bikariek gure sindikata eta nik dakita zer. Ez, segurki, ez zuen nehork beldur izaitekorik gure hango erran eta eginez. Bakar bakarrik hau erran deza-kegu gu, hango ibiltzale ohiek: oraiko egunean, eta beti ere, behar beharrezkoak direla, ez bakarrik mail hortan bainan mail eta sail guzietan holako elgarri esku emaitak. Zer da alabainan bakartasuna baino murrizagorik? Eta norentzat da on ote, apez ala beste, bere xokoan, herri edo baserri bazter batean, zurmindurik eta mutxiturik egoitea, hainbeste irrisku galkor ekar diezakeguten berexkuntzako traba txarren artean. Bai, zinez, gizon paregabeak izan zirela guretzat Marcel eta Roger bi lagun helduenak, hori ikusirik. Lehena joana dugu, gutaz denetaz hain estimatua eta maitatua izanik. Bigarren hau beti mundu huntako dugu, nahiz gutarik urrun den bere kargu gorenen gatik. Bainan badakigu guretzat beti hurbila eta hunki errexa dagoela ikusten ahal dugun bakarretan. Hala-nola, hortxet Lurden berean den batez ez dea berdin gostuan egonen gurekin solasean gure kardinalea, denak utzirik, sakristiako ate izkin batean nihaurekin ikusi dudana bezala. Edo, halaber, noiztenka, guri Erromaraino joaitea gertatu zai- gun batean. Bai, orduan dugu guk senditzen gutaz eta gu bezalakoez egina dela Eliza, Jesusek berak lurrerat etorririk, lur huntan gutaz landatu zuena.



24 euskaltzainetarik zenbait Bilbon.

# Herriz herri

---

**B**AZEN apez ainitz 1960 urtearen inguru heietan gure Euskal Herrian. Hamar bat urte zerbitzuekin apendizgoak eginak zirelarik, joaiten ziren gehienak herri baten erroter, 40 urteak jotzerakoan. Erretor edo beste kargu zerbaitekin. Nik banuen eskaintza bat izana 1957 urteko, doi bat ustegabekoa. Etorri zitzaidan Narbaitz kalonjea, gure bikari jenerala, Urruñarat. Badakit neskato gazteen bilkura egun bat zela eta bikaritegiko aintzineko salan ginuela bilkura, ohiko lekuan aratsalde batez. Zerbaitez jelostu nintzan holako bisitan. Gure gazteak han berean utzirik beren gogoeta-gaiekin, pasatu ginen Narbaitz jauna eta biak sukalde hutserat. Han, betiko itzuli pollitak hartuz, esplikatu zautan apezpikuaren ordainak, apez gazte baten beharretan zirela jaun horiek Pariserateko: aski berri zen oraino Pariseko Eskual Etxea, Idieder apez ortzaiztarrak eta geroxago Pierre Charriton hazpandarrak beste lagun batzuekin, apez eta laiko, xutik ezarria zutena emeki emeki. Nihaurk ere ezagutzen nuen Pariseko Etxea, Duban karrikan, guti-aski. Motoko ixtripu bortitz baten ondotik han eginik, Parisen, 15 garreneko Seroren Ospitalean, azken sendatzea, banakien zerbaite berri. Urte hartan beraz Euskaldunen apez baten beharretan zen Pariseko etxe hura. Erran zautan Narbaitzek hein bat polliki, Auguste Larre beskoiztar apezak hango denborak bururatuak zituela eta nik ez ote nuen haren lekua hartu nahiko: «Hola Larre bateg ordain lezake bestea», zautan erran.

Nik banuen ordukotz kausitze eta hutsegite horietaz zerbaite esperientzia: Mayorga eta Frantsesenean egin pasaia hartaz argitua, ez nuen gehiago beste petto baten beharrik. Ez nintzan ez eskaintza hortaz batere asaldatu, ez-eta ere beroe-

gitu. Odol hotzean eta fidantzia osoan hau ihardetsi nion Narbaitz jaunari: «Jauna, ez nau batere oihesten zure eskaintzak; Pariseko haren berri zerbait jakinez nihaurek, eta bereziki ikusiz badela han gazteria bat paregabea gure herritik joana, batzu sehi eta besteak ikasle, parte hemen ezagutuak ditudanak, gostukoa dut ene apeztasunari eskainia zaion lan hori. Bainan, ene apeztasunaren izenean ere ikusten dut beste arrazoin bat, ezetz erraiteko zure proposamen horri, eta huna zer: bi urte ditut xoilki eginak Hazparnen bikari lehenik, eta hiru gero Garazin Laborantzako eskolan. Gure herrian erraiten dute ainitz borta kurritu duen mutila ez bide dela hanbategoa, ni beldur hortan nago: hor bi urte, han hiru, orai urtea doi-doia Urruñan nagoela, nago zer mutil mota egingen ote dudan, ala ez ote naizen on izanen sekulan lan batean irauteko. Ez dakit nola erran nion hori. Denaden ez zautan beste erreferarik eman. Xoil xoilik ihardetsi zautan ene arrazoinak helduko ziozkala jaun apezpikuari eta emanen zautala buruzagi haundiaren berri. Hiru egun barne jakinarazi zautan onartuak zirela ene arrazoinak eta segi nezala zintzoki Urruñan bikari.

Bost urteren buruan jin zen Narbaitz jauna berriz ene ikusterat. Arte hortan egina zen han erretor-aldakuntza. J.B. Etcheberry erretoraren ondotik Joseph Gosterratxu arras hantogua, ni aldiz Oletako auzogunean nintzan batez, huna norat heldu zaidan bikari jenerala, bestelako eskaintza batekin: bai eta norbaiten beharretan zirela **Hazparneko Misionesten** Etxean. Hain zuzen, ordu berean Maule eta inguruetakoko Misioneeetan ziren, Xuberoan, herriz-herriko lan hortan zabiltzan apez multxoa. Eta urte hartan bazuten Hazparnekoetarik baten beharra beste nunbait: Jean Suhit, itsasuar semea, zuten igortzen Uztaritzeko herrirat erretor, eta ene beharra, omen, haren ordaintzeko, Misionestegian.

Hori ez zen batere berdin. Berezia izanen baitzen lan hori. Lehenik galdegiten du osasun ona: beti joan behar, leku arrotzerat, eta beti trenpu onean behar lan berri bati lotzeko, bereziki, orduan misioneeetan biltzen ziren jendeketa haundiekin. Horiekin batean, edo denen gainetik, ez zela durduzakor behar lan hortan. Oroitu nintzan, bat-batean, lehengo misionest batzuen dohain harrigarriez eta burrunba haundiaz. Eta

oroitu nintzan ere ama zenaren denboraz, Belarrean: opor edo bakantza denboretan, Baigorriat joaiten nintzalarik aste egunez mezako edo beharrordu zerbaitez, berri zerbait ere behar nuen ekarri etxerat karrikatik: «Zer ikasi duk, edo egin dituka xuxen ene komisioneak?» ziolarik amak, artzen nindakion ezin klartuz xuxena, hasiz: «Eta... eta...» eta ez heldu hitza. Orduan amak erraiten zautan: «Eta... eta? ..» ez dakiat hik zer prediku eginen dukan, apeztearekin». On izanen ote nintzan ni misionesten trebantzia harekin non-nahi eta nornahiren aintzinean agertzeko Jainkoaren profeta? Holakoetan zoin apez ez da oroitu aspaldiko profetaz, erreferatu baitzion Jaunari: «Bainan, bainan, Jauna, nik ez dakit zer erran igortzen nauzun lekuan! Ez ote dakizu, Jauna, ene ardi eta kabalen gibeletik hartu ninduzula ni artzain xoila, zure profetagoaren egiteko? ... Eta ere: «Zer, ni ote Jauna? Naizen bezalako ezpain zikineko dohakabea?» Eta horra gero Jaunaren ihardespena: «Nik, nihaurek garbituko dauzkitzut zure ezpain zikinak burdin gorriarekin, eta nik emanen dauzkitzut ahorat, jendeeri erran beharko ditutzun hitzak». Bai, bai, hau jakin dezala bakotxak: orai apez eskasa dela... nik diot apezik ez litakeela batere, ez-eta girixtinorik ere, bakotxa bere ezintasunari so gelditu balitz, bera baino gorago behatu gabe! Enekin segurik ukan du ukan zer egin Gaineko Harek.

Horra beraz ni Hazparneko Misionesteirat abian. Bana-kiena ere xuxen norat nindoan? Banazkiena Etxe ospetsu haren aspaldiko berriak eta beharrak? Hemeretzigarren mende hortan, Mixel Garikoitz gure Ibarreko Sainduaren denbora hartan berean izan zen Hazparneko Misionestegiaren sortzea. Bazuen segurki zerbaiten beharra Euskal Herriak. Frantziako iraultza haundiak mende laurdentsu bat zuen iraganik, odolhustua utziz herria eta bereziki gure hau, ahal zen maneran. Orai erraiten dugu hau eta hura, bainan Roland Moreau baigorriar-getariarrak dio, besteak beste, bere liburuetan haur sortzeen laurdena ezkontzaz kanpokoa zela. Hori ere ez dutea jakin behar lehengo egunen adoratzaile batzuek! Urte heietan ziren lotu lanari batzu eta besteak: Uztaritzeko serora beltxen Etxeak ordutsukoak dira, Elisabeth Bichier des Ages eta Andre Hubert Fournet sainduekin, Angeluko serora urdinenak

ere bai Aita Cestac eta hunen lagunekin. Eta Hazparnerat behatuz, horra Jean Pierre Garat Pikasarriko seme apezta eta hunek 1821 ko urriaren 6 an idekitzen duela Hazparneko Misionesten Etxea. Mgr d'Astros Baionako apezpikua baliatzen da 1826 ko Jubilauaz, duela 175 urte, misioneak abia-razteko diosesa guzian. Izanen da denena, hor eta ondoko egunetan Hazparneko misionestekin eta, sarrixago, Aita Bastres senperraren Belokeko misionestekin. Eta nola ez dugu hemen erran bederen behar hor zirela Baionako eta Betharrameko semenarioak, eta Larresorokoa, hots, iratzartze baten seinale eskasik ez duela batere Iraultzaren ondoko mende horrek.

Lehengoen haritik, hor nituen nik, Hazparnen, ene nausi eta lagun berriak: **Emile Garat** aita Superiora, Armendaritze-Donamariakoa, **Domingo Soubelet** Hazparne-Pikasarrikoa (hau ere), **Jean Leon Luro** Ahatsa Zakuteikoa, eta **Pierre Agirre**, Donibane Lohizune Larretzekobordakoa, eta **Louis Iriartegaray** Uhartierra, **Jean Pierre Urrutia** Urruña Handiabaitakoa, **Marcel Larralde** Lekunberri-Hautxaineko semea, horra nolako lagunak nituen Hazparnen hatxemanen 1962ko urte hartan. Lehen estaian izan nuen Hazparnen ene egongia, Luro renaren bisean-bis eta Soubelet jaunaren auzo estai berean.

**Euskal Itsas-hegi** guziko misione haundien bezperan ziren hain zuzen ene lagunak, noiz-eta berrogoi bat parropia izan baitira oro batean misionean, hots! Ahurti eta Mugerretik Hendarainoko guziak. Holako eremuan hartu guneak, eta 130 misionest oro batean landa zabal hortan, «**Mission Générale de la Côte Basque**» famatu harekin, bixtan da ez direla holako sailak egun bat edo biez prestatzen, zenbait urteren egitekoa bazaukan apailatze horrek, beste eguneroko lan xumeagoen artetik.

Egunero edo Asteroko lan hauetaz argitu ninduen ene nausi berriak Hazparnen; hots, 1962 ko maiatz ondarretik eta irailaraino «kominione haundiak», zein izanen ziren nik predikatzeo. Kominionearen predikatzea erraiten zen orduan, haurren erretreta lehenik, astezken aratsaldetik eta larunbatera, eta igande eguna gero, meza-nausi-bezperak eta bietan

predikuekin, eta jendea nasai izaiten zen. Kominione besta horien izendatzeak ez du balio bainan huna idaia bat, zein izan nituen lehen urte hartakoak: Mauleko San Frantses Ikastetxea, Senpereko herria, Luhuso, Donazarreko kominione ttipia (orduaz lehen kominionearentzat erraiten zen bezala), Ainhoa, Bardoze, Isturitze, Milafranga, Sara, Arboti, Arue-Etxarri, eta Bidarrai. Artean izan ziren ere hor beste predikatze batzu: Baigorri Oilarandoiko beila, Hazparnen gizonen biltzar eta neskatokoen erretreta, eta beste bat mutiko gazteentzat, ainitz biltzen baitziren hauetarik; eta Donibane Lohizunen eskola girixtinoetan gazte erretreta, Hazparnen emazteentzat beste bat Elizaberriko kaperan... eta hola. Banuen, hola, denetarik zerbait jastatua, lehen urte hartan berean.

**Misione haundiak** ez nituen oraino ezagutuak herri batean. Horietaz, hauxe erran behar duta? Ez dut nik sekulan ezagutu herriko misione heietarik bat ere, nihaur predikari izan nintzan artean. Ene haurretik eta 30-35 urte izan nituen artean baziren segurki lehengo misione heietarik izanak, batean Baigorri ene herrian, bestean aldiz, nihaur apez egona nintzan herrietan, bainan ni ez nintzan sekulan holakoetan gertatu: ni Uztaritzeko semenarioan ikasle nintzalarik gertatuak ziren beti herriko misioneak.

Eta huna non ezagutu ditudan nik **lehen Misioneak**: ez batere Euskal Herrian bainan Biarnoan hain zuzen. Errana dut Biarnes apez batek ez duela egundaino lan segiturik egin ahal izan Euskal Herrian, berak bakarrik, mintzaiaren gatik, eta bai haatik euskaldun batek Biarnoan, bere frantses gisarekin. Nik holako galde bat ukan nuen Biarnorat: misioneak ziztuztela Oloron herriko inguru horietan, galdea jin zen Paueko Misionest-etxetik Hazparnerat, gutarik batentzat, aste pare batentzat: Cardesse herrirako hain zuzen, Oloron eta Monein artean. Ez nuen ezetz erraiterik. Gainerat, Itsas-hegiko misione haundi hura ere hurbiltzen ari, banuen hainbertze ikasteko, trebatzeko, eta joan nintzan gogotik. Paueko misionesten nautsi haundiarekin gertatu ginen bi-biak: hau, aita Landaboure, sortzez baionesa, predikari nasai eta gozoa zen eta enetzat ona

izan zen. Cardesse herriak bazuen orduan bere erretora, Emile izenez ni bezala, Oustalet deituraz bestalde, orai Lurderat erretiratua dena ene ustez. Denak ikasteko nik, ainitz ikasi nuen beraz hor: lehenik, apezak (hunek ama xaharra berekin zuen, eta aski pixkor oraino) ala herriak ontsa hartzen zutela, eta hazten ere misionesta, hori ere konda baitzen, egun horietan, Biarnoan ere Euskal Herrian bezala. Gero, jarraikitzen zela arras polliki denbora hartan oraino misioneari, Biarno hartan ere: denetarik ibili zen, gizon, emazte, gazte andana pollita, eta haur multxoa, beretterretarik haste. Hor mintzo naiz herri ttipi hortan ikusi dudana, ez Biarno guziaz.

Irabazi haundiena hau izan nuen beraz nik, misionest trebatu batek egiten zuen lanaren ikastea. Urte heietan bazen aldaketa bat arras baliosa abiatua: lehengo misionetik berriago batetarako aldatze bat. Lehengoak (nahiz nik ez ditudan ikusi, hor erran dudan bezala) arras herrikoiak eta sanoak ziren: irratitelebitxa funtsezkorik sukaldeetan ez zen denbora hartan, jendea heldu zen elizarat ikusgarri goxo eta prestu batetara bezala. Jende hura, girixtino jarraikia gainera, onez onean zoan bere barne-sendimendueri arra-freskatze baten emaitera, hor baizik aurkitzen ez ziren erakaspenetan berrituz, eta azkenik hau: bere kontzientziaren baketzerat, bere ezazolkeriaz edo aspaldiko arrangura batez bakearen egiterat: hitz hauk onez onean hartuz, misione ondarreko kofesio hari erraiten zioten gizon horietarik zenbaitek deplauki, zikiroen saltzea! Nik holako prestutasun bat aurkitu nion Biarnoko jende hari eta beren languntzaz eskertu nituen ene hainean, ni baino zaharxago ziren bi apez hek eta Cardesseko herritarrak. Ez nituen gure euskaldunetarik hain arrotzak aurkitu orohar, salburik hau haatik: bizia, bizimoduak eta lanpideak doi bat bereziagoak zituztela, nahiz bazen han ere kabala eta ardi hemengo gisa. Haatik, jende laborariak mahatsarekin eta Monein alde hartako arno xuri goxo batekin bazuen ere bere jokoa, eta beste batzuek lantegi eta jornalbideetarako gostu hartzen hasia zuten: hauetan ziren ere, maiz gertatzen den bezala, elizako urratsetan bakantzen hasiak ziren batzu. Bainan zer erran dezaket nik ordukoaz, urak ere hainbertze bide egin duen ondoan?



Ene misionegoko bigarren urteak ekarri zituen bere betiko lan motak. Gure bidea errexa zen eta ez ginuen hautamautaka buru-hausterik batere, heian norat joanen ginen edo nundik lotuko. Hori nausiaren lana zen. Librantxa gauza ona da, Xalbador batek ere bere artzaintzako hartan dion bezala, sosegu ona da, nausi on bati fidatzea. Guk, Misionestegian, baginuen gure gisako erregelamendua. Bana-beste, hor ziren denak idatziak eta hura segitzea aski. Artetik erraiteko, izan dute Hazparneko misionestek amets bat bezala aski luzaz: erlisoso familia edo fraide konpainia bat bilakatzea, denak eskuz-esku beren nahizko erregelamendu baten pean jarririk. Denetako famatuena sail hortan, ez dea Arbelbide misionesta, Zaro Iturbideko semea, izana, bere denbora joan baitzitziaion komentu baten baimen famatu hura ezin ardietsiz buruzagietarik, eta Erromatik, hala-nola jesuistak bezalako konpainia berezi bat sortu nahirik Jainkoaren eta bere herritarren zerbitzuko. Mixel Garikoitz gure saildua bera ez ahal da amets horietan gaindi ibilia!

Holaxet zuten beraz beren ziloa egin Hazparneko misionestek hemeretzigarren mende hortan emeki emeki, apezmultxo bat bilakatuz, zortzi hamar bat lagunekoa; apez-batasun berezi baten baimenak ez ardietsirik, egon ziren Baionako apezpikuaren meneko eta eliz-barrutia edo diosesaren zerbitzuko. Beren barneko nausiarekin halere, hau baitzen misionesten superiora. Superiorak hartzen zituen gure langaldekak ipar Euskal Herri huntarik eta haren eskutik ginauzkan guk gure manuak eta lanak, norat joan eta zer egin. Lanak egin eta Hazparneko Misionestegirat biltzen ginen, hor baiginuen etzana, jana eta gure prestakuntzen denbora. Gure predikusariak denak apezpikutegiko paperetan ezarriak ziren eta moltsa orokorrerat ekarriak, orok jornal berdintze bat egiteko gero gure artean.

Elgartasun bat baginuen oraino, denen artekoa, Hazparneko, Paueko eta Akizeko misionestek, noiztenkako biltzarre, otoitzaldi eta formakuntza batzuekin, ateraldi edo anaitasun egun batzu aphantzi gabe, etxe bakotzak bere alde eta batzuetan hiruetakoak batera bildurik. Betharram ez dut hor aipatu,

bainan hori ginuen gure bilgia maitatuenetarik bat. Alabainan, ez giniona hain hori zor gure Ibarreko Mixel Garikoitz haundiari!

Betharram eta Belokeko lagunak hor izan ditugu gure lagun edo gu bezain «misionestak», beharrorduen edo ahalen edo parropien deien araberan. Lehen hortarik izan ziren: Aita Larramendy, Ithurralde, Darritchon ainitz prezatuak. Eta horra Belokeko komentua, hunek eman baititu gure herrietarako, hemen ahantziak salbu, Aita Arnaud Laxague, Leon Aramendy, Jean Olçomendy, Martin Sein, Xabier Diharce, Bruno Berro. eta noiztenkako batzu, beharrez.

Egunak joan, egunak jin, nehor ez da betiko. **E. Garat** superiora gizon eder eta azkarra izana, adina bazoakion hari ere, eta hastean erran dugu osasunean behar dela lan hortako. Predikari argia eta ozena, denek errexki entzun eta konpreni zezaketena, ez du nehork ezindurik eta ttipiturik ikusi, beti estatu onean agertu baita publikoan, bere partidak ongi prestatzen dituen pilotari zintzoaren pare.

Hola zuen, bere ezinbertzeak senditzearekin, berak ikusi heldua zuela uztarriaren laxatzeko aldia. Hor berean zuen ordaina, bere lagunetan, Louis Iriartegaray apeza. Hau, dena su eta bolbora baitzen oraino, suhar eta kartsu, Euskal-Herri guziak ere ezagutzen zuen. Eta maite, gainerat. Eta hortakoa gizona, sekulan bat izan bada. Bestalde, herritar guziak ezagutzen. Bat ikus, eta atseginez beteak elgarrentzat bat ala beste. Beste bat mintza eta hari «Zer diok gaizoa!» Haratxago joan eta hunekin ere berehala lehen kusi! Zu nonbait ikusi orduko, zure anaiaren, edo aitaxiren edo auzoko Kattalinen berriak ere behar zituen. Bainan bera nor zen familia kondu horietan? «Otto!» bixtan dena eta gerokotz zenbatek ez zioten otto erranen, herriko gazteek, bereziki maite zuen «rugby» hortakoek ala Angeluko serorek (bi arreba bazituen han, bat buruzagi lehena ere) ala Uztaritzeko serora edo San Josepen alaba heiek; ez baitzuen Loulou gaizoak bat ere beste batetik berexiko.

Alta **Luro** bat ere norbait zen Hazparneko misionestetan. Hau izan da apez bat, Euskal-Herri guziak beti lan bere-

an «misionest» ikusi duena. Lehenik Baionan, Santesprietako bikario izana zela! Hortako on zen, ez baitira sekulan Ahatsa Bazkazandarrarekin herabez gelditu Baiona bazter horietako judu, mariñel ala geltokiko zamaketari batzu, ez-eta bera heiekin. Ez dutea kondatzen, aspaldi, bele zaharraren karranka eginik baiones batek apez horren trufaz, bi soin-hegiatarik dilindan atxiki zuela Lurok Santesprietako zubian, erranez: «Errak berriz!» Karranka guti zela orduan!

Hortaz besterik egin du Jean Leon Luro misionestak bere egunetan. Mixel Garikoitz saindu zenaz oroitu ote zen, hunek Betharrameko Bihotz Sakratuaren apezak igorri baitzituen Hego Amerikarat euskaldun «amerikanoen» zerbitzuko, «gure gazteek han fedea gal ez zezaten»? Daukat hori bera egin due-la Jean Leon Luro apezak Ipar-Amerikarat joaitean, berak dakien bezala eta gostaia gusta. Ez dut ez ahantzia, Luro Estadu Batuetarik jin zen arats hura. Elgarrekin Misionestegiko jateko salan afaldu-ta, gauerdi bildu baiginuen denek han berean, solas eta solas, konda eta konda. Harrigarriko itzulia egina zuen. Amerika mendebal osoan diren estadu guziak miatuak zituen, Kaliforniatik Wyoming erat eta Montanatik Nevadarat, hango euskaldun ezagutu guziak errexki aurkituz bainan ere beste xoko batzuetan galdurik eta ahantziak bizi zirenak. Harritzekoak kondatu zauzkun, han egin zituen kurrida, bataio, ezkontza, misione, biltzarre eta apez batek herritarrerri ekar diezozkeen laguntzak oro, eta beste gehiago oraino. Bazuen gure auzoko emazte garaztar bat han nonbait aurkitua: aspaldiko urteetan ez etxerat ez nehoi berririk ez ihardespenik gehiago igortzen ez zuena. Hura ere ikusia zuen Lurok eta atsegin izan zuen familiak, bizi zela bederen jakinik.

**Itsasaldeko misione hartan, Arrangoitzeko** parrokian ezarria izan nintzan ni, lehenxago Bourges hirian 40 egunez egina nuen berritze-ikasaldi haren ondotik. Euskaldun eta besterik bazitakeelakoan hor nahastekatua, Aita Duhart bastidarrarekin ezarri ninduten ni, bi mintzairena egin ginezan han, elgarrekin konponduz. Haatik bizpahiru aste aintzinetik ez-ontsatutik bastidarra misioneak hasi baino lehen (Luro bezalako predikari ozen eta trebe bat zen hura, adinez ere ber-

dintsu), ordaindu behar ukan zuten azken orenean. Haren orde igorri zuten Frantzia iparretik aita frantxiskano bat, ene adintsukoa, aita Rigal. Huna nola konpondua zen misione arats bakotxa. Kantu eta otoitz batzuen ondotik (kantu berri hautatuago batzu ikasten ginituen, **Zure lekuko, Jainkoaren Populua, Agur Eliza, Jesus munduko Argia, Kristorekin guk, Piztu da Kristo, Elizaren Ama** eta holakoak, batzu Iratzeder beneditarrak eginak eta besteak Donetchek eta nik, berri zirenak duela 30 urte). Gero egiten ginuen glosia edo mintzaldi laburra, gai ximple batean. Azkenik prediku haundia, gai osoago eta beteago batez, hala-nola Eliza, Girixtinoen Batasuna, Fedea gaurko denboran, Maitasuna edo Lana herrian edo Sakramenduetarik batez... Bi misionest izanez, bat euskalduna eta bestea ez, hola ari ginen aldizkatuz bi apezak, hatik bezperatik erranez norekin izanen zuten afera. Irakurleak jakin zezan gauzak nola ziren; prediku haundia erdaraz zen batez, norbaitek erran zautan jalgitzean: «Egun predikua erdaraz, bainan esku bateko erhietan kondatuko zinituen erdal-dunak hemen!» Hola zen euskara orduan, bederen misionee-tan zabiltzanetan. Geroztik zertan ote da Arrangoitze?

Osoki euskarazko misione frango egin dugu urte heietan zorionez. Hauk ez ditut hartzen hemen, ez euskaldun kondu ez-eta beste edozein hautuz bainan xoil xoilik nik izan nituen herri batzu aipatzea gatik. Izan nuen misioea Bidarrain (P. Iratzabal lagunarekin, hau orduantxe gure ganat etorri misio-nest gaztea, pagolarra), Oztibarre-Jutsi-Arantsusin (Darritcho-nekin), Mehainen (aita Xabier Diharce beneditarrarekin), Eiheralarren (aita Leon Aramendirekin), Ahatsan (Darritcho-nekin), Alduden (Aita Santos Belokirekin), Donazaharren (Santos Beloki) ere berdin... Denetan bazabilan jendea orduan ederki. Jendeak erraiten zuen ez zela gehiago lehenagoko keta hura biltzen bainan biltzarre ederrak ziren zinez. Hau-xe zen berri: denborak aldatzen ari zirela, bazuela munduak, eta gure herriak halaber, beste giro bat sartzen hasia. Lehenagoko gaiak eta kezkek, geldi geldia zagon bizi baten erdian beti betiko egia nausiak ziren, hek jorratu eta erro-berritu behar zirenak misione batetik bestera. Nik, berriz diot, ez nituen aintzineko misioeak ezagutu, lehenagoko misionesten harroaldi

bortitz eta talendutsuekin iraganak baitziren lehengo egunak. Abantail eta probetxu hori banuen, hitz berriago batzuekin behar nituela holako gai berriak landu. Egiteak zituen lanak.

Ez nintzan haatik ni bakarrik. Ez-eta ene lagunak ere. Baginituen laguntzak eta arma berriak orduko argitzaileen aldetik. Euskal Herrian berean baginuen **Grandin inkesta** ukana. Apez bat zen Grandin hori, beheretiarra, ekonomia politiko gaietan argitua eta trebatua zena, ez baitezpada apezetan bainan orduko jakintsunen eta ekonomia sozial sailekoen artean. Euskal Herriari Jainkoaz eta Fedez mintzatu baino lehen aintzineko misioneetan xoil xoilik egina zitakeen bezala, huna non zagon lehenik herriari buruz Eliza, behatuz nundik eta norat zogan gure herria, eta herriarekin familiak, presunak, elkarteak, bizia, hots! 1962 eta urte heietarik aintzina, ez ote zen Erroman ere Kontzilio bat hasia, mundu guziko 2.500 apezpikuekin, denek behatuz elgarrekin, ez ote ziren hemen agertu seinale batzu mundu guzikoak eta ez ote ziren bide batzu elgarrekin batean hartu beharko.

Aldakuntza horiek ez ziren nehorentzat errexak, nahiz baitezpadakoak. Auziak eta oldartzeak hasi ziren sortzen ordukotz, batzu aintzinegi zoatzila eta besteak emekiegi. Horietan, batzuek beren begi xorrotxez aintzinetik ikusi zutena, besteek berriz begiak oraino idekitzekoak, hola hasi ziren xintximariak. Berritze bide batzu hartu ziren ordukotz Euskal Herri huntan, elizako kantueri ere freskaldi batzu emanaz, lehengo zaharkerietan egoiteko orde, ebanjelioko gatzez eta mundu berri baten eginbide biziagoz orhatuz, otoitz, mintzaldi, gogoeta eta kantu. Ainitzek diote, Belokeko beneditar eta beste, kantuak ere duela hein batean salbatu Euskal Herria lehengotar batzuen geldikeria eta integrismotik. Dena dela, gure afera arras xumea balinbazen ere, bihurgune bat hasi ginuen hartzen gure partetik Euskal Herri huntako misioneetan. Halere, ez gaiten guhaur gure ustekerietan gal, behar ditugu gauzak diren bezala ikusi eta hau aitortu: egina zutela misioneez beren denbora. 1970 inguruko urteetan izan dira oraino entsegu batzu, lehengo misioneak nolazbait berrituz eta oraino ere gaurkotuz egin direnak, bainan ez! Joana zen ordua,

beharko zen beste biderik asmatu. Ez ote da betiko egia, badiuela mende eta gizaldi bakotzak bere moldeak eta bideak! Hor ditugu lekuko, geroztik ikusi ditugun zinodo, jubilau eta asmakuntza berriak. Lehen ere auher eta logale gelditu ez direnek zerbait asmatu eta egin dute. Eta gero jinen den hura ez da oraino sortua.

Misione batetik heldu ginelarik Hazparneko gure etxerat, baginuen elgarri zer konda, batere guhauk egin eta ikusiak gehiegi haunditu gabe. Gure arterat bakotxa bere jite hartan zen bezala heldu zen: Iratzabal, erdi xuberotar hura, beti ixil eta xotil; Iriartegaray eta Urrutia omoretsu bainan beren natura suhar eta kartsu hartan, oraino misioneko bero hura eroria izan ez balute bezala; Lurok beti aferak ontsa eta min-korkeriarik ez; Soubelet bere hazpandar nasaitasun harekin, E. Garatek nausiaren jauntasuna, Aguirre kostatarrak ixtorio alai batzu: emazte batek Urdiñarben bere bizikleta prestatu ziola Garaibira joateko, haatik gomendio hunekin, segurtasunez: «Etzazüla gero peta!» e hortan doi bat luzamenekin finkatuz xuberotar doinuan bere gomendioa.

Hau ere ez nakike erraiteko ez ote zaigun harek berak ekarri Xubero aldeko herritto batean gure lagun beneditarrerik gertatua. Bazuten han Belokeko beneditarrek predikatzen zuten misionea. Fraide horiek ez baitira besteak baino gutiago kartsutasun eta suharrez, bainan izaitekotz sendikorrago, hau gertatu omen zen misioneko arats batez: ofizio ondoan, sakristian, pasatu zeremoniaz eta predikuaz ari jaun erretorari misionesta, kexadura saindu batek harturik: «Bai, jaun erretora, ontsa joan dela egia diozu, orohar. Salburik baziren has-tapen hartan bi gizon, ezkerreko kalerian, zer pare! Nik hur-bilago izan banitu bederen, ixil-arazteko!» Eta horra hor berean, beren sotana gorrien aldatzen ari ziren bi beretterretarik batek erraiten diola aita misionestari: «Hil behar dira?» Eta hunek bere hasarrean zelarik oraino: «Nor?» Haurrak berriz: «Argiak, jauna». Nor zen argiez oroit alabainan: arte-tik erran dezadan, zenbaitek «argiak itzaltzen» erraiten dutena, beste batzuentzat dela «argien hiltzea»! Berdin du balio. Elgar hartzean da dena.

Egunak bazoatzin. Aita J. Hiriart-Urrutyk, denbora guti egonik Hazparneko misionesten buru, galdea egin zion jaun apezpikuari: Afrikarat joaiteko, «Fidei Donum» orduan erraiten zen bezala: hori zen Aita Sainduak apez gazteeri egina zeien galde bat, Afrikarat joaiteko, misionest-lagun, hango apezekin epe laburreko laguntzaile, hiru, sei edo bederatziz urtez gorenaz. Burundin ukan zuen hazpandar apezak, semenario batean, bere mutil lekua hango egun txarretan. Nik berriz, HERRIA kasetaren kargua ere hor, apezpikuaren esku utzi nuen ene burua, herri bateko erretorgoarentzat, ahalaz ene neurrikoa, HERRIA kasetarekin batean jasaiten ahalko nuen. Orduan ninduten Aiherrarat igorri. Haatik nihauk behar izan nituen egunak eta orduak hantxetan konpondu, erretorgoa eta kasetaren hori elgarrekin joan arazteko, eta huna nola antolatu ginen, bat eta bestearekin. Aintzineko urteetan astean egun bat eta erdi hartzen nuen, Baionan, irarkola edo inprimeriako: asteart egun osoa eta astezken goiza iraganez Baionan, beraz bi joan-jin eginez. Aldi huntan, itzuli bakar egin beharko nuela kasetak, hori erabaki nuen, hots asteart egunean xoil xoilik atera beharko nuela HERRIA, goizean has eta aratseko burura: asteazken goiza katiximako behar bainuen Aiherran.

Hola, Hiriart-Urruty Afrikarat joan zen, eta ni Aiherrarat. Hazparnerat misionesten buruzagigoa egin behar beste batek, Josep Camino apezak izendatu zuen apezpikuak horrarat. Hola gertatzen zaie denetako on direneri: misionesten buruzagitza batean, Baigorriko erretorgoa bestean, Baionako katedralekoa gero, eta badakigu ez zela hortan gelditzekoa gure bikari jeneral beharra. Nork erran zuen: dei egiok beharri! Eta badakigu ez zuela orduan ahalak faltatu! Horra bai nola arizana den gure Eliza 2.000 urte huntan, guhaurek gure denbora laburrean miletan frogatu dugun bezala eta nork segurtatuko daut ez dela engoitik hortarik joanen goragoko laguntzekin! Ez, ez da jinen hor ere «beharra» laguntzera. Baina norbait izanen da beti, erranen duena: «nik egingen dut... ene lagunekin!» - Zoazi, zoazi... eta zoazte, zu eta zu iduriak! Horra beharra.



40 urtez zerbait pasatzen da. Hemen Piarres Lafittek bere laguntzaileari Aiherran egin zion ezagutza, herriko auzapez eta euskaltzainekin.



Aita L. Villasantek euskaltzain ageria eman zautanean. J Haritschelhar eta L. Challet, Aiherrako auzapeza, lekuko.



# Aiherra: Bihotxen lurra

---

**N**IK, Hazparnen bi aldiz egona nintzana, lehenik bi urtez bikario, eta gero berriz Misionestegian beste zazpi, arras hartua nuen ere Aiherrako herria. Nola egonen nintzan Aiherrarainoko jauzi bat egin gabe noiztenka, Hazparnetik. Han baitzen erretor Martin Lagrenade Baigorriko bikariohia. Funtsean berak ere bazakien Lagrenade apezak ene ganako bidea. Zenbat aldiz ez dut ikusi, Misionestegirat bere solex edo bizikleta zaharrearantz etortzen, katixima egun batez bazkal ondoan! Berak 67 urte zituen orduan, nik 43. Hogei ta hamar bat urte erretor zela bera, lehenik Urkoiko hazpandar herrian 10, gero berriz Aiherran 20, beste nehor ez bezalako apeza, gisa guziz. Eta hor zuen Maiana bere lehen kusi gelaria, halako emazte on eta baitezpadakoa, hau ere bere burua apez gelarigoan Jainkoaren eta Elizaren zerbitzuan ezarria zuen emazte saindu bat, serora iduria, gaixoa.

Ez zen ustegabetarik ibilki katixima egunarekin ene ondotik Lagrenade. Osagarri haundiko apez hazpandar hori beste gisan, ez zuena min bitxi batek erretzen hasia barnetik! Ez min-bizia eta holakorik ez, Jainkoari esker, baina ixilagoko zerbait halere: herriko artzain bezala, bere artaldearen erdi-erdian bizi zen artzain on hori ezinago kezkatua zen artaldez ez idurian. Auzoko edozein apez, lasai eta lazoagorik biziko zen kasuan, erranez ez zirela gauzak hain ilun ez hain gaizki ezarri behar, ezin-egon batean bizi zen gaixo «Bihotx», eta hanbat gaixto zuretzat, zu lekukoa, ez bazinuen zuhaurek zilatzen haren barneko harra; berak nahiagoko zuen ba min hori beretzat atxiki, zuri oro salatu baino.

Erran dut katixima eguna zuela erretorak: nik haren berriz zerbait bainakien, laster ikusten nuen, hitzerdi batzuetarik,

nihaurk gero osatzen nuena: nekez ibilia zela apez ona goiz hartan haurrekin; berak egin-ahalak egiten, gaixoak, erlisione ta fedezko egiak ezin esplikatuz haurreri, bainan haurra-haur eta xaharra-xahar; hots, haur batzuek 9 urte eta berak 67, nork behar zuen 60 urteko leize hori hitz xoilez bete? Hau zen ondikotz egia: haurrak nausituak zituela, egun batzuek, apezak ez gehiago aski larderia, edo aski pazientzia, bere laneko. Badakit hurrez besterik bazuela Aiherrako herrian, eta guziz familia paregabeak, bai-eta ere, beste herri gutitan bezala, gazteria bat Lagrenadek paregabeki lagundua eta artatua zuena, nahi bezenbat moldatua ez baditake erran ere. Funtsean ez dut errana oraino nondik ateratu ginuen Lagrenaden izengoiti hori, «Bihotx». Ez ginuen urrun ibiltzerik: Hazparne Bihotxeneko semea zen, Elizaberriko auzoan, apez hori. Ez dut dudatzen izenaren araberakoak direla Bihotxeneko jende onak. Bederen, guk, apezek, baginakien ez ginuela gure artean beste apez bat ere «Bihotx» izena hoin egokia zuenik eta hortako ginion izen hori emaiten gure artean.

Etsenpluak baginuzke burrustan Lagrenaden bihotz haundiaren frogatzat. Behin, familia behar batek, zerbait diruzko nekealditan jende gaixoak, ereman zion orga bat egur, nehork eskatu ez ziona, apezetxeko ate ondorat apeza bera nunbait zelarik. Biharamunean han zuten familian apez paregabea, «baa-baa!».. eta holako hitz jenatu batzuekin ez jakin zer erran eta norat itzul. Eta hura joan ondoan zuten aurkitu, beren untzitegietako opor baten azpian, saria... orga egurrak baino gehiago balio zuena. Badituzte orai herriek «Denen-Etxea» deitzen dituztenak. Aiherran ez zuten Denen Etxe beharrik «Bihotx» ekin, han baitzuen nor-nahik «Bihotxene» berri hura, Apezetxean, elizako patarraren zola hartan.

Pentsa beraz zuk, irakurlea, nolako kargaren pean gertatu nintzan ni, Narbaitz kalonjeak erraitearekin ene beha za-goela Aiherrako erretorgoa Lagrenaden ondotik. Banakien segur Lagrenade apezak ez zuela ezetz erranen: gazteagoa nintzan, kantuko bederen errextasun zerbait banuen, Liturgia berritze bat egiten ari zen urte hetan, bainan «Bihotx» hori nola ordainduko nuen nik harena bezalako bihotzarekin?

Erretiratu zen dena den hura herritik, bere gorabeherak jasan ere, osasunean eta beste, ala herriz kanpoan lehenik iloba apezarekin, ala Hazparnerainokoan gero bere sort-herriko apezlagun egonez. Hau bederen izan dugu harek eta nik: bera kasik hil-arte hor ukan nuela gero, alde-aldean, Lagrenade apezza, Baigorri ene haurrean ezagutua nuen katixima egile eta kontseilari zuhurra. Eta, azkenik, nola ez dut hemen eskertuko beste bat Lagrenaden izenean: Hazparneko ezin ordainduzko Erramun Idieder erretora, Lagrenaden adiskidea hau ere eta bihotz haundikoa bere biziaire hartan hain suharra zena: hunek baitzuen ikusi apez horren gaitza edo mina eta sokorritu: berak hartu zuen bere auzoko Bikaritean eta urte alde batez enpleatu hazpandarren apez zerbitzari paregabe.

Joan nintzan beraz Aiherrarat 1969 urtean. Suerteak ere ongi lagundu baininduen. Euskal Etxeak etxekandere on bat behar duen bezala, herriko erretorak ere haundizki estimatzeko du andere gelari on bat. Eta hori ere hatxeman nuen nik Aiherran, etxeko perla: Maji Mendiondo, Apairi-Arrontaeneko, ene aintzineko Jean Pierre Urrutiak ere bere zerbitzuan izana zuena, bera goizegi joan aintzin.

Ez uste izan haatik arras errexki ardietsi nuela nik Majiren baia, ene apezetxerako: «Badakizu, jauna, nik ez dakit kozinatzen» erran zautan lehen galdean berean, durduzatu ninduen hitza. Ez zakiela kozinatzen, hor egon nintzan ni griña zerbaitekin, zer erran nahi ote zuen solas horrek. Nik neure berri banakien, baratzekari salda eta etxeko urdekia eta tomate-saltsa larrazkenean balinbanuen, lehenago Belarrean iratze sasoinen ginuen bezala, horrekin banuela behar guzia; baina Maji hori ez bazen bere buruaz fida, aintzineko misionegoan herri batean ezagutu nuen gelari bat bezala, orduan zer eginen nuen nik, Majik ez bazaukan bere burua gai? Ba ote da alabainan bere baitan sinesten ez duena baino hitsagorik? Hau zen, futxo, behin, aintzineko urte batez herri bateko misioneeetan gertatu zitzaiguna: misioneeetako lehen egunean, bi predikari misionestek nahi ukan ginuen gelaria mintzatu, gauzak haxean izan ziten gure artean hastetik. Hau esplikatuzion ene lagun zaharxagoak (Aita Darritchon oragartarra),

nik eginen nuen baino hobeki, ustez bederen: «huna, andere gelaria, nola nahi ginukeen gure lan egun hauetan bi astez: eguerditan, zuk emana janen dugu, besteek jaten dutena, eta ez gehiago. Aratsean aldiz afari arintto bat, etxeko eltzekaria, arroltze bat eta lur sagar pitxika bat gorenaz, gasna mikoa edo fruitu batekin. Gaixoak, ez dakit nola hartu zuen hori: bi platetan egin zaukun berak zakien hoberen guzia, eta zinez nasai. Bainan gu etorri ginelarik, jadanik predikua eta ofizioa gure gogoan, aratseko predikurakoan, erdi arin gelditu ginen hoinbeste jatekoren aintzinean. Gero izan ziren konduak, erretorak hatxeman baitzuen gelaria arras lotsatua eta penatua, nigarrez hipaka, ez zakiela harek nola egin gure gustua, ez baitzen hura «oraiko etxekandere sukaldari horietarik». Uste dut halere, berriz mintzatuz, elgar hobeki ezagutu ginuela eta ondoko egunetan ontsa hartu ere.

Beharrik ez baitzen Aiherrako Maji beren burua norbait zaukaten horietarik! Horrek gaitu funtsean salbatu, hura eta ni. Egun guziz jin zait Arrontaenetik oinez Apezetxerat, bere ahizpa xaharra Leoni han utzirik xakurrarekin eta oiloekin; beti bere omore ona eta ezpain-hegiko irriño ezta lagun, beti ele guti eta hek onak! Zinez, holakoa izan delakotz Maji eta ez batere kozinatzaile haundi eta handikaria gure Aiherrako hameka urte heietan, hura herriaren bigarren zerbitzaria erretoraren ondotik, uste dut bai, eta segur naiz, arrazoi horien gatik, ainitz eta ainitz zor diola Aiherra guziak eta ez nik bakarrik Maji gelari on eta sainduari.

Bazuen, egia-erran, Apezetxekoaz beste kargurik Majik bere ahizparekin. Ez zutena han, Afrika-Ruandan, Jan-Battitt beren iloba eta sematxi misionesta, hainbeste urtez bi ahizpek beren diru poxiaz eta bihotz guziaz berea bezala lagundu dutena! Berea bezala baino gehiago ere, egia-erran: aspaldi du Harrietan aita eta ama galduak dituela Jan Battittek eta Arrontaeneko bi ahizpek ordaindu dituztela beren gisan burasoak harentzat: haatik Harrietako familia guziari deus ekendu gabe, hemengo haurride, koinat eta ilobek ez dute orai ere saltzekoa Ruandako otto misionesta. Nihaurk hemen daukat enekin Harrietako familiaren oroi-

tzapen onak. Alabainan, Maji, Leoni eta Jan Battitten haurri-  
de eta ilobak nola izan zitazkeen bestelako?

**Aiherrako trinketak** haundizki lotu ninduen herri eta parrokia horri. Lagrenade apez ohia behar dugu berriz ere hemen gogoan izan, gauzak ongi ikustekotz. Apez arraro hori denekilakoa izana zen herri hortan, nehoren berexkuntzarik gabe. Denekilakoa, eta lehenik gazteekilakoa. Bere etxeko-  
tuak zituen gazteak, eta guziz etxe gibelesko arrabot hura ez zutena deitzen «patronaia» edo gazteen pilotan jokatzeko bilgia! Ateraldi batzu gainera, guziz hegoaldearen mugako mentta inguru horietarat. Horrarako ihesaldietan zitzairen su bat pizten hasia, beren arteko piztale batzuekin (Lagrenade, R. Ospital, B. Barbier): «Ai, guk pilotako leku estali bat baginu! Euri egunetako bederen aterbetzat!» Bereak eman zituzten kurrinka eta errepika horiek azkenekotz. Etzutena aintzina-  
gotik ere lurra prestatzen hasia! Badakit, ni Aiherran erro-  
tor izan baino lehenagotik, egin zirela Apezetxean bilkura batzu, Lagrenade apeza bera, Rene Ospital auzapeza, gazte andana bat eta nihauk ere, ez baitakit zertako, ukan nuela horrarako komita. Egunak jin, egunak joan, horra nun sortu zen trinketaren xedea Rene Ospital jaun mera eta kontseilu jeneral zenak emanez argitasun eta indar herriko gazteria horren galdeeri. Auzapez gaztea 1968 an tupustez hilik zorigaitzez, ez da ere Ospital bera izanen obra eder horren eraikitzailea bainan eginen da halere, hango harri zizelkatu batek dion bezala «Ospitalen bidetik». L. Challet auzapez berriarekin, eta ez dut ikusi nik nehor Lagrenade apeza bezain alairik, trinket berrian sartzen ikusi nuelarik lehen aldikotz. Urak bide egin du geroztik. Ekarri dizkio geroztikako kontseiluak aldaketa batzu «Gaztetxea» deitu zen trinketari, aldeko sala eder batekin bereziki trinketa bera ez bazen ere zenbaiten gostura bururatu, denena den herrian. Pilotak duenez irabazi ala beste biltzarre mota, apairu ala bestaleku zenbaitek, hori oraiko aihertarrek eta tokian direnek dakite bainan bizi da beti herria lehengoan bide edo hatzetarik, guti gora behera.

Hogoigarren mendearen azken heren hartan, hasteko ta bat, gauzak aldatu ziren Aiherran: pilotari haundienak ikusi zi-

tuen Ospitalen herriak, trinketa koka-ahala beterik, Behengaray, Etchart, Etchegoin, Daguerre, Elissalde, Arbillaga, D. Aguerre, Maitia, Laduche aita-semeak, Urrutia, Sein eta orduko pilotari ospetsuenekin. Eta zer erran herritar ikusleez, eta auzotiar batzuez? Behin, larunbat aratseko mezaren ondotik zen partida haundi bat, eta, ene jakinean, jendea etxerat abiatua, noiz-eta Bidarra alde hortako bi pilotazale ikusi baintuen ene apezetxe ondoan: «Zer zabilzate hor ilun beltzean?» erran neien, eta hek: «Joan behar dugu Beltzagiteiraino: lagunak hor baititugu ostatuan, naski musean hasiak, behar ditugu abisatu, jandarmak hor direla Lekuineko bidean eta denak geldiarazten dituztela... balon famatu hartan ufatzeko». Hori haatik beste pilotarik zuten, beren artekoa.

Trinketa eta Eliza doi bat eskuz-esku joan dira orduan, funtsean haren sortzaileek ere beren gisan nahitua zuten bezala: larunbat arats hartan mezaren ondotik partida zela erran dugu hor, bestaburu batzuez izan da hori bezperen ondotik ere.

Guk aldiz, beste parada bat izan ginuen eta hori zen haurren katixima. Katixima eguna ortzeguna zena oraino, ala astekenerat aldatua ote zen ordukotz, funtsean berdin du, huna nola joan-arazten ginituen guk katixima eta pilota ikasketak eskuz-esku bezala. Aiherrako haur bat ez zen katixima hutsegiten zuenik, orai aipu dugun denboran. Bazuten gure hurrek goiz osoarena horiekin biekin. Lehenik, jiten ziren katiximarat: hau guzia lau zatitan egiten ginuen gain hartan, Seroretako komentuan, eskola girixtinoaren salak baliatuz: apeza, serora, eta bi katexizta, lau zatitan banatzen ginituen haurrak oren bat eta erdiz ari ziren lehenik beren katiximan haundietetik ttipieneraino. Mezaren prestatze labor bat gero, irakurgaiak laburzki esplikatzu eta otoitzen xedeak hurrekin aurkituz, eta meza ginuen azkenik segidan: denen meza, irakurtzearen lana hurrekin hola banaturik, kantuak ere barne. 9 orenetan hasia, hamekak ondoa ginuen horiek oro egin orduko.

Hoberena hartzekoa ginuen orduan: ez ginuen manamendu emaite beharrik: bi jauziz, denak trinketean ginen be-

hereko zolan, Jauregiko ondo hartan. Bakotxak bere pilotak, nik emanik, multxoka, trinket sahetsari hasten ziren denak, ebaska, eskuen berotzen. Mutikoez mintzo naiz hemen, mutikoena baita esku huskako pilota, eta denak eskuz ari ziren, eta guk ez baiginuen besterik ezagutzen orduan. Neskak ere han ziren ez urrun, elgarri segitzen alabainan. Mutiko ttipienek lehen partida, hein bat laburra hauk, gero, haundixagoak, beren partidari hasi orduko hor ziren ama batzu autoarekin, ttipienek etxerat heltzeko. Ene lana zen bigarren partida artatzea, eta hirugarrena, haurrekin behar den maitasun larderiatsuarekin. Azken partida, 11-12 urteko haundiska batzuekin, hura zen jokaldi haundia. Denbora baitzoan, eta beste guziak joanak, etxerat, enekin erretiratuko ziren azkenak, autoak har ahala, oren bateko etxeratu. Horra gure goiza ederki betea, eta ez guri galda, zeintan erakutsi ginuen su gehiena, katiximan ala pilotan, ala bietan. Nik ez dut, ez kezkarik, ez dudarik, lan ona baginuela egin goiz hartan guzian, katiximan bezala pilotakoan. Bururatzeko, erran behar dut, baginuela aratsaldean 13-16 urtekoen entrenamendua, astezken guziz. Ez ahal zuen Lagrenade batek, Jainkoak berekin duela, gutiago eginen!

Lagrenade apezak 67 urtetan utzia Aiherra, ni oraino pilotan ari nintzan ene Aiherrako denbora guzian, irakurlea ohartua den bezala. Azken partida 54 urtetan egin dut horgo trinketea Irisarrirat joan baino lehen. Granjako Frantxua Barbier gaztearekin 14 urte arizan nintzan hirugarren maileko finalean bi iholdiar putiko azkarren kontra: Jainkoak bere lorien duela Frantxua gaizoa: Henri eta Maialenen semea, ezkondu ondoan gazte gazterik zendua dena.

Bainan baditut beste pilotako lagun batzu hemen ahanzik ez ditudanak. Nihauk banituen, berrogeita zenbait urtetan nintzalarik han aurkituak, gizon ezkondu multxo bat: bat ene adintsukoa, Sauveur Jelos, eta beste guziak gazteagoak: Etienne Betirisans, Xemartin Lako, Henri Granja, Domingo Ixuri, Janpiarre Jauberri, hau goizegi utziak gaituen lagun suhar arraroa; eta noiztenka bederen gutaratzen ziren beste batzu, Zabaloko Henri, Jano Eihera, Andre Martinon,

Agerreko Erramun, eta norbait ahanzten badut, barka! Bai, guk gure 50 urte ingururaino eta gehiagoeekin, atxiki dugu pilota Aiherran, hunek berak utzi ez gaitueno eta uste dut bazutela gazteagoek gutan etsenplu hartzeko, hortan bederen, edo hortan ere, bakotxak hauta dezala hitz xuxena. Lagrenade apez ona Hazparnen zendu zen, eta han berean lagundu ginuen azken egoitzarat, bere sort-herrian egin ginion ehortzemeza eder baten ondotik. Han zuen segurki Aiherrako herri guzia ere, zinez merezi zuen bezala eta nihauk izan nuen atsegina, ainitz apezten erdian eta Idieder jaun erretorarekin, zor nion mintzaldi gozo eta senditu baten egiteko, otoitzekin batean.

**Ongi pilotan eta, oneski dantzatzen.** Pilota, dantza, kantua, musa... denek balio zuten Aiherrako gazteriarekin. Denak batean ezin aipa, zer dantza inguru haundia ez ginuen egiten jaunertoraeneko plaza zabalto hartan, etxe gibelean; han hasi ginen mutxikoen ikasten, haundi ttipiak nahaste. Erakasletzat ekarrarazirik oroit naiz, Donapaleutik, Beñat Dagorret sortzez makearra, ene eskolako-lagun ezagutua nuen, aspaldi, Uztaritzen, hura ere gurekin apezgai egona zen denboran eta geroztik goizegi zendua dena. Dantza-talde batzuen aurkitzeko Donapaleu, Hazparne edo herriz kanporat joan behar baginuen guk, ez zuen hanbat balio urrunegi ibiltzea. Gure xedea ez da izan, Aiherran, talde berezi baten sortzekoa bainan euskaldun dantzen ikastea, mutxiko, fandango, arin-arin eta, hots, herriko dantza sanoen horiek: lehenago erranen zuten «lotugabeko dantzak» bainan ez zen hori ere gure kezka, joanak baitziren aspaldiko denbora larderiatsu hek.

Beraz, hastapena Beñat hura edo norbaitekin eginez geroz, bera bazoan gaineratekoa. Guziz xaharrak ere hasten zirelarik. Orduan, uste ez zena ere heldu zen dantzarat, beti ingurua haundituz. Hor ikusten ditut oraino Haraneko Piarres, Apagako Beñadin, Betirisansteiko Etienne, Xedarriko Janpiarre eta Maitexa, Larregaineko Mixel, Jauberriko Janpiarre ta Majalen eta guziak. Ez, holako aratsalde alai goxoak zaindu eta segitu ez dituenak ez daki nolako Euskal-Herriari ihes eta



uko egin dion bere buruaren eta beste ainitzen kaltetan, ohi-dura xaharrak erortzerat utzi baditu.

**Musean**, berdin berdina. Berriz etorri da Euskal-Herrian muslarien moda haundia eta hobe segurki: bost mila jokolariz goitiko xapelketa haundia hor dugu lekuko, eta noiz-nahi badira, kasetak ikustea aski, jakinaraziak zaizkigun Aiherrako, Itsasuko, Luhusoko, Irisarriko, Urruñako, Uztaritzeko, Ortzazko eta kasik denetako xapelgo eta saio ederrak. Bainan nik lerro hori ez nuen hasiko Aiherrakoa lehenetan ezarri gabe. Aspaldi du ni Aiherrarat abiatu bainan nik beti ikusi ditut aihertarrak muslari, eta haur eta gazteak ez baterre gibelenik, ikusi dira haur edo gazte huts batzu herriko xapelgoaren irabazten. Eta norekin? Serorekin! Serorak bai musean, eta irabazle! Horiek oro jakin ditzala, oraino sinetsia ez zuenak Aiherrako giroa berezia zela. Bainan giro bat ez da bera egiten. Gizon eta emazteak behar ditu giro batek halakoa. Ez batere besteak baino hobeak, holakorik ez dut erran: arras desbardinak bai batzu eta besteak, pentze guzietan ardi beltz ala xuriak badiren bezala. Badut ustea hau dela herri batean giro onaren segetu bakarra: onartzea zuhauk ere, bestea den bezalakoa izan dadin.

Aiherrako gazteria harek ez zuen beraz orduan berexkuntzarik egiten: ni kirola huntakoa eta zu beste hartakoa; edo nik holako bideak eta harek bestelako batzu. Elgarri aski jarraikiak ziren herriko gazteak. Apeza ez zuten beren ganik urruna batere. Hori Lagrenaden denborakoa zuten. Hala-nola, denborarekin gostuak eta ahalak aldatzen baitira, ez zuten gehiago mugako mentta horietarainoko batekin aski bainan behar zuten urrunago ere joan autobusez, Biarno alderat berdin, Gourette eta han gaindiko elurretarat. Apezak, igandekari, bere ordaina ezartzen zuen herrian, meza-nausi bezperen emaitako. Goizean goizik, hartzen ginuen Biarno eta Bigorra hegi haietarainoko bidea. Ai zer omere ona eta zer kantuak egun hartan goizetik aratsera! Autokarraren bila ez ginuen urrun ibiltzerik, ez-eta Hazparneraino ere lehenago bezala, Salaberry-tarrekin. Hor ginuen herrian Frantxua Haristoy, Auxoa, gu bezain omereitsu eta gazte bera ere, erran baineza-

ke. Ez zuen hunek ere bere eguna galduko bestalde. Ez bai-  
tzen orduan Euskal-Herrian orai ditugun fama haundiko ardi  
gasna horietarik, Belokeko Ardiga, Makeako Berria-Onetik,  
edo Larzabale, Irati eta holakorik, guti edo urrunegi baizik,  
edo aldizkatzeko bederen, bazituen Frantxuak bere xokoak  
Pirineo mendipe hartan, gibelerakoan bere itxuliaren egiteko,  
urteko erresalbua.

Beharrena eta gure gazteentzat xarmegarriena, elurra  
zen halere: ezkietako tresna batzu, trebe edo ez trebe, tokian  
berean egunarentzat arrandaturik, zer aprendizgoak eta fres-  
kaldiak zituzten han hartzen! Eta zer josteta, eta irri-za-  
flak! hemendik zirrizt eta handik zarrast eta orotako itzuli-  
purdiak eta trenpantzak bazirela zerbait! Nik, apezak, zenbait  
urte gehiago izanki, beste hauturik egin izan dut holako egu-  
nez: oinezko kurrida eder bat bizpahiru lagunekin gazte heien  
artetik: elur tokirat igan baino 12 bat kilometro lehenago jau-  
tsiko ginen autokarretik, mendiaren zolan, eguerdiko gainerat  
oinez heltzekotan eta, zanpa-zanpa, han ginen gu ere eguer-  
diko elurtoki hartako ostatuan; bazkaritto bat egin zitakeen  
han berean, karioegi gabe, edo etxetik ereman arroltze ta xin-  
gar hartarik eta kafe bero bat tokian hartuz. Hori zen Biarno  
auzoak eman ziezagukeena euskalduneri neguaren minenean,  
herritik ehun bat kilometraz urrunduz geroz. Orai izaiten du-  
gu bai jasta bat Iratin berean ere elur hortarik, aroa alde iza-  
nez geroz bainan euskal mendi hauk prestuegiak ditugu guk  
gaineratekoan elurrarentzat, bereziki haize hegoa gozaten  
delarik. Guk aldiz bihotzetan ginuen adin hartan hegoaren ba-  
fada.

**Kantua** ere hemen sartu beharko dugu. Besteak baino  
kantariago dea aihertarra? Nehor mendratu gabe, ez dut hori  
uste. Besteek baino maiteago ote duen, hori izan daiteke ha-  
lere. Zenbat kantaldi ez da entzuten herri hortan egin edo egi-  
nen dela, eta jendea biltzen kanturat eta antzerkietarat. Ez  
daude segur hutsik eta alferrik Aiherrako Trinket, Sala eta  
Elizak. Bainan badakite aihertarrek kantari izaiten berek ere.  
Eskualdun Gazteriaren bestetan, lehenago, ikusten ziren  
aihertar kantariak, urte hauetako kantarietan halaber. Eta gu-

rekin ere egin ziren kantari, duela 30 urte eta gehiago, aihertar gazteak. Elizetako koralen besta batez, izan ginen, presaka, herriko mezaren bururatzean, Aiherrako gazte batzu eta ni ene lehen urtean: Hazparneko koralen meza nausi eder baten ondar parte guziaren entzuten. Guhaur ez batere ikasiak oraino, hitzeman ginuen, han berean, korala bat izanen ginuela Aiherran, ondoko urteko. Norekin hori? Gazteekin bakarrik. Antxu gazte tropan, bi ardi ezartzen diren bezala bidearen erakusteko aintzinean, bi aita onetsi ginituen (barkatu zuek, B.B. eta J.L.) astia eta nahikeria zutenak, eta beste guziak, 50 gazte mutil-neska (10-30 urtekoak). Ondoko urtean edo bestean, aihertarrek eman zituzten kantu baten bertsuak, Ortzaizeko Elizan, koralen bestan ororentzat, eta ez dut uste geroztik urte batez ere hutsegin duten aihertarrek besta hori. Aiherrako multxo hori arras jarraikia izana da alabainan luzaz, eta guziz gaztea, 55 gaztetaraino ere kondatuz bere lefroetan gidaritzat, ni joan-eta, Belokeko beneditar bat harturik eta, geroztik, beren arteko bat. Orok beren gorabeherak izaiten, eta galdeak holakoak gertaturik, sartu dira ere geroztik emazte eta gizon ezkonduak gazteria hortan, funtsean gazteak ere ezkondu koralan berean edo bestalde. Hots, hor dauzka beti herriak bere kantariak.

Bere fama ona gidari, izan zituen egun haundiak Aiherrak: hala-nola telebixtaz Frantzia-Belgika Luxembourg eta Suisaraino hedatu zen igandeko meza nausi bat, 1973 an bere euskal kantuekin Aiherratik, ainitz prezatua izan zena, denetarik etorri ziren goresmen-gutunak lekuko. Bilboko seminarioa ere izan ginuen Aiherrako meza nausiaren entzuten Manterola beren apez zuzendariarekin. Azkenik, Aiherran egin zen, tokiko organoa lagun, euskal kantika xahar eder batzu grabatuzko disko sano bat, Bihotz Sakratuarenak eta beste, denak ohidurako kantu xaharrak.

**Belokeko Aita Beneditarrak** hoin hurbil izanez, ez da dudarik auzo on horren laguntzak ainitz baliatu zaizkola Aiherrari. Zer zen alabainan zuzenago? Ez zirena beneditarrak ere hortako plantatu, duela 125 urte, Euskal Herriaren gainerat zeruko grazia zenbaiten jauts-arazteko amets laño

batekin! Eta bakotxak badaki beren kantuez ere dutela fraile horiek Euskal Herriaren fede bizia sustatu, beren beste otoitzekin batean eta Liturgia ere Kristau Jakintzetako hainbeste lanen gainera.

Lanak bai beneditarrek. Belokeko azindategi haren gainean hitz larriz idatzia den hartan dago beneditarren egitarau guzia: Ora eta Labora, horrek erran nahi baitu Otoitz eta Lan. Lana? 1957 inguru heietan zitakeen hau: ni Urruñan bikario nintzanean, buruz-buru egin nuen Herriko-Etxeko plazan, autobusaren beha zagola, Belokeko fraideen buruzagia izanzen Aita Xabier Diharcekin. Bere orduko lanak aipatu zaizkidan: ordukotz Belokeko «Kantikak» (Euskal Elizetakoak), ezagutuenen bilduma liburu ederra egina zuen (oraino ere baliatzen duguna). Liburu Sainduetako Salmoak zituen bestalde gogoan: euskaraz ezartzea eta kantutan moldatzea, hori zuen bere lanetako kezka haundia. Meza-Nausi-Bezperetan jendea nasai ibilki zen hartan, balio haundikoa zen otoitz eder horiek kantuz errexki eman ahal izaita. Lan hori ez balaukute beneditarrek orduan egin, zer biltzarre murrizak ez ginituen guk izanzen gure gazte denbora guzian! Hori izan zen gure fraideen bigarren lan haundia, orduan salatu zautana, kantu xaharren bilketaren ondotik. Eta badakigu 2.001 eko otsail huntan ederki ospatu dela Mugerren euskal bezperen 50. urteburua. Aiherra Belokeren lehen auzo izanez, baliatu da beti hurbiltasun hortaz eta ez ardi esnearen gasnatzeko bakarrik bainan ere beneditarrek ekarrarazteko kantu erakasle: lehen Aita Leon eta Bruno, eta guziz Aita Ignace bat berrikiago.

Haatik badakite beneditar fraide langile ixilek, edozein lanek ere ez duela bururatzetik. Hots! Zuk egun egina berriz apaintzeko dela bihar, osatzeko etzi eta, azkenekotz, berriz hasteko urteek ekarri dioten higadurarekin. Jendea bera aldakor, behar zaio gaiari bere janaria beti gostuanagotu. Holako gauzak baitezpadakoak dira, kozinan bezala, hitzetan. Nahi bezenbat etsenplu baginuzke gure kantuetan, hala-nola Euskal Herria denbora batez hunkitu zuen jansenismoarenak: fedearen eritasun bat zen hori nolazbait, Jainkoaren beldurra eta haren gaztiguen dorpea predikatzen zuena, Aita Salba-

tzailearen amodioa baino gehiago. Ez ditut hemen izendatu-ko, gure kantu xaharretan arras nausi hasarrekor eta gaztiga-tzaile batez ari ziren batzu. Ebanjelioko hitzaren orde, mora-la latz eta hotzegi bat baitzarioten. Eskerrak gure beneditar euskalduneri, erakutsi baitzaukuten beren obretan gure kantu aire xahar batzuetan ezartzen ebanjelioko hitzak, maitasunez-koak, hala-nola «Bihotz eta gogoz bat» zirela lehen fededu-nak, eta, Jesus Jaunari, «Guretzat duzu Jauna, eskaintzen odola», edo «Jainkoaren Populua» egiten dugula guziek elga-rrekin, gu «Jaunaren lekukoak» lur huntan eta hainbeste egia. Zinez arrazoin zuen Xalbador bertsulariak ere hau ikasi bai-tzuen, berant bazen berant, bertsu eder hautan bere bihotz gu-ziarekin Jainkoari kantatzen zion otoitza:

*Zure behako samurrak eman nau fidantziaz beterik...  
Gaurkotz ez dautzut deusik galdatzen amodioaz besterik.*

Ez, ez da beraz harritzeko, hoin maite baitute aihertar eta beste auzoek Belokeraino joaitea, parada dutelarik, argi eta berotasun bila!

**Bibliako eta Mezako Itzulpenak** azken urte haietako lanetan sartzen dira. Mintzaira guzietan egina zen eskaintzan ez ziren euskaldunak bazter egoitekoak. Beloken bildu ginen euskaldun multxo bat, gehienak apezak bainan laikoak ere baginituen, euskarazko mezarendako. Hau, latina utzirik, bakotxari bere mintzairan ezarri behar zitzaiola erabaki zuen Kontzilioko Elizak: 1964 ko Mendekoste egunean hedatu zen orotara su hori. Baionako eliza gehienetan frantsesez, Aihe-rrakoan eta Pagolakoan eta gure herri gehienez euskaraz, bi-garren Izpiritu Sainduaren jauste bat bezala hartu zena, Liburu Sainduak baitiote «Bakotxak bere mintzairan entzuten zue-la».

Beloken geldituz gu aldiz oraino, hortxetan ginuen gure taldea egina, gure itzulpenetan bermatzeko: astelehen aratsal-dea ginuen, astetik aстера, Belokeko aita Xabier Diharce, Marzel Etxehandi, Martin Sein, Gerezietako Benoat Olhaga-ray, Sarako Mixel Idiart, nihaur E. Larre, Ainharbe ta Do-

mintxinetik A. Indart, P. Andiazabal denen kudeatzaile, Josep Camino apeza, Piarres Charritton, J. Hiriart-Urruty bikari jenerala ahal zutelarik, laikoetan Beñat Dagorret, Mixel Itzaina, Mixel Labeguerie kantu zenbaitendako eta beste batzu... Horiek eta noiztenkako beste batzu, beti ahalen araberan, bildu ginen, guti-aski hameka urteko bat iraun zuen lanean ahal bezain jarraituki. Gertatu zaigu bat edo bestea urrun izaita ere noiz edo noiz epe luze hortan eta orduan ahal ginuen bezala. Behin badakit Oloron aldeko Cardesse hartako misionetarik jinik hartu nuela Belokerako aratsaldea.

Ez zen lan txarra, Andiazabal (gaurko kalonjeak) ere egiten zuena. Etchegaray kardinalaren eskolako laguna izana Uztaritzen, eta ordukotz Etchegaray arras ezagutua Parisen eta beste, haren eskutik bazuen Andiazabalek ainitz papere-ria: ebanjelio edo liturgiako pasaia zail bat nola har, nola konpreni, nola itzul, eta holako, Euskaraz ezartzea gure gain, jakintsun argitu batzuek latin, griego edo juduen aramearretik hel-arazten zaukutena: ibili zen ere Belokeko aita Marzel Etchandy bat hango hizkuntzen ikasten, Jesusen denborako aramear mintzaira.

Ni, Aiherran nintzan denborako berrietan ezarri baditut ere hauk oro, huna zerendako: batean misionesgoan nintzala-kotz epe hartan, eta bestean Aiherran, ez nakien nun aipa. Barka diezadatela aihertarrek, eta ene lagunek berdin. Gisa guziz, Nausi berarentzat ari ginen denak ere, ahal ginuen le-kutik.

**Erromarat.** Itzulpenen berri horietan naizeno, azken xehetasun hauekin nahi nuke bururatu. Eta lehen lehenik, erranez ukan ginuela sari eder bat Euskal Meza hortako ari izanak ginenek. Erroman izan ginen, Aita Sainduari bisita egiten Euskal Mezaren idazle multxokoak elgarrekin, Karmelo Etxenagusia geroztik apezpiku duguna eta oro. Erranen dut, den bezala, nork pagaturik ere. Elizak, berez, dirua xuhur izaiten baitu ainitz aldiz, Andiazabal gure lagunak izan zuen pentsaketa bat baliosa. Baginuen, haren inguruan, liburutto bat ateratua, girixtinoentzat, sakelako liburu merkea mezaren segitzeko: **Igandetan Elizan**, hemendik eta Amerikarainoko

euskaldunek ere berekin sakelan eremaiten zutena. Ez zen Andiazabal gaizki jokatu: 15.000 liburutto behin, geroago ez dakit zenbat, denak joan ziren ogi benedikatua bezala. Eta denak laster salduz zerbait utzi ere lanaren egileentzat kondua-  
ren gaineko. Horra nundik atera zen pidaiaren saria, gainera-  
tekoarekin.

Hau ez dut salatua halere: ez ginela gu bakarrik, iparral-  
dekoak. Erromatik ukana zuten ihardespenean hau gure ardura-  
dunek: «Euskal Herria? Bainan zenbat Euskal Herri  
dira? Guk ez dugu euskal mintzaira bat baizik ezagutuko,  
Erroman, funtsean, mintzaira guziendako bezala. Zuek herri  
desbardinak badituzuela, Xuberotik Bizkairadino, ez du-  
zueia berdintasun bat egiten ahal; hala-nola «Gure Aita», «Si-  
nesten dut» eta mezako beharrenak diren otoitzendako bede-  
ren? Guk baietz, eta hor ginuen bururatu nolazbaiteko «**Me-  
za Batua**». Ondorioa zer den badakite Euskal Meza Telebix-  
tan daukaten guziek orai. Librantxa edo askatasun bat utzi  
zen, gaineratekoan, Ebanjelioa edo Jainkoaren Hitza bako-  
txak berean ongi adi ahal izan zezan.

Itzulpenetan, holaxet, elgar-lana egina ginuen hegoalde-  
ko multxoekin, eta horra gure Euskal Itzultzaileen taldea egi-  
na. Bilbotik abiatu zen beraz autokar bat Donostia eta Baio-  
nan gaindi hango eliz barruti edo diosesen gain hangoen di-  
ru-zorra, eta hola abiatu ginen oro batean Erromarat buruz,  
hogeita-zenbait lagun, ezin-etorri batzu bestalde. Lehen gel-  
ditzea Brignoles herrian, Proventzako probintzian: han ba-  
nuen nik apez-laguna, Mauleko Ikastegian ezagutua nuen Ge-  
orges Guillot hura bera: denek elgar-meza han emanik segitu  
ginuen gure bidea Erromarat. Bi gauza erranen ditut bakarrik  
Erromaz: Paulo VI. Aita Saindua hurbil hurbildik ikusi gi-  
nuela, gure Etchegaray kardinalea eta gipuzkoar kargudun  
batzu mintzatu. Eta bigarrena hau: Erromako Euskaldunen  
meza nausia eman ginuela Aita Sainduaren hiriko eliza eder-  
eder batean, Erromako eliza gehienak diren bezala Jesuiten  
Elizan; harat bildu ziren gurekin Erroman zauden apez, laiko,  
apezgai eta serora andana ederra. Bai meza ederra eman gi-  
nuen. Hau nuen bakarrik eskas, organo musika ospetsu heie-

tan, Aiherra edo Ezterentzubiko gizonen kantu orroa, guk hasi Gure Aita haren lauzkatzeko. Denaden, Aita Sainduak ere indar emanik, sekulan baino suharrago itzuli ginen gure eliza-lanean aintzina segitzeko.

Euskarazko meza eta holako abiadurek ondorioak behar, huna zein izan zen ageriena: lau ebanjelioak hurbil baginituela mezatik mezara itzuliak, ohartu ginen Andiazabalekin eta beste, eta guti askiko zela, ondikotz, hoik oro batera bildurik, agertzeko Ebanjelio osoa beste liburutto batean: **Berri Ona**. Hori ere badugu orai, iparraldean lehengo Leon Leonen haren eta beste batzuen gainera. Pierre Andiazabal kalonjea, ez dugu guti baliatu hor ere, lan guzien kudeatzaile. Paradaz balia, hau entzun dezala hemendik gure urruñar erneak: orai Euskaltzaindiak Euskaldun Ohorezko tituluarentzat hautatu baitu, ez duela segur ebatsia eta eskerrak hartze dituela lehen-lehenik euskaldun kristauen aldetik.

Badu beste merezidunik Euskal Eliza hunek eta hura dugu Marcel Etchehandi Eiheralarre Kondixeneko seme gure adixkidea, Ignace beste beneditar fraile kantu gidariaren anaia. Jadanik Bibliaren itzultzen hasia zatika, Robert Puchulu lagun, huna ohartu zela, artetik, aipatu Ebanjelio edo Berri Onak eskas zituela Epixtolak osagailutzat, eta horra non dugu, oraino gureago den euskara batean, Marzelek itzulirik Testamendu berria. Ez, ez dakigu hura ala ni noiz arteko giren bainan, luzamenak balitu biziak, soldadogoak bezala, nik diot badirela berriz sortzea merezi luketen batzu, Aita Marzel bezalako langileak.

Bere aldakuntzak izan ditu Aiherrak nik ezagutu nuen denboraz geroztik, beste gehienek bezala. Lehenik, non da lehengo ene apezetxea? Karrikarte horren xuxentzeko, berdintzeko, bidearen segurtatzeko neurriek hala beharturik, kendu zuten etxea egun batez: pasaia zabaldua da geroztik denenetan. Eta badu apezak lehengo egoitzaren ordaina gain hartan, elizaren eta komentuaren ondo ondoan. Egin ziren hautsi mautsiekin, denenetan izan dadila.

Etxeaz besterik aldarazi dute haatik oraiko denborek. Herrien zerbitzuak berak bai, aldatu behar izan zituzten ape-



zek. Ez, ez da gehiago ikusiko, manerak aldatzen ez badira, herri bakotxean erretorik. Oraino luzaz kondatuko ditazke nola-koak ziren lehenagoko Carlos erretor haundiaren larderiak eta ateraldiak, bainan denek badakite halakoen denborak joanak direla. Aiherra eta Isturitze elgarri josiak Elizaz, eta biak Hazparneri, apezan aldizkatzeak herri batetik bestera, horrek ere beste itxura bat emanaz Elizari. Larderia erran duguia? Lehengoan hura? Ahantziak horiek. Apeza ez da hortan beti galtzale, Eliza ere ez, denen arteko harremanak ere ez naski eta denek beren hitza badute elgartasun laxoago batean. Joana da joana atzo. Eta horra non heldu den biharkoa oraiko Arbelbide apeza eta gerokoekin.


Guk, lehengoek, atseginez egiten dugu orai, dena den, herri xaharretako bisita. Beti badute hortako herriek zerbait gertakari. Jazko hortan izana dut nihauk apez baten ordaintza hor egiteko, ezkontza batentzat, lehenago haunditzen ikusia nuen putiko batena auzo herritar andere batekin. Ba ote dakite holakoek, heien atsegina hain haundia zen egun eder hortan, ez zela ttipiagoa lehengo apezaren atsegina!

Maizago gertatzen dena, dolu baten karian duelarik apezak leku xaharrerat etortzeko parada: lehenago ezagutu gazte bat, edo ez hain gaztea, joan delarik beste mundurat halaxe edo holaxe, baita beti jende bezenbat suerte. Egun hartako solasek badute beren sentsua, balioa, bihotza eta go-goetabidea: nola doatzin urteak, ez girela hemengoak, zerbait-zerbait bazuela holakoak eginik, badela jende onik famulietan, auzoetan, artatzaileak ere ez zituztela gaurkoen parekoak ezagutu lehengo denboretan zirenek. Berri onak, berri txarrak, oro nahastekatuz erabiltzen ditugu: batekin egitate kontsolagarriak, bestearen hortan geroa latzago... Halere, lehen ez bezalako parada hoberik badugula oro-har orai, errextasunez ez direla lotsatzeko denborak, guhaur batere jende bagira, eta holako...

Aiherra aldatu, horra lur hortan agertu diren bizipideak: landa osoak eta haindiko errekarainoko lurak estaltzen dituztela lantegi zabalek, zer oharpenak dituen hor bisitariak! norbaitek zerbait egin duela bai urte gutiz; haatik ez de-

la hori aski, oraino kaskoa erabili beharko dela, besoak ere bai, eta, berriz erran-eta, burua holako sail berrietan!

Horra nola doatzin denborak, eta denen arrangurak. Eta ez otoi ezar apezaren griñak zaku batean eta familienak bestean. Ez-eta ere bazterturik, axola gabe, gazteak. Ez, ez! Denak elgarri josiak baitira. Eta horien denen konpontzean baitago biharko herriaren gakoa eta zoriona, Aiherran, ala denetan. Horiek dira herriko apez baten gogoetak, lehen zerbitzatu eta maitatu zituen guzientzat. Eta nork erranen daut ez di-rela berdinak zureak ere, etxe huntako, hortako, hartako aita edo ama! Holaxe doa bizia 2000 urteko denbora hauetan.



Irisarrin, *Airoski* aterbe errebotearen beneikatzen.

# Beharrik ez ninduzun begiratu...

---

**O**ROITZAPEN xaharrez emokatua da adin batetarat heldua den gizona. Horren gainerat, mihi luze aire bat balinbadu bildua, bere jitearen gainera, ezin ixilarazia da gaizoa bere elasturietan, konpainian edo berdin luma bat eskutan hartuz geroz.

Huna nik, hain zuzen, ene apez bidean behin entzun nuen kalakari solas bat. 1960 an zitakeen: apez-sartzea Urruñan eta ni herri hartako bikari. Josep Gosterraxuk zuen aldiz herri hortako apez kargutan sartzea, jadanik aipatua dudana. Hau bera Irisarrin bikari egona, ez dut ahantzia herri hortaz, gaiak emanik, Gosterraxuk atera zuen solas bat. Beti zerbait gertatzen baita herri guzietan, ba omen zituen Irisarri herriak ere famatto batzu, ez goxoegiak, ordu hartako jende bipil eta bortitzago batzuen gatik bilduak. Bestalde jende zintzoa baitzen orduko jendea, ba omen zen, hango auzo herrietan, otoitz bat haurreri erakasten zena, eta haxe zen, omen: «Jauna, begira nezazu ifernutik, eta... **Irisarritik**». Badakit irriño batekin hartu zuela Urruñako jende prestuak ateraldi hori eta nik halaber. Horren gatik, sekulan ez dut nik erran otoitz hori, eta beharrik! Funtsean, egin banu ere holako otoitza, ez ahal ninduen agian sekulan entzunen Jainkoak: nik ikasi dut, aspaldi, katiximan, ez dituela Jainkoak entzuten gure kaltetan diren otoitzak. Orai, eskerrak daukitzut, Jauna, zin-zinez, ez bainauzu Irisarritik begiratu.

Kaltetan edo ez, eta agian ez kaltetan, huna egun batez izan nuela Aiherrarat, J. Hiriart-Urruty bikari nagusiaren bisita. Bikari jeneralek mugatuak dituzte beren egonaldiak eta 1969 an Hazparne Abituenekeo apez hori ginuen lehenagoko Narbaitz kalonjearen kargu berekoa.

Apezetan, beharrak baititu gure harat-hunatak manatzen, 1969an gertatu zela errana dut Jean Hiriart-Urruty bikari jeneralaren Afrikako Burundi misione tokirat joaitea. Bazuen urte pare bat nik uste HERRIA kasetaren zuzendari lana egiten zuela, denbora berean Hazparneko misionesten buruzagigoarekin orozbat. Eta huna apezpikuari eskatzen diola misionest joaiteko baimena, Fidei Donum deitu epe laburreko misionestetan. Ohartuak ginen segur ezin konponduzko lanak zituela biak batean egiteko HERRIA kaseta astetik asatera ateratzea eta misioneen kudeatzea orozbat. Horra nola zautan galdegin Abittuk (hola deitzen ginituen Hiriart-Urrutyarrak, Hazparne Abittuenekoak, Hazketan) nik segi nezan euskaldun kasetaren ardura Piarres Lafitten ondoan.

Hartu nuen beraz 1969 an HERRIA kaseta Hiriart-Urrutyren eskutik, hura joaitean eta nik baia eman Irisarrirarako. Anarte hortan hartu nuen 50 euskaldun lagunekin, Lur Sainduetarako beila baten epea: J. Camino, diosesako beilaburuzagi izana zena, ororen buru eta predikari, egin ginuen beila bat dena euskaraz, otoitz, kantu eta prediku, naski beste nehork egin ez duen bezalako, apez eta laiko, Laurent Loyato kantaria ere gurekin. Ezin ahantzizkoa guretzat eta Irisarrin beteko nuen apez karguarentzat apagailu paregabea. Goazen beraz gu Irisarrirat, Emil! Apez-sartzea egin ginuen hor ere, oraino egiten ziren ospetsu heietarik. Baigorriko ene etxon-dotik ereman ninduen Jean Leon Larre, gure etxeko nausi gazteak igande aratsalde batez Irisarriko plaza polliterat. Han zauden orduko, metatuak, Irisarriko parropiantak, bainan ez segur bakarrak hauk oro: aihertarrak hor nituen indarrean jina. Holakoetan bakotxak ekartzen du berea: hartzaleak Ongi-Etorria, «Zato eta zaude» bezalako hitz beroekin, emaileak berriz maitasunezko solas goxoak, merkatuan ere ez baitu sekulan bere kabala mendratzen saltzaileak: arima salbu-ta, bixtan dena. Solas goxo horietarik bat heldu zait gogora, hatik hau beste herri batean dut entzuna, ene lagun Mixel I. barentzat jaun mera «emaileak» beste herriko «hartzaileari» erran ziona: «Eta jaun-andereak, zuekilakoa ez badu egiten, turna! Guk berriz hartuko baitugu». Ez zen han turnatzerik izan Mixelendako, ez-eta enetako Irisarrin, zorionez!

Ondotik, Armand Aguerre auzapezaren hitzak espantu gabe bainan bipil eta zintzoak izan ziren, kontseiluaren erditik, eta aratsaldeko meza nausia, hor berean senditu bainuen ere, elizan, nolako kantu ozena zen Irisarrin, hori ere gerokoren mentura. Eta hau sinetsiko dautazuia zuk, irakurle ona? Alta erranen dautzut hemen, den bezala: Irisarriko etxeen izenak banazkien hamabost egun barne, jende bakotxa emeki emeki ezagutu artean. Ez nuen haatik hortan merezimendurik batere: ttipitik Irisarriko merkaturat abiatua, aitarekin, eta jendakia bat izanki hor berean, lehen kusi eta beste, baigorriar koloniatto bat ere jada ezagutzen Irisarrin, eta zenbat aldiz ez nintzan herri hortan ibilia ni! Azken urte heietakoak ez nituen txarragoak: soldadogorat abian ziren gazteen gogoeta egun bat ere banuen hor gidatua, Arrabit apeza eta Mendy medikuarekin batean, eta gazteen erretreta eta komi-nione haundia Suhuskunerainokoan eta zer ez? Ez, ez nindon leku arrotzerat, Irisarrirat.

Duela hogeitau bospasei urtekoa da, ni orai mintzo naitzen denbora. Ez du iduri ainitz dela hori, ene adineko baten-tzat. Halere, zein urrun ikusten ditugun jadanik orduko gauza batzu! Etsenplu xoil hau, horren onartzeko: **Irisarriko merkatuak**. Ez dea Iparralde huntako merkatu haundienetarik bat izana hori, ene haurrean berean, urrunago joan gabe: joaiten baitziren gure etxetik beretik, aita, behi umadun baten saltzera, edo eroatera, nola gerta, edo ardi ernariak, xerri kutina umaldia edo beste kabala... Irisarriko plaza hura, Ospitalea, Bidondoa, Indartenea, Elizalarrea, Bordetenea, hau Bordagaray anaien mahaixturuntza eta bilo-moztegia eta plaza inguru hura guzia bere ostatu eta eguneko saltegiekin, merkatukari etortzen zirenak bestalde.

Oroitzapen xahar batzu baizik ez dira jende biltegi ho-rietarik ainitz, oraino bizi eta oroitzen ahal direnentzat: hau-reek eta gazteek badakitea ere orai, izan direla hoik oro Iri-sarrin? Neure denbora hartarat itzuliz, huna zer gelditzen zen xoil-xoilik, duela hogeitau urte pasa, Irisarriko erretor sartu nin-tzalarik: merkatu egunaren izena bazagoen oraino, hamabos-tetiko eguna. Doi doia ikusi ditut ardi ernari multxo batzu sal-

tzeko, larrazken ondarrean edo negu hasteari. Eta nondik etorriak zirela? Baigorritik eta Bidarraitik, eta Baigorrin, Bastiatatik, hots, ene auzotegitik eta gure xokotik hain xuxen, Jean Pierre Belar ene anaia, Uhideko Nane, Ospital, Barnetxe, Katalina, Xapatendei, Ustelei eta holako batzu, ez ainitz gehiago, hots, gure gaintarrak eta hortan geldi. Aspaldiko ohidurak zituzten horiek oraino beirutzen: beren mozkineko azken urtean, ernari ekartzen zituzten beheretiarreri saltzeko. Hauk, Irisarri, Heleta edo Lekorneko etxalde batzuetako nausiak, eremanen baitzituzten azken urteko ardiak beren bazka onetan erdi-arazterat eta gero leguntzeko eta gizentzeko. Ez dea betiko errana, mendiko kabalak ontsa emaiten duela behereko bazka jorietan eta bieri ere berea uzten, guti bada guti!

Erran behar dut nik banaukala tratu hortan neurea, diruzkoa ez bazen ere. Ez nuen segur hutsegitekoa Irisarriko merkatua ebiakoitz goiz hartan, ene lehen urteetan: bi solasen gaia ez nuena hor ere ene etxeko eta auzoekin edo aihertar ezagun zenbait berdin, presa orduetan Ospitaleko aterbe hegi heietan erdi kanpoan, edo, astia zelarik, Elizalarre edo Etxeberrigarainoko edo Bordetenerainoko bat eginez kafeño baten aitzakian.

Joan baitziren ordea holako denborak. Urte guti barne, ez nuen gehiago bastidarrrik ikusi Irisarrin, aldatuak baitziren denborak eta galdu baitzen kabalen traturat ateratze hori eta hanbat gaixtoago ainitzendako, laborari, tratulari, ostaler ala xerbitxari. Gauza batek zuen iraun oraino zenbait urteñoz: gizon batzuen elgarretartzeko gostuak eta elgarrekin konpainiatzearen tirriak. Hor ikusi baititugu aski luzaz, oraino, Heleta Iturburu, Suhuskun Etxegoin, Irisarri Bordda, Xarbo, Perrekoa, Ezkardaitz, Zedarra, Ortzaiz-Semeto eta holako batzu, beti bazakitenak elgar hatxemaiten inguru horietan, bi solas laxorendako bederen. Hauk merezi dute aipa ditzadan: etxe ainitzetako nausi xahar eta erretretatuak, Irisarri Behardi, Bidai, Goanetx, Latsaga, Urruti, Bidart, Miranda, Harriet, Berro eta besteak, batzu joanak eta besteak beti hor daudenak eta agian luzazko. Horietarik ainitzek atxiki dute luzaz eta agian atxikiko beren jendartekotasun hura: elgarretara biltze-

ko gostu harekin, bazkaritto bat ez bazen, ostatuko egonaldi goxoa bederen merkatu egunean, Etxegoinean, Gure Doian edo plazako horietan.

Halere, halere, zein ezti eta prestu bilakatua den oraiko jendea! Alta baduelarik lehengoek baino gehixago diru sake-lan, aberats ez denak ere. Orduko baso arnoa gutiz utzi gabe ere, nork ez dauka bere papoan gerizaturik paper urdin edo gorraستا horietarik ere, beharrez botoila kasko gorridun horien doia, edo turnada batena «orai ene aldi» erranez! Aldatuak baitira gauzak: eta gure gizonak egina baitu ostaturakoan, jaun medikuaren bisita, ongi zaindu beharrez, artamen zintzo batekin, bere tentsioea eta erromatisma iduriko artrosia zerbait halaber. Holakoak dira denborak: dena beldur eta erremedio, hobeki bizi gaurko jendea denik ere eta bere egunak luzahala luzatuz. Urrun zirela zinez, aspaldiko egunak: erdi-epeldurik eta kantari heldu baitziren merkatzaleak etxerat, bihotz eta gainerateko miserien axolarik gabe batere, eta heldu, iluneko ez bazen geroxago, makila ferratua firurikatuz. Alta dohatsu oraino, ez baziren elgarren bizkarrak hartaz perekatzen. Ez ordea! Lehen ziren holako merkatuak, Irisarrin! Omen erran beharko.

Lehengo apezaren lekua hartu nuen nik Irisarrin. Bazuten, erran behar dut, doi bat urgulu herri hortan izan berria zuten apezaz. Halakoa zen hau, bera ere: Emilio Laxague kallonjea. Hau ez zen haatik beihalako herri hartan izan zena bezalakoa. Adorazioneko besta edo nik dakita zein bestaburu zen herri ttipi batean. Aratsaldean, bezperetara sartzean apezak, erran bide zuen herritar batek, uste baino gorago: «Eta gure hau, denetako ttipiena gaixoa!» Bai-eta entzun ere han berean apez ttipiaren errefera: «Alabainan! Herriari johan dena!»

Laxague apezarena besterik zen: Baigorriar-Aldudar amerikano semea, armadetan kapitain eta gomenant izana, zinez apez ederra zen gisa guziz, gorputzez eta dohainez apez hori. Baionako diosesan bikari jeneral izana, berak galdea eginik zen, osasun arrazoinez, kargu hortarik erretiratua, ez baitzuten gero irisartarrek holako erretoraz ahalgerik batere.

Hauek bai erran zezaketen behingoan bazutela erretor eder bat... «herriaren araberakoa» Irisarriko herri ederrean.

Damurik Irisarri utzi behar ukan baitzuen holako erretorak. «Beharrari oihi egiok», lehengoak erran zuena, holaxet ziren nitaz ere behartu irisartarrak. Erran behar dut beti lagundu nauela bere zuhurtziaz eta aholkuez Emilio Laxague kalonjeak. Nik zerbait behar-eta, huna zer erran zautan Irisarriko laborari batek: «Ori! Zuk kabalak maite baitituzu, nahi duzuia gure barrukia ikusi?» Zer atsegina egin zautan gizon harek egun hartan! Oro dituenik ez da, ez apezetan ez-eta beste nehoetan. Denaden, konfiantza haundia eman zautan laborari harek egun hartan; ez ninduen, nolazpait, gai ezagutzen irisartarren arteko, holako solasarekin! Batek ez duena besteak ba, horrek erakusten du denen lekua badela kargu batean, dohain haundiena segurki, bai-eta ttipiagoena ere. Eta zenbaitek jakin nahi baitute zerendako aldatzen gaituzten gu apezak apezpiku eta buruzagiek, daukat hortan dagoela gakoia, edo giltza: atzo hura eta egun ni, segura da elgar osatzen dugula atzoko eta gaurkoek. Lurrak eta landareak ez dute beti aro bera on. Biak behar ditu, atzoko euria eta egungo ateria.

Biak Euskal Herriko herriak, eguna eta gaua bezala ziren halere enetzat Aiherra eta Irisarri. Aiherran eskuz-esku arizanak ginen herritarrak eta ni. Pentsa bada: elgarri josirik ezarriak ginituen han katiximak eta haurren pilota, eta gazteen kantua, bai-eta antzerki, dantza, euskara, musa eta guziak. Irisarrin aldiz, nun nauzkan horiek oro?

Erran behar dut halako uzkur eta herabe zerbait senditu nuela ene baitan Irisarrin sartzean, Aiherran ohitua nintzan berotasun hartarik landa. Azen ontzeko, ez nuena ukan, behin, ateraldi bat sudurrera, halako hotz bat eman zautana: «Errazu, zure aihertar horiek ikusi baititugu zu erretor sartzeko egun hartan, ez dutea ote halako laborari aire bat, gaizoek?» Horra nola hartuak zituen ene aihertarrak irisartar batek, haatik batek bakarrik!

Aipatu dudan horren osagailu ezarri nuen, alde aldean, Irisarriko beste Norbaiten ateraldi hau, erran baitzautan: «Hemen, badute gazteek denetan bezala dohain eta gairik aski.



Halere, ez dugu, tenore huntan, amets haundiko gazterik ge-roari buruz eta eskola mailean». 1980 an zen hori eta egia zen ez zirela orduan batere idekiagoak gerorako eskoletan irisar-tarrak aihertarrak baino. Urak bide egin du geroztik. Diplo-madun daude bi herrietan ere ainitz gazte, ala erizain, ala ma-raxel, ala inginari, industrilari, enpresaburu, mediku, herri haundietako erretor eta beste kargudun. Bide berriak badaude bi herrietan ere hartuak, bizipide eta hedadura ederrik emai-ten dutenak familia ainitzi. Etchart, Charriton, Boncolac, Be-rria, Lafitte, eta beste hurbileko lantegietan eta ofiziale mota askotan eta ez dauzkagu denak zerrenda huntan oraino.

Ene uzkur eta herabe aire hura nahi dut bizkitartean he-men ere esplikatu. Hain euskaldun ezagutua nik Aiherra, gaz-teak eta haurrak ere arras naturalki eta sanoki euskaraz min-tzo beren familietan eta plazan ere 1980 an, huna desbardin-duagoak aurkitzen nituela adin berekoak Irisarrin: euskaraz bazakiten, ihardesteko doia, bainan berak gutiago lotzen eus-karari. Kiroletan ere, baziren pilotari pollit batzu, on zenbait ere bai, aldiz, gehienak Hand-Ball jokoari arras lotuak, eta Rugby eta Futboletarat ere akulatzaileak ba herriko eskola-raino heldu zirenak haur eske. Denak josiz, neure apez-lana nuen nik gogoan: nola beharko ote nuen hor lotu, Aiherran hala maitatuak nituen liturgia, eliza-kantu, katixima eta min-tzaitretan. Alta ez nuen nik neure maitasun guzieren uko egite-koa. Horra beraz bazirela Irisarrin ere, denetan bezala, bide batzu urratzekoak edo zabaltzekoak, eta izanzen zela zer egin.

Bestalde, edo handik laster, ikusi nituen beste herri ba-tzu, eta apez lagun eta katexizta batzu euskarazko katiximari errotik lotuak zirenak: Ikastolako haurrekin, edo euskara hu-tsezko herrietako haurrekin, nahi zuten katixima bat, osoki gurea, osoki euskal kultura, jeinu eta sendimendukoa, erda-razko katiximatik berex egonen zena kulturaz eta historiaz, ez haatik fedez eta erakaspenez. Ni ere hortako nintzan, segurki, kultura mailean. Ez ordea, hanbat praktiko aldetik. Euskal-Herri osoa naukan nik gogoan denbora heietan. Ez nuen ba-tasunaren lekuan bitasunik sortu nahi gure herrian bi katixi-marekin, bat euskaraz eta bestea erdaraz. Hola mintzatu izan

naiz, ene mail xumean eta gehiagoko ahalik edo kargurik gabe, gure apez-arteko eta kristau-maileko biltzarre ta elkarrizketa guzietan: gure kultura orokorra dugula, Euskal Herri guziko, den bezalakoa, eliza-mailean ere herri-mailean bezala, hots nahastekatua bainan, orokorki, euskal kultura. Beraz gure Elizak ere, gure Euskal Elizak, hortarik beretik hobe duela jokatzea: ez batere euskara nahastekatu eta baxtarta batekin bainan euskaraz, ahalgerik gabe eta burua gorarik ahal bezenbat, hori delakotz gurea. Halere, beti atea idekiz besteeri ere, euskara ez dakiteneri, eta xantza bat utziz beti gure artean kanpotiarrari, bainan hunek ere indar bat eginen duelakotan, nun bizi den ikusiz, hots, Euskal Herri bete betean.

Zer indar mota eska erdaldun batzu berekin dauzkan euskaldunari, haurretarik haste? Gure kantua lehenik, hori da denek errexkienik onartzen dutena eta maite, ederrez eta atseginez bederen eta bihotzeko atea aurkitzen baitu gure kantuak. Irisarrin, gehixago ere ardietsi izan dut: katixima ondolan meza prestatzeak egiten ginituen haurrekin, euskarazko meza, bixtan dena, irakurgaiak eta xedeak haurrek berek, hots Aiherran bezala. Ainitz erhi altxatzen baitziren, aldizkatu behar zen. Baina baziren haur erdaldun batzu, guti baina baziren. Hala-nola errientaren semea. Hari ere zerbait utzi nahi bainion irakurtzeko besteen artean, erraiten nion, harek erdaraz irakur zezala berea. Ezetz! Harek eginen zuela euskaraz eta bazezakeen, ez baitzen xorua batere. Nik orduan baldintza bat emanen nion, kondizionetan, ikastekotan ontsa zer erran nahi zuen berak euskaraz irakurtzen zuenak. Otoitzeko xede batentzat berdin egiten ginuen. Eta balinbazen euskaraz konpreni eta irakur etzezakeen beste erdaldun irakurlerik, erdaraz eginaraziko nion berea, baten gatik (hots, elebitasuna bizian bezala elizan ere). Bainan euskarazko irakurgaiak euskaldun haurreri bereri, zakiteneri, itzul arazten nizkien erdarala, euskara ez zakitenendako, ez nihaur izanez arteko itzulzale bainan Irisarriko haurrak berak bilakatuz beren erdaldunen eskolatzaile. Orai ez dakit gehiago hango berri, ez bainaz han, hau erakutsi nahi izan dut bakarrik, ene ustez Euskal kristauari zor dioguna gure Euskal Elizetan: beti Euskara gogoan izan, printzipioz eta ofizialki, eta ahalaz elizako jen-

de horren guziaren batasuna salbatu. Hori ez badugu zaintzen ahal, ez ote du sekta minorizatu edo gutitu bat iduri gure elizetan beretan euskarak? Eta berdin berdina, euskaraz ariz jende helduekin eta erdaraz haurrekin, norat ari da orduan herria? Gisa guziz ez berex kultura eta fedea, ez-eta jende helduen eta haurren mintzairak. Bibleak kondatzen du ona egin zuela Jainkoak mundua, eta mundua holakoa da bere kulturarekin eta mintzairarekin; eta gure eginbidea da heien errespetatzea, kreatzean ona zena ona geldi dadin gurekin ere.

Zerbaitek indartu ninduen, egia-erran, ene beldur guzien gainetik, Irisarriratzean ene euskalduntzearen hautu eta xede hortan: herriko besta eta dantzaldi, kantaldi eta guzientzat urte heietan egiten hasi ziren afixa eta publizitateak euskaraz. Erran behar dut ez zirela irisartarrak lehenetarik batere sail hortan. Ordukotz abiatuak ziren, erdaraz alderdi bat eta euskaraz bestean, afixak, Bidarrain, Aiherran, Heletan eta, guziz, Hazparne, Uztaritze, Baigorri eta herri gotorrenetan. Nik aski goiz ikusi nuen hori eta hortaz baliatu nintzan, erranez gure jendeari: herriko antolatzaileek hola senditua zutelarik euskararen arrapizte bat, ez zuela gibelago egon behar Elizak, Elizaren lana baita bere herriari hurbil hurbildik segitzea denetan, aintzin aintzinean izaitea ez bada.

Hortik goiti ainitz errextu zen ene Irisarriko lana. Doi doia entzun izan dut behin edo beste betiko ahopaldi labur hau: berdin zuela denak erdaraz emanik, orok erdara dakiten herri batean; halere ez dugu egundaino auzirik izan hortaz, Irisarrin. Bixtan da badela han ere zenbaiten aldetik euskararen aldeko lazakeria edo alferkeria bat etxe eta familia askotan. Halere badago euskara, bakotxak senditzen baitu gure ontasun paregabea dugula hori, gure kultura guziarekin. Denaden harritua nago ni orai Irisarriko gazte bat ikusten dudan guzietan: denek euskaraz emaiten dautate eni lehen solasa bera, denbora hartan euskaraz nekez edo bortxaz ari zirenek ere. Eta gazte horiek aita edo ama bilakatuak ikusten ditudalarik haurño bat eskutik eta bestea jauzika ibilki, orduan zer erran dezaket? Euskaraz ari direla buraso gazteak haurreri gutiz

gehienetan. Gainerat, ez dutea geroztik eskola elebiduna sartu irisartar burasoek beren eskola batean! Urak bide egin du.

Bere bihotza galdu gabe beti berrituz eta edertuz doala Irisarri, hori ere denek dakitena da. Bere **Ospitaleaz** badu eta beti izanen naski urgulu zerbait Irisarriko herriak. Ez! ez da gehiago nehor ahalge txar batekin behatuko dionik Ospitaleari denbora batez bezala. Horra, seme-alaba batzuek beren arbasoeri zor dieten errespetu zuzena, heietarik ukan ontasunen zaintzea. Norena izan baitzen ere denboraz, Orreagako fraile ala Nafarroako erregeen denboran jauregi ospitale zaharra bere lurrekin, hainbeste erromes edo beilarik nolazbait baliatu zutena, agian «gurea» erraiten ahalko dute gero-ta-gehiago, Irisarrin sortuko diren haurrek beren Ospitaleaz. Badu zerbait onik gure denbora hunek: errespetu eta zoinu hobez inguratzen dituztela gaurko kargudunek lehengoan ondarkin herresto horiek oro, barnagoko erorkiak osoki estimatu artean, mintzaira eta sineste-fedetik haste. Hori gogoan hartzeko baigini nuke luze gabe eta lehen-bai-lehen.

Hor dago dena den Ospitalea, herrian etxe batek baizik ez duen izen bero horrekin. Ba ote du alabainan herriak bastiza errespetagarriagorik, beste egoitza guzien erdian eta heien zaintzale moduan emanik? Ospitalea ez dea zinez ere guzien etxea, orok baino beroagoko izen eta izan horrekin! Hala da eta den-denendako Ospitaleak oro badituela: kanpotik, urrundik, oihesturik, hozturik, goseturik eta ezindurik heldu diren guziera, berak nor eta zer diren galdegin gabe, emaiten baitu ostatu eta ongi-etorri beroa. Ospitalean aterbe eta jatekoa askiko dute zenbaitek, osasun eta sosegua besteek, non ez duten ezindu batzuek hor aurkituren azken hatsarekin bakea eta betiko pausua azkenik. Ai, zu, aspaldiko Etxe Haundia, mintzatu nahi bazinu egungo haurreri, zure gordean ixilik daukatzun guziez! Ez, ordea! Zuk duzun ontasun aberatsena ez ote da hain zuzen zure ixiltasuna, bere segetu zaindu guziekin. Nahiago dituzu bai besteak utzi mintzaterat, jakintsunak batetik beren papereria erraustuekin, eta irisartarrak, mendetik menderat inarosten dituzten soinu xaramela eta kondaira aldakorrekin, eta gazteak beren amentse-

kin, eta haurrak, oraino klartzekoak bainan hain oxen eta xarmegarriak dituzten ttiuttekin. Eta gu denak zer? Lehengoak halako, biharkoak ez jakin nolako, hauxe dautzugu bakarrik hitzemaiten guretik, Ospitalea: jinen girela jinen zure ondorat hemendik aintzina, zure ondoan ixiltzera eta, nork daki, otoitzerat. Otoitzerat ere bai, guk ez dazkigun guziak amestuz bihotzez. Herriko zaharrek erraiten zuten, lehen, lurpeko bide batek elgarri josten dituela Irisarriko Ospitalea eta Eliza. Ainitzen bihotzetan bederen elgarri josiak daude bai, ezin berexiak. Ala ez ote dago horietan bietan, atzo bezala egun ere, Irisarriko herriaren barneko mamia! Horien guzien gatik horra Ospitalea, ondare baten seinalea!

Herritarren bihotz hori ez dute bakarrik elizetan berotzen gehiago euskaldunek. Herri gotor gehienek badituzte orai, batek besteak baino ederragoak, beren bilgune ta plazak, trinketak, ezker-paretak, Denen-Etxeak. Irisarrik badu bere ezkerpareta urte multxo bat huntan. Aipatzen zuen beti beste bat, ederragoa, egitea, bai-eta trinketa eta besterik. Azkenean kiroldegi eder baten hautua egin zuen herriko kontseiluak eta hor dago orai **Airoski sala, pilota-plaza barnean** daukana eta aterbe zabala egiten duena beste zernahitako. Polikiroldegi hori beren Hand-ball delakoarentzat baliatzen dute gehienik herrian, kermezak han berean egiten dituzte beren herriko eta parropiako obrendako eta denetarik har dezake, kirola ala kantaldi. Animatzaileak ere ez dituzte falta herrian berean. Hor dute Airoski soinulari taldea gazte multxo pollit batek ederki bizirik daukatena, Fr. Etchegaray buru: zenbat zerbitzu mota ez du emaiten herriko gazte multxo horrek herrian eta kanpoan!

Beste animatzaile multxorik ere badauka oraino Irisarrik bere kantariekin: elizako kantuetarik hasi ziren hauk, duela hogeitau zenbait urte, arras beren arteko moldean eta emeki-emeki hobetuz. Badu haatik zenbait urte auzoetara zabaldu zutela beren multxoa, ortzaiztarrekin eta suhuskundarrekin, J. Paul Minaberry gidari. Ez dute urte bat ere hutsegiten Eliza-Koralen biltzarreetara beste bospasei ehun kantarirekin joan gabe. Koralek besta hori Irisarrin berean izan ginuen urte ba-

tez hain zuzen, lanak izan baiginituen, xoko guziak beterik, oro ezin ohatuz. Irisartarra berez kantaria, koralarren lokarriak ere ez du guti lagundu eta berriarazi parropiako liturgia. Ainitz egin da denetan, azken 20 urteetan, herriko kantuen berritzen eta oraikotzen, lehengo ederrenetarik deusere galdu gabe. Uste dut orai Bidarrairaino ere hedatua dela korala on hori.

Kantuak musika sustengu on bat ere on baitu, araberako tresna ospetsuarekin, huna origina eder bat egin zutela herritarrek 1987 urtean, arrakasta haundia duena musikari onetan, Aristizabal, Orpustan, Bordagaray, Soule, Arrabit eta beste herritar gazte batzu ez ahantziz musikarietan. Bai, horiekin guziekin, eta pasaiako batzu gainera, egiten dela besta ederrik Irisarrin!

Herrikoak ez dio egundaino herriz kanporako ateraldien gostua kendu irisartarrari. Euskal Herriko beiletan aski jarraikiak badira betitik irisartarrak eta, gaurko errextasunak lagun, sekulan baino gehiago orai naski. Beila tokietan ezagutuenak baizik ez izendatuz, horra Ibarreko Mixel Garikoitzen beila, mila bat beilari ez-baian biltzen dituena. Muga iraganez, berri, Garazin gaindi, Orreagako beila, beste hainbeste biltzen duena. Alta San Antoniokoa ere, Muskildin, hau haatik hiru alditan egiten dena urte bakar, ez da hutsegitekoa. Eta horra Jatsukoa, San Frantses haundiarena, auzo auzoan, eta San Bladin, Iholdin, beste auzoan. Lurdeko beilak ere hor dira, urte guziz autokarra betetzen dutenak, bakotxaren beribilezkoak bestalde.

Beste bi beila bereziago egin ginituen gure egunetan Irisarritik, ainitzek gutiago ezagutzen zituztenak. Izan ginen urte batez Loiolan, Gipuzkoako Azpeitia herritik hurbil hurbila. Han hobeki ezagutu zuten herritarrek San Inazio, Jesusen Lagundiaren sortzaile eta lehen burua: sortetxe-komentu-saindutegia bisitatu eta zenbait bederen harrituak, Euskal Herrian ginela, bihotz-bihotzean, hor ere, gureari hain hurbila ginuen euskara batekin. Badugu-eta hainbeste ikasteko, gure etxetik doiño bat jalgi nahi dugun ber.

San Frantsesen beila egin ginuen gero, Xabier herrittan, Nafarroa garaian. Haren berriak entzunak ginituen jada-

nik Loiolan: baietz ba, lagunak zirela, bat zaharragoa eta beste gazte hutsa, Inazio eta Frantses, eta biak euskaldunak: lehenak, lehenbiziko zazpi jesuisten buruzagitza hartu balinbazuen bere anaien eskutik, Frantses aldiz bilakatu zela multxoko misionesta Indiatik Japonia-raino eta dela geroztik misione guzien patroin edo zaindaria. Funtsean Xabieren ere loriatu ziren irisartarrak, ikusiz Nafarroako ogi edo garia landetan eta mahastieri hurbil, Xabiereko Gaztelu sortetxea, eta sainduaren bataio-harria eta hango gurutze famatua eta denak!.. Bai badugu-eta hainbeste ikasteko oraino euskaldunek, gure buruaz eta historiaz bezala, gure gizon haundi eta sainduetz, hemendik eta Xabierrera eta hunen auzoan Leireko beneditarren komentu xahar berrituraino, han ere izan baiginen hasian hasi Nafarroako Erregeen Saindutegian. Beti ikasiz ikasiz, izan ginen Irisarritik beste orduz Arantzazun, Gipuzkoako Amaren mendian eta Saindutegian, Oñatin eta haratekoan bisita ederrik eginez gainera, Mixel Lekuona apezaren argitasunez aberastuz gure gogo-bihotzak. Horiekin denekin gure herriaren iturri aberatsetako ur on guziak jastatu ondoan, ez dugu dudatzen parrokiaren geroaz, L. Pochelu. L. Oxarango, Fabien eta beste guziekin.

Horien guzien ondotik eta hartuak hartu, ez dugu guk ere sekulan erran ez-eta erranen besteak baino gehiago dela beilaz edo pidaiaz ibili dena, izana gatik ere hau euskalduna edo irisartarra, bainan bego, denaden, bakotxari duen hura. Eta ez erran guri, deusik hartu ez duena aberatsago dela zer-bait ukan duena baino. Joanak dira urteak, eta beste batzu ere geroztik, bainan nik ez dut sekulan egin aspaldiko otoitz beltz hura Jaunari, begira nezan Irisarritik. Ez-eta nehorri holakorik gomendatuko ere, nihaur hamabost urte han egon ondoan.



Donibane-Garaziko parrokiako apezak, 2001an.



# Eta Suhuskune?

---

**B**ADIRA, segur, ahanztekoak ez diren batzu: herrietan ere, beste guzietan bezala. Eta nik badakit, pasatuak pasatu, halakoa dudala Suhuskuneko herria. Irisarriren auzo herria izan dut nik hori, zazpi urtez ene gain: aintzinean ere, Hazparneko misionestetan nintzan denboran, ezagutua nuena. Urte horiek auzo on bezala iragan ginituen ondoan, bere lehen kras-kadurak senditu zituen hango Tristan Etcheberry jaun erreto-rak osagarrian, eta behar izan zuen bere herria utzi ere Kanboko apez erretiratuen Arditeirat biltzeko. Horren ondorioak ez zaukan mixteriorik enetzat. Bazakiten suhuskundarrek bere Irisarriren menturan gelditzen zirela hartaraz geroz apez: funtsean eskolan ere berdin berdina, ordutsuan hetsi baitzen Suhuskuneko eskola ttipia ere.

Handik goiti, Irisarriko bi eskolen artean egin zuten beren hautua Suhuskuneko haurren burasoek harat joaiteko. Elizarentzat hauturik ez, eta nik hartu nuen hango meza ere bere Mañex eta Kaiet kantari onekin. Ez nuen bide haundia: bost bat kilometra gorenaz, aro onetan oinez ere egiteko izari pollita. Hastean badute uzkur aire bat herritarrek beren plegu berriak hartu artean, holakoetan. Laster hartu ziren halere araberako urratsak: ez bakarrik Suhuskunetik Irisarrirat, baina berdin berdina ere Irisarritik Suhuskunerat elgarrekin gurutzatzeko. Funtsean, ezagutzen zuten jadanik irisartarrek Suhuskune: norbaitek meza hutsegina zuelarik, aspaldidanik, bazen erran bat hau ziona, baietz ba, izana zela... Suhuskuneko mezan!

Huna seinale bat, erakusten duena nola hartu zituzten plegu berriak suhuskundarrek: Bestaberriak jauntzi berezi ederretan. Egin dituzte, lehenxago holakoak, bizpahiru urtez

beren herrien artean Suhuskune, Ainhiza, Lakarra eta Gamartek. Alde hartara, Garaziri buruz, behatzeko usaia galdu zuten halere suhuskundarrek eta Irisarriri buruz itzuli gehixago. Horrek ere beste ondoriorik ekarri du: parrokien zatikatze berrian Irisarri, Ortzaize, Arrosa eta Bidarrairi josi baita Suhuskune, nolazbait egin beharrez josturak eta mozturak. Den bezala, Baigurako Jondoni Jakoberen parrokian badituzte beren arteko biltzarre ederrak eta aldizkatzeak, araberako kantu ozen, besta eta liturgia onekin, Bidarra eta Arrosarainokoan, zenbaitek Garazi alderat ixurkia gehiago sendiko bazuten ere.

Beren plazak, elizak, eskolak eta bideak denek artatzen dituzte, denaden, gain-gainetik Euskal-Herriko edozein herri haundi edo ttipik dakien bezala. Plaza aipatu baitut, erran dezaket Suhuskunekoak baduela bere arrakesta xapelgoak heldu direlarik, ontsa atxikia delakotz eta neurri pollitekoa, murrak hertsia aire bat izanik ere. Halere, nor ez da oroitzen pilotari onak atera zirela aintzineko urteetan hortik, A. Ouret, P. Etchemendy eta besteak Laby baten ondotik, orai ere gogotik ikusi nahiak baitira horien ordainak gazteagoetan. Nola ez erran ere gauza bera, herriko besta eta bestaburu batzuez, partida eder hetarik ez baita azken urte hautan bederen ikusi.

Plazarekin, eliza! Arrafreskatze bat ukana du hunek ez hain aspaldi, bai barnez eta bai bere hilarrietako inguruetan. Halere, nork ez daki holako gauzak beti beharrezko eta berriz hasteko izaiten direla urte multxo bat joanez geroztik? Denaden, oroitzapen on zernahi badaukat nik herri hortarik, jadanik aipatuak ditudan Etxeberribordako Paxkal, Marixan, Jean eta besteak herritar guzien gainera. Eta nihauk dakit, bestalde, zein gogotik joaiten nintzan, makila txar batekin edo gabe, batean Etxemendikoborda edo Idiederre aldekoetara bisitaz, eta bestean Hoxa gaineraino, Azkonbegi edo Iholdi xokoeri behatuz. Eta ez duta nik orai Suhuskuneko Domingo bat Garazi huntako apez-lagunetan!

## Baigorri gaindi, Garazin gaindi

---

**7** Oeko lerro hori hori gure munduko itzuliaren azken mailetan sartzea dela ez du ikusten bakotxak berak. Nahi baduk jakin zer adin dukan, behazak hire haurreko laguneri orai. Ez da segur gezurra. Eta bada hau ere, beste batena, ene lagun jostagin batek kondatzen zuena: «ikusi diat neure eskolako lagun bat atzo. Nola zahartu den! Ez naik gaizoak eza-gutu ere.» Nola zahartzen diren haatik... besteak! Eta beste batzu... eza ote? Nitarik haste.

Xehetasun guzietan ez luzatzeko, huna noratu nintzan ni berriz, duela bost urte pasa: Garaziko lurretara, bigarren aldikotz. Badakit bai gogotik utzia nuela 1956 an Garazi, baina ez segur Garazi hastiaturik. Laborantzako eskola hartan ere maitatuak nituen zinez 14-17 urteko gazte hek orduan, gure Garazi-Baigorriko gazteak alabainan: errana dut aski garbiki eskola nuela partida, ez-eta gazteak, ez-eta Garazi. Tratu labur batzu egin nituen arras legezkoak Josep Camino bikari nagusi adiskidearekin. Hunek erran zautan, apezpikuarekin ele egin zuela eta bazuela eskaintza bat eni egitekoa: diosesako artzainari ongi zitzaiola bai ene lan bikoitza, batetik HERRIA kaseta egin eta beste apez zerbitzu bat gainera herrian. Erran zautan bazuela beraz kargutxo bat enetzat egokia, Baionako Eliza Nagusian dauden Apez Otoizleen jargietan, eta hola hor berean izanen nituela ene bi lanak, Irisarri utzirik. Ni ez bainintzan ordea batere ekarria hirian bizitzerat, are gutiago hango ohoretarat, ni nintzan bezalako apez baserritarra: bigarren lan hori herri ttipi batean bai, baina bazuketela apezpikutegikoek ni baino hoberik hiriko. Hortan erran zautan Caminok, Donibane Garazi eta inguruetakoko parrokia zela orduan apez beharretan zen bakarra. Horra zer egin zuen ni-

tarik orduan ere betiko beharrak. Gauzak aldatu ziren beraz denbora gutiz, eta beti aldatzen ari geroztik; huna non gauden lau apez Donibanen berean. San Frantses Jatsukoaren parrokian dauzkagu hor, oroz bat eginik, Jatsu, Donibane, Uhart, Arnegi, Zaro, Izpura, Eihalarre, Ezterentzubi, Lasa eta Anhauxe, hau haatik Noblia apezarekin batean hunek duen adin pixkorrarekin. Lasan eta Uhartentzuz baitziren oraino bi apezetxe beren supazterra oraino hoztua ez zutenak, fama bat egin zautan jendeak bi horietarik bat edo besterat nindoala bainan ez zen holakorik izan. Bestalde, Uhart Hegiluxenean bai, iragan ditut nik hiru urte ta erdi, beste egoitza bat, hurbilagoa, gertatu artean. Eta gertatu zen: ene hiru apezlagunak Donibaneko Argizabal Apezetxean biltzen-eta, bazuen parrokiak beste etxetto bat pollita, Larrazkena deitua eta arras hurbila: etxe horren beheko egoitza gazteen biltzarre salarekin zen eta gainak bazauzkan sukaldea, bi ganbara, eta norbaiten bizitzarendako behar zirenak ororekin. Horra nun nagoen ni, autoaren etxola ederra eta baratze pollit batekin etxe gibelean, hortan aza, porru eta babak ontsa heldu direla.

Huna nor nituen orduan ene lagun berriak: Domingo Eyherabide Suhuskune Salaberriko apeza, Piarreño Mogaburu Behauze Goitikoa eta Graxien Heguy Ortaiz Irosgaraikoa. Gauzak ez direnean arras guk nahi bezala oraiko apez xuhurtze horrekin, ez baitu bererik nigarrez eta kurrinkaz egoiteak, beti zerbaiten pentsatzen ari gira orai gu ere gure buru zuri-tuetan. Eta hau lehenik: lau apez ginen, hiru xahar eta gazte-ago bat. Gure xaharrek ez zutena erraiten: ikusezak zer dukan; eta dukan harekin, egizak ahal dukana. Lehenago, gure etxaldeetan baginituen mailka mailka: nausi xaharra, nausi gaztea eta etxeko premua, edo andregai. Nausi xahar guti dugu orai. Hauek, berek ere buruzuritu edo kartsoildu direlarik, badute beren erretreta, zenbait ongaitzekin bixtan dena, bainan xahartze baketsu baten menturan gauzak ongi joanez. Lanen karga eta karguak begote nausi gaztearendako, bako-txak bere aldi. Etxeko gaztearen aldiak ere egin beza berea. Eta ezartzen badugu etxalde hitzaren lekuan parropia hitza, horra hor ere nausia, gazteena nausi, ez beti gaztea, zeren 55 urte edo gehixago izan baitezake hunek, gisa guziz hori da

«gaztea» besterik ez delarik. Eta apez zaharrak? Hauk, apez direlakotz betiko, segi dezakete on direno etxaldeko mutil edo morroi.

Gure parropiarat itzuliz, hots, San Frantses Xabier edo Jatsukoaren hau, ezagutu ditugu aldaketa haundiak urte laburrik barne. Garaziko Donibane hunek ez du ahanztekoa nola senditu zituen bere hiru erretoren goizegi joaiteak: J.B. Oxandabarats 50 urtetan 1979 an, Jean Irigoyen 63 tan 1992 an eta Graxien Heguy 51 tan 1998 an. Horiek goizik joanak, luzeagoa dute berea Josep Lekuona Garaziko erretor ohi senpertainak 94 urtetan, B. Noblia anhauskoak eta A. Beheran gure beste erretor ohiak 89 tan, bai-eta A. Mongaston bikari ohiak ere 93 tan aurtengo urtean.

Errana den bezala, gazte ainitz joaiten, eta zaharrak denak, berezia izan nuen nik ene Garazirat itzultze hori 1995 ean. Ez nintzana hortik beretik joana 1956 an, hots 39 urte lehenago. Nor nuen nik hor lehenago ezagunetarik? Kasik nehor. Mayorgako eskolan ez naukan ezagunik bat bera ere: erakasleak oro erretiratuak, edo hilak. Frantseseneko laborantza eskolan halaber. Huntaz ba mintza gaiten doi bat. 1999 an etorri zen Frantsesenearen egun haundia: Egoitza berri baten egitea oraiko eskolierrentzat, eskola sortu-ta 46 urteren buruan, ordu baitzuen. Azken solas hunekin ez dut nehor hunkitzen, neure burua baino gehiago. Ez nuena nik sortua Ikastegi hori, lehenagoko J. Lecuona eta Mongaston apezak, eta Louis Inchauspe auzapez zenak, eta Gachiteguy, Dassance, A. Inchauspe eta guziek ederki bultzaturik. Eskoletxe hori egin ez bazen berehala 1953 urtetik segidan, ez nintzana nihaur lehen hobenduna, hasi saila besteeri utzi bainuen, nihaur parrokia lanerat itzuliz Urruñarat! Denaden, ordain eta segidako onak izan nituen Frantsesenean: bizi egon zen eskola eta bizi baino gehiago, bere ikasleekin, eta bizipideekin. Hau bederen salatu beharko dut hemen umilki: bakarren bisitak egin dazkotala nik Frantseseneari azken urte hautan, obra nola zoan aintzina ikusiz eta miretsiz: aratsetan, ilun nabarrean, egiten nuen horgo itzulia, Larrazkena, auzo auzoan naukan neure etxetik. Jin zenean estrena eguna, ez ninduten

ahantzi oraiko arduradunek. Nondik ahantziko ninduten? Ez nituena biak ene jendakian, Frantsesenearen legezko presidentea (J. Fr. Tambourin) eta oraiko eskolaren erakasle-burua (Cecile Crouspeyre anderea)!

Estrena egunean, 1999 ko abendoaren 10 hartan, hor ziren, buruzagi, erakasle, ikasle eta kargudun, ikastegiaren historia berrikatzen zutela beren mintzaldietan eta badakit, besteak beste, ene bi kargudunek oroitzeko mintzaldiak egin zituztela, erakutsiz, baietz bai segurki, esku onetan zela Frantsesenea, Garazi-Baigorriko laborantzako eskola. Holako ele on, xede hobe eta agiantza kartsuekin nion nihaurk eman Frantseseneari nitarik igurikatzen zuten beneizone kartsuena. Artetik zer alegrantzian eta zorionekin nituen nik agurtu horgo langile eta erakasle suhar eta argitu izan diren guziak, Etchegorry eta Oxarango ene apez lagunak, eta Margarita Etcheleku, bai-eta politikoak eta guziak. Bai, zinez, balio zuela 46 urte egoitea holako langileen ikusteko, geroko esperantzak bestalde! Damurik joanak baitira orai ainitzak: Louis Inchauspe, Errecart, de Chevigné, Minjonnet, Beñat Ahamendaburu, Beñat Dassance eta zenbat oraino! Orai tresna hor da, balio oneko arduradunak ere bai, hauxe da gelditzen, egun hartan zenbaitek errepikatzen zutena: haurrak eman ditzala gure herri maiteak, biharko gazteak, hots, bizi nahi duen herri hunek, gure herriak.

Garazi huntako beste ikastegi mota guziak, baitira ederrak, ez ditut hemen aipatzen baizik: hor daude hauk ere, itxuraz eder eta izaitez balios, eta geroaz gutizios, gobernuko ikastegi eta apendiztegiak batetik, Mayorga eta beste pribatuak bestetik. Gaur lore ederrean daudenek, nolako fruituen mentura ez dute pizten bihar eta etziko!

Garazi-Baigorri! Bi hitz horiek elgarri loturik ikusten ikasia dugu, laborantzan, ekonomian, kulturgune batzuetan ere noiztenka. Nork daki ez ote duten hitzez eta gunexka batzuez besterik ere elgarri josten hobeki ikasi beharko luze gabe, hala-nola ikaskuntzan, kirolan eta gure euskararen urgulu egiazko batean! Batasunaren indarra, hori ederki kantatzen da nik uste mintzaira guzietan. Eta euskal mintzairan nola ez du-

gu batasuna kantatuko! Hitzetarik bizian ere sartuko delakotan!

Zerk ekar-arazten ote du holako **jendea Garazirat?** Hala da eta beti norbait ikusten dela Donibanen plaza bazterretan. Auzo herrietan ez delarik ere, Donibanen beti bada jendea. Lehenik, horra harri zaharrak ikusgai. Bere mendi gorrituen kolorekoak ditu herriak Vauban minixtro famatuaren harrisiak. Ez bakarrik harrisiak: hor dira karrika-sartzeetan harrizko ateak, bi esku juntatu bezala daudenak goiko zeruari. Eskalerak ere alde guzietan, batean petik gora eta bestean beheiti eramaiten dutenak, hanbat gaixto belaun edo hanketako artrosiak hartueri, haurrak utziko dituzte aintzinean joan ditzen jauzteka leiho edo ikuspegi batetik bestera. Dorre edo jalgitze ukondo batzu ere han eta hemen, argazkilari artistek baizik ikusiko eta bilduko ez dituztenak oroitzapenatarat; eta horra argi-arteak eta xirrito bitxiak, heien barnetik kanpora begia jotzen dutelarik haindiko mendiek. Tokiko jendeak hor ikusten ditu nunbaiteko kurrindariak aferatuak, bera sekulan ohar-tua ere ez zen juntetan, ez gehiago so egiten ere gaizoak.

Kanpotiar horiek nondik heldu diren, Jainkoak daki. Batzuek erranen dautzute Miarritzen zirela eta handik nahi ukan dutela egun bat hartu mendipeko Donibane hortaraino. Turismo publikitate batzuetan ikusiak zituzten Garaziko ikusgarriak, arras begikoak. Hartuko dute ere Zezette deitu ibilgailu hura, «hiriaren ezagutzeko», berek dioten bezala: orenerdi batez, karrika galtzaratuetan gaindi, kanpoko harresietaraino zinez ikasten omen direla hemengo berriak, lehengo denborretakoak, «apezpikuen presondegi» mixterio hura eta beste. Hemengo herritarra ez da hanbat berotzen ikasgarri horietara, jendea ez baita bere eguneroko ikusgailuez hain kurios, jarrriaren jarriaz.

Eta beha hortxetan nola dabiltzan hegoaldeko ikusleak ere: batzu espainolez ari dira bar-bar-bar, gora mintzo, besteak berriz euskaraz; hemengoan miresgarri hauetan jende gaztea ere euskaraz ari dena, hemengo batzu ez bezala. Bainan garaztar jendearekin gutik dute solas egiten, non ez den xehetasun batendako edo zerbait erospen. Eta badituzte hegoaldeko-

ek beren egunak: hango jai-egunak askotan. Hala da-eta zernahi bestaburu badutela mugaz haindian, guk galdu ginituenak, lanik gabekorik: Bihotz-Sakratuarena, Bestaberri ortzeguna, San Jose, Andredena Mariaren batzu edo apostoluenak, Jakobe, Bartolome, Tomas apostoluenak, Aste Saindua...

Errana nuen merkatu eguna: astelehen hori ez dute hutsegitekoa hemengo bereko ainitzek, hola dira aspaldiko ohidurak. Kabalentzat ez du gehiago balio merkatuak, lehen bezala. Edo, beste egun batzuez dira, axuri tornu ekartzeak, edo urdeak, eta edozein egunez, berdin igandearekin eta batera trataturik gabe. Alta tratu xaharrek ere bazituzten atzo, beren abantailak. Berriki erraiten zautan andere Paxkalinak, Tunisian izan dela, urteburu baten markatzeko, eta han hemengoz beste graziaz aurkitu zuela. Salgia batzuetan araba horiekin ez omen dira prezioak paper batez markatuak hemen bezala: batek galdea eta besteak eskaintza, bien arteko hautsi-mautsi bat aurkitzearekin omen da tratua egina. Eta zerendako ez? Berak zion bezala.

Donibane Garazin ez da holakorik. Hemen ez da ez ere erraiten kantu xaharrak dion hura: «Hamabi hamahiru sos, prezio xuxena; kontent ez balinbazira, zoazi aintzina.» Hemen Garazi duxu, eta beti xu eta xu!

Erran behar dut, Donibane Garaziko merkatuan ez dela lekuko euskaldun faltarik, ez behar ere. Garaztarrak dira lehen, baigorriarrak ere jiten, aldudarra halaber jalgitzale da, «Donibane hortaraino bederen». Eta, halakoa baitu Donibanek bere tirantza, horra hortxetan aurkituko duzula orobat, heletar, aihertar, hazpandar, urruñar eta abar. Nolaz hori eta zeri buruz? «Jalgitze bat»!.. erranen dautzu deplauki, oraiko jendeak, gizon ala emazte, egin dezakeena hori ere!

Eta horra, Donibaneko plazan jende gaztea. Gazteenak, ikastegi horietakoak bi kurtsoren artean, edo zerbaitñoren erosteko gutzizia tirrian, jateko poxika bat edo gormandiza bat berdin, eguerdira hel artean edo aratsalde erditan, edo, xoil xoilik, kurios pinterdi, menturaz amak badakiela eta menturaz ez; eta funtsean, jakinik ere, ez dea konfiantza denetan errege orai?



Merkatu eta tratu solas, erran behar da bizkitartean donibandarrak zerbaiti ohartuak direla itxuren arabera. Ikustea-rekin hainbeste tratulari beren sudurraren aintzinean astelehenetan plantatuak, eta artikulu beren saltzeko orobat, dela soineko, oski, gasna edo urdeki, badituzte hauek ere beren hamabostaldiak eta guziak, Eguberrikoak eta beste, irabazi ederak eskainiz erosleari, auto, telebista edo menaiuko. Orduan da berotzen lekuko jendea, musika-soinu eta publizitate zernahi xarmagailuren artean, beren artikuluen kalitatea berme. Denek behar baitute bizi.

**Pilota partida** ederrik egiten dela Garatenean, hori denek dakitena. Eta zer tentagailuak ez dituzte arduradunek asmatzen: batean Garaziko kopa, bestean Ihiztariena, edo Garaziko Super hura buruz buruka. Bainan horien barnean zuk ere baduzu zure xantza, ikusle xoil balinbazira: atxikazu zure txartela sakelan partida ondarreraino, zeren orduan zortean tiratuko baitute: bi afariren saria irabaz dezakezu, Donibaneko ostatu hoberenek eskainirik. Eta hau ez dugu erran: parioak eta trebesak badirela beti Donibaneko partidetan eta hor, xantza doi batekin, badirela irabazi pollitak egiten dituztenak eta batzuetan galtzen. Eta irabazi duena ez dadila kexa: banko onak badira Donibanen, pilotatik bildu diruen plazatzeko,... ahalik eta intresik hoberenean, edo galdu duen gaizoak, ordainaren berriz ateratzeko; funtsean, diru-mekanika horiek ere ez direa hor, moltsa turrinduen berriz gixentzeko! Haste-ko, hau badute onik diruz galtzetan atera di-renek: ixil-ixila estaltzen dutela beren mina, suerte txarreko egunetan. Hain segur, egun hobe baten kulisean. Eta, gero ere, Donibaneko ostatu eta kapera horiek ez direa arras espresak... penen ahanzteko!

**Donibaneko elizak** badauka bere ospea, auzo hurbiletako herri eta elizez ederki inguratua, oilo xitadunaren idurian denak ere. Beharriak berak salatuko dauzkitzu, kanpotiarra, Garaziko elizak, bat ala bestea bere ezmila paregabetik, nolako haizea den eta halaxet. Iguzki haize fin eta exti hura dea? Horra nun heldu zaitzun beharrira Izpurako dalanda, Donibaneko merkatzailea, ala, lehenik, laborariari mintzo. Ja-

tsukoa haratago zinueke ezker, bainan haren entzuteko, behar zinueke ere aro ixiltto bat, nafartar kamiun zurketari haundi bat orroaz ez doan artean.

Menturaz, xantza doi batekin, Donazarreko dangala ere heltzen zaitzu zure beharri xorrotzetaraino, bainan ordukotz hegoalderat bihurtu nahiz hasia da hatsa. Hunekin, biharko ditake ilargi kanbioa eta mendebal hilika hura Eihe-alarre aldetik, hango elizaren ttelementtak salatuko dautzuna: ez ote du ere sarri bere furia nahasia ekarriko Nafarroa gain horietako ufakoak! Geroztik, laster aldatuko ahal da zerbait; Uharte bi urratsetan baita, hango ezkilaren ozenak emanen dautzu euri zeharraren seinalea: orduan, elizarat ala merkaturat ala norat-nahi, denbora pasa abiatua bazinen, hobe duzu lepoko bat bederen, edo, seguragoz, aterki on bat segiaraztea, segurak ez baitu parerik. Haatik, oroit huntaz orozgainetik: aroaz bestelako abisurik badutela Garaziko ezkilek. Har-azu bai astia, garaztar edo urrungo bisitaria, igande goiz batez, Garaziko ezkilan musika berezietan xarmatzeko. Beharrienarekin begiena lagun, eginen duzu amets ederrik Uharte gain horietarik Baigorri Iparlaren harroka zorrotzetarainoan, Arradoi eta Jarakoetarik mailkatuz zure behako xortua.

# Udazkeneko

---

**I**KUS eta mirets ibil ditazkeenak, horra Garaziko edo nunbaitik Garaziratu gizon eta emazte adinekoak. Hala da eta, **xaharretxe** andana bat badaukala horgo xoko maitatuak. Aspaldikoenak ditugu Donibaneko Ospitalea deitzen zuten xaharretxea bere harri pikatu gorri-gorriekin, hauk izan ziten Arradoiko, Bidarraiko edo, urrunago Lapurdin, Azkaingo harrobietakoen idurikoak. Izenak ere aldatzen izanarekin batean, **Tokieder Etxea** da hori orai, oro badituelarik jende xahar erretiratuen udazkeneko: bakarkako ganbara xumeak, elgarretartzeko sala nasaia, izan dadin jate, ahusamendu, mus partida ala, eguberrikari, besta goxo eta Jesus Haurraren libertigarria. Bisitak ere izaiten dituzte hor xaharñoek, etxekoenak lehenik, adiskide eta lehengo lagunena; aldiz atea ere zabalik baitituzte kanporat, ikusten dira kasetala ala goxoki saltegiatarat, edo Donibanen gaindiko merkatu plaza eta zubi hegiataraino ikuska dabilzan «amerikano» moldeko ibiltzaileak: beti baduzu hor norbaitekin bi solas eta zenbait ele laxoren manera. Berriak ere kurrituko ditu Donibaneko bide juntetan jende haizinatua eta astia frango duenak. Hauk, aspaldikoak, bixtan dena, xahar artekoak, aspaldiko kalakari denbora-pasagarri eta orozbat oraiko gaztearen aspergarri, hola baita mundua egundainotik; azken hunek ez du halere muntarik, bakotzak bere iduriak eta gaiak hautatzekotan.

Tokiederren bada ere barne-elizatto pollita, ortzirale guziz betexetzen dena igandeko partez, aratsaldeko 5 etan aste-ko mezarentzat. Donibaneko auzapez mediku ohiak ere begi on egiten dio horri bere emazte zenaren mezetan eta hola, oroitzat bere parte izan zuela berak ere obra hortan beste ainitzetan bezala. Halako dolu batekin erraiten ere du doi bat

moldatuxagoa egin zezaketela hori denbora hartan, bainan estimatzekoa dauka den bezala horrek duen otoiztegi xerbitxua, bera ere jiten baita emazte zenaren mezarat, besteak beste. Badazkigu gure xaharretan, gizon ala emazte kartsuak, ez baitute debalde eta hutsik uztekoa beren otoitzen xokoño hori. Bai, bai, hortxetan bakarren bisitak eta egonaldiak eginik joanak dira Bidarra Xuhurraeneko Betti bat eta Donazaharre Etxeberrireneko etxatiarra eta holako batzu. Guk aldiz, Donibaneko apezek, ez dugu hutsegiten kapera hortan eta, hortik kanpo, xaharño horien artean hasi ginuen zerbitzua. Oroitzea bederen zor dugu, atzo norbait izanak direla, egun hor ditugun xaharñoak.

**Adindunen Egoitza** bi urratsetan dauka Tokiederrek, zenbaitek Gaztanbidenea ere deitzen dutena, laburragoz eta arduradun izan zuenaren izenez. Hau, etxe ospetsuagoa, berriarik egin zelakotz naski, fama onekoa da, beste batzu bezala funtsean. Hor, denen artean eta ainitz paradaz egiten ditugun bisitez bestalde, badauzkat nik oroitzapen goxoak. Horrarat ekarri behar izan ginuen gure izeba Kattalin 87 urtetan eroriko batean bere burua betikotz ezindurik. Jaun medikuak berak ikusi zuen aski goiz eta kontseilatu osoki ezin sendatua izanen zela gaixoa, holako etxe batean ez bazen. Egin ginuen haatik guk, haren etxeko, iloba eta ezagun hurbilek, gure egin-ahal guzia, asteko bisita eta sokorrigailuentzat. Hastean berak bere burua arrazoinatuz geroz, eta familiako guzien bihotzeko atxikimendua gainerat, baditugu frogak, haren beraren erranak berme, xaharretxe hortan laketurik, bai laketurik bere gisan, joana dela gure izeba Kattalin, 94 garren urtean mundutik. Beste batzueri esker ere erran behar dut. Eta horiek dira xaharretxe hortako langileria guzia, Ortaizeko Bernadeta eta beste erizain andere batzu oroz lehen. Nahiz ene hau ttipia den, badakit esker onezko hitzño bat bederen erranuela ehortzetan, gure familiako guzien izenean, bakar batzuek ongi hartu ere zutena naski. Hala da-eta, gauzak aldatu direla! Lehenago baziren serorak eritegietan, eta zenbat estimatuak! Orai, serorak gutitu badira, xaharrak joanez eta gazte guti ordainez, horra erizain, mediku eta langile mota guziak etxe horietan, gizon ala emazte, denak ere beren zerbi-


tzua klasa haundiz betetzen dutenak, beren familiaren bizi-raztekoa irabaziz orozbat. Hori ere badu, aitortzeko eta goresgarri dena, gure mende hunek: eri eta xaharren zerbitzu hobe batentzat asmatua eta xutik ezarria, klasa haundiz aintzina deramana oro har eta gerokoak geroko. Halere, nola ez seinala hemen, euskal etxe aintzek badutela ere maiz beren xaharrentzat aski leku eta amodio, beren xaharren beren ondoan artatzeko. Zer da ederragorik, ahala balinbada, familietan!

Denek beren aipamena hartze baitute, horra ere, lehen lehenetan, **Izpurako Luro** Fundazioea, ez baitu beste izenik herritarren aho-mihitan. Pedro Luro garaztarra, Argentina Buenos Airesetan lan eginik aberastu zena bai, ez zen halere ahanzkor gelditu bere sort-herriaz. Lehenik han berean gizon haundi bilakatu zela, frogak badira: nihaurek ikusi dut hango Mar del Plata hiri ederrean Avenida Pedro Luro etorbide famatua. Harek zuen Izpurako Etxe hori sortu, hainbeste fama duena hogeigarren mende hortaz geroz.

Orai hor dago Arradoi mendiaren pean etxe zabal hori iguzkitara, izan ditakeen toki alaienean. Alde batetik klinika eta bestetik xaharretxea, baditu aldakuntza batzu urte multxo bat huntan hasiak, eritegi klinikaren alderdian. Xaharretxe berri hura ez dugu oraino xutitzen ikusten bainan denek badakite planak eta hitzak hor daudela eta hain segur zerbait ageriko dela denbora laburrik barne. Guk, parrokiek, badugu ere hor gure zerbitzua. Lehengo kapera desegin balinbazen, horra barne bat badela ordainez, astean bi meza bederen badituena. Serorak oraino badira, Donibaneko eta Donazaharreko, bainan gutituak eta langile bezala batzu eta bisitari edo bihotzen sokorritzaile denak ere.

**Horra ere Lutxiborda**, Donazaharre Madalena Zabal-tza aldean. Gogoan ditut hunen hastapenak ene hainean. Hazparnen nintzan bikari gazte, 1952 inguruetan, serora batzu etorri zirelarik Hazparneko klinika sortzean: denak berri, hek eta ni, errana dut nola lagundu nituen nihaurk bikari xoil gisa eta bazterretik bezala, klinika hartako apez omoniergoan eta eguneroko meza emaile baten aurkitzen Hazparneko San Jo-

sep Ikastetxetik. Heiek zuten Lutxiborda hori erosi edo ukan, ez dakit, beren bigarren etxe bezala: eta horra non zuten, beren serora xaharrendako eta hemengo erretiratuentzat, xaharretxe hori abiatu. Geroztik, bere xumettoan, ainitz prezatua da, hor emanak diren zoinu eta artamen jarraikientzat. Donazaharreko herriak erosi orai, hango bereko apeza jarraikitzen zaie, ainitz urtez Mongaston apezak bete izan duen apez lanean. Baditake hori ere haundituz eta ederragotuz joanen den, herriaren laguntzak eta beste batzuekin, egun batez.



Donibane Garazi

# Ara berriak orotan

---

**G**ARAZIKO San Frantses parropiak ez ditu halere bere egitekoak eritegi eta xahar-bilgietan mugatzen. Lehenik bere hamar-hamabi elizetaz eta horien zerbitzuaz arta hartzen du. Arta erranez, ez ditut elizako bastizen zoinuak eta obrak gogoan. Mail hortan, beharrarekin edo gauzak hobeki ikusiz, ikasi zuten apezek eta herrigizonek, ez direla gure elizak Eliza xoilaren gain uztekoak eta, are gutiago, apez xoilan gain, bainan herri guziarenak direla. Gure elizak Estaduarenak dira jabetzaz eta parropien zerbitzuko erabilpenez. Gisa hortan bat ala besteak dute hor beren egitekoa. Lehenik, frantses estaduak ditu bere gain elizako obra larrienak, haatik gixtinoek ere hartzekotan beren partea. Bestetik, fededunek dute erabiltzen eliza eta artatzen, ala garbitasun ala zerbitzu mailean. Bada hor hautsi-mautsi bat herri gehienek aurkitzen dutena eta hobe da segur hola bientzat: batetik, parropiak ez lukete aski diru eliza eraikitze eta artatzeen obrentzat, bestetik elizak zabaltzen dira batzu eta besteeri, kristau ofizioendako bezala araberako errespetuarekin kantaldi eta biltzarre zabalago batzuekiko, betidanik egin izan dira holakoak.

Hautsi-mautsi horietan truk, erran dezakegu ederki atxikiak eta apainduak direla Garaziko eliza haundi eta ttipiak, bana-beste. Gorenaz aitortu behar da, doi-doia, luzamen batzu izaiten direla, administrazio aldekoak, baitezpadako laguntza ofizial batzu etorri artean, ala eliza, ala hilarri, ala elizetako organo, aterbe eta inguramenetan.

Bestelako hautsi-mautsiak dira orai parropiak berak egin behar dituenak bere ofizioen banaketan. Ez! Ez da herri bakoitzean alde bateko apezik gehiago, beren goiz-meza, meza-nausi, bezpera, kominione haundi, adorazioneekin, lehenago

Euskal-Herri huntan ginituenak horiek oro. Guk Garazin lau apezek, beste batzuetan bi edo hiruk, ditugu, beharren eta ahalen araberako antolamenduak egiten, meza bat hemendik ken, hantxetan ezarri, bestaburu bat aurten eliza huntan, ondoko urtean hor, eta geroko aldian beste alderat ordainez. Girixtinoek ere ara berriak ari dituzte hartzean: laboraria Ezterentzubitik Donibanera bere bankoarendako jinen den bezala, edo Azkaratekoa Izpurako Laborarien Etxerat bere onkailu edo tresnen erosteko, berdin berdina jatsuar hau Eiheralarreat bere ardi-esnearekin, edo traktorearen antolatzaera Uhartera edo beste, halaxet badakite orai fededunek igande huntako meza Donibanen dutela edo ibiakoitzekoa Zaron. Horra nola ari den elizatiarra orotako bilakatzen, denbora berean betiko hura egonez. Badute lehen ere holako bat ikusirik girixtinoek. Irakurlea, zuk badakizu beste gisan zer erran nahi dutan: ez, segur, ez dela beharren hari uko egin egungo egun mugikorretan eta aldakuntza giro huntan, bainan girixtinoa plegakor dela gaurko egoerari, egundainotik egin izan den bezala. Betiko beharra lege!

Gure aldakuntzetan, horra **Etxartea** Duzunaritzen: orotako mugikorrena gaurko egunean, gure gazteria dugu, alabainan; eta ez bakarrik gazteak berak direlaketoz mugitzen, bainan heiekilako moldeak ere bai. Irakats-moldeetarik haste: hor baitabilta gure gobernu eta hezkuntza-ministerio guziak, iduri ez jakin berek ere, norat jo; ministro bat alda eta lege parrasta bat berri, eta beste ministroarekin berriz haste. Ez dut erranen segur, besteak bezenbat izan beharrez ari dela Eliza, hori ez! Denborak ditugula holakoak bai haatik, eta berri batek beste berritza eskatzen edo ordaintzen duela bai.

Holako giro-jauziekin, beti ikus eta mikus, iker eta miker, ari behar du Elizak ere, edo hutsean ariko da, edo aldekontrara, ez baita hobe. Beraz, duela zenbait urte, gure iker-tze eta gogoetek gidaturik buraso fededunak eta apez, serora eta katexistak, erabaki bat hartu ginuen: behar ginuela, haur eta gazteendako bereziki, etxe berezi bat, girixtinoen biltzarretxea. Hor ziren bilduko haur, gazte, buraso, eskola, multxo eta elkarte, ikasgia eta egonaldi batzueendako: baitira haueta-



rik, egunerdia edo arats xoil bateko biltzarreekin aski ez dutenak, bereziki gazte eta haur gotortuentzat. Hauxe erran zen: etxe xokotik jalgirik, toki berezian eta izpiritua laxo, gehiago balio dutela denak utzirikako orentto batzuek noiz edo noiz formakuntza sakonago eta barnagoko batentzat. Batzu beroturik herrietan, eta besteak uzkurrago, Duzunaritze Etxarte salgai gertaturik, hartu zuten erabakia Garazi-Baigorriko parrokiek, Etxartearen erosteko.

Hor dago orai Etxarte. Orduko mailegu haren arrandaren egunak bururatuak, daukat osoki ordaindua eta pagatua dela kapitala. Denena denek baliatzen dute orai, beren gogota egonaldientzat, tokiko ala kanpokoek, etxea libro den ber. Bakarren bilkurak egiten ditugu orai Etxartean, batzu katekesietako, edo Fedearen Aitormen prestatze, edo sendotze-konfirmazioari buruz dela, edo bakantzetako oporraldi... Denbora berean nola ez erakuts hemen, nun dagoen Duzunaritze Etxarte: hortxe dago, Sarrasketa auzogunean Etxeparearen alde aldean, hau lehen auzo, bidea arte. Ala ez zinakien, irakurlea, Etxeparea, hori dela Bernat Etxepare famatuaren etxea, historianoetan gutiz gehienek uste dutenez! Apez hori baitzen Eihalarreko erretoa Garaziko Bikario Jenerala eta lehen euskal liburuaren idazlea 1545 ean. Badauka segur hunek, merezi bezala, bere omenaldiko oroit-harria Eihalarreko elizaren aintzinean dagoen harri apainduan, hitz ederretan emana.

**Kantua** gabe nola asma euskal elizarik? Lehenik, hau argi bedi hemen. Parte dugu garaztarrek Euskal Herriko Eliza Kantarien Batasun edo Federakuntza hartan, 32 urte dituen orai. Nihauri ainitz ekarri daut horrek ene erretoa denbora guzian bereziki. Aiherrarat joan nintzan lehen urte hartan sortu baitzen Batzordea, jadanik ikusia dugun bezala. Jean Iriyoyen Donibaneko erretoa eta besteekin. Beti segitzen baitu kantari horien egunak, hortan ditugu barne, gure Garaziko parrophia zabal huntako 50 bat kantari, Jean Larrieuk hain kartuki eta bipilki gidatuz. Gure igandeetako kantuen berritze bat ekarri dauku koralak, bere bokazionea hastetik hori ukan duen bezala: 2.000 urte huntako eguberrietan zinez prezatua

eta lagungarria izana dugu korala «gauerdiko» meza hartan, beste behar-ordu askotan dugun bezala.

**Garaziko Kantariak**, bestaldeko multxoa direnak, hemen ezartzen ditugu merezi dutelakotz: hauk dira Jean Donetch ene klasako apezlagunaren multxoa, donazahartar eta inguruetakoa, beti beren maila daukatenak eta Euskal Herri guzian ezagutuak. Bi andana horiek diote ohore eta zerbitzu egiten Garazi guziari, holako zerbitzu paregabearekin. Eta ez ditugu ahanztegian utziko, auzo auzoan, **Baigorriko** Mikel Erramousperen kantari xarmegarriak, denbora batez segituki eta oraino ere noiztenka entzuten ditugunak, Jo Maris eta holako artistekin: hunek dituen «**Nekez-Ari**» multxuko gizonak, konduaren gaineko, eta hauen kantaldiek betiko arrakasta badaukate Donibaneko elizan urtean kantaldi alde batez.

**Beila-leku** da denbora berean Garazi hau aspaldidanik eta beti. Milaka eta milaka doatzi, urte hauetan bereziki, Frantxua Garat gure erretor kurrizalea heieri juntatuz beharrez, Santiagorako beilariak Garazin eta Donibanen gaindi. Erdiarotik heldu zaigun beila xaharra, Jondoni Jakobe edo Jakueren Galizia hartako otoitz-lekurat; zenbat eta zenbat beilari ekarri ote ditu debozione horrek toki hautarat denboretan gaindi eta nork daki zenbat diren gure mendietan, leherturik, eriturik, azken hatsa eman zutenak? Debozionez, erran dut, eta halaxet zitazkeen abiatuak gutiz gehienak Jainkoak eta elizak, eta jende haundi ta xumeen fedea halako itzala zuten mende heietan. Hemen dauzkagu heien herrestoak toki orotan. Donibane ta Garazi erran dugu, bainan lehenago hor ziren Izura-Ostabat eta Xuberoko Ospitale-Pia, eta Irisarrikoa, eta kasik herri guzietan dauzkagu (Donazarrekoa hurbilena) Ospitale etxeak eta hainbeste kapera beren kokilla marka harrian xixelatua dutenak.

Debozionez edo ez, edo biziko bide zuzenaren aurkitzeko menturan, hor dago oraino gizonaren barneko sukar bat, bizi-bizirik. Frogak ukan ditugu Santiago urtean eta 2000 ko hortan: batzu otoitzean ari, besteak beneizone xoil baten galdez, edo sinadura-seinalearen lekukotasuna bederen eskatzen... horra horra hor markak gizonetan baizik ikus ez di-

tazkeenak, hots, beste zerbait, edo norbait edo, nik dakita... begi xoilez bakarrik ikusten ez den baten beharra!

Deboziona solas, horra ere non ditugun, Garazin, **Orre-  
agako** beila, hori ere Maria gogoan, bainan, beste beila gu-  
zien urrats eta hats berekoa. Bai, irakurlea, ez bazira izana,  
zauri behin, iraileko lehen astezken hartan gurekin, oinez edo  
bestela, edo irailaren 8 ko egun hortan hegoaldekoekin, zauri  
bai, jakiteko bederen, Orreagarat. Ez dira berdinak egun ho-  
riek, bainan hitz dautzut badutela zerbait berdinek: bihotzeri  
halako bero bat emaiten diona.

Eta **Jatsuko San Frantsesen** beilan izan zirea? Hor,  
erranen dautzute batzuek Jatsukoa zela San Frantses haundia,  
besteek Donibanekoa dela, edo Xabierekoa. Zu ez has hortar-  
rik gasailan. Denek egia diote eta zuk, eginik ororen bilduma,  
jakinen duzu jendakia berekoa zirela eta ez dela ez aski bei-  
lara joatea bainan, hau zela Frantses, Iñaki eta holako sain-  
duek erraiten zutena: «Bainan, bainan, beste horiek egin zu-  
tena egin baneza nik ere kar berarekin, grazia lagun, ez ote li-  
take mundu hau guzia, den baino hobea?» Horra zeren ondo-  
tik zoatzin lehengo beilariak, zenbait bederen, eta oraiko bat-  
tzu halaber: hobea eta hobetzea gogoan! Eta guk, gure esta-  
kuru guziekin, holako lurrean sortu behar ginuela, eta holako  
gizonen odoleko gertatu guhaur ere!

Araberako gogoeta batzu nork ez egin, inguru hauetan,  
hantxet, Orreagarako bidean dugun **Biakorriko** beila, edo,  
Baigorritago, **Oilarandoikoan**, edo Xubero ta Irati mendi-  
ra buruzko **Salbatore** gainean urtetik urtera biltzen direnekin.  
Ala gain horietaraino dardaratzen ote dute soinu bat, hemen  
berekoa ez dena... gure Garaziko Ezkilek!



Buenos Airesen, Ttanta Mañañaren urteburuan.

# Nik ere Amerikak

---

**E**USKALDUN batentzat ez da batere gauza arraroa Amerikak «egitea» zenbaitek erraiten duten bezala. Nik ez nuen bide hori ene hautuzko xedea batere, hemengo lerroetan aski ageri den bezala. Edo egin beharko nuen hautu hori apez misionest bezala. Ez ote zen hori, Mixel Garikoitz sainduaren xede haundietarik bat izan lehenago: igorri baitzituen bere Betharrameko apezak Hego Amerikarat hainbeste euskaldunek han gaindi beren fedea gal ez zezaten; eta etzena bera ere harat joan nahiz abiatu, ordukotz osasunean mendratua zelarik, bere meneko anaiek erakutsi zioten bezala!

Denaden, nik beti ekarri dut ene Ameriketako anai-arreben eta askazien mina bederen. Lehenik, Buenos Airesen nauzkan izeba-oseba eta lehen kusien alderatekoa bederen ene gisako odolaren mintzoa. Huna nola piztu zitzaidan batbatean, paradak emanik, Argentina hartarainoko baten tirria eta deliberoa, aspaldian ene barnean naukan harra bezala. HERRIA kasetan badut hainbeste lankide eta adiskide, idazleetan, eta beren herriko berrien igorleak ez dira segur txarrenak. Heietarik nuen Pierra Laco, Jutsi Etxegoineko nausia, bera aita familiako eta gizon trebea asko mailetan. Egun batez, presa-orduz edo nik dakita, bera etorri zitzaidan Irisarri-raino bere Jutsiko artikuluaekin. Holako gizonarekin elez ele hasi-eta ez dakizu noradino eremanen zaituen solasak. Holaxet ez dauta bat-batean erraiten Pierrak: «Hego-Amerika bai, nik aita Buenos Airesetan egona, beste familiako batzu Uruguaien, beti ametsez nago noiz eginen dudan itzuli bat han gaindi. Bainan mintzaiarik ez baitut! Espaiñolez ez dakit hitz bat ere!» Nik berriz hartan berean: «Hori ez da afera, Pierra, ni ere joan nahia naiz neuretarat, mintzairaren hortan ez naiz

hain arrotz, biek joan behar dugu!» Baietz eta baietz, ez gina biak han berean berotu! Etixerat-eta, berak dio Pierrak, Ixabela bere emazteari berehala eman ziola berri, eta hunek baietz, zoala Pierra eta harek, emazteak, atxikiko zuela etxaldea bere lau haurrekin...

Hartan berean lotu ginen paperen egiteari bakotxa gure alde eta bidaiarena biek batean egitekotan: larrazkenean joanen ginela, hango udaberri eta udako oporraldien hasia izanez orduan, beraz denborarik egokiena. Pasaporteak, balisak, behar ziren arropak, karga gehiegi gabe, ardi-gasna bat ederra kusiendako, familiako argazkiak, foto-egitekoa, eta huna airo eta lorios bidean girela Hondarribiako aireporturat buruz, Madriletik baiginuen bidea «Aerolineas Argentinas» konpainiarekin.

Bainan! Bat-batean, horra Galtxagorri... edo Satan Beltzaren lana! Aireportuko ofizinetan, denak agertu behar baitira, eni zer zait gertatzen? Pasaportarik ez! Nik lehen-lehenik, ustez, ezarria nuen pasaporta falta. Hauxe zen komedia! Eta berriz etxerainoko baten egiteko denborarik ez! Eta ene lagun gaizoa? Ikusten dut oraino Pierra lotsatua, kasik nigarra begian, ni ez banintakeen joan, hura ez zoala. Nik aldiz baietz, bere paperek gidatuko zutela, aski zuela xoroarena egitea (beharririk, ez baitzen xoroa batere Pierra!). Eta nik telefonaz deituko nuela Janpier Ospital, hango ene lehen kusia, erranez Buenos Aireseko aireportuan izan zadila nik erran tenoreko. Ez baitzuten elgar ezagutzen, nik eman nion ene gapelua Pierrari buruan eta telefonatu Janpierreri gapeludun hura zela Laco. Biak ere ez batere tonttoak, erran dudana bezala, ederki iragan ziren oro eta han izan zen Pierra zortzi egunez ene jendakiako kusi onen esku, polliki hasi baitzen arte hortan mintzairan eta denetan trebatzen.

Nik ez nuen ez espanturik. Xitun xitun itzuli nintzan Iri-sarriko apezetxerat, pasaporta berehala aurkitu, nola eroria baitzen ere balisa egitean mahiperat; airekoen konpainiarekin berriz desmartzak egin nituen, eta huna zortzi egunen buruan, xuxen-xuxena, Buenos-Airesen nintzala: Pierraren atsegina! Eta neurea! Eta denena!

Gero bai, ezin-ahantzizko egunak eta asteak iragan ditudala nik ene kusietan izan naizen hiru aldietan. Hirugarren aldia izana dut berriki neure Belarreko anaia-koinatekin, hauk berek abiarazirik berekin interprete gisa, nahiz, ondarrekotz, elgar ederki hartzen zuten berek ere, familiako atxikimendu eta maitasun hura baita orozgaineko laguna eta mintzaira.

**Ipar-Ameriketako ibilaldia**, Mixel Garikoitz Sainduaren harikoa izan dut arte hortan, nolazbait: hau baitzen kristau gogoeta eta otoitzezkoa. Marcel Tillous, amerikar euskaldunen apez xuberotarrak zuen apez predikari baten laguntza eskatua Baionako Apezpikuari. Ene adiskide Josep Camino bikari nagusia ez dut sekulan aski eskertuko, Molerres apezpikuarekin, nihauk ez baitakit nolaz, ni hautatu nindutelakotz **hiru asteko misionetto** horrentzat. Han aurkitu ditudan ezagun guzietz bestalde, erran dezaket, hemengo ahaide eta adiskideek jakin dezaten: hemengoak direla eta zinez gureak eta gutarrak, hango gure euskaldunak. Ez, ez zuten hemengo igande eta bestaburueri zorrik, guk **San Franciscoko** eliza frantsesean, eta **Bakersfieldeko** sala haundian, eta **Chinokonan** egin ditugun ofizio zeremoniek. Han ere dauzkate holakotan gure euskaldunek, hemen ezagutuak zituzten andere kantariak eta gizonen orroa, eta, kleron-atabalekin, klika fanfarra ozena eta sakramenduetarako lehia, ahala dutelarik.

Bestalde, hangotuak direnez, elizaz, mintzairaz eta kulturaz, nik ez dezaket gehiago erran, holako pasaia laburrarekin, badirela baizik, eta ainitz, euskaldunetan, liturgia gidari animatzaileak eta oro. Bainan bere kulturaren eta mintzairaren otoitz eta gogoeta egiteak baduela zerbait gehiago, hori bai erran dezaket, ikusitik. Aratseko biltzar, mintzaldietan nonbre ttipixagoan ikusi nituela aitortuko dut, bainan biltzarre pollit eta beroak izan ginituela erranez halere. Eta goraintziak han ikusi nuen Ortzaiz-Etxeberriko Minaberry apez lagunari!

Eta gazteak, eta haurrak, lehen kominione hartakoetarik haste, ikusi ditut, batzu euskaraz polliki ari eta hango erdararen, denak han sortuak, hori berriz gure euskaldun fededunen ge-roa, Amerika betean. Agian, ni baino argituagoko batek eskainiko ahal dauzku egun batez gure hango anai-arreben historia aberats eta ederraren berriak xehetasunekin.

Denak ezin izan, denbora eskatu zitzaidan Wyoming erainoko baten egiteko ene aita zenaren Erramouspe eta Carricaburu bi lehen kusien ume eta ondokoetarat, bainan ordainez, nihauk ene mezan izan nuen, epistolaren irakurle eta animatzaile, Fredy Iturburu ene hango kusia. Eskerrak zuri, Fredy, igorri zinautan familiako genealogia harentzat. Hartan dugu alabainan ikasi nun dauzkagun guk, Larre-tarrek gure erroak, Etxauztarretan gaindi josi izan gaituztenak. Bainan nork daki xuxen nundik eta noradino dituzten arbolek erroak batetik, hostoak bestetik, eta fruituak azkenik!



P. Lafitte zenari omenaldi egin ginion batean.



# Berriz haste balitz

---

**H**una bururatzera noala.

Atzoko berriekin hasi nintzan neure herri eta etxetik beretik: hain dira gauzak aldatu, eta beti aldatzen ari, egungo gizonaren epe laburrean! On baino hobe dugu noiztenka gelditzea, behako bat emanez gibelerat, finkatzea gatik bederen nun eta zertan giren. Behako horrek oroitarazten dauku, ez dela gurekin hasia mundua. Eta ez duela gure beharrik aintzina segitzeko. Hau ere bai haatik: gu mundu hortakoak girela, zuhaitz horren hosto bat bezala eta ez nunbaiteko izar galdu batzu.

Azken egia hori gogoan, behar nuen neure burua ezagutu, etxe baten ume xoil bezala.

Agert-arazi dautate lagunek liburu hontan ene sort-etxearen argazkia eta gogotik ekarri nuen. Zer nuen alabainan hura baino maiteagorik?

Maitatzea bat zen. Zor haunditan nintzan etxe bati, familia bati, herri bati buruz. Doatzila hemen ene esker beroenak, hainbertze gostarik egin eta eman nauen familiari, ene arbaso, buraso, haurride eta lagun guziekin.

Zor horren bihotzez betetzeko, hautatu dut euskara liburu huntan: hura nuelakotz ene hezur, haragi eta bihotzeko mintzoa. Euskara hori nola erabil? Horrekin ere banituen lanak. Lehenago ere oseba xahar Bettiñok, erran zuelarik haren hiltzea ez zutela zazpi herrik jakinen, gauzak xinpleago zituen, etxekoz etxeko. Orai ari da euskara ere zabaltzen eta berdintzen gure harat-hunatak bezala; nahi eta behar du hemendik eta Bilbo-Elantxobe, Nafarroa-Atarrabia, U.S.A.-Bakersfield eta guzietako euskaldunekin mintzatu.

Nik hemen eman dut etxekotik, Baigorri-Bastidakotik, bainan ez haatik osoki ere: baxenabartar-lapurtar batetara be-  
deren zabaldu dut ene hitza, arta atxikiz, noiztenka, urruna-  
goko batzuek arrotzegi aurki ez nindezaten. Baietz bai, eus-  
kaldun guziek aski zabaltasun emanen diogularik gureari,  
hertsikerietarik eta berexkerietarik begiratu, orduan izanen  
dugu egiazko euskara batua eta denek elgarrena.

Hemen, bestalde, agertu dudan bideaz bezenbatean, eus-  
kal seme baten bidea batetik, Euskal-Herriko fededun eta  
apezarena oroizat, galde xoil huni nola ihardets, ahal bezain  
lañoki? Hala da bai, gazte batzuek eginik entzuten dudala gal-  
de hau ere noiztenka: berriz haste banitu ene bideak, zer egin  
ote nezakeen, hautu berak ala beste bat?

Garbiki diot: ez da holako galde bati erantzuterik; bali-  
tzeneko eihara aspaldi gelditu zela erran zuen besteak. Go-  
zen dugunetik, izan dugunetik. Badut ustea aski garbiki erran  
dudala neure berri hemen; baditu mila eta ainitz mila bide ku-  
rutze mundu huntako biziak. Ez da gizonik bi bide batean era-  
man ditzazkeenik, ez-eta sobera aldaketa egin dezakeenik  
ere. Nik hori nuen, eta dut, neurea. Zuk juja, irakurlea, nola  
betetzen dudan neure hori eta, dugunetik, goazen engoitik  
aintzina, zoin gure munduko etxoletan.

**Biziaz kantari**

## Baigorriko organoa

Airea: Egungo besta haundi – G. Lerchundi (Kantikak)

Gorets Jauna, berak du hartze laudorio  
Soinu eder, esker on, xaramel zor zaio  
Jainko bat saritzeko deus ez da kario  
Baigorrik organa hau eskainia dio.

Jin dadien herrian egun alaitsua  
Exteberen eliza zer etxe kartsua  
Emak, organa, soinu xaramelatsua  
Gure bihotz barneko bozkario sua.

Edo lano beltz batek historik zerua  
Jendea badu griñak elizan bildua  
Ezti zaguk, musika, pairamen dolua  
Jastaraziz legunki Betiko Soinua.

Bainan organak ere hauxet erraiten du  
Bizi hau musika bat dela gure kondu  
Gizartean gaitezen bihotzez konpondu  
Hor ere notak xuxen behar dira zaindu.

Baigorriko organo ederraren beneizian kantatu ziren, Mixel Oronoz musika joilearekin eta herriko kantariekin organo berriari zoazkion kantu hauk.

# Goazen aintzina

50 urte bete zituztenak

Berrogoi eta hamar urtetan gure bizia biderdi  
Zentzua jina, orai baititut bilo xuri bat edo bi  
Jadanik ainitz bide egina mundu zabalean gaindi  
Halere nago beti gazterik eta odola izerdi.

Hoinbertze urte nolaz ditudan norbaitek badaut galdatzen  
Eztut egia oso osoa sekulan ere ukatzen  
Bi egunez lan egiten badut beste hiruez pausatzen  
Eta urterik eztut geiago aspaldi huntan kondatzen.

Norbaitek erran baitu laburra dugula hemen bizia  
Kontseilu batez xuxenduko dut erran horren malezia  
Izan dadien gure bidea zabala edo hertsia  
Hartu behar da hau bezalako besta goxoen etsia.

Besta on batek duen txarra da askotan biharamuna  
Egia hortaz jakintsun haundi dago jende euskalduna  
Jan edanekin dauku kantuak urrun haizatzen iluna  
Gora ta gora gu hemen eta klasakoen maitasuna.

Bi mila urte eginen ditu gu bizi giren mendeak  
Ta horrek ere, gizagaizoak, ikusi ditu bereak  
Konparatu-ta heien aldean zoin labor diren gureak  
Goazen aintzina, iraun dezala egun hunen omoreak.

Omore onez ginen etorri urtemugako hunarat  
Gure adina duten lagunak ere berdin gure ganat  
Amets pollit bat zertako ez gaur sala elgarri orobat  
Eginak egin, erranak erran, noizko berriz holako bat?

## Leon apeza

Airea: Oilanda gazte

L. Oxarangori – 1999

Leon apeza, jaun erretora, berri ginuen entzuna  
Besta haundia ginuela gaur, zure jubilau eguna  
Eztei eguna, hau urrezkoa, egun ospatzen duguna  
Hiru herriri emana zaude, hoi da hoi espos laguna.

Joana duzu mende erdia apez espostuz geroztik  
Gazte gaztea airatu zinen Makea Iribarnetik  
Garazin eta Xiberon gaindi bermatu zinen ernerik  
Ortzaizen hogoi urte, bat eskas, ditutzu jin zinenetik.

Hoinbertze urte joan ondoan jendeak badu atsegin  
Artzain onaren ondoan bilduz guziak esker onekin  
Halaber zordun dago Bidarra, Arrosa ere bai berdin  
Omenaldiko besta goxo hau Leoni behar zen egin.

Omore ona dugula egun, noiz ezta ona zurea  
Kantaria ta bertsularia da zure adixkidea  
Alta hau ere hemen salatuz salbu dago ohorea  
Pilota txar bat duzula beti xoko batean gordea.

Xokoan utziz xokokeriak, mintza gaitezke lañoki  
Urteak oro kondatu gabe, bizi gaitezen alaiki  
Makear hunek, Fabienekin, badute bien mahasti  
Bi milakoa hor da zuentzat eta noiz arte nork daki?

50 urteko omenaldiarentzat hel-arazi nizkion Leon Oxarango ene lagunari bertsu xume hauk, nahi zuena egin zezala, berak edo bere apez-lagun Fabien Beretherbidekin.

# Hiru batean omenduz

*Urdoze – 10-VI-99*

(Airea: Iruten ari nuzu)

Jauna, gaur aipagarri tugu hiru lagun  
Zuri gomendatzeko ginuzkenak egun  
Zuk dakizu zoin mutil zintzoak dituzun  
Hoientzat esker on hauk otoi, otoi, entzun.

Hirur hogoi urte du batek orai joa  
Kartsuki deramala bere apezgoa  
Heleta utzi eta han ukan ildoa  
Barnadanik derama zuretzat, Jainkoa.

Anauzetik ez baita hain urrun Arnegi  
Arñok han badu bihotz eta badu begi  
Mende erdi bat artzain, xorrotx eta argi  
Horren gisa dezagun bide ona segi.

Hirugarrena Leon ere hemen dugu  
Mende erdia apez hunek ere badu  
Ortzaizen hemeretzi aurten eginen du  
Behar luke Nobliak duen heina bildu.

Gure otoitz xumean zoin garen herabe  
Ditugun urteekin oraino ez trebe  
Ardiak nahastean jarriz gure alde  
Artzain Ona behazu, gu zuri baikaude.

Apez laguneren artean omendu ginituen goxoki 1999 ko ekainaren 10 ean gure hiru lagun hauk, bakotxak bere karia zuela eskergarri: Beñat Noblia, Anhaizeko erretorak 60 urte zauzkan apezturik. Arnaud Oillarburu, Arnegiko apezak eta Leon Oxarango Ortzaizekoak 50 urte betetzen apeztuak zirela.

Hiruek ere beren herritarrekin izan zituzten urte berean esker onezko besta ederrak. Apez-lagunekin nahi izan zuten ordea hiruek «gutarteko» egun bat Baigorri: Urdozko elizan meza lehenik eta Manexenean gero bazkaria, bertsu hauk eta gehiago kantatuz alaitasunean.

## **Korala 2.000 urtean**

**Airea: Lili bat ikusi dut.**

Egun ere kantuak gaitu hemen bildu  
Lagunen xaramela eztadin ixildu  
Kantuak egundaino trixtezia hil du  
Behar dugu elgarren omorea zaindu.

Izan iduzki eder edo lano beltzak  
Ilargi xuri ala neguko gau latzak  
Kantuz arintzen dira penak eta lotsak  
Berotuz gazten eta zaharren bihotzak.

Airos da kantaria ostatu xokoan  
Lagun artean ala heiekin jokoan  
Han ezta lan solasik gauerdi ondoan  
Ez biharko griñarik ere egungoan.

Euskaldunak elizan ere du kantatzen  
Kaleria gaineratik han da han goxatzen  
Edo koralak gaitu elgarretaratzen  
Zeru-gostu bat baitu biltzar harek hartzen.

Hemengo kantariak barka dezatela  
Salatzea hogoi bat urte baduela  
Zonbait apendizgotan plantatu zirela  
Etzuten ez orduan oraiko korala.

Geroztik koraletan egin dute bide  
Ehunka lagunekin ibiliak dire  
Herri askotakoak egin ziren kide  
Xaramel goxoenez denen xarmatzaile.



Hortaraino heltzea gostaia dutena  
Horra segetu bat berek dakitena  
Bainan zer da hortako neke ala pena?  
Herrien zerbitzua, hori zen lehena.

Azken hau behar baita noizbait bururatu  
Galdeño bat ainitzi zaie gogoratu  
Nahiz aspaldi huntan ezin menturatu  
Koralak izentto bat noiz behar du hartu?

Bidarrai Nobliaenean egin ginuen Ortzaz-Irisarriko koralaren bazkaria, arrosatar, bidarritar eta suhuskundar batzu ere barne. Bazuen hogeitau urte orduko bi koralak sortuak zirela, bat Ortzaz L. Oxarango apezarekin eta bestea Irisarri E. Larrekin. Aldiz hamar bat urte zuen orduan J.Paul Minaberry gidari, biez bat egin zutela bi koralak.



Horra nortsu nituen Aiherran kantariak: bi “xahar” zituztela aintzinean, bide erakusle, hots, artzaintza hori ere!

## Beilari

Doinua: Jaun Zerukoa (Xalbador)

Bataiatu bat ere badoa Abrahamen bideari  
Harek bezala baia emanik entzuna zuen deiari  
Gu jakin gabe norateko den eta zer ditaken sari  
Jaunak badaki: harekin goazen beilari eta kantari.

Jesusek berak erakatsia bere azken aratsean  
Aitarekin bat zagoelarik gu guziak bihotzean  
Dizipuluengriña haundia zeraukan azken hitzean  
Egun eta gau zuek halaber «egon erne otoitzean».

Oro beilari gabiltza eta hainbertze irrisku bada  
Hanbat nekatu, ezin segituz, bidean ditazke bara  
Zure eskua zazu Jainkoa behartzen bagira, heda  
Flakaturikan, bidean maingu, ez utz nehor lotsatzera.

Laguntzailea zuhau zaitugu, Jauna, guk denek lehena  
Baina badugu urrezko hitza zuhauk erran zinuena  
«Niri egina da anai bati egin behar duzuen»  
Sokorrituren dugu guk ere gutaz behartua dena.

Hau ere, Jauna, zaguzu egun, otoitz xume huntan adi  
Eztugu nahi gurea dadin beila egun huntan geldi  
Ezpaita gure bizi osoa otoitzaldiz otoitzaldi  
Familiarian ta lanez lan beza biziaren beilak segi.

2.000 VII 13

Euskaldunek badugu ainitz beila gure xoko xumean eta maiz ibiltzen  
gira beilari. Bertsu hauk dira holako karia batean moldatu eta kantatu gini-  
tuenak.

# Hiruez bat Suhuskunen

Airea: Ikusten dutu goizean.

1998 urtean, Domingo Eyherabide apezak bere apeztasunaren urrezko ezteiak ospatu zituelarik, hari juntatu ziren ere Martin eta Dominika Eyherabide Domingoren anai-arrebak, orok batean jubilaukari egin zuten besta ederrean. Hau Suhuskuneko plazan egin zuten aterbe haundiaren peko bazkariarekin. Eta mahian denek kantatu ginituen bertsu hauk.

Ikusten da Suhuskunen  
Besta haundi dela hemen  
Hortaz dugu kantaturen  
Urte berean hiru haurride  
ditugularik goersten  
Salaberrian da aurten  
Urteburua egiten  
Oro bozkaria giten.

Martinen ezkontzak duzke  
Berrogoita hamar urte  
Azken negu hortan bete  
Anai-arrebek urte hartantxe  
zuten hautatu bertzalde  
Dominikak seroratze  
Domingok berriz apezte  
Orai denak norbait daude.

Nor da hoiez dakiena  
Edo sala lezakena  
Zoin dugun hor urosena  
Apeza dela, serora dela,  
ala esposatu zena  
Hok denen omore ona  
Ez ote dute berena  
Eyherabidetarrena.

Girixtino onen gisan  
Gira otoitzez elizan  
Esker on kantuz arizan  
Gero komita mahai huntara  
euskaldunkara da izan  
Bazkari eder hau plazan  
Xerbitxarien gerizan  
Ni ere komit bainintzan.

Biharko berri eztakit  
Bainan amentsak oraitik  
Nork ni beira egitetik  
Gure herriak, Elizak berdin,  
segida bat merexi dik  
Aintzina're uste dut nik  
Izanen dela beretik  
Salaberriko hazitik.

Euskal Herriko hazia  
Bipertsu eta bizia  
Dugu aski berezia  
Hoxa-gainetik Baiguradino  
baitoa gure auzia  
Otoi zeruko nausia  
Zuk beiratuko duzia  
Hemengo jende guzia?

Balaike beti zer pentsa  
Jendetasunaren hitza  
Hartaz baginte gu mintza  
Anaitasuna dugu jastatu  
gozatuz bazkari gaitza  
Familiak onhar bitza  
Gure esker-on kalitza  
Eta bihotzen eskaintza.

Hau berriz ustegabea  
Herriko xantre pare  
Elizak urreztatzea  
Salaberriko hirukoaz gain  
Bi anaiak gorestea  
Apezpikuen lorea  
Geihago da gertatzea  
Hori etzena urrea.

Suhuskunen gauza onik  
Egun hola jastaturik  
Erraiteko bat badut nik  
Balitz hemengo familietan  
beste xantza bat duenik  
Izan ez dadin jelosik  
Igor komita lasairik  
Jin gaizke denak utzirik.



Suhuskuneko eliza

## Bortua utzirik

*Airea: Iruten ari nuzu*

Alda egunak dira, irri eta nigar  
Halere erran dute alaitzeko elgar  
Ez duela trixturak (bis) irabazi behar

Graxien berak zer dion ez karkulan hasi  
Hunek ta garaztarrek zuten «elgar hazi»  
Lehen ontsa ta orai (bis) ere irabazi

Gure ertor nausia, joaiten hemendik  
Hemengo dohain berak segituko zauzkik  
Menditarrak Lapurdin (bis) ontsa emaiten dik

Lapurdin bazka onak du ongi etorri  
Nahiz udan behatuz mendi bizi horri  
Orroit, Heguy, Arradoi (bis) eta Biakorri

Jautsiko hizalarik Uztaritz'herrira  
Han ere dukek noizpait zenbait tirabira  
Ehizala lotsakor (bis) hortaz gituk fida

Apez batzu izanen dituk heure lagun  
Bainan laikoekin duk Eliza egun  
Hik heiekin parerik (bis) baduka bat nihun

Hi artzaintzan Garazin bost urtez egona  
Orai Uztaritzetik hurbil duk Baiona  
Nun zaiku geldituren (bis) lasterkari ona?

Joan artean gu ganik bidean goregi  
Lagunen zorionak onhar aitzik, Heguy  
Gain hetarat ez gituk (bis) jinen hire segi

Xoroak erran baitu: «apeza zertako»?  
Apeza badelarik, hor da Jesu Kristo  
Herriak hura baino (bis) zer du beharrago?

Kantu hau egin nuen, denek mahian kantatzeko, Graxien Heguy joan zelarik Garazitik Uztaritzera 1998 an. Damurik, ez baitzuen luzazkoa izan gure lagun Graxienek Uztaritzeko egonaldia. Alta bere kar guziarekin hartua zuen bere misione berria, osasun eder harek iraun balio!



Aiherra, eliza eta seroren komentua.

## Mende erdikoa

Arnegi: 18-VII-99

*Airea: Sorlekua*

Berrogoita hamar urte, xuxen dut ustez kondatu  
Arnegiko erretor hau zela apez ordenatu  
Lehenik beste hogoi bat urtez sail berrian zen moldatu  
Holaxe baitzen gamartiarra Arnegikotzat trebatu

Nazarete ta Gamarte, zer ditake hortik jalgi?  
Frantziako lehena da Espainiatik Arnegi  
Teologia jakin behar du erretorak hein bat ongi  
Artzaintzan aldiz xuxen atxikiz ardi bakotxari begi

Mende erdi batez apez, gehienak muga huntan  
Egun eder ainitz da hor, goibelak ere batzutan  
Jaun erretora, ez dugu jakin noiz ditutzun txarrak ukan  
Irriño baten iguzkiz baita argitzen lana zutan

Oroz gainekoa dugu egun gozatu duguna  
Meza saindu kartsu hartan zen Jaunaren maitasuna  
Oraixe berriz mahai hunek du ahantziko eztuguna  
Hoik oro apez hunen eskutik: oi zer herriko fortuna

Herri baten zoriona ezta ustegabekoa  
Zor ederrik dugu hemen goraki aitortzekoa  
Ez ginuen guk neholaz ere jasta ahalko gaurkoa  
Ez balaukute zaharrek erain hazi paregabekoa

Jaun ertora zuk bizia eman duzu denen alde  
Halaber gu gaur zurekin bihotz bat egina gaude  
Ai guhaur ere egin baginte herri hunen ume trebe !  
Biharko arnegitarren kartak gure eskuetan daude

Bizi hunek geramatza noizbait gutien ustean  
Ez lotsa ez, legea da, gauden gu ere legean  
Jaun erretora ezta prisarik, zure Arnegi maitean  
Zaude gurekin osasunean, gazte bat ikus artean

Arnegin, bere erretor herrian izan zuen, oroitzekoa, herri guziaren besta Arnaud Oillarburu apezak. Kantu hauk ere kantatu giniozkan omore onean Arnegi Klementeneko bazkari on ederrean. Halere, omore on eta goxotasunez, apeza bera izan zen orotako dohatsuena, hain luzaz eta goxoki zabilalarik denekin eta bakotxarekin mahi batetik bestera, ala arnegitar, ala gamartiar eta oro adiskide zauzkan heien guzien artean.



Argentinako kusiekin:  
Alberto eta Betiren familiaz besteak.



# Lehen kusiekin

1999-IX-5

**Airea: Kantore berri, Borddeleren kantuak.**

Jean Pierre eta Marianita, zueri ongi etorri  
Zuen ondora lehen kusiak hurbildu gira elgarri  
Buenos Airesen han geldituek zauztete hunat igorri?  
Besta goxo bat eskain dezogun elgarren parada horri

Bi familia ziren hastean, Belarrea ta Karrika  
Hango bi urtxo ez omen ziren hasi elgarri harrika  
Mañana eta Mixelek zuten jakin elgar nola maita  
Maitasun haren kafiratako hartuz Hego-Amerika

Geroztik hiru seme-alaba Argentina hartan sortu  
Hango haurride ta hemengoek pario zutena hartu?  
Denaden beren familietan etziren alfer zahartu  
Heieri esker Amerika ta Europa ziren elkartu

Manexenea egundainotik da ostatu famatua  
Lehen zaharrek beren zintzurra freskatzeko asmatua  
Guk berriz egun lehen kusiek hemen eginik hautua  
Berri dadila jendakiaren ezin hautsizko tratua

Tratu horiek familietan ezpaitira oraikoak  
Arbaso eta zahar maiteak eztugu ahanztekoak  
Eztituguia guk heien ganik ateak eta gakoak  
Gure aldian izan artean guhaur heien betekoak

Amerik'ala Europa huntan, nunbait behar baita bizi  
Eztakigu ez norako diren haurrak bihar edo etzi  
Nun nahi ere gure alorra eztezagun larre utzi  
Eta bakotxak nundik jali zen ez beza nehoiz ahantzi

Solas hau ere etxondoaz da gaurkoan kantatu behar  
Hazaldi oso batek han zuten haurride aurkitu elgar  
Batto etxean gelditu bazen, eta gu noiztenka onhar  
Ohantze hura berdin beroa dagola egun ta bihar

Lehen kusiak, zuen denentzat huna nun dudan azkena  
Anai haurriden ondotik bainaiz zuendako hurbilena  
Bizian behin gertatzen baita manatuzkoa etzena  
Fidagarri zait izanen dela norbait oroituko dena

Lehen kusien bazkaria egin ginuen 1999 ko irailaren 5 ean Manexeneko jatetxean oro bildurik. Parada huntaz ginen baliatuak hortako: Marianita eta Jean Pierre Ospital gure lehen kusiak (hunen aita Urdoz-Karrikakoa eta ama Belarrekoa) ginituen gure artean, Buenos Airesetik bisitan etorriak. Hemen ere, alaitasuna, errexki asma ditakeen bezalakoa.



Urruña.

# Zahartzeakoak Baigorriin

Airea: Bettiri Uhartekoa.

Baigorri ezta Parise bainan hau da gurea  
Eta gurea delakotz, zilar eta urrea  
Aspaldi hemen sorturik gu hoin gazte ordea  
Horrek baitauku berriitu egungo omorea.

Oraino gazte ginela nor ote zen ohartu  
Egun bat hemen biltzeko beharko zela hartu  
Sariak eta medailak holakoak behar tu  
Eta nork eztu nahiko kantu huntaz eskertu.

Baigorri orai baditu Organa eta Etxauz  
Eta orai itzuli da xahartzeakoer buruz  
Aspaldian ginauden gu holakoan aiduruz  
Orai da orai biziko jendea hemen urus.

Bainan baditugu ere herritik urrundiak  
Denetan asko hegal du Euskaldunen munduak  
Erran bezala, bildu-ta, egin tzagun kantuak  
Herria ez ahanzteko bihotz eta gogoak.

Ez ahanztea ona da bainan behar da bizi  
Nork daki nolakoa den bihar ezpada etzi  
Atxik elgar eskuz esku, nehork ez dezan etsi  
Guk baigorriar erroak nola gintzazke utzi.

Kantu hau altxa baladi Oilandoiko gainera  
Handikan aira dadien gu denen xaramela  
Baditake ba mendian nunbait entzumen dela  
Herriko xahar-gazteen Amaren errefera.

2000/10/01

Kantu hauk Irulegin eman ginituen, Denen Etxean, 2000 ko urriaren lehenean egin zen bazkarian; han bildu ginen egun hartan, Baigorri Otso-biko Angele eta hunen lagun batzu aintzineko, Baigorriko «erretiratuak» ehunka, batzu hurbil bizi eta besteak urrundik ere etorriak.

## Haurra sortu

Airea: Xalbadorren «Haur batek bere amari».

Gure etxean egun argi bat piztu da  
Deneri botaz bere distira lillura  
Haizatuz haurrak gero beltzaren histura  
Maitasuna da gaur gizon egin mundura

Etzen irrik, zerua zen nahasia  
Aitaxik ere elea galtzen hasia  
Orai entzunik ñiñiaren garrasia  
Hor da ait'amen zorionaren grazia

Eguberriak hurbil baitu udaberri  
Ekarri dute hunarat lore ihaurri  
Ainitz aingeru irriz dagozke haur horri  
Zu, biziaren lorea, ongi-etorri !

Gu lore horrek zahar gazteak bil gaitzan  
Alai gaitzke etxean nola elizan  
Hauxe opatuz, ameslariaren gisan  
Ez gintazkea egun xoil batez haur izan

Berriz sortzea ezin eginezko bada  
Haurrari beha bederen gaitela bara  
Ezeztatzeko etsaien beldur ikara  
Gauden haurraren begien mirail hortara

Haur maitea zu nundik ote zinen heldu  
Opari hori nolaz da-ta noren kondu  
Buraso onek badute merezimendu  
Etxeko suak beretik irauten badu

**Belarrean zen Andoni berantetsia  
Osatu nahiz hiru haurren familia  
Biharko sailaz huna denen gutizia  
Molda dadien nola den ontsa hasia**

Baigorri Belarrean bazuen hamar bat urte bi hurrekin zaudela Janin eta Jan-Leon. Epe horren buruan hirugarren baten itxaropena ilusikor itzuli zitzairen, abiatu haurra galdu baitzuten. Halere, huna beste urtetsu baten buruan Andoni 2.000 urtea bururatu baino lehen heldu dela. Bertsu hauk igorri nizkien aita eta ama alaiari ordu berean. Nik aldiz, ukan nuen iloba-txoaren bataiatzeko grazia 2001 eko urtarrilaren 13 an, Baigorriko elizan zirelarik bilduak 35 bat lagun, J.P. Cachenaute jaun erretora gidari. Bataio denboran azken bertsu horren kantatzeko ez zuten paper beharrik izan Eñaut eta Maider, Andoniren anai-arreba haundiek... guk denek ere kantu hori osoki eman aintzin Manexeneko bazkarian.



2000ko Urtarrilaren, 13a: Andoni Larre-ren bataioa

## Bi Domingo apezak

Airea: Urrundik ikusten dut.

Egungo bazkarian goxaturik ontsa  
Dugun segi ekarriz galdatu laguntza  
Bi Domingo batean, ez izanak lotsa  
Bakotxak du gaur bete urrezko ezkontza

Amerikano seme zen bat, garaztarra  
Ez baitzen han dolarrez fortuna bakarra  
Erroinean bero zen fedearen garra  
Semea ere sortu, goizeko izarra

Bestea Suhuskunen, laborari seme  
Azken hau ere etzen laneko herabe  
Bainan jada lau mutil, hau zen lanik gabe  
Jesusek egin zuen gizon arrantzale

Donibane-Ziburu ta semenario  
Ibilia nuk zintzo, lehen horrek dio  
Besteak Garazitik hauxe kanta lio :  
Uztaritz-Amikuzen, ni berdin serio

Hazparne ta Baionan mintzo bada nehor  
Domingozko eleak dabilta naski hor  
Finalista solasak, zendako ez aitor  
Xuritzeak zure gain, kalonje kofesor

Zoin zen erran zuena: ixil erretira  
Egiten da Beloken Jaunaren mendira  
Norbaitek ihardetsi: zu joaiten bazira  
Fraide mutuak ere mintzatuko dira

Domingo bi apezak, hemengo kalaka  
Ez dadila nehoren mingarri bilaka  
Onhar burtxoro baten aitorrak milaka  
Zorionak bier ta ele txarrak barka

Omenaldiz omenaldi, parada hau ere izana dugu Donibane Garazin: 1998 urtean bi apez izan ginituen herrian, beren apeztasuneko jubilaua bete eta ospatu zutenak, biek batean. Bat zen Dominique Irigoien herriko semea (Donibane Erroineko apeza) eta bestea Domingo Eyherabide Suhuskundarra eta guk Donibanen apez-lagun ginuena. Biek ere batean ospaturik egun hori, bertsu hauk ginezteien kantatu, denek zakiten doinu errex batean.

# Frantsesenea 2000 bezperan

Airea: Iruten ari nuzu.

Garazi-Baigorriko laborari gazte  
Huna ikastegi hau bi miletan haste  
Lehenak zireztela (bis) eztuzue uste  
Frantseseneak tik gaurk berroita sei urte

Euskal Herriak beti lanean dik jakin  
Seme-alabak ariz beren aitamekin  
Zaharrer-segi puttil (bis) zer eztute egin  
Azkenean hor baita mende berria jin

Aintzineko denboraz ikasirik gaude  
Laboraria zela letretan herabe  
Mongaston eta dira (bis) hor izanak trebe  
Zonbait lagundu dute eskola jin arte

Mende berriarekin piztu zen argia  
Mayorgan zen lehenik ideki begia  
Laborari gaztea (bis) lerdan ta propia  
Hunentzat behar zela eskola berria


Hemeretzi ehun ta berroitamahiru  
Hartan Frantsesenea zen minetan sortu  
Ta beti etxez etxe (bis) ezta mirakulu  
Donazahar, Baigorri, Uharten haunditu

Zonbat jende eztugu gaur behar goretsi  
Sortzale, arduradun, nork eztu merezi  
Guziz erakaslerik (bis) etzagun ahantzi  
Denek baitute bota gerorako hazi



Gure etxe xumeak ditezen arrima  
Eta gazte batzuen biziaz anima  
Hemen ikasten dena (bis) nola ez estima  
Atxik-ak hik, Eskola, Euskaldun Arima.

Hauk dira Frantseseneko Laborari Eskolaren estrena eta beneizioe egunean, 1999 urteko abendoaren 10ean, orok batean kantatu ginituen bertsuak.



„J. B. Etcharren, aspaldiko kide ona.

## Aitaren etxean

Kantu hau da 2.001 koralen bestako eskatu zitzaidana. Koralen Elkar-teko arduradunek hautu hau egin zuten: martxoaren 25 ean zela besta hori aurten, udaberri hastean, eta denbora berean Garizuman sartzeko egunetan Baigorri hain zuzen. Airea edo doinua ere hautatua zuen Elkar-teak: lehe-nagoko hilen kantu zaharra «zer dire gure egunak», galtzerat uztea merezi ez duena, haatik ez hain doinu nigartsuan kantatzekotan bainan udaberriko esperantza gustu batean.

Aitaren etxean bada seme alaben leku  
Sar gaiten Jaunak otoizka komit egiten dauku  
Neguko haize latzetik arraberotzen gaitu  
Bihotzen eskas-goseak begote haren esku

Bainan guk Aita utzirik beti kanporat indar  
Ororen galtze zorian, ala gu ala elgar  
Basamortuak eztiro lore-fruiturik ekar  
Etxerat itzul gaitela egun ezpada bihar

Garizumako asteak kurutze-bide dira  
Hor egin dezan kristauak urteko erretira  
Ez lotsa, horra martxoa, lilitan apirila  
Argitzaile, berritzaile, Bazkoa jin dadila

Lillura batean zagon aspalditik herria  
Zerutik sortuko zela kristauen aberria  
Esperantzaz loratu zen gure udaberria  
Pitz dezola munduari berak ukan argia.

## 75 urte beteak

Airea: Oilanda gazte.

Nor da munduan mende oso bat bizitzekotan sorturik  
Ene aldetik ez nauzu, Jauna, egin holako traturik  
Hirurogeita hamabost urte aurten beteak ditut nik  
Hainbat badago hortara gabe beste munduan dugunik

Hainbertze urtez, iguzki, ekaitz, pasatu ditut ederrak  
Haur denboratik egungoraino kurritu ere bazterrak  
Ororen buru bere konduak atera bitza norberak  
Bizi luzeak eman guziez zor ditut egun eskerrak

Sortu gintuen paregabeko gure herri hunen lurrak  
Zer zoriona ez sorturik gu beste nunbaiteko haurrak  
Hemen ikasi tugun egiak hantxe baitira gezurrak  
Lur hunek eta Aitek dituzte merezi gure agurrak

Adina jinik ez gaitezke gaur beti dolamenez mintza  
Kurrinka ez da gure solasa, gizonak badugu hitza  
Azken beltzean, bi makilekin, herrestan baginabiltza  
Orduan ere ez dezagun gal itxaropenaren giltza

Bainan adinak ere baditu nunbait bere abantailak  
Hola iragan diren ondoan hoinbertze urteren mailak  
Zuhaitzen gisa galdua gatik loreak eta hostailak  
Laida gazteak ikusten ditut, aintzinekoen mirailak

Mentura hortan bizi luzeak badu bere sustantzia  
Denborarekin bakotxak biltzen duen esperientzia  
Zaharrak dauka neurria eta gazteak odol bizia  
Biek elgarri esku emanez, hor dugu irabazia

Gazte horiek, betikoa da, geroa berea dute  
Aldiz gu ere orai artean berekin jasan gaituzte  
Egia-erran, nork ez ote du hemengo bizia maite  
Nik lurreko hau segituko dut zerukoa ukan arte.



Donostian, bertularien omenaldia. Omenduak; Mariano Izeta zena, Teodoro Hernandorena zena (ez da ikusten) eta Emile Larre.

# Aurkibidea

---

Aintzin-solasa .....	7
Oihamileko hegia.....	11
Mahuri eta kañika .....	13
Eskolarat .....	17
Han heziko hute.....	21
Urdoz Karrikakoak .....	25
Eskolako lagunak.....	29
Itanazteg irat.....	33
Haitzalde.....	37
Harginaeneko erreka.....	41
Haitzaldeko belarrak.....	47
Ainaxoko .....	53
Etxeetako operak .....	57
Bidarraitarrak.....	63
Aitatxi amatxiak .....	69
Bastida eta Urdoze .....	73
Antzara bere mokoaz.....	77
Gu baigorriar?.....	81
Auzo herrietan .....	87
Enautenea, Otikorenen .....	93
Miel eskalapoin egilea.....	97
Mixelengo zubia.....	103
Bideak eta bidexkak .....	107
Bi etxetako xakur.....	111
Ez egin iririk.....	117
Zazpi urte.....	123
Denak erran behar-eta .....	131
Zuberoan urte bat .....	139
Bost lagun.....	147
Bizikletez.....	153
1945. Semenario haundirat.....	157
Oxobi ere .....	163

Pilota eta kirolak.....	169
Soldadogoa .....	175
Paxkal ene laguna.....	179
HERRIA kasetak .....	183
Egun haundien bezperak .....	189
Zango bat barnean .....	201
Urratsa .....	207
1951an apeztuak girenak.....	213
Hazparneko Bikaritegia.....	215
Ortzia bezala.....	229
Sokorriko Ama ganat.....	241
Bikarioen biltzarra.....	255
Herriz herri .....	259
Aiherra: Bihotxen lurra .....	273
Beharrik ez ninduzun begiratu... Irisarritik .....	291
Eta Suhuskune? .....	305
Baigorri gairi, Garazin gairi.....	307
Udazkeneko .....	315
Ara berriak orotan .....	319
Nik ere Amerikak .....	325
Berriz haste balitz.....	329

### **Biziaz kantari**

Baigorriko organoa.....	332
Goazen aintzina .....	333
Leon apeza.....	334
Hiru batean omenduz .....	335
Korala 2.000 urtean .....	336
Beilari .....	338
Hiruez bat Suhuskunen.....	339
Bortua utzirik.....	341
Mende erdikoa.....	343
Lehen kusiekin .....	345
Zahartzekoak Baigorri.....	347
Haurra sortu .....	348
Bi Domingo apezak .....	350
Frantsesena 2000 bezperan.....	352
Aitaren etxean.....	354
75 urte beteak .....	355

## **Auspoa-ren azken liburuak:**

**(264) Joxe Mari Aranalde:** *Bertso-kontuak.*

**(265) Bizente Barandiaran:** *Tratabideak.*

**(266) Sor Justina Aldalur:** *Ama Birjiñaren bizitza.*

**(267) Ataño:** *Ondareztat gorrotoa.*

**(268) Mariano Ostolaiz:** *Senda-belarrak.*

**(269) Tomas Gerrikagoitia:** *Arantza eta larrosa.*

**(270) Andoni Basterretxea:** *Ene Ondarru.*

**(271) Ataño:** *Jesusen bizitza.*

**(272) Mikel Aizpurua:** *Hasi, Azpillaga.*

**(273) Emile Larre:** *Ene artzain-etxolak.*



1051111

G-129/22



Urte hauetan gure herritar askoren bizitzak eta oroipenak argitaratuak ditu *Auspoa* onek. Baina apezenik ez, nahiz eta zer kontaturik asko izango duten bai gure herrietako erretorek eta bai itsas harunzko lurraldeetako misiolariak ere. Utsune hori gaur betetzen da, ordea, Emile Larre adixkidearen autobiografia honekin.

Pelikula batean bezala ikusten dugu hemen baserritar mutiko baten bizitza: eskolara joan-etorriak, lagunekin jostatzeak, etxeko lanetan laguntzea... Ondoren, semenarioko ikasketak eta apez lanak, zenbait herritan eta herri biziari loturik.

Baiña liburu hunek ez digu gizaki baten bizitza bakarrik eskeintzen. Aintzin-solasak dionez, "1926-etik hunat 20. mende hori bisitatzen dugu, urratsez-urrats, herri hunen itxur-aldatze guziekin". Bidai guziz interesgarria, beraz; baina bai erakargarria eta aberatsa ere.

Eta hori dana Baxenabarreko hizkuntza jator eta gozoz jantzia: "euskara garbi iturri hortarik sekula baino gehiago edatearen beharra badugularik".

ISBN 84-95378-37-X



9 788495 378378

Auspoa